



THE KATHARINE

BERBIA

AT&T

2878

Héguigaray, curé de Porloc, 1




*Jesus was exalted upon the mount, until he disappeared.*

卷之三

A.T.V.  
2878



**IESU-CHRISTOREN  
EBANYELIO SAINDUA.**



M - 9960  
R - 4376

# IESU-CHRISTO GURE IAUNAREN TESTAMENT BERRIA

LEHENAGO

I. N. HARANEDER

DONE IOANE LOHITSUCO IAUN APHEZ BATEC  
ESCUABARAT ITÇULIA;

ORAI, ARTHA BERECI BATEQUIN, GARBIQUIAGO,  
LEHEMBICICO ALDICOTÇAT AGUER-ARACIA,  
LAPHURTAR BI IAUN APHECEC;

IAUN APHEZPICUAREN BAIMENAREQUIN.



BAIONAN,  
E. LASSERRE, Aphezpicuteguico liburu egilea baithan,  
Orbeco earrigan, 20.

—  
M. DCCC. LV.

卷之三

## LEKHUCOTASUNA.

---

ASPALDIOX arima argitu eta Yaincotiar guciak galdez çaudesen noiz bada escual herrian escuaraz iracurtuco cen Jesu-Christoren Ebanyelioa. Hekien fede biciac, eta ez gutiago hekien bihotz kharxuec, nahi çuten cerutic iauxi den *Berri-on* hori aditu hizcuntza çabar eta goço hortan. Eguia da noizbait aguertu içan direla lau Ebanyelioac escuararat itzulia. Bainan ez çuten ardiexi içan Eliçaco buruça-guien baimena : aitzitic, mereci çuten betaz ar-buyatuac içatea, beldur içateco baitzen Yauaren hitza ez cela liburu hartan aski garbiki ecarria. Berizalde, ez cen han aurkhitzenten gauza gaitzen aditzea errech cecaketent chehetasunie.

Horri darraicola, diocessa hontaco bi laun Aphecec, orai nahi dute obretan eman, dembora duela gogoan çarabillaten chedea, aguer-araciz escuararie garbienean lau Ebanyelioac, ceinac, bertze orduz, içan baitire latinetic oscuararat itzuliac aphez ai-phatu batez.

Arta handirekin iracurri dut, Yaun Aphezpicuaren manuz, itzulari yakinxu eta argitu hequien obra; eta aithortu behar dut, eguiari bide eguiteco, ez dudala hortan deus ere ediren arguiarat aguer-tzetic guibela deçakenic. Erran ere behar dut Escualdunec, liburu saindu han iracurtuz, hainitz hobokiago eçaguturen datela bere Yainco Salbatzaitea, eta lehia guebiagorequin jarraikico çai-zcola haren irakhaspenari, hura, aguiar, kharxukiago maitatzeko.

Bayonan, mayatzaren 15.<sup>ma</sup> 1855.

HARAMBOURE,

*Bicario Yeneral.*

# CILHEGUIGOA.

---

Gue, FRANÇOIS LACROIX, Bayonaco Aphezpicuac, ikhusi ondoan M. HARAMBOURE, gure Bicario Yeneralaren lekhuco-tasuna, gure meçuz examinatu dituen, eta gorago aiphatuac diren lau Ebanyelio es-cuararat itzulien gainean, onhesten dugu içan daitecen imprimatuac.

Emana Bayonan gure sinaduraren, gure armen cigoiloaren, eta gure segretarioaren sinaduraren azpian.

Mayatzaren 16.<sup>an</sup> 1855.



† FRANÇOIS LACROIX,  
*Bayonaco Aphezpicua.*

Vaun Aphezpicuaren manuz :  
FRANCHISTEGUY,  
Calonyea eta segretarioa.

## MEÇA SAINDUCO

### OTHOITÇAC.

---

*Meça aitcineco othoitça.*

Çure aldare sainduaren oinetan ahuspez emanic, adoratzen çaitut, Iainco abal guciac ditütçuna. Sinhesten dut cinez, entçutera nohan Meça hau dela Iesu-Christo çure Seme Iaincoaren gorputçaren eta odolaren sacrificioa, Calbarrioco mendian guiçon gucientçat escaini çuen hora bera, nahiz eztuen khurutcean eta aldarean molde berean escaintzen. Eguicu çure dohain bereci batez, oi ene Iaincoa ! escaïn dieçaçudan behar beçala, apheçaren escuz. Beraz, bat eguiten nai-celarie Iesu-Christoren eta haren Eliçaren che-deequin, escaintzen darotçat : 1.º Çure iabetasun guciz iaincozoari çor çaoen eçagutça eta ohore, ororen gainecoa, bihurtcecotçat : 2.º Eguin daroz-quigutçun on eta ongwi guciez esquerrac emai-tecotçat : 3.º Munduco bekhatu guciez, eta bereciqui eneez, çure ganic barkhamendu éscatcecotçat : 4.º Eta azquenean, ardiets ditçadan çure ganic arimaco salbamenduarentçat eta gorputceco biciarentçat behar ditudan laguntçac. Uste dut emanen darozquidatçula gracia hauc guciac. Iesu-Christo çure Semearen bidez, ceinac nahi baitu berac içan sacrificio adoragarri huntaco apheça eta escaintça.

*Mecaren hastean, eta CONFITEOR erraitean.*

Ene bekhatuen iaquiteco, oi ene laincoa ! eztun arren ene aithorraren beharric, eta ene gaichtaqueriac oro ene bihotzeñ iracurteen ditu-

### VIII

Leun arren, aithortcen darozquitçut halere ce-ruaren eta lurraren aitcinean; aithorteen dut hobendun içan naicola çure alderat gogoz, hitcez, eta egitez. Ene hobenac handiac dira, bainan çure urricalmenduec eztute neurriric. Urrical na-quiçnla, oi ene Iaincoa! Orhoit çaité çure haurra, çure escuz eguna, çure Semeac erosia naicela.

Biryina Saindua, ceruco Aingueruac, parabi-suco Sainduac, eguique guretçat othoitz; nigar-rezco eta laceriazco haran huntan gaudecen biz-quitaranean, esca eçacue gracia guretçat, eta ar-diels dieçaguçue bekhatuen barkhamendua.

### INTROITcan.

Iauna, çuc Patriarkhei eta Profetci eman dio-totçute, çure Seme bakhotcha lurrerat iausten ikhusteco guthicia guciz khartsuac; indaçu halaber heien kharretic cembait inhar bedere; eta eguiçu sor dadin ene baithan, Iesusen bidez, çu-requin bat içaiteco Ichia saindu bat.

### KYRIE ELEISONetan.

Auhenez eta hasbeherapenez nagotçu, oi ene Iaincoa! Arren urrical çaquizquit; eta baldin hats har aldi guciez, bici naiceno, erran banie-çaçu ere : *Iauna, nauçun urricari*, ezliteque as-qui ene bekhatuentçat; ecen hambat eta hain handiac dira!

### GLORIA IN EXCELSIS, Latinez.

Gloria in excelsis Deo : Et in terrâ pax homi-nibus bona voluntatis. Laudamus te. Benedici-mus te. Adoramus te. Glorificamus te. Gratias agimus tibi, propter magnam gloriam tuam : Domine Deus, Rex cœlestis, Deus, Pater omni-potens : Domine, Fili unigenite, Jesu-Christe : Domine Deus, Agnus Dei, Filius Patris. Qui tollis peccata mundi, miserere nobis. Qui tollis peccata

mundi, suscipe depreciationem nostram. Qui sedes ad dexteram Patris, miserere nobis. Quoniam tu solus Sanctus; Tu solus Dominus; Tu solus Altissimus, Jesu-Christe: Cum Sancto Spiritu, in gloria Dei Patris. Amen.

### *GLORIA IN EXCELSIS, Escuaraz.*

Handiets bedi Iaincoa ceru gorenetañ, eta beute baquea lurrean bihotz çuceneco guiconec. Gores-ten çaitugu, Iauna, on-erasten darotçugu, adora-tcen çaitugu, dohatsu aithorteen çaitugu, ceren baitçara ere guciz dohatsua, Iainco Iauna, ceruco Erreguea, Aita Osoqui-ahaltsua!

Bai cu ere Iauna, Seme bakhotcha, Iesu-Christo; Iainco Iauna, Iaincoaren Bildotsa. Aitaren Semea; Iurreco bekhatuac khentcen ditutçuna, urrical gaquizquitcu; Iurreco bekhatuac khentcen ditutçuna, cabal eçotçu beharriac gure othoitçari; Aitaren escuinean iarriric gaudena, urrical gaquizquitcu; ceren cu baitçara bakharrie Saindua, cu bakharrie Iauna, cu bakharrie Oroz-gainecoa, Iesu-Christo, Ispiritu Sainduarequin, Aitaren do-hatsutasun berean. Hala biz.

### *OREMUS edo Othoitctan.*

Eguioçute beguitharte, Iauna, guretçat egui-ten çaiquitçun othoitcei; igutçu Eliça gure amac, Apheçaren ahoz, gure onetan galdefcen darozquitçun laguntçac eta graciac. Hala da, ez-cara gai entçun gaitçatçun ere; bainan begui-rauçu, othoi, escalcen gatçaiquitçula Iesu-Christo çure Semearen bidez, ceina çurequin bici baita eta dohatsu mendeen mende guictan. Hala biz.

### *Epistolan.*

Epistola huni beguiratcen diot, oi ene Iaincoa! çure nahiak erakhastecotçat egortcen darotaçun

guthun bati beçala; othoi, indaçu manatcen da-rotaçunaren eguiteco indarra. Çuc ceronec, lau-na, Profetei eta Apostoluci aguertu diotçatçute isquiribuz utci darozquiguten eguiac; eguidaçu gracia argui neçaten heien arguiec; phitz eçaçu, ene bihotcean, hec erretcen cituen su hura bera, maitha çaitçadantçat, eta bai cerbitça, heiec beçala, ene bici gucion.

*Ebanyelioan, chutituric.*

Chutitcen naiz, oi gucion gaineco çaren Legue-eguilea! adi-arazteco, çure Ebanyelio Sainduan diren egua handientçat, nagoela ene odola ere ichurteerat. Eguia horiec ene bihotcean ceronec, othoi, launa, barneraino gogor eçatçu; horien arabera içan bite ene gogoetac, ene hitçac, eta ene eguite guciak. Eznaiz guehiago iarrai qui nahi çure erakhaspenei baicen; mintça çaitçu, launa; huna non entçuten çaitudan sehiataric ethorcor-renac beçala. Indaçu çure erranen eguiteco ham-bat indar, nola baitut gothortasun heien sinhes-tean.

*Credo, Latinez.*

**Credo in unum Deum, Patrem omnipotentem, factorem cœli et terræ, visibilium omnium et invisibilium : Et in unum Dominum Jesum-Christum, Filium Dei unigenitum ; Et ex Patre natum ante omnia secula ; Deum de Deo, lumen de lumine, Deum verum de Deo vero ; Genitum, non factum, consubstantiale Patri, per quem omnia facta sunt ; Qui propter nos homines et propter nostram salutem descendit de cœlis ; Et incarnatus est de Spiritu Sancto, ex Mariâ Virgine, ET HOMO FACTUS EST ; Crucifixus etiam pro nobis sub Pontio Pilato, passus et sepultus est ; Et resurrexit tertią die, secundūm Scripturas ; Et ascendit in cœlum, sedet ad dexteram Patris ; Et iterūm venturus est, cum gloriâ, judicare vivos et mor-**

tuos; cuius regni non erit finis : Et in Spiritum Sanctum, Dominum, et vivificantem; qui ex Patre Filioque procedit; Qui cum Patre et Filio simul adoratur et conglorificatur; qui locutus est per prophetas: Et unam, sanctam, catholicam et apostolicam Ecclesiam. Confiteor unum baptisma in remissionem peccatorum. Et expecto resurrectionem mortuorum; Et vitam venturi seculi. Amen.

*CREDOA, Escuaraz.*

Sinhesten dut Iainco bakhar bat baithan, Aita gueziz ahaltuan, ceru-lurren eguilean : Eta bai, Iaun bakharra den, Iesu-Christo baithan, Iaincoaren Seme bakhoitcean; ceina sorthu baita mende guciac baino lehen Aitaganic, Iaincotic Iainco, arguitic argui, Iainco eguiazcotic Iainco eguiazco; sorthua, ez eguna, Aitarequin içaite batetacoa; hartaz oro eguinac içan dira; hora, gu guiçonac gatic, eta gure salbamendua gatic, iautsi içan da ceruetaric; eta harto içan du haragui Maria Biryina ganic, Ispiritu Sainduaren indarrez; khurutcean ecarria içan da guretçat Poncio Pilatusen aguinctaren azpian, pairatu içan du eta içan da chortcia; eta birphiztu içan da chirurgarren egunean Isquiribuen arabera; eta igan içan da cerurat, non iarria baitago Aitaren escuinian; handic berriz ethorrico da bere handitasunean bicien eta hilen iuiatcera, eta eztu ukhanen ondoan haren erresumiac mugaric. Sinhesten dut Ispiritu Saindu Iainco dena baithan, biciaren ithurburuan, Aita eta Semea ganic ialgui denean, Aitarequin eta Semearequin adoratu eta goretsi behar denean, Profeten ahoz mintçatu içan denean. Sinhesten dut Eliça baithan, ceina baita bakharra, saindua, orotarat hedatua, eta Apostoluetaric hunat berbera diraucena. Aithorteen dut bathaio bat dela bekhatuen barkhamenducotçat; eta iguriquitcen dot hilen birphiztea, eta bicitce bethierecoa. Hala biz.

*OFFERTORIOAN, edo escaintçan.*

Creatura hilcor bat, eta bekhatu huts den bat baicen eznaicen arren, escaintcen darozquitçut Apheçaren escuz, oi eguiazco lainco bethierecoa! ogui hori eta arno hori, ceinec behar baitute içan aldatuac çure Seme Iesu-Christoren gorphu-terat eta odolerat. Har eçaçu, launa, ecin erranezco Sacrificio hau, amultsunqui eta goçoqui; eta utz naçaçu, escaintça saindu horrequin batean, egin dieçaçudan ene gorphutçaz, arimaz, on-thasunez, biciaz eta ditudan guciez, emaitça oso bat. Eguiçu nitarie, oi ene laincoa l'creatura berri bat, ogui hori eta arno hori çure gúcizco ahalaz aldatcera dohazquitçun beçala.

*Apheçac erhiac garbitcean.*

Garbi naçaçu, launa, sacrificatua içaitera dohatçun Bildotsaren odolean; thona eta narraio guciataric chahutua, eta çure graciaren soineco ederraz iaunteia, çure ganat escu aratz eta bekhatu gabeac heda detçadantçat; eta içan deça-dantçat uste gothor bat, iar-aracico naucula, egun batez, çure hautuei cernan aphaindu dioçotuten mahain çorionezcoan.

*Ichilltoric Apheçac erraiten dituen othoitctan.*

Onhets eçaçu, oi ene laincoa! çure icenaren ohoretan, eta gure eta Eliça sainduaren onetan, escaintcen çaitçun sacrificioa. Haren chede beretan sarthuric, hunna non galdetcen darozquitçugun, Eliçac orai, Apheçaren bidez, escatcen darozquitçun gracia berae. Hortacotz bat eguiten naiz Apheçarequin, aithor eta eman diefçagutçuntçat gure galdeac, Iesu-Christo gure launaren icenean.

*PREFACIOAN eta Sagaran.*

Ordu da, ene arima, altcha gaitecen behere huntaco gauça guciez gorago. Erakhar eçatę, Iauna, erakhar eçatę gure bihotçac ḷu ganat : on har eçaü, çuri çor çazquitçun esquerrac eta aithorra bihurtccotęat, nahas detçagun gure boz ahulac ispiritu dohatsuen cantu eta aharaia bozcariozcoequin, eta erran dieçaçugun, leku atcerri huntan, hec dohatsulasuneco egoitçan cantatcen darotęutena : Saindia, Saindia, Saindia da armadetaco Iainco Iauna; içan bedi goretsia ceru gorenetaraino.

*SANCTUS erran ondoan.*

Aita bethierecoa, artçainen artçaina, çure Eliça beguira eçaü, eta bida eçaü ; bere erroen gainean gogor cçaü, eta beda eçaü lurraren bazter guciatarat. Emocute gogo eta bihotz bat cristau guciei. Lagun eçatę gure Aita Saindia, gure Aphezpicua, erresuma huntaco buruçaguia, herri huntaco arimen artçaina, eta çure Eliçaren sinhestean diren guciac.

*Handic Iaunaren altchacerainocoan.*

Iauna, orhoit çaité nitaz çure urricalmenduan, eta Sacrificio hunen bidez, indatę behar ditudan berthute guciac. Eta batac bertcearentçat othoitz eguiteaz aguindu darocençunaz gueroz, arran entçun eçatę, Iauna, onhets eçatę, aphal-tasun eta ustantiça oso batequin eguiten darozquitçudan othoitçac ene ahaideentçat, adisquideentçat, ongui eguileençat. Halaber, gogo guciz on batez, gomendatcen darozquitçut ene etsaiac, eta cerbait gaizqui egnin abal darolaten guciac; ahantz bequizquitçu hequien hobenac eta eneac; khen dietçadatę bihotcetic heien altera dituzqedan khirastasun eta gaitcirizco gu-

ciac, eta eguin diecadaçu dohaina heien, behar beçala, onhestecoa. Öi ene Iaincoa! Iguçu guciei bague eguiazco bat, ceinac, elkharrequin bathasunean atchiquitcen gaituela, emanen baicaitu halaber bathasunean Biryina Amarequin, Apostoluequin, Martirequin, Saindu guciequin, eta azquenean çurequin, bethicolçat.

*Ostia saindua altchatcean.*

Öi Jesus, ene Salbatçaillea! Sinhesten dut cinez, eta sinhestean khordocatu gabe, eguiazqui çarela ostia sainduan, eguiazco Iaincoa eta eguiazco guionca. Eçagutcen çaitut ene Iauntçat eta labetçat. Iguçu hemen garen guciei, misterio adoragarri huntan çor darozquitçugun aithorra, eta eçagulça, eta maithagunea.

*Khalitça saindua altchatcean.*

Adoratcen çaitut khalitça hortan, oi ene Jesus Iaincoa! çu çara ene erospenaren saria; odol guiz ahuspecagarri hortaric utz eçaçu chorta bat iaustera ene bihotçaren gainerat, içan dadintçat garbitua bekhatu eta narraio gucietaric, eta suztatua çure amodioaren khar sainduaz.

*Iauna altchatu ondoan, PATERAINO.*

Ezlarozquitçut guchiago ogua eta arnoa escaïntcen, Iauna; bainan bai Christo çure Semearen gorputça eta odola; har etçatçu, gure escutic, haren pairuaren, phiztearen eta cerurat igaitearen orhoitçapenetan; eta bethe gaitçatçu çure graciez.

Orhoit çaité halaber, Iauna, purgatorioan diren arima gaichoez: dohatsuqui çureac dira, eta çure hautetsiac ere dira. Guciz gomendatcen darozquitçut ene ahaideenac, adisquideenac, arimaco eta

gorphutceco onguiguileenac, eta ene othoitcen beharra guchien dutenenac.

Gucia bekhatorea naicelaric, ausartatcen nataitçu galdetcera, oi ene Iaincoa! eman dieça-daçudan niri ere cure dohatsutasunetic phichca bat. Ilambertce bekhatuz galdu dutala hartaraco çucena, eçagutcen dut eta aithorteen çure aitcinean. Ez beraç beguira ene irabaciei; bainan çure odolean dut ene ustantça gucia. Harren bitartecoz, barkha dieçcadatçu ene hutsac, eta emanic eguiazco urriqui bat, eguiu naçaçu ceronec gai çure erresumarat heltceco.

### *PATERcan, edo Gure Aitan.*

Iesu-Christo, çure Seme, gure arartecoac iracatsiric, eta harc erranac eguin beharrez, ausartateen gaitçatçu erraitera :

Gure Aita, ceruetan çarena, içan bedi çure icena santificatua; ethor bedi çure erresuma; eguin bedi çure nahia ceruan beçala lurrean ere. Iguçu egun gure eguneco oguia, eta barkha dieçtagutçu gure çorrac, guc gure ganat çordun direnei barkhatceen diozlegun beçala; eta ezcaitçatçula utz tentacionean erortcera, bainan beguira gaitçatçu gaitcetic. Hala biz.

### *AGNUS DEI erraitean.*

Iaincoaren Bildotsa, Iesus Jauna, gucien bekhatuac çure gain harti nahi içan ditütçuna, garbi naçaçu neure guciataric cure odolean, eguiu naçaçunçat gai hain garasti erozi darotaçun baque hora ardiestecotçat. Indaçu baque hora çurequin, indaçu hurco lagunarequin, indaçu neure buruarequin; iracats dieçadaçu aphaltasun eta emetasun osoenac, eta itho etçatçu gne barnean aibereundezco guthicia guciac.

## DOMINE, NON SUM DIGNUS.

Ai Iesus Iauna! Handizqui egunia da, eznaicela gai sar gaitecen ene atherbean, eta ni baithan eguin deçaenun cure egoitza; debecatzen caituzte osoqui ene bekhatuec. Bainan damuztatutu baçaitut ere, ni ganic urrundu baçaitut ere, sinhesten dut cure hitz bakhar batec senda ahal naçaquela ene arimaco eritasunetaric, cure hitz batec emanen ahal darotala eguiazco urriqui eta damu bat. Erraçu hitz hora, Iesus ona, erraçu.

## Comunionean, nore berac comuniatzen eztuenean.

Ala dohatsu baininteque ni, ene Salbatçaille mai-tea, cure mahain sainduan iartceco, cure gor-phutz iaincozcoaz hazteco, cure odol guciz mai-thagariaren edateco, banintz behar beçambat garbi! Ai! cer atseguinac nituzqueen, eta cer goçoac! Cembaç gracia eztiotçute emaiten çutaz ceronec bazcatzen ditutçunei!

Egun cure haragui sainduaren hazeurria hartceco coriona ezpadut ere, hartzen caitut bederen, Iesus maithagarria, nahiz, gogoz eta bihotcez. Cure baithan eçarteen dut ene sinheste osoa, cure baithan ene bihotceco amodioa; nadila bat curequin, eta çu bat enequin. Hala biz.

## Apheçac comuniatu ondoan.

Huna non içan çaren, ene Iauna, ene beguien aitcinean sacrificatua. Oi ene Iaincoa! Eznaiz ne-hoiz gueldituco çuri ene esquer khartsuenen bi-hurtctic; guciz ere, escainico darotçut çu damuz-tatuaz dudan bihotceco urriquia eta min eguiaz-coa.

*Azquen Othoitcetan.*

Nahi duçu, Iainco Iauna, eguin dietçaçugun, arteric utci gabe, gure othoitçac, ceren dugun bethi çure lagunteen beharra : eman dieçaguçu beraz ceronec dohaina, gure othoitcen eguiteco behar diren aphaltasunarequin, astecuntçarequin, maithagunearequin ; galdetcen darotçugu Iesu-Christo çure Semearen arartecotasunaz, ceina baita dohatsu çure dohatsutasun berean. Hala biz.

*Apheçac benedicalcearequin.*

Iauts bedi gure ganat, eta gutan egon bedi bethicotçat, Aitaren, eta Semearen, eta Ispiritu Sainduaren dohaina.

*Azquen Ebangelyioan, eta Meça ondoko othoitça.*

Berbo bethi danic çarena, gaüña gücien egui-lea, epheac bethe cirenean gu gatic guiçon eguin içan çarena, eta Sacrificio miresgarri hau utci darocuçuna, hunen bidez onhets gaitçan gure Aita cerucoac ; esquerrac därozquitçugu, ceren eguin darocueun dohaina hunen entçuteco. Egun beraz, hoin espartagarri den misteriotic lekhora, emaguçu ibil gaitecen çure aguincteen arabera, eta urrun gaitecen bekhatutic.

Iainco Aita, barkha dieçadatçu ene gogoco barraiamendua, eta ene bihotceco hoztasuna, çure Semearen sacrificioaz oro suztatua içan behar nintcen bidean. Ahantz bequizquitçu ene hutsac, Iesu-Christoc orai aldarean escaini darotçun odolaren bitartez; eta eznaçaçula utz hain ondicoz-coa içaitera, çu hemendic harat damuztatceco; aitcitic eguiçu, othoi, çucenqui ibil nadin çure aitcinean, eta bethi beguira dieçäçudan ene hitcen, ene gogoeten, ene eguintcen azquen che-deari beçala. Hala biz.

# IGANDETACO BEZPERAC.

---

Deus, in adjutorium meum intende. R. Domine, ad adjuvandum me festina.

Gloria Patri, et Filio, et Spiritui Sancto : \*  
Sicut erat in principio, et nunc et semper, et in  
secula seculorum. Amen.

*Ant. Dixit Dominus.*

## PSALMO 109.\*

Dixit Dominus Domino meo : \* Sede à dextris meis.

Donec ponam inimicos tuos scabellum pedum tuorum.

Virgam virtutis tuæ emittet Dominus ex Sion : \* dominare in medio inimicorum tuorum.

Tecum principium in die virtutis tuæ in splendoribus sanctorum : \* ex utero ante luciferum genui te.

Juravit Dominus et non pœnitabit eum : \* Tu es Sacerdos in æternum, secundum ordinem Melchisedech.

Dominus à dextris tuis, \* confregit in die iræ sue reges.

Judicabit in nationibus, implebit ruinas ; \* conquassabit capita in terrâ multorum.

De torrente in viâ bibet ; \* propterea exaltabit caput.

*Ant. Dixit Dominus Domino meo : \* Sede à dextris meis.*

*Ant.* Fidelia.

PSALMO 140.<sup>2</sup>

Confitebor tibi, Domine, in toto corde meo,  
in concilio justorum et congregatione.

Magna opera Domini, exquisita in omnes  
voluntates ejus.

Confessio et magnificentia opus ejus : et jus-  
titia ejus manet in seculum seculi.

Memoriam fecit mirabilium suorum, miseri-  
cors et miserator Dominus : escam dedit timen-  
tibus se.

Memor erit in seculum testamenti sui : virtu-  
tem operum suorum annuntiabit populo suo.

Ut det illis hæreditatem gentium : opera ma-  
nuum ejus veritas et judicium.

Fidelia omnia mandata ejus, confirmata in se-  
culum seculi, facta in veritate et æquitate.

Redemptionem misit populo suo, mandavit in  
æternum testamentum suum.

Sanctum et terribile nomen ejus : initium sa-  
pientiae timor Domini.

Intellectus bonus omnibus facientibus eum :  
laudatio ejus manet in seculum seculi.

*Ant.* Fidelia omnia mandata ejus, confirmata  
in seculum seculi.

*Ant.* Qui timet Dominum.

PSALMO 141.<sup>2</sup>

Beatus vir qui timet Dominum, in mandatis  
ejus volet nimis.

Potens in terrâ erit semen ejus : generatio  
rectorum benedicetur.

Gloria et divitiae in domo ejus ; et justitia ejus  
manet in seculum seculi.

Exortum est in tenebris lumen rectis; \* misericors et miserator et justus.

Jucundus homo qui miseretur et commodat, disponet sermones suos in iudicio; \* quia in æternum non commovebitur.

In memoriam æternam erit justus; \* ab auditione mali non timebit.

Paratum cor ejus sperare in Domino, confirmatum est cor ejus, \* non commovebitur donec despiciat inimicos suos.

Dispersit, dedit pauperibus; justitia ejus manet in seculum seculi: \* cornu ejus exaltabitur in gloriam.

Peccator videbit et irascetur, dentibus suis fremet et tabescet: \* desiderium peccatorum peribit.

*Ant.* Qui timet Dominum, in mandatis ejus volet nimis.

*Ant* Sit nomen.

### PSALMO 142.

Laudate, pueri, Dominum; \* laudate nomen Domini.

Sit nomen Domini benedictum; \* ex hoc nunc et usque in seculum.

A solis ortu usque ad occasum, \* laudabile nomen Domini.

Excelsus super omnes gentes Dominus, \* et super cœlos gloria ejus.

Quis sicut Dominus Deus noster, qui in altis habitat, \* et humilia respicit in cœlo et in terrâ?

Suscitans à terrâ inopem, \* et de stercore erigens pauperem.

Ut collocet eum cum principibus, \* cum principibus populi sui.

Qui habitare facit sterilem in domo, \* matrem filiorum lætantem.

*Ant.* Sit nomen Domini benedictum in secula.

*Ant.* Nos qui vivimus.

PSALMO 115.

In exitu Israel de Aegypto, \* domus Jacob de populo barbaro.

Facta est Iudea sanctificatio ejus, \* Israel potestas ejus.

Mare vidi et fugit: \* Jordanis conversus est retrorsum.

Montes exultaverunt ut arietes, \* et colles sicut agni ovium.

Quid est tibi, mare, quod fugisti? \* et tu, Jordanis, quia conversus es retrorsum?

Montes, exultasti sicut arietes? \* et colles, sicut agni ovium?

A facie Domini mota est terra, \* à facie Dei Jacob;

Qui convertit petram in stagna aquarum, \* et rupem in fontes aquarum.

Non nobis, Domine, non nobis, \* sed nomini tuo da gloriam.

Super misericordia tua et veritate tua: \* nequando dicant gentes: Ubi est Deus eorum?

Deus autem noster in celo; \* omnia quaecumque voluit, fecit.

Simulacra gentium argentum et aurum, \* opera manuum hominum.

Os habent et non loquentur, \* oculos habent et non videbunt.

Aures habent et non audient; \* nares habent et non odorabunt.

Manus habent et non palpabunt, pedes habent et non ambulabunt: \* non clamabunt in gutture suo.

Similes illis fiant qui faciunt ea, \* et omnes qui confidunt in eis.

Domus Israel speravit in Domino; \* adjutor eorum et protector eorum est.

## XXII

Domus Aaron speravit in Domino ; \* adjutor eorum et protector eorum est.

Qui timent Dominum speraverunt in Domino ; \* adjutor eorum et protector eorum est.

Dominus memor fuit nostri , \* et benedixit nobis.

Benedixit domui Israel , \* benedixit domui Aaron.

Benedixit omnibus qui timent Dominum , \* pu-sillis cum majoribus.

Adjiciat Dominus super vos , \* super vos et su-per filios vestros.

Benedicti vos à Domino , \* qui fecit cœlum et terram.

Cœlum cœli Domino : \* terram autem dedit filii hominum.

Non mortui laudabunt te, Domine , \* neque omnes qui descendunt in infernum.

Sed nos qui vivimus , benedicimus Domino , \* ex hoc nunc et usque in seculum.

*Ant.* Nos qui vivimus , benedicimus Domine.

## CAP. Ephes. 1.

Benedictus Deus , et Pater Domini nostri Iesu-Christi , Pater misericordiarum , et Deus totius consolationis , qui consolatur nos in omni tribulatione nostrâ.

¶ Deo gratias.

## HYMNOA.

Lucis Creator optime,  
Lucem dierum proferens,  
Primordiis lucis novæ  
Mundi parans originem;  
Qui mane junctum vesperi  
Diem vocari præcipis,  
Illabitur teturum chaos;  
Audi preces cum fletibus.  
Ne mens gravata criminis  
Vite sit exul munere,

Dum nil perenne cogitat,  
Seseque culpis illigat.

Cœleste pulset ostium :  
Vitale tollat præmium :  
Vitemus omne noxiū :  
Purgemus omne pessimum.

Præsta, Pater piissime,  
Patrique compar Unice,  
Cum Spiritu Paraclito  
Regnans per omne seculum.

Amen.

V. Dirigatur, Domine, oratio mea ;

R. Sicut incensum in conspectu tuo.

### CAP. Ephes. 1.

Benedictus Deus, et Pater Domini nostri Iesu-Christi, qui benedixit nos in omni benedictione spirituali, in cœlestibus in Christo, sicut elegit nos in ipso ante mundi constitutionem, ut essemus sancti et immaculati in conspectu ejus in caritate.

R. Deo gratias.

### HYMNOA.

O luce qui mortalibus  
Lates inaccessâ, Deus,  
Præsente quo sancti tremunt  
Nubuntque vultus angelî.

Hic, ceu profundâ conditi  
Demergimur caligine :  
Æternus at noctem suo  
Fulgore depellet dies.

Hunc nempè nobis præparas,  
Nobis reservas hunc diem,  
Quem vix adumbrat splendida  
Flammantis astri claritas.

Moraris, heu ! nimis diù

Moraris, optatus dies :  
Ut te fruamur, noxii  
Linquenda moles corporis.

His cùm soluta vinculis  
Mens evolarit, ô Deus !  
Videre te, laudare te,  
Amare te non desinet.

Ad omne nos apta bonum,  
Fœcunda donis Trinitas :  
Fac lucis usuræ brevi  
Æterna succedat dies. Amen.

¶. In Deo laudabimur totâ die.

¶. Et in nomine tuo confitebimur in seculum.

**AMA BIRVINAREN CANTICA. *Luc. 1.***

Magnificat anima mea Dominum,  
Et exultavit spiritus meus in Deo salutari  
meo.

Quia respexit humilitatem ancillæ suæ : ecce  
enim ex hoc beatam me dicent omnes genera-  
tiones.

Quia fecit mihi magna qui potens est; et  
sanctum nomen ejus.

Et misericordia ejus à progenie in progenies  
timentibus eum.

Fecit potentiam in brachio suo; dispersit su-  
perbos mente cordis sui.

Deposit potentes de sede, et exaltavit hu-  
miles.

Esurientes implevit bonis, et divites dimisit  
inanis.

Suscepit Israel puerum suum, recordatus  
misericordiæ suæ.

Sicut locutus est ad patres nostros, Abraham,  
et semini ejus in secula.

Gloria Patri, etc.

# IESU-CHRISTOREN EBANYELIO<sup>(1)</sup> SAINDUA SAN MATHEOREN ARABERA.

---

## I. CAPITULUA.

*Jesu-Christoren ethorquia. Iosephen beldur-cundeac bere emaztearen gainean. Nola duen ainguera batec arguitcen; nola den sortcen Jesus.*

1. **IESU-CHRISTO** Dabitzen semearen, Abrahamen semearen, ethorquiaren liburua.
2. Abrahamec içan çuen semetçat Isaac. Isaaquec içan çuen Iacob. Iacobec içan cituen Iuda eta haren anaiac.
3. Iudae içan cituen Thamar ganic Phares eta Zara. Pharesec içan çuen Esron. Esronec içan çuen Aram.
4. Aramec içan çuen Aminadab. Aminadabec içan çuen Naason. Naasonec içan çuen Salmon.
5. Salmonec içan çuen Booz, Rahab ganic. Boocceç içan çuen Obed, Ruth ganic.

(1) *Ebanyelioa*, erran nahi da *berri ona*: horrela deitzen ohi da Jesu-Christoc egun eta erran dituenen istorioa, ceren liburu harc baitakharzu gure bekhatuetaric erosteco berri çorionezcoa.

Obedec içan çuen Iese. Iesec içan çuen Dabid erreguea.

6. Dabid erregueac içan çuen Salomon, Uriaren emazte içan cena ganic.

7. Salomonec içan çuen Roboam. Roboamec içan çuen Abias. Abiasec içan çuen Asa.

8. Asac içan çuen Iosaphat. Iosaphatec içan çuen Ioram. Ioramec içan çuen Ozias.

9. Oziasec içan çuen Ioatham. Ioathamec içan çuen Akhaz. Akhacec içan çuen Ezekhias.

10. Ezekhiasec içan çuen Manases. Manasesec içan çuen Amon. Amonec içan çuen Iosias.

11. Iosiassec içan cituen Iekhonias eta hunen anaiae, Babiloniarat Indutarrac eramanac içan eiren demboratsuan.

12. Eta Babiloniarat eramanac içan cirenez gueroztie, Iekhoniassec içan çuen Salathiel. Salathielec içan çuen Zorobabel.

13. Zorobabelec içan çuen Abiud. Abiudec içan çuen Eliacim. Eliacimec içan çuen Azor.

14. Azorrec içan çuen Sadoe. Sadoquec içan çuen Akhim. Akhimec içan çuen Eliud.

15. Eliudee içan çuen Eleazar. Eleazarrec içan çuen Mathan. Mathanec içan çuen Iacob.

16. Iacobec içan çuen Joseph, Mariaren senharra, eta Maria ganic sorthu da IESUS, Christo deitcen dena (1).

(2) Nola Indutarrec emazteac hartzen baitcituzten bere ahaidetaric, Dabitzen etchetic ilkhiteen cenaz gueroz Joseph, asqui aditcerat emaiten darocu S. Matheoc, handic beretic atheratzen cela Josephen emaztea, Maria.

17. Badira beraz guciz Abraham ganic Dabid ganaco artean, hamalau guicaldi; Dabid ganic berriz Iudutarrac Babiloniarat eramanac içan ciren artean, hamalau guicaldi; eta Babiloniarat eramanac içan cirenctic Iesu-Christo ganaco artean, hamalau guicaldi.

18. Bada Iesu-Christoren sortcea hunela içan cen : Maria, haren ama, ezcondua celaric Iosephequin, aurkhitu cen içorra, elkhar ganat citezquen baino Ichenago, haur bat baitquen sabelean Ispiritu Sainduaren indarrez.

19. Eta nola Ioseph, haren senharra, guicon çucena baitcen, eta ez baitquen nahi laidostatu, ichilic bere ganic khendu nahi içan quen.

20. Bainan gogoeta hortan cegoela, agertu citcaion ametsetan Iaunaren ainguero bat, eta erran cioen : Ioseph, Dabitzen semca, ez duçula beldurric Maria çure emaztea çure ganat hartceaz ; ecen haren baithan sorthu dena Ispiritu Saindua ganic da.

21. Erdieo da bada seme batez, ceipa dei-thuco baituçu IESUS, ecen harc salbatuco du bere populua bere bekhatuetarie.

22. Eta hau gucia eguin içan da, bethe çadintçat Iaunac bere Profetaz erran içan duena :

23. Biryina batec sabelean içanen du, eta erdico da seme batez, ceinari emanen bai-to te icena Emmanuel, erran nahi da, Iain-coa gurequin.

24. Iosephec bada atçarri cenean, eguin

cuen ainguerauc manatu cioen beçala, eta hartu cuen berequin bere emaztea.

25. Eta etquen eçagutua bere seme lehen iaioaz (1) erdi cenean, ceinari eman baitzietoten icena IESUS.

---

## II CAPITULUA.

*Magoec Iesus adoratzen dute. Egiprorat ihes eguiten du. Bethleemgo haurrac Herodesec hil-arazten ditu. Egiprotic bihurtzen da Iesus.*

1. SORTHU cenean bada Jesus Bethleem Iudeaco hirian, Herodes erregueren egunetan, ethorri ciren, iguzqui aldeco atzeherriaric, Magoac (2) Ierusalemera,

2. Galdez çabiltçala : Non da Iudutarren Erregue sorthu berria? Ikhusi dugu ecen haren içarra iguzqnia atherateen den bazterretan, eta haren adoratcera heldu gara.

3. Hori aditcean, Herodes erreguea asaldatu een, eta Ierusalemeco hiri gucia harequin batean.

4. Eta bil-araciric Aphez aitcindari gu-

(1) Iudutarren artean erraiten ohi een *lehen-iaioa edo lehen sorthua, haur bakharra* erraitecotcat.

(2) *Magoac ciren guicon cuhur eta iaquintu batuen, bereciqui, uste dutenaz, ceruco içar, iguzqui eta bertce gancetan.* Hemen aiphatuac diren hauek, erregue abal ciren eta bere herrietan aitcindari.

ciac eta populuaren Isquiribauac (1), galdez cegocoten, hea non sorthu behar othe çuen Christoc.

5. Eta hec erran çaroen : Bethleem Iudeacoan sorthu beharra da ; ecen hunela da isquiribatua Profetac :

6. Eta hi, Bethleem Iudeaco leihorra, ez haiz ttipiena Iudeaco hiri handienan artean ; ecen hi ganic ilkhico duc Israelgo ene populuari manatuco duen buruçaguia.

7. Orduan Herodesec, ichilic erakharriric Magoac, iaquin çuen artha handirequin hetaric içarra aguertu citçaieneco muga.

8. Eta Bethleemerat egortcen cituela, erran çaroen : Çohazte, galde eguiçue arthosqui haur hartaz, eta aurkhitu duqueçueñean, adi-araz dieçadaçue, nathorren ni cre haren adoratecera.

9. Erregue hola mintçatcen aditu ondoan, ioan ciren : eta iguzquico aldetan ikhusi çuten içarra, aitcinean cihoacoten, haurra cen toquiaren gainera helduric, gueldi citequen artean.

10. Ikhusi çutenean bada içarra, boztu içan ciren handizqui.

11. Eta etchean sarthu cirenean, aurkhitu çuten haurra bere ama Mariarequin, eta ahuspez iarriric, adoratu çuten : guero bere gordairuac edo tresorac çabalduric, eseaini

(2) *Isquiribauae*, ludutarren artean lehenetaric ciren, Moisesen leguean berac iaquinac eta bertceren erakhazçaille, guebienac Pharisauetaric.

ciotçaten emaitçac, urhea, intsentsua eta mirra.

12. Eta lotan meçu içanic, ete eitecela bi-hur Herodesen gana, ioan ciren bere herrirat bertce bide batez.

13. Hec ioan eta, launaren aingueru bat aguertu citçaioen Iosephi, lo cegoela, eta erran cioen : Iaiqui çaité, har egatçu haurra eta bere ama, eta ihes eguiçu Egiptrora, eta çaudé han, nic erran dieçaqueçudan artean ; ecen Herodes ibilico da haurraren bilha, hilaraci nahiz.

14. Iaiqui cen Ioseph, eta hartu cituen haurra eta bere ama gauaz, eta ioan cen Egiptrorat.

15. Eta egon cen han Herodes hil citequen artean ; bethe çadintçat launac Profetaren ahoz erran çuena : Egiptotic erakharri dut ene semea.

16. Orduan Herodes, ikuhusic Magoach hartaz dostatu circila, haserretu cen borthizqui, eta egorri çuen, Bethleemen eta hango inguru gucietan, hilteera bi urthetaco eta gu-tiagotaco eiren haur guciak, Magoetaric iaquin demboraren arabera.

17. Orduan bethe cen Ieremias profetac erran içan çuena :

18. Oihu bat aditu içan da Raman, auhen eta marrubiazcoa : Rachel dagoela auhenez bere haurren gainean, eta eztu elhe onic aditu nahi içan, ceren ez diren guehiago.

19. Hil içan cenean bada Herodes, aguertu

citcaioen Iosephi Egiptoan, lo çatçala, Iau-naren aingueraua,

**20.** Eta erran cioen : Iaiqui çaita, har eçatçu haurra eta bere ama, eta çohaz Israelgo lurrerat; hil dira ecen haurra gal-araci nahiz çabiltçanac.

**21.** Iaiqui cen Ioseph, eta harto cituen haurra eta bere ama, eta ethorri cen Israelgo lurrerat.

**22.** Adituric ordean Arkhelausec erregui-natcen quela Judean, Herodes here aita cena-ren ondotic, beldurtu cen harat ioateaz, eta lotan meçu içanie, aldaratu cen Galileaeo cremenuelarat.

**23.** Eta ethorri cen egoitera Nazareth ce-ritçan hiri batean ; bethea içan çadin gatic Profetac errana içan cena : Deithua içanen da Nazarendarra.

---

### III. CAPITULUA.

*Ion Done Baptistar nola predicateen duen,  
Ethortcen çao Iesus, ceinari emaiten baitio  
bere bathaioa.*

**1.** EGUN hetan ethorri içan cen Ioanes Bap-tista Judeaco mortuan predicatecera,

**2.** Erraiten quela : Eguitçue urriquizeo obrac ; hurbil da ecen ceruetaco erresuma.

**3.** Hura da Isaias profetac aiphatu içan duena, erran içan duenean : Mortuan oihuz dagoenaren boça : Aphain eçatçue Iaunaren bideac, chuchen eçatçue haren bidechecac.

4. Ioanesec bada bere iaunztura cameluilezcoa çuen, eta larruzco guerrico batez cen guerricatua, eta haren ianharia cen larzapotac eta basa eztia.

5. Orduan heldu ciren haren gana Ierusalem eta Iudea gucia, bai eta Iordan inguruco herri gucia ere.

6. Eta bathaiatuac ciren haren escuz, bere bekhatuac aithortcen cituztelarie.

7. Ikhuisirie bada Pharisauetaric eta Saducearretaric (1) hainitz, heldu cirela haren batthiora, erran içan çaroen : Cirau casta, norc eracatsi darotçue mehatchatcen çaituzten haserreari ihes eguiten?

8. Eguitçue beraz urriquizeo egozte edo fruitu behar beçalacoac.

9. Eta beguirauçue çuen baithan erraitetic : Abraham guc aita dugu. Erraiten darotçuet ecen Iaincoa gai dela harri hautaric beretaric ere sor-arazteco umeac Abrahami.

10. Iadanic ecen haizcora eçarria da çuhaitcen erroaren gainean : hala bada egozte edo fruitu onic ekhartcen eztuen çuhaitça, içanen da cbaquia eta surat aurthiquia.

(1) *Pharisauac eta Saducearrac*, Iduen artean bi sinhestataco ciren : Saducearrec etçuten eçaguteen badirela ainguerauc eta deabruac, arimac eztirela hilteen, eta gorputçac hil eta phizten direla. Pharisauec, lehenagoco çaharretaric ikhasi gauciei iarrasquitcen cirelaco estacurutan, eguite chume eta erguel batçuetan eçarteen çuten hurbil legue gucia; eta aldiz, haren manu handienac, asmu itchura gabeko batçen gatic, hausten ohi cituztea.

11. Nitaz denaz beçambatean, bathaia-teen çaituztet urean, urriquitan sar çaitez-tentçat; bainan ene ondotic ethorrico dena, ni baino botheretsuago da, eta ez naiz gai haren oinecoae ekhartceco ere : hora da Ispiritu Sainduan eta suan bathaiatuco çaituztena.

12. Escuan dauca bere bahea, eta garbi-tueo du ongui bere bihitoquia : bilduko du bibia bere selhauruetarat; lastoac ordean erreco ditu behin ere iraungui eztaitequen subatean.

13. Orduan Jesus ethorri içan cen Galileatic Iordanera Ioanesen gana, harc bathaiatua içaiteco.

14. Bainan Ioanesec guibeliteen çuen ciotsola : Ni behar naiz içan çue bathaiatua, eta çu heldu cara ni gana ?

15. Iesusec ordean ihardetsi cioen : Utz naçaçu oraicotz eguitera : ecen hunela do-hacu bethe detçagun çucen direnac oro. Orduan Ioanesec utci çuen eguin ceçan.

16. Bathaiatu cenean bada Jesus, ilkhi cen berehala uretic; eta ordu berean çabaldu citçaizcon ceruac; eta ikhusi çuen Iaincoaren Ispiritua iausten cela uso baten idurian, eta gainerat heldu citçaoela.

17. Eta horrequin batean, aditu içan cen boz bat cerutic, cioena : Hau da ene seme maitea, ceina baithan hartu baitut ene atseguin gucia.

**IV. CAPITULUA.**

*Iesusen barurtcea eta tentacionea. Iausten da Capharnaumera. Deitcen ditu Piarres, Andres, eta Zebedeoaren bi semeac bere ganat.*

**1. ORDUAN** Jesus eramana içan cen Ispiri-tuac mortura, han deabruac tentatua içan cadin gatic.

**2. Eta** barur egon ondoan berrogoi egunez eta berrogoi gauez, guero gosetu cen.

**3. Eta** tentatçailleac, hurbilduric, erran cioen : Baldin Iaincoaren Semea bacara, erraçu harri hauc ogui bilhaca daitecen.

**4. Bainan** Iesusec ihardetsi cioen : Isquribatua due : Ezta oguiz bakharrie bici guionia, bainan Iaincoaren ahotie ilkhiteen diren hitz oroz.

**5. Orduan** eraman çuen deabruachiri sindura, eta eçarri çuen temploaren muthurric gorenean.

**6. Eta** erran cioen : Baldin Iaincoaren Semea bacara, aurthic çaité hor behera. Isquribatua da ecen : Bere aingueruei manatudaroe, çutaz artha içan deçaten, eta escuetan erabil çaitçaten, oinaz cembait harri io ezteçaçuntçat.

**7. Iesusec** iharhetsi cioen : Halaber isquribatua due : Eztuęu tentatuco çure Iainco Iauna.

**8. Deabruac** berriz eraman çuen mendi baguitz gora batetara, eta eracutsi ciotçan

munduko erresuma guciac, eta hequien edertasun handia.

9. Eta erran içan cioen : Emanen darozquitçut horiee oro, baldin ahuspez eroriric adoratcen banauçu.

10. Orduan Iesusec erran cioen : Hoaquit, Satanas; isquiribatua duc ecen : Çure Iainco Iauna duçu adoratuco, bai eta hora bakharic duçu cerbitçatuko.

11. Orduan deabruac utei çuen, eta mugaga berean aingueraue hurbildu citçaizcon, eta cerbitçatcen çuten.

12. Aditu baitçuen bada Iesusec Ioanes preso eramana içan cela, aldaratu cen Galilearat.

13. Eta Nazaretheeco hiria uteiric, ethorri içan cen egoitera Capharnaum itsas bazterrecoan, Zabulongo eta Nephthalico mugarietan ;

14. Bethea içan çadin gatic Isaias profetae errau içan çuena :

15. Zabulongo leihorrac eta Nephthalico leihorrae, Iordanez haratago den itsasoraco bideac, Galilea paganoen erdicoac;

16. Ilhumbetan çatçan populuac, ikhusi du argui handi bat, eta herioaren itçaleco herrian ceudecenci, sorthu çaiote arguia.

17. Ordutic hasi cen Iesus predication, ciotsala : Eguiçue penitentia; hurbil da ecen ceruco erresuma.

18. Bada Iesusec Galileaco itsas bazterrean çabilala, ikhusi cituen bi anaia, Simon Piarres çaritçana, eta Andres haren anaia,

sareac itsasorat aurthiquitcen cituztela (econ arrantçaleac ciren).

19. Eta erran çaroen : Iarraic çaquizquidate, eta eguiñen çaituztet guiçon-arrantçale.

20. Eta hec berehala, sareac utciric, iarrailqui citçaizcon.

21. Handie aitcinago ioan eta, ikhusi cituen bertce bi haurride, Iaques Zebedeo-ren semea, eta Ioanes haren anaia, untei batean bere aita Zebedeorequin, sareen antolatzen hari cirela, eta deithu cituen.

22. Hec ere ordu berean, sareac eta aita utciric, iarrailqui citçaizcon.

23. Eta baçabilan Iesus Galilea gucian, hango bilkhuetan erakhasten çuela, eta predicatzen çuela erresumaco Ebanyelioa, eta sendatzen cituela herbaltasun eta eritasun guciac populuaren artean.

24. Eta nola haren omena barraiatu bai-teen Siria gucian, ekharteen ciotçaten eri cirenac oro, eta hainitz herbaltasunec, oinhacec eta deabruac ere hartuac cirenac, eta ilhargui aldiac eituztenac, alderdi ihartuac; eta sendatzen cituen.

25. Eta ondotie çarraizcon oste handiac Galileatic, Decapolitic, Ierusalemetic, Iudeatic, eta Jordanez haratagotic.

## V. CAPITULUA.

*Mendiaren gainean Iesusec erranae.*

1. IESUSEC ikhusi citnenean bada halaco osteac, igan cen mendi baten gainera, eta han iarri cen ondoan, hurbildu citçaizcon Dicipuluac.

2. Eta bere ahoa idequiric, erakhasten caroen, ciotsotela :

3. Dohatsu ispirituz beharrac direnac, cergatic hequiena baita ceruetaco erresuma.

4. Dohatsu eztiac, cergatic lurraren iabe içanen baitira.

5. Dohatsu nigarrez daudecenac, eergatic boztuac içanen baitira.

6. Dohatsu iusticiaren gosea eta egartsua dutenac, ceren içanen baitira aseac.

7. Dohatsu urricalcor direnac, ceren berrec ere urricalmendu ardietsio baitute.

8. Dohatsu bihotz garbitacoac, ceren hec laincoa baitute ikhusico.

9. Dohatsu baquetiarrauc, cergatic hec deithuco baitira laincoaren umeac.

10. Dohatsu calte iasaiten dutenac iusticiarentçat, ceren gatic hequiena baita ceruetaco erresuma.

11. Dohatsu çaitsezquete, guiçonec aphaldi tçarrez, cer nahi bidegabe eguinez iaçartcen carozquitçuenean, eta cer nahi gaizqui çuentçat erraiten dutenean gueçurrez, ni gatic :

12. Boz çaitezte, boz handizqui, ceren

quen saria nasaia baita ceruetan : ecen halaber iaçarri citxaizcote quen aitcinean içan diren Profetei.

13. Çuec çarete lurreco gatça. Baldin gueçateen (1) bada gatça, bera certaz gacituco dute? Deusetaco guehiago ezta on, camporat egotcia (2) eta ibiltçailen oinez osticatua içaiteco baicen.

14. Çuec çarete munduaren arguia. Hiri bat ecin daiteque gordea, mendi baten gainean denean.

15. Eta argui bat eztute phizten gaiteerruaren azpian emaiteco, bainan candeleraen gainean emaiten dute, argui deçantçat etchean diren guciac.

16. Hala distia beça quen arguiac guiçonen aiteinean, ikhus deçatentçat quen egün onac, eta gorets deçaten quen Aita ceruetan dagoena.

17. Eztecaçuela uste içan ethorri naitequela leguearen edo Profeten deseguitera; ez naiz ethorri deseguitera, aiteitic bai be-thetecera.

18. Erraiten darotçuet ecen eguiia, cerua eta lurra lehenago iraganen direla, ecen ez leguean direnetaric i bat edo pontu bat utci-co baita, guciac eguinac içan gabe.

19. Norc ere bada hautsico baitu manamendu hetaric chumeenetaric ere bat, eta horrela baitaroe eracutsico guiçonei, edu-

(1) Gueçatcea, gustu-gabetcea.

(2) Egoztea, aurthiquitcea, botatcea.

quia içanen da ceruetaco erresuman azquen-tçat; bainan hec beguiratuco dituena, eta beguiratcen eracatsico duena, içanen da handi ceruetaco erresuman.

20. Erraiten darotçuet ecen, baldin çuen çuentasunac czpadu gainditcen Isquiri-bauena eta Pharisauen, etçarete sarthuco ceruetaco erresuman.

21. Aditu duque erran citçaiela lehenago-coei : Eztu hilen, eta norc ere herioterie eguiñen baitu, çor içanen çao gaztigatua içaitea iuiamenduac.

22. Bada nic erraiten darotçuet : Nor ere bere anaiari sumintcen ere batçao, çor çaiela gaztigatua içaitea iuiamenduac; eta bere anaiari erraiten dioenari, Raca (1), içanen çao çor gaztigatua içaitea contseiluac (2); eta erraiten dioenari, Erhoa, içanen çao çor ifernuco sua.

23. Baldinetariac bada aldarera çure es-caintça badohamaçu, eta orhoitcen baçara çure anaijac baduela cerbait çure ganat :

24. Utçaçu han çure emaitça aldarearen aitcinean, eta çohaz lehenic baquetcera çure anaiarequin, eta ondoan ethorrico çara çure emaitçaren escaintcera.

25. Antola caite lehen bai lehen çure ai-

(1) *Raca*, Hebreo hizcuntçaz erran nahi daiteque goiça tzar bat.

(2) Iesu-Christoren egunetan, Iudutarrec hirur tribunal bœtituzten : launac hemen bi garratcenac aiphalcen dituela dirudi, dioenean *iuiamendua* eta *contseilua*.

teinecoarequin, harequin bidean careino, eman etçaitçan iuiearen escuetara, eta iuieac etçaitçan eman bere cerbitçariari, eta presondeguirat eramana içan etçaitecen.

**26.** Erraiten darotçut egua, etçara ilkhico handic, non eztuun pagatcen azquen ar-diterainocoa.

**27.** Aditu duçue erran içan citçaiela lehenagociei : Etçara bertceren emaztea gantuco.

**28.** Bada nic erraiten darotçuet : Norc ere behatu baitio emaztequi bati, haren ganaco hirritsequin, iadanic harequin nahastu dela bere bihotcean.

**29.** Baldinetariae çure begui escuinac bekhaturatecen baçaitu; iraiz (1) eçacu eta aurthic urrun çu ganic : hobe duçu ecen çure membroetarie bat galtea, ecen ez çure gorphutz gucia içan dadin aurthiquia ifernurat.

**30.** Eta baldin çure escu escuinac bekhaturatecen baçaitu, ebaqui eçacu, eta egotz urrun çu ganic; hobe da ecen çuretçat gal dadin çure membroetarie bat, ecen ez gorphutz gucia dohan ifernurat.

**31.** Errana içan da oraino : Norc ere utcico baituque bere emaztea, eman dioçala uzten duelaco isquiribu bat.

**32.** Eta nic darotçuet erraiten : Norc ere uzten baitu bere emaztea, bertceen ganatu eztenean, bertcetara berac duela bihurcen,

(1) Iraiz eçacu, athera eçacu.

eta senharrac utcia den bat emaztetçat har-  
teen duenac, arrotz-haraguitan nahasten  
dela.

33. Aditu duçue oraino erran içan citçai-  
la lehenagocoei : Eztuçu çure cina hautsi-  
co; bainan bihurtuco duçu launari cinez  
aguindu duçuna.

34. Eta nic darotçuet erraiten : Ezteça-  
çuela eguin cinic batere, ez ceruaz, cerga-  
tic laincoaren iarlekhua baita;

35. Ez lurraz, ceren haren oinetaco alkhia  
baita; ez Ierusalemmez, cergatic Erregue han-  
diaren hiria baita.

36. Eztuçu çure buruaz ere cinic eguienen,  
ceren ecin baiteçaqueçu çure ile bakhoitz  
bat ere, ez churi, ez beltz-araz.

37. Bainan içan bedi hunelacoa çuen hiz-  
cuntea : Bai, hala da; edo : Ez, ezta hala ; ecen  
guehiagocoa gaichtotic da.

38. Aditu duçue errana içan dela : Beguia  
beguiaren ordain, hortça hortçaren ordain.

39. Bada nic erraiten darotçuet : Etçaitez-  
tela bihurri eguiten çaitçuen gaizquia gatic :  
aitcitic, norbaitec iotcen başaitu escuineco  
maceian, phara dioçoçu bertcea ere.

40. Eta çurequin aucitan hari nahi due-  
nari, eta soinecoa eraiman nahi darotçunari,  
utz dioçoçu capa ere.

41. Eta nihore eguin-araci nahi badarotçu  
mila urhats, çohazco bertce bi mila ere.

42. Escatcen darotçunari emoçu, eta ez-  
tioçoçula bertce alderat eguin maileatu nahi  
darotçunari.

43. Aditu duçue errana içan dela : Maite içanen duę çure urkho (1) laguna, eta gaitectsico duę çure etsaia.

44. Eta nic darotçuet erraiten : Maitha ecatçue çuen etsaiac, eguiçoquete ongi higüin caituztenei, eta othoitz eguiçue eguitez eta hitcez gaizqui çarabiltçatenentçat;

45. Içan çaitetztentçat çuen Aita ceruetan denaren umeac, ceinac athera-arazten baitu bere iguzquia onen eta gaichtoen gainera, eta eror-arazten uria çucenen eta çueenac eztirenengainera.

46. Ecen baldin maite baditutçue bakharrie çuec maite çaituztenae, eer esquer içanen duçue? Publicanoec (2) ere eztute hori eguiten?

47. Eta çuen anaiei baicen agur eguiten ezpadioquete, cer eguiten duçue bertcec baino guehiago? Eztute paganoec ere hori eguiten?

48. Içan çaitezte beraz molde guciz onac, çuen Aita ceruetacoa den beçala.

---

## VI. CAPITULUA.

*Mendiaren gainean Iesusec erran dituenez,  
oraino.*

1. BEGUIRAUÇUE çuen obra onac eguitetic guiconen aiteinean, hequiec ikhusiac içai-

(1) Urkho laguna, edo proximo laguna.

(2) Publicanoac, Erromarrentçat Iudean cerga eta diru biltçaileac : Iuduec guicon gaitcets garritçat ceduzeaten.

tea gatic; berteela eztuçue sariric içanen çuen Aita ceruetan dena baithan.

2. Noiz ere bada emaiten baituçu amoina, ezteçaçula adarra io çure aitcinean, onarena eguiten dutenec ohi duten beçala, bilkhuetan eta carriquetan, guiçonec goitituac içai-tea gatic. Erraiten darotçuet egua, içana du-te hainec bere golardoa.

3. Çue bada emaiten duçunean beharrari, ezteçan iaquin çure escu ezquerrac, cer eguiten duquen escuin eco escuac,

4. Çure amoina içan dadintçat ichilean; eta çure Aita, gordean dakhusanac, bihurtuço darotçu.

5. Halaber othoitz eguiten duçuencan, eteaiteztela içan on iduri gura direnac beçala, ceinec lakhet baitute bilkhuetan eta carrica buruetan, chotic daudeecela, othoitçac eguitea, guiçonec ikuhsiac içaitea gatic; erraiten darotçuet egua, içana dute hec bere saria.

6. Bainan çuc, çure othoitçac eguienen duqueçunean, sar caite çure guelan, eta athea hretsiric, othoiz eçaçu çure Aita ichilean, eta çure Aita estalian dakhusanac, emanen darotçu saria.

7. Bada çuec othoitçac eguitean, ezteçaçuela hainitz eras, paganoec beçala; uste baitute bere erasia handiaren gatic direla entçunac içanen.

8. Etçareten beraz hequien idurico; bidaqui ecen çuen Aitac ceren beharretan çareten, galdequin dioqueçuen baino lehenago.

9. Hunela heraz eguin en dioçue quec othoitz : Gure Aita ceruetan carena, erabil bedi sainduqui cure icena.

10. Ethor bedi cure erresuma. Eguin bedi cure nahia ceruan beçala lurrean ere.

11. Iguçu egun ianhariçat behar dugun oguaia.

12. Eta barkha dietçagutçu gure corrac, quec gu ganat çordun direnei barkhatcen daroztegun beçala.

13. Eta ezeaitçaçula utz tentationean erortera ; aitctic beguira gaitçatçu gaitecic. Biz hala.

14. Ecen baldinetariaic barkhatcen badiotçatçete guiçonei bere hobenac, quei ere barkhatuco darozquitçue çuen Aita cerueta-coac çuen bekhatuac.

15. Bainan ezpadiotçatçete barkhatcen guiçonei, eztarozquitçene çuen Aitac ere barkhatuco çuen bekhatuac.

16. Behintçat barur daguiçeuenean, etçai-teztela içan itchuraz hits, ohore gura direnac beçala : ezdeustateen dituzte ecen bere beguitharteac, guiçonei aguertcea gatic barurteen direla. Eguia erraiten darotçet, içana dute hec bere saria.

17. Ordean quec, barurteen carenean, gantxu ecaçu cure burua, eta cure beguithartea garbi,

18. Ezteçaçuntçat aguer guiçonei barur carela, bainan bai cure Aita gordean ere deoari : eta cure Aita gordean dakhusanac, bi-hurtuco darotçu.

19. Eztetçatçunela bil çuen onthasunac lurrean, non herdoilac eta cerrenac iaten baitituzte, eta ohoinec cilhoetaric atherateen eta ebasten.

20. Bainan bil eçatçue çuen onthasunac ceruan, non ez herdoilac, eta ez cerrenac ezpaitituzte iaten, eta non ohoinec ezpaitute cilhatcen ez ebasten.

21. Ecen non ere baita çure onthasun gordea, eta han daiteque çure bihotça.

22. Çure gorphutçaren arguia çure beguia da. Baldin çure beguia bada garbi, içanen da çure gorphutça oro argui,

23. Bainan çure beguia gaichtoa bada, çure gorphutz gucia içanen da ilhumbe. Ordean çure baithan den arguia baldin bada ilhumbe, ilhumbeac berac nolacoac içanen othe dira ?

24. Nehorc ecin cerbitça detçaque bi nansi : ecen edo bata gaitcetsico du, eta bertcea du maithatuco ; edo batai asainen du, eta bertcea du higüinduco. Ecin cerbitça detçaketçue Iaincoa eta aberastasuna.

25. Hargatic erraiten darotçuet : Eztuçuela antsiaric bicitecoaz, nondie içanen du çuen iana, eta nondie çuen gorphutçaren iaunztura. Ez othe da guehiago bicia iatecoa baino, eta gorphutça iaunzecoa baino ?

26. Beha dioçoquete aireco hegastinei, ez tutela hec eguiten hacilic ez uztaric, ez hitoquietarat deusie biltcen : eta halaric ere çuen Aita ceruetacoac hazten ditu. Etçarete çuec hainitez hec baino guehiagocoac ?

27. Nor da çuetaric, cer nahi asma deçan ere, bere buruari beso baten goratasuna eratchequi deçaquenic?

28. Cergatic bada iaunzturaz khechu çarete? Beha etçatçue larre liliac, nola handitcen diren : eztira hec ez lanean hari ez eta iruten.

29. Bada erraiten darotçuet, eztela Salomon bere aberastasun gucian hetaric bat beçala iauntecia içan.

30. Beraz larre belhar bat, egun chutie eta bihar laberat aurthiquia dena, Iaincoae hala iaunzten badu, cembatenaz hobequi eguiñen çaituzte çuec, oi sinheste gutitaco guionac!

31. Etçareten beraz antsiatsu, eta ez derraçuela : Cer ianen dugu, edo cer edanen, edo cer iaunteico?

32. Ecen paganoac dira arthos gauça horien guciñen gainean. Badaqui ordean cuen Aitac horien guciñen beharra duçuela.

33. Bilha eçaçue beraz lehenbicicoric Iaincoaren erresuma eta haren çuhurtcia; eta horiec guciñac emanen çaiquitçue bertçalde.

34. Hargatic bada etçareten khechu bihamunecoaz; bihamunac ecen beretçat bere artha içanen bide du; egun bakhoitçac asqui du bere gaitça.

VII. CAPITULUA.

*Mendiaren gainean Iesusec erran dituenez,  
akhabantça.*

1. Ezteçaçuela bertcez gaizquiric uste içan, çuetaz uste ezteçatentçat bertceec ere.

2. Ecen cer moldez ere bertcez uste içanen baituçue, molde beraz çuetaz ere uste içanen dute : eta eer ere neurriz neurtuco baitioqueçute bertcei, neurri beraz neurtuco çaitçue çuei ere.

3. Cergicic ikhusten othe duçu çure anaiaaren beguian phits bat, eta ezpaitçara oharteen çure beguico laçaz.

4. Edo nola dioqueçu çure anaiari : Utz naçäcu, khen dieçadaçudan phits bat beguitic, eta horra ernai bat ceronec beguian duçu ?

5. Oi gaichto, on iduri nahia ! Khen eçaçu lehenic ernaia çure beguitic, eta orduan ikuusico duqueçu nola khen deçaqueçun çure anaiaaren beguitic phitsa.

6. Beguira duçuela gauça sainduac emaitetic orei, eta eztetçaçuela echa çuen harri baliosac urdeen aiteinera; beldurrez ostica ditçaten, eta çuec, oldarturic, cathica çaitçaten.

7. Esca eçaçue, eta emanen çaitçue; bilha eçaçue, eta aurkhituco duçue; io eçaçue, eta idequico çaitçue.

8. Ecen nor nahie esca deçan, içaten du;

eta bilhatcen duenac, aurkhitcen du; eta athea iotcen duenari, idequico çao.

9. Ecen cein da çuen beren artean guicona, bere semeac ogua galdetcen badio, harri bat emanen dioquena?

10. Edo arrain bat galdetcen badio, emanen othe dioque sugue bat?

11. Baldinetariac bada çuec, gaichtoac caretelaric, badaquique gauça onen emaiten çuen umeei, cembatenaz hobequi çuen Aita, ceruetan denac, emanen bide darozte gauça onac galdeteen diotçatenei?

12. Cer ere beraz nahi baituque egun dieçaqueten quei guionec, eta hec guciae egun diotçatçete çuec ere hei; hortan dauntça ecen leguea eta Profetac.

13. Sar çitezte athe hertsitic, ecen athe çabala eta bide handia da galtçapenerat daramana, eta hainitçac dira hartan sartcen direnac.

14. Ala hertsia baita athea, eta Iidea chigorra bieirat daramana, eta gutiac baitira hura aurkhitcen dutenac!

15. Beguira çitezte profeta gueçurtietaric, ceinac ethortcen haitçazquitçue ardiel larruz iaunteiac, barnean ordean dira otso goseti batçu.

16. Bere egozte edo fruituetaric eçagutuco ditutçue. Bil othe daitezque elhorrietaric mahatsac, edo lapharretaric phicoac?

17. Hala, çuhaitz on guciec fruitu onac dakharzquite, eta çuhaitz tçar gueiec tçarrac dakharzquite.

18. Çuhaitz onac egozte tçarric ecin dakhárque, ez eta ere çuhaitz tçarrac égozte onic.

19. Fruitu onic eztakharqueten çuhaitz gueiae, ebaquiaç içanen dira, eta surat aurthiquiac.

20. Eçagutuço ditütüe beraz ekhartcen dutenet.

21. Niri oihuz, Iauna, Iauna, dagozquidanac, eztira hargatic sarthuço gueiae ceruetaco erresuman; bainan norc ere eguiten baitu ene Aita ceruetan denaren nahia, eta hura sarthuço da ceructaco erresuman.

22. Hainitceç erranen daroet egun harthan : Iauna, eztitugu gue çure icenean ethorquiçuneco gauçac aitcinetic aguertu, eztitugu çure icenean deabruac egotci, eta eztitugu çure icenean hainitz ikuhsarri egui?

23. Eta nic orduan erranen daroet garbiçi : Egondaino etçaituztet eçagutu çuec : çohazte ni ganic, gaichtaqueria egualeac.

24. Norc ere bada entçuten baititu ene hitz hauc, eta eguiten, eta harc idurico du guicon çuhur bat, ceinac egui içan baitu bere etchea harrocaren gainean ;

25. Eta erori içan da uria, eta ethorri içan dira çophernac, eta iauci dira haiceac, eta eman içan diote etche hari; eta ezta lurreratu, ceren harrocaren gainean iarria baiteen.

26. Eta norc ere entçuten baititu ene hitz hauc, eta ez eguiten, eta harc idurico du guicon erho bat, ceinac egui içan baitu bere etchea arcaren gainean ;

27. Eta erori içan da uria, eta ethorri içan dira cophernac, eta iauci dira haiceac, eta eman içan diote etche hari; eta lurreratu da, eta handia ere içan da haren erorpene.

28. Ichildu cenean bada Iesus hitz haue erran ondoan, osteac miretsiric cegocen harren erakhuspenaren gainean.

29. Hari citçaien ecen erakhasten bothere cuena beçala, eta ez hequien Isquiribauac eta Pharisauac leguez (1).

---

### VIII. CAPITULUA.

*Iesusec nola dituen sendatcen sorhaioa, soldado aitcindari baten haurra, Piarresen ama-guinarreba. Nola ekhaitça emetcen duen, eta deabruaeg ozten.*

1. IESUS báda iautsi cenean menditie, oste handiac iarrai qui citçaizcon.

2. Eta sorhaio bat ethorri citçaioen, khurteen citçaioela, eta ciotsola : Iauna, nahi baidu, garbi ahal niroçu.

3. Eta Iesusec, escua hedaturic, hunquitu çuen, ciotsola : Nahi dut, çaren garbi. Eta ordu berean garbitua içan cen haren sorhaio-tasuna.

4. Eta erran cioen Iesusec : Beguirauçu nehori ezterroçun; bainan çohaz, eracuts çaquizeo Apheçari, eta eguiçu Moisesec ma-

(1) Leguez, erran nabi da beçala.

natu içan duen emaitça, eta dutela lekhucotasuntçat.

5. Iesus sarthu cenean bada Capharnaumen, ehun guiçonen aitcindari bat hurbildu citçaioen, othoizten çuela,

6. Eta erraiten cioela : Iauna, sehi bat etchean dagot ohatua, escu-çangoac idorturic, eta oinhace handitan dago.

7. Iesusec erran cioen : Ethorrico naiz, eta sendatuco dut.

8. Bainan ihardetsi içan cioen aitcindariac : Iauna, ez naiz ni gai ene atherbean sar çaitecen : bainan erraçu hitz bakhar bat, eta sendatua içanen da ene sehia.

9. Eeen ni ere guiçon bat naiz bertceren escucoa, soldadoac ene azpico ditudana; eta diot bati : Çohaz, eta badoha; eta bertee bati : Athozquit, eta badathorquit; eta ene muthilari : Eguiçu hau, eta eguiten du.

10. Iesusec horiec aditcea miretsi içan çuen, eta erran çaroen iarraiqui citçaizeconei : Erraiten darotçuet egquia, eztut aurkhitu horren sinheste handiric Israel guian.

11. Eta badiotçuet ere, hainitçac ethorrico direla iguzquia atheratcen eta etçaten den aldeetaric, eta iarrico ceruco erresuman Abraham, Isaac eta Iacobequin.

12. Ordean erresumaco umeac egotciac içanen dira campoco ilhumbetarat, eta han içanen da nigar eta hertz-carrasca.

13. Iesusec orduan erran cioen aitcindariari : Çohaz, eta sinhetsi duçunaren ara-

bera egun bequieu. Eta sendatu citçaoen sehia ordu berean.

14. Ethorri cenean Iesus Piarresen etcherat, ikhusi çuen haren ama-guinarrreba ohean çatçala sukharrarequin.

15. Hunquitu cioen escua, eta utci çuen sukharrac, eta iaiqui cen, eta hasi hequien cerbitçatcen.

16. Arratsa ethorri cenean, ekharri ciotçaten deabruec hartuac ciren hainitz, eta khenteen ciotçoten ispiritu gaichtoac hitz batez; eta sendatu cituen eri guciae;

17. Bethe çadintçat Isaias profetac errana içan dena : Berac hartu içan ditu gure herbalasunac, eta gure eritasunac iasain ditu.

18. Ikhusicric Iesusec guicon aralde handi bat bere inguruau, manatu çaroen Dicipuluei, eraman ceçaten uraz bertce alderat.

19. Eta orduan hurbildu citçaoen Isquribau bat, eta erran cioen : Nausia, çohacen toqui gueietara iarraiiquico natçaitceu.

20. Eta Iesusec ibardesten dio : Acheriee badituzte bere cilhoac, eta aireeo hegastinec ere ohateeae; bainan guiconaren Semeac eztu burua non etcan.

21. Bere dicipuluetarie bertce batec erran cioen : Iauna, utz naçaçu lehenic noban, eta ene aita ehortz deçadan.

22. Bainan Iesusec erran cioen : Iarraic caquizquit niri, eta uzquitceu hilac bere hilien chorzteria.

23. Eta sarthu cen untcian, eta bere dicipuluac iarraioui citçaoizcon.

24. Eta itsasoa bet betan handitu cen, halako moldez, non uhinec estaltcen baitçuten untcia; bizquitartean bera lo cegoen.

25. Dicipuluac bada hurbildu citçaizcon, eta iratçarri çuten, erraiten ciotela : Iauna, beguira gaitçatçu, galeen hari gara.

26. Iesusec ihardetsi çaroen : Cergatic icteen çarete, sinheste aphurrecoac? Eta orduan iaiquiric, manatu çaroen haiceei eta itsasoari, eta eguin cen sosegu handi bat.

27. Eta miretsi çuten oroc, ciotela : Ceric othe daiteque hau, haiceec eta itsasoac entçuten baitute?

28. Iragan cenean Iesus itsasoaren bertee aldera, Yeresendarren herrira, aiteinera ethorri citçaizeon bi guiçon deabruuec hartruac, hil hobietariec ilkhiric citçaizeola, era hain gaitçac, non ezpaitcen handic iragaitera nehor ausartatcen.

29. Eta hari citçaizcon oihuz, erraiten ciotela : Cer nahi duçu gutariec, Iesus, Iaincoaren Semea? Ethorri cara huna, ordu den baino lehen, gure oinhazeatcera?

30. Bacen bada, hetariec ez urrun, urdalde handi bat, alha cena.

31. Eta deabruuec othoizten çuten ciotstela : Baldin hemendic egozten bagaitutcu, urdalde hortarat egor gaitçatçu.

32. Eta erran çaroen : Çohazte. Eta hec ilkhiriec ioan ciren urdalderat : eta ordu berean oldartu içan cen urdalde gueia gain behera itsasorat; eta itho ciren urean.

33. Eta urdeçainac ioan ciren ihesi; eta

hirira ethorriric, erran cituzten horiec guciac, eta deabruec hartuei cer guerthatu eitçaioten.

**34.** Berehala hiri gucia ilkhi eitçaiion Iesusi aitcinera; eta ikeriçutenean, othoiztu çuten hequien bazterretarie aldara çadin.

---

### IX. CAPITULUA.

*Guiçon ecindua. San Matheoren deitcea. Iduen aitcindari baten alaba hilaren phiztea. Emazte odol-ichurtcez oinharazcatua. Bi itsuac. Deabruac mututua ceducana.*

**1.** IESUS, unteirat igan eta, iragan een itsasoaren bertee alderat, eta bere hirirat ethorri.

**2.** Eta eman cioten aitcinera eri bat ecindua, eta ohean etçana. Iesusec ikeriçutenea, erran cioen eriari : Ez içan beldurric, ene haurra; barkhatuac dira çure bekhatuac.

**3.** Eta Isquiribauetarie batçuec erraiten çuten bere baithan : Guiçon horrec burho eguiten du.

**4.** Bainan Iesusec ecagutu baitçuen goigoan cer çarabilaten, erran çaroen : Cergatik darabiltçue gogoeta gaichtoac çuen bihotcetan?

**5.** Cein da errechago, erraitea : Barkhatuac çaiquitçu çure bekhatuac, ala erraita : Iaiqui çaita, eta ibil çaita?

**6.** Daquïquentçat bada guiçonaren Se-

meac baduela ahala lurrean bekhatuac bar-khatceco, erran cioen criari : Iaiqui çaitet, eramaçu çure ohea, eta çohaz etcherat.

7. Eta iaiqui cen, eta ioan cen bere etcherat.

8. Ikhusi çuenean hori, balditu cen guiçon oste gucia, eta iarri cen Iaincoari ohore bihurteen, ceren horrelaco indarra emaiten baitçaroen guiçonei.

9. Eta handic iragaiten cela, ikhusi çuen Iesusec guiçon bat bere mahainean iarria legar edo diru biltcen, Matheo ceritçana. Eta erran cioen : Iarraic çaquizquit. Berehala iaiqui cen, eta iarrai qui citçaoen.

10. Guerthatu cen bada, Jesus guiçon haren etchean iaten cegoela, ethor citecen hainitz publicano, edo legar biltçaire, eta hainitz ohitura tçarreco guiçon, eta iar citecen mahainean Iesusequin eta haren dicipuluequin.

11. Hori ikhusiric Pharisauec, erran cioten dicipuluei : Cergatic publicanoequin eta guiçon gaizqui-aiphaturequin iaten du çuen nausiac?

12. Bainan Iesusec hori aditurie, erran çaroen : Eztute sendoeec sendaquin edo mireku beharric, bai ordean eri direnec.

13. Çohazte bada, eta ikhas eçaque cer dakharquen hunec : Nahiago dut urricalmen-dua, ecen ez sacrificioa; ez naiz ecen ethori instuen deiteera, bainan bai bekhatoreen.

14. Orduan hurbildu citçaizecon Ioanesen dicipuluac, erraiten ciotela : Cergatic Pha-

risauac eta gu barurteen gara maiz, eta çure dicipuluac aldiz ezpaitira barurteen?

15. Iesusec ihardetsi çaroen : Ezcon-berriaren adisquideac içan othe daitezque nigarretan, ezcon-berria hequiequin deino? Bainan ethorrico da muga khenduco baitaiote, eta orduan egunen dute barur.

16. Nehorc ez bide du aldagarri çahartu bat oihal berriz osateen : craman liro ecen bere betheco çathia berriac çaharrefic, eta cen baino guehiago urra leçaque.

17. Halaber eztute emaiten arno berria çahagui çaharretan : bertcela leherteen dira çahaguiac, eta arnoa ichurteen, eta çahaguiac galteen. Bainan arno berria eçartcen dute çahagui berrietan, eta biac beguireteen dira.

18. Nola horiec erraiten baitciotçoten, ethorri citçaiion ludutar aitcindari bat, eta agur egun cioen, ciotsola : Iauna, alaba hilçait orai doi doia; bainau çato, emaçu çure escua haren gainean, eta phiztueo da.

19. Eta Iesus chutituric, iarrai qui citçaioen bere dicipuluequin batean.

20. Eta ordu berean emazte bat, hamabi urthe hartan odol-ichurtee batec herbaudua cedecana, hurbildu citçaioen guibeletic, eta hunquitu cioen soinecoaren perthaila ;

21. Bacerran ecen bere baithan : Bertceric ezpadecat ere haren soinecoa hunquiteea baicie, osagarria duquet.

22. Hainbertcerequin Iesusc, itçuliric eta emaztea ikuhsiric, erran içan cioen : Duçula

bihotz on, ene haurra : çure sinhesteara sendatu çaitu. Eta ordu beretic sendatua içan cen emaztea.

23. Heldu cenean bada Jesus aitcindariaren etchera, eta ikhusi cituenean chirolari eta bertee iende multço bat habarrots handitan han cegocela, erran çaroen :

24. Aldara çaitetzte; ezta ecen hila nescatcha hau, bainan lo datça. Eta irri eguiten cioten.

25. Ilkhi-araci çutenean bada iende gucia, sarthu cen, eta hartu cioen escua. Eta iaiqui cen nescatcha.

26. Eta io çuen hunen otsac inguru har tan gucian.

27. Eta handic iragaiten cela Jesus, iarrailqui citçaizeon bi itsu, oihuz çaudecela eta ciotsatela : Urrical çaité gutaz, Dabitén Semea.

28. Eta heldu cenean etchera, itsu hec hurbildu citçaizcon, eta Iesusec erran çaroen : Sinhesten duçue eguin ahal deçaquedala escateen darotaçuena? Erraiten diote hec : Bai, launa.

29. Orduan hunquitu ciotçaten beguiac, erraiten ciotela : Çuen sinhestearen arabera eguin bequieue.

30. Hainberteenarequin idequi citçaizten beguiac; eta mehatchurequin erran cioten Iesusec : Beguirauçue guero, nehorc holacic iaquin ezteçan.

31. Bainan hec, ilkhi eta, barraiatu cituzten haren berriac alde hetan orotan.

32. Hee ilkhi cireanean, ekharri içan cioten guiçon bat mutua, deabruac hartua celacotz.

33. Eta deabrua khendu citçaioenean, mintçatu cen mutua, eta guciec miretsi cuten ciotela : Egundaiño ezta hunelacoric Israelen ikhusi.

34. Ordean bertçaldera cioten Pharisee : Deabruen aiteindariaren escuz khenteen ditu deabruac.

35. Bizquitartean başabilan Iesus hiri eta herri gucietan gaindi, bilkhuetan erakhas-ten çuela, eta eçagut-arazten Iaunaren erresumaco Ebanyelioa, eta sendatcen cer nahi herbal eta eritasun.

36. Eta ikhusten ciuela guiçon oste hec, urricaldu citçaizeon, ceren nekhatuac baiteiren, eta etçanac hor hemenca, nola artçanic eztuten ardi batçu.

37. Diotsate orduan bere dicipuluei : Eguia da uzta handia dela, ezta ordean languile uti baicic.

38. Othoitz eçaque beraz uztaren nausia, egor deçan languile bere uztarat.

---

## X. CAPITULUA.

*Apostoluac Iesusec hautatcen ditu. Bere era-khaspenac eta bothereac emaiten diozcate. Erraiten diote cer gaitz pairatu beharco duten, eta halaber cer saribihurtua içanen caioten.*

1. IESUSEC deithuric bere hamabi dieipuluac, eman çaroen escua ispiritu lobien gainean, hequien gorputcetarie egozteco, eta herbaltasun eta erhasun gucien sendatceco.

2. Hamabi Apostoluen icenac bada hauc dira : Lehenbicicoa, Simon, ceina deitzen baita Piarres, eta Andres hunen anaia ;

3. Iaques Zebedeoren semea, eta hunen anaia Ioanes; Philipe eta Bartholomeo; Thomas eta Matheo publicanoa; Iaques Alpheoren semea, eta Thadeo;

4. Simon Khanaandarra, eta Iudas Iscariot, ceinac saldu baitzen Iesus.

5. Hamabi horiec egorri cituen Iesusec, meçu hauc emaiten çaroztela : Etçohaztela Paganoetarat, eta etçaitetzela sar Samari-tanoen hirietan.

6. Aiteitic cohazte Israelgo etcheco ardi galduetarat.

7. Eta cohazten toquietan, predica eçague, dioçuelarie : Hurbildu da ceruetaco er-resuma.

8. Eriac osa eçatçue, hilae pitz, sorhaioac

garbi, deabruac egotz; urruric emana içan çarotçue, urruric emaçue.

9. Eztuçuela acholaric duçuen, ala ez, urhe, cilhar edo diru çuen çarphetan;

10. Edo duçuen alphorcha bidecotz, edo bigarren aldagari, edo oineco, edo makhi-la : çor çao ecen iana languileari.

11. Cein ere hiritan edo herritan sarthuco baitçarete, iaquin eçaçue nor ditequen han gai çuen ostattatceco, eta haren baithan çaudete, ioan behar çaitetztequen artean.

12. Cein etchetan ere bada sarthuco baitçarete, eguiçoque agur, erraitearequin : Baquaea dela etche huntan.

13. Baldin gai bada etche hora, ethorrico da çuen baquea haren gainerat, eta baldin ezpada gai, çuen baquea çuen ganat bihurtuko da.

14. Eta norbaitec ezpaçaituzte nahi ostattatu, edo ezpadu çuen hitçac aditu nahi, etchetic edo hiritic ilkhitcearequin batean, iharros eçaçue çuen oinetaco herrautsa.

15. Eguiazqui erraiten darotçuet, errech-quago iasainen duela Sodomoarren eta Gomorrearren lurrac iuiamenduco eguna, ecen ez hiri bare.

16. Horra non egortcen çaituztedan ardi batęn beçala otsoen arterat : içan çaitezte beraz çuhur sugue batçu beçain, eta guti amarrutsu nola uso batçu.

17. Bainan beguira çaitezte guionetaric : ecen eramanen çaituztete bere biltçarren aitcinera, eta bere bilkhuetan açotatuco çaituztete;

18. Eta aitcindarietara eta erregueetara eramanac i  anen   arezte ni gatic,   aitetz-tent  at nitaz lekhuco hei eta populu atceei.

19. E  artzen   aituztetenean bada hequien escuetan, et  aitetzela gogoetan iar nola edo cer erranen dioqueten; emanen   ait  ue ecen ordu berean cer hei erran.

20. Ecen et  arete   uec mint  o   aretenac, bainan   uen Aitaren Ispiritua da   uen baitan mint  o dena.

21. Anaiac ekharrico du anaia hil de  aten-  
t  at, eta aitac semea; eta altchatuero cit  aiz-  
cote haurrac burhasoei, eta hil-aracico di-  
tuzte.

22. Eta gucieec gaiteetsiac i  anen   arete  
ene ieena gatic; bainan norc ere iraunen bai-  
tu azquen bururaino, eta hora i  anen da sal-  
batua.

23. Noiz ere bada gaizqui erabilico bait  ai-  
tuztete hiri batean, ihes egui  ue bertee bate-  
tara. Erraiten darot  et egua: Eztitut  ue Is-  
raelgo hiri gueiac inguratuko, non eztadin  
ethor guionaren Semea.

24. Ezta dicipulua nausia baino guehiago,  
eta ez sehia bere iauna baino guehiago.

25. Asqui da dicipulua bere nausia be  ala  
i  an dadin, eta sehia bere iauna be  ala. Bal-  
din etcheco buru  aguia Beelzebuth deithu  
badute, c  embatenaz guehiago haren sehiac?

26. Et  aretelala beraz hequien beldur: ecen  
ezta deus estaliric aguertuco eztenic, ez eta  
deus gorderic iaquinen eztenie.

27. Nic ilhumbean erraiten darot  etana,

erraçue quec arguijan, eta beharrira entzen duenua, oihuz erraçue etche gainetan.

28. Eztuuela beldurric gorphutxa hiltzen dutenen, eta arima hil ezteçaquetenentzat : bainan careten beldur bai arima eta bai gorputxa ifernuan gal-araz detçaquenaren.

29. Ezta egquia bi etche-chori bi arditetan saltzen direla? Eta hargatic bietaric bat ere ezta lurrerat erorico, çuen Aitaren nahia gabe.

30. Bada çuen buruco ileac ere guciac khondatuac dira.

31. Eztuuela beraz beldurric : hainitz etche-chori baino guehiagocotzat eduquitcecoac carete quec.

32. Bada norc ere ni aithortueo bainau guionen aitcinean, eta nic ere hora aithortuco dut ene Aita ceruetan denaren aitcinean.

33. Bainan norc ere ni ukhatuco bainau guionen aitcinean, eta nic ere hora ukhatuco dut ene Aita ceruetan denaren aitcinean.

34. Ezteçaquela nste içan baquearen ekharteara ethorri naicela lurrerat : ez naiz baquearen ekharteara ethorria, bai ordean ezpataren.

35. Ethorri naiz ecen semearen bere aita ganic, eta alabaren bere ama ganic, eta errenaren bere ama-guinarrreba ganic berechtera.

36. Eta guionac etsaitzat bere etchecoac içanen ditu.

37. Norc ere maiteago baitu aita edo ama ni baino, haina ezta enetçat on: eta norc ere maiteago baitu semea edo alaba ni baino, haina ezta enetçat gai.

38. Eta bere khurutcea harteen eztuena, eta niri eztarraitana ondotic, ezta enetçat gai.

39. Bere bicia beguirateen duenac, galduco du: eta nore ere galduco baituque bere bicia ni gatic, eta harc beguiratuco du.

40. Quec harteen çaituztenac, ni hartcen nau; eta ni hartcen nauenac, harteen du ni egorri nauena.

41. Profeta bat harteen duenac, Profeta delacotz, içanen du Profetaren saria; eta iusto bat harteen duenac, iustua ceren den, iustuaren saria içanen du.

42. Eta norc ere emanen baitio beira bat ur hotz baicen ezpada ere chumetto hautaric bati, ene dicipulua delacotz, eguiaz erraiten darotçuet, eztu galduco bere saria.

## XI. CAPITULUA.

*Ion Done Ioanesec Iesusi egortcen diozca bere dicipuluac. Nola Iesusec goresten duen Ioanes. Hiri urriquitan sarthu nahi eztirenei mehatchuaec. Nola Ebanyelioa estalia ohi den çuhurrentçat, eta aguertua ttipiei.*

4. ERAKUASPEN horiec bere dicipuluei eman ciozten ondoan, ioan cen Jesus handie ingu-

ruetaco hirietan erakhastera, eta predicatora.

2. Bada Ioanesec, cephoetan cegoela, adituric Iesu-Christoren eguintcez aiphateen, egorri ciozean bere dicipuluetaric bia,

3. Berari galdeeteera : Cu cara ethorteecea den hora, ala bertceric iguriqui behar othe dugu?

4. Iesusec ihardetsi çaroen : Cohazte, erroque Ioanesi, cer aditu eta cer ikhusi içan duquen.

5. Itsuec ikhusten dute, mainguac badabiltça, sorhaioac garbi dira, gorrec aditeen dute, hilac phizten dira, beharrei Ebanyelioa erakhasten çacie :

6. Eta dohatsu diteque nitaz gaiz bideric harteen eztuena.

7. Hee hainbertcenarequin ioan cirenean, hasi cen Iesus populuari Ioaneses mintçateen : Ceren ikhustera ilkhi çarezte mortura? Haiceac darabilan khanabera baten?

8. Ordean ceren ikhustera ioan çarezte? Guiçon guriqui eta ederqui iauntzia den baten? Guriqui iaunzten direnac, erregueen etchetalan ohi dira.

9. Ceren ikhusten içan çarezte bada? Profeta baten? Bai, erraiten darotçuet, eta Profeta baino guehiagocoa den baten.

10. Hortaz eein isquiribatua içan da : Huna non egorteen dudan çure aitcinean ene mandataria, eta harc aphainduko du çure bidea aitcineticie.

11. Erraiten darotçuet egquia, emaztetaric

sorthu direnen artean, ezta aguertu Ioanes Baptista baino handiagorie : eta bizquitar- tean ceruetaco erresuman den chumenea handiago da hora baino.

12. Bada Ioanes Baptistaren egunetaric hunat, ceruetaco erresumari indar eguin behar çao, eta hora indar-guileec daramate.

13. Profeta guciec ecen eta legueac, Ioanes Baptista ethorri arteraino, ethorquiçunac cer çakharren erran içan dute.

14. Eta nahi baduçue ongui hartu, hori bera da Elias, ethorri behar cen hora.

15. Duenac beharri entçuteco, entçun beça.

16. Bainan cer iduri dutela erranen dut egungo guiçonec? Iduri dituzte haur batçu plaçan oihuz dagocenac bere lagunei,

17. Eta diotenac : Chirola io darotçuegu, eta etçarete dantçatu ; auhen eguin darotçuegu, eta eztuçue nigarric ichuri.

18. Ethorri içan da ecen Ioanes Baptista, eztuela ez iaten, ez edaten ; eta diote : Deabruac hartua da.

19. Ethorri da berriz guiçonaren Semea, iaten duela eta edaten ; eta diote : Guiçon bat da ecin asea eta hordia, publicanoen eta guiça tçarren adisquide dena. Bainan çuhurcia eçagutua da çuhurciatçat bere umeez.

20. Orduan hasi citçaien erantuten hiri hequiei, ceinetan hambat ikhusgarri eguin baitçuen, ceren etciren urriquitian sarthu.

21. Corigaitz ducala, Corozaim! corigaitz

ducala, Bethsaida! ceren baldin Tiren eta Sidonen egun içan balira çuetan egun içan diren ikhusgarriac, aspaldian urriquitan sarthuric, çakhuz eta hautsez bere burnac estalico baitcitzten.

22. Hargatic erraiten darotçuet : Etçaiote hain garrazqui egunen Tiri eta Sidoni iuamenduko egunean, nola çuei.

23. Eta hi, Capharnaum, goratuco othe haiz bada ceruraino? Ifernuraino beheratua içanen haiz; ceren baldin Sodoman egun içan balira, hi baithan egun içan diren ikhusgurriac, behar bada osoric iraunen baitcian egungo eguneraino.

24. Hargatic erraiten daroat, etçaioeila hain garrazqui egunen Sodomaco lurrari, iuamenduko egunean, nola hiri.

25. Ordu hartan Iesusec hitz hauc erran cituen : Esquerrac bihurteen darozquitçut, ene Aita, ceru-lurren launa, ceren hauc estali diotçotçuten çuhurrei eta adituei, eta erakhutsi chumeei.

26. Bai eiqui, Aita : alabainan horrela onhetsi içan duçu.

27. Gauça guciak eman darozquit ene Aitac; eta nehore eztu eçagutcen Semea Aitac baicen; eta nehore eztu eçagutcen Aita Semeac baicen, eta nori ere Semeac erakhutsi nahico baitaroca.

28. Çatozte ni ganat, nekhatuac eta çama pean çareztenac oro, eta nic arinduko çaituztet.

29. Har eçaçue ene uztarria çuen soineta-

rat, eta ikhas eçaçue ni ganie eme naicela bihotcez eta aphal; eta aurkhituco duçue cuen arimen sosegua.

30. Ene uztarria ecen eztia da, eta ene çama arina.

---

## XII. CAPITULUA.

*Nola dicipuluac, sabbatho egunean, ogui burruac hautsiz iaten ahal cituzten. Escu ihartua. Mesiaren eztitasuna. Itsu mutua. Ispiritu lohia. Ionasez eta iguzqui aldeco Erreginaz. Iaunaren eguiazco ama eta haurideac.*

1. ORDU hartan cihoan Jesus ogui alhor batu gaindi, eta larumbata cen; eta haren dicipuluac, gose cirelacotz, hasi ciren ogui buru biltcen eta iaten.

2. Pharisauec bada, hori ikhusiric, erran cioten : Beha eçaçu bada nola eure dicipuluac eguiten duten larumbat egunetan cilhegui eztena.

3. Bainan Iesusec erran çaroen : Eztuçue iracurri cer eguin cuen Dabitec bere lagunequin, gose ciren batez;

4. Nola sarthu içan cen Iaincoaren etchean, eta ian baitcituen ofrendaco oguiac, ceinetric ezpaitçaoen cilhegui iatea, ez eta harequin cirenei, bainan bai Aphecei bakharric?

5. Bertçalde, eztuçue iracurri leguean, larumbat egunetan Apheceec larumbata tem-

ploan hausten dutela, eta halere hoben gabe direla?

6. Erraiten darotquet bada, temploa baino cerbaitago dena badela hemen.

7. Bacinaquite cer dioqueten hitz hauec : Urricalmendua nahiago dut, ecen ez sacrificioa : ez bide ciuquete huts gabeci neholere hutsic eratchec.

8. Nausi da eeen guiçonaren Semea larumbataren ere.

9. Eta ioan cen handie, eta hequien sinagogarat (1) ethorri cen.

10. Eta aurkhitu quen han guiçon bat esqua ihartua quena. Eta galdeguin cioten : Cil-hegui da larumbat egunean norbaiten sendatcea? Nahico ququeten ecen cerbait hutsez bilhatu ahal içan balute.

11. Berac ordean ihardetsi çaroen : Cein diteque quen artean guiçona, ardi bat luquena, eta hora larumbat egunean cilho batetara eror balaquio, hatceman ezleçaquena eta athera?

12. Cembatez ezta bada guehiagotan eduguitcecoa guiçona ardia baino? Beraz cilhegui da larumbat egunetan ongui eguitea.

13. Orduan erran cioen guiçon hari : Heda ecaçu çure escua. Hedatu quen, eta ber-teea beçain on eguin citçaiion.

14. Ilkhi ciren bada Pharisauac, eta hasi ciren elkarrequin aditeen Iesusen caltetan, nolatan othe gal ceçaqueten.

(1) *Sinagoga*, Iudutarren bilkhua, biltçarra.

15. Iesusec, hori eçaguturie, aldaratu cen handican, eta hainitçac iarrai qui citeaizeon, eta gueiac sendatu cituen.

16. Eta debecatu çaroen beraren aguer-cetic;

17. Bethe çadintçat Isaias profetae erran çuemua :

18. Huna ene cerbitçari hautatu dudana, ene maitea, ceinetan hartcen baitut gueiz atseguiñ : ecarrico dut ene Ispiritua haren gainean, eta erakhatsico diote çucentasuna populu atceei.

19. Eztu iharduquico, ez oihuric egunen, eta nehorc eztu adituco haren boça carrique-tan.

20. Khanabera çartatua eztu hautsico, eta khea darion mitcha eztu iraunguico, ga-raia eman diroeino çucentasunari.

21. Eta haren iccnean esperantça nacio-neec içanen dute.

22. Orduan ekharri cioten aitcinerat deabruac ceducan guiçon bat, itsua eta mutua, eta sendatu çuen, halatan non mintçateen baitcen eta ikhusten baitquen.

23. Eta espantatua guelditu cen populu gacia, eta cioten : Ez othe da hau Dabitén Semea ?

24. Pharisauec berriz, hori adituric, erraiten çuten : Eztitu hunec deabruac aurthi-quicen, baicen ere Beelzebuth deabruen ai-teindariaren indarrez.

25. Bainan Iesusec, eçagutu baiteituen he-quien gogoetac, erran çaroen : Bera beraren

etsai den erresuma iraulia içanen da, eta berac bere etsai diren hiriec eta etcheec ecin iraun deçaquete.

**26.** Baldin bada Satanec Satan khentcen badu, bera bere etsai da; nola iraunen du haren erresumac?

**27.** Eta, baldin nic Beelzebuthen indarrez khentcen baditut deabruac, çen semeec noren indarrez khentcen othe dituzte? Hargatic bada hequien ahoz içanen çarezte gueçurztatuac.

**28.** Bertçalderat ordean, baldinetariae nic Iaincoaren Ispirituaz khentcen baditut deabruac, ethorria da beraz çuetarat Iaincoaren erresuma.

**29.** Edo nola daite, norbait sar dadin guicon indartsu baten etchean, eta dituenac ebats diotçon, ezpadu bera lehenic lotcen? Guero etehe gucia biluz baitioque.

**30.** Ene alde eztena, ene etsai da; eta enquin biltzen eztuenac, barraiatzen hari da.

**31.** Hargatic erraiten darotçuet : Cer nahi den gaizqui eta burho barkhatnac içanen ciçäie guiconei; bainan Ispiritu Sainduaz burho eguna etçäie barkhatuco.

**32.** Nor nahi gaizqui mintça dadin guicorren Semeaz, barkhatuco çao : bainan baldin nehor Ispiritu Sainduaz gaizqui mintçatzen bada, etçao barkhatuco, ez mende huntan, ez ethorquiçuneco mendean (1).

(1) Ispirita Sainduaren contra den bekhatua cein ditequen erraitea, ezta errech. Mintço dela launa

33. Erraçue bada çuhaitça ona dela, onie dakharquencau; eta erraçue çuhaitça tçarra dela, tçarric dakharquenean : alabainan dakharnetic agueri da çuhaitça cerie den.

34. Ciraucumeac, nola mintça ahal çaitezquete ongui, cebonec gaichtoac caretent artean? Eeen bihotçac daukanetic, mintço da ahoa.

35. Guiçon onac bere gordailu onetic gauça onac idoquiteen ditu, eta gaichtoac gaichtotic idoquiteen ditu gaichtoac.

36. Bada erraiten darotçuet : Guiçonec erran duqueten hitz alpher oroz khondu emanen dute iuiamenduco egunean.

37. Çure hitetaric ecen içanen cara ontçat eçagutua, bai eta çure hitetaric tçartçat.

38. Orduan Isquiribau eta Pharisauetaric cembaitee erran cioten : Nausia, cembait ikuusgarri nahi guinduque eguiten bacinacrou.

39. Bainan ihardetsi çaroen Iésusec, eta erran : Casta gaichto eta sinheste gabe hunec ikuusgarri bat galdetcen du; bainan etçao Ionas profetarenaz bertceric emanen.

40. Ecen nola Ionas balearen sableean hirur egun eta hirur gauez içan baitcen, hala

bekhatu handi batez, agueri dena da. Bainan dena dela, ezta bekhaturic barkha eztitequenic ; diren arren bekhatu batçou hain icigarriac, non hequien barkhamendua, hainitz gaitça delacotz, ecin ardieitsia deith ahal baititeque, erraiteco molde batez.

guiçonaren Semea ere luraren bihotcean hirur egunez eta hirur gauez egonen da.

41. Ninibatarrac chutituco dira iuiamenduco egunean populu hunen contra, eta gaichtotçat eçagut-aracico dute, ceren hec urriquitan sarthu baitciren Ionasec predicatcearequin batean; eta bizquitartean hemen de-na Ionas baino guehiagocoa da.

42. Hegoco erreguina jaiquico da iuiamenduco egunean populu hunen caltetan, eta gaichtotçat eçagut-aracico du, ceren hora ethorri baitcen luraren azquen bazterrètic, Salomonen çuhurteiaren aditceco; eta bizquitartean Salomon bainoagoa hemen bada.

43. Ispiritu lohia ilkhi denean guiçon batzen ganie, badoha toqui agor batçu barna, bere nekhea arindu nahiz; eta ecin deçaque.

44. Orduan erraiten du : Bihurtuco naiz ene etcherat, ceintaric ilkhi içan bainaiz. Eta ethorri denean, aurkhitzen du hutsa, garbitua eta aphaindua.

45. Badoha bada, eta haricen ditu berequin bertee çazpi ispiritu bera baino gaichtoagoac; eta sarthu direnean, eguitén dute han bere egoitça : eta guiçon haren azquen çoria gaitçagoa da lehenbicicoa baino. Bada berbera guerthatuco çao casta gaichto huni ere.

46. Mintço celaric oraino populuari, haren ama eta anaiac lekhorean çaudecen, eta mintteatu nahi çuten (1).

(1) Iudutarren artean hurbileko ahaideac *anaiac* deitzen ohi ciren, nahiz etciren anaia eguzkio.

47. Erran içan cioen bada norbaitec : Çure ama eta anaiae campoan daude çure galdez.

48. Bainan ihardetsi cioen hori erran cioenari : Nor da ene ama , eta nor dira ene anaiae?

49. Eta hedaturie escua bere dicipuluetara , erran çuen : Huna ene ama eta ene anaiae.

50. Ecen norc ere eguiten baitu ene Aita ceruetan denaren nahia , eta hura da ene anaia , eta arreba , eta ama.

---

### XIII. CAPITULUA.

*Haciaren, iracaren, mustardaren, altchagarraren, tresoraren, perlaren eta sarearen iduripenae. Nola Profetaric ezten bere herrian onhetsia denie.*

1. EGUN hartan berean, Jesus, etchetic il-khiric, iarria itsas bazterrean cegoen.

2. Eta bildu baitciren haren ganat iende oste handiac, untei batetarat igan cen eta han iarri , eta populu gucia cegoen ur heguian.

3. Eta mintçatu citçaien hainitz gauçaz , iduripenez cioela : Behin ilkhi içan cen ereile bat ereitera.

4. Eta ereiten hari cela, bihi lipher bat erori cen bidearen bazterrera , eta choriec , ethorriric , ian çuten.

5. Bertee lipher bat erori cen toqui legartsu batetara, non ezpaituen lur hainiticie; eta berehala sorthu cen, ceren ezpaitcen lurra lodi :

6. Bainan iguzquia ilkhi eta, erre cen, eta nola ezpaituen egun erroric, ihartu cen.

7. Bertee lipher bat erori cen elhorripera; elhorriac ordean handitu ciren, eta itho cuten.

8. Bertee bat bada erori cen lur onera, eta ekharri iean quen bihi batec elunca, berteeac hirur hogoica, bertee batec hogoi eta hamarca.

9. Beharriric duenac aditecco, adi beça.

10. Dicipuluec, orduan hurbilduric, errancioten : Cergatic mintço citçazte hitz estalitan?

11. Ihardetsi çaroen : Ceren quei emana içan baitçaitçue ceruetaco erresumaco gauça gordeen eçaguteara; ez ordean hei.

12. Ecen duenari, emanen çao, eta içanen du gaindizca : bainan eztuenari, duena ere edequico çao.

13. Hartaracotz hitz estaliz mintço natçiae hei; ceren dacusatelaric, ezpaitute ikhusten, eta entçuten dutlarie, ezpaitute entçuten ez aditzen.

14. Eta bethetseen da bequien baithan Isaias profetac erran duena : Beharriz entçunen duçue, eta ez adituco; eta beguiz ikhusicio duçue, eta etçarete ohartuko.

15. Naguitu ecen çao populu huni bihotxa; eta gorrarena egun dute, eta hertsi di-

tuzte beguiac; beldurrez beguiz ikhus deca-  
ten, eta beharriz entçun, eta bihotcez adi,  
eta niganat itçul daitecen, eta senda detça-  
dan.

**16.** Dohatsuac dira ordean çuen beguiac,  
ceren ikhusten baitute, eta çuen beharriac,  
ceren entçuten duten.

**17.** Erraiten darotçuet ecen eguaia, hainitz  
Profetec eta guion çucenec guthicia içan du-  
tela ikhusteaz quec dakhusaquena, eta ezpait-  
tute ikhusi; eta entçuteaz quec entçuten du-  
quena, eta ezpaitute entçun.

**18.** Quec beraz adi eçaçue ereilearen idu-  
ripena.

**19.** Norbaitec entçuten badu erresumaco  
hitça, eta ez ongui harten, ethortcen çao  
etsaia, eta edequitcen dio bihotcean ereina  
içan çaoena; huntaz aditu behar da bide baz-  
terrean erein den hacia.

**20.** Toqui harritsuan erein dena bada, hu-  
ra dagoco hitça aditeen, eta berehala boz-  
cariorequin harten duenari :

**21.** Ordean eztio bere baithan erroric  
eman, eta halatan ez iraupenic ere : hargatic  
atsecabeac eta gaizqui bilhatceac hitçaren ga-  
tic heldu citçaizeoen beçain sarri, behazto-  
pateen da.

**22.** Elhorriean erein içan den hacia, ber-  
tce hitçaren aditçaille batı dagoca, ceinaren  
baithan mende huntaco antsiec eta aberas-  
tasunen lilluramenduec ithotcen baitute, eta  
deus ekhartcetic debecatcen.

**23.** Bainan lur onean erein içan den ha-

ciac, dakharque hitçaren aditçaire bat, ongi hartseen duena, eta ekhar-arazten dioena noiz batentçat ehun, noiz hirur hogoi, noiz hogoi eta hamar.

**24.** Bertce iduripen bat erakhatsi çaroen, erraiten çaroelaric : Ceruetaco erresumac iduri du guïçon bat, ceinac haci ona erein baitçuen bere landan.

**25.** Bainan etchecoac lo çaudecela, ethori cen haren etsaia, eta erein cioen iraca oguiaren erdian, eta ioan cen.

**26.** Handitu cenean bada belharra, eta lastoa burutu, aguertu cen iraca ere.

**27.** Orduan etcheco iaunari ethorri citçaizcon sehiac, erraitera : Iauna, eztu bihi garbia erein çure landan ? Nondie dakharque bada iraca ?

**28.** Ihardetsi çaroen : Ene etsaia da horren egualea. Erran cioten sehiac : Nahi duçu goacen, eta iracac bil detçagun ?

**29.** Ihardetsi çaroen : Ez, ezteçaquen iracarequin batean ogua ere erroz itçul.

**30.** Utz eçatçue bata eta bertcea handi diten uztaraino, eta uztaroan erranen daroet ephaileei : Bil eçaquue iraca lehenic, eta loth eçaquue çamaca, erre deçaguntçat ; bainan ogua bil eçaquue enc biliteguirat.

**31.** Berriz bertce iduripen bat erakhatsi çaroen, erraiten çaroelaric : Ceruetaco erresumac iduri du mustarda bihi bat, ceina guïçon batec hartu eta, erein baitçuen bere alhorrean.

**32.** Haci hura da haci gucietaric chehe-

ena; bainan handitu denean, handiago da bertce belhar guciāc baino, eta çuhaitz eguiten da; halaco moldez, non aireco hegastinac ethortcen baitira haren adarretan coca-teera.

33. Bertce iduripen bat ere erran çaroen : Iduri du ceruco erresumac lemamia, ceina emazte batec hartcen baitu, eta eçartcen hirur neurri irinetan, orhe gucia haz dadin artean.

34. Hauc oro hitz estalitan erran ciotçaten Iesusec aditçailleei, eta etcitçaien mintço iduripenez baicic;

35. Bethea içan çadıntçat Profetaren errana : Idequico dut ahoa, iduripenez mintço naiçela, eta erakhutsico ditut ceru-lurren hastapenetic gorderie çaudelen gauçac.

36. Orduan popluua utciric, ethorri cen Iesus etcherat; eta dieipuluac hurbildu eitäizeon, erraiten ciotela : Cheha dieçaguçu iracaren iduripena.

37. Ihardetsi çaroen, eta erran : Haci onaren ereilea, guiçonaren Semea da.

38. Eta landa, mundua da. Haci ona beriz erresumaco umeac dira; eta iracac etsaia-ren umeac dira.

39. Etsaia bada, hec erein dituena, da deabrua. Uzta da mende hunen akhabantça; eta uzta-ephaileac, dira ainguerauc.

40. Hala nola beraz biltcen baitira iracac, eta suan erretcen, halaber guerthatuco da mende hunen azquenean.

41. Guiçonaren Semeac bere ainguerauc

egorrico ditu, eta bilduko dituzte haren erre-suman gaiz-bide emaile, eta gaichtaguinac oro.

**42.** Eta egotcico dituzte labe gorirat : han içanen da nigar eta hortz-carrasca.

**43.** Orduan iustuec distiatuco dute iguzziac beçala bere Aitaren erresuman. Behar-riric duenac aditceco, adi beça.

**44.** Ceruetaco erresumac iduri ditu diru batetu landa batean gordeac : hec aurkhituric guiçon batec, estalteen ditu; eta bozca-rioz bethea badoha, dituenac salteen ditu, eta landa hura erosten.

**45.** Ceruetaco erresumac iduri du oraino guiçon sal-erosle bat, perla ederren bilha dabilana.

**46.** Aurkhituric bada perla bat ederrene-taric, ioan cen cituen gucien saltcera, eta perla hura erosi içan çuen.

**47.** Dirudi oraino ceruetaco erresumac sare bat, itsasora aurthiquitzen dutena, cein-nac arrain mota guciataric biltzen baitu.

**48.** Bethea ditequenean, idoquiteen dute arrantçaleec uraren bazterrera, eta han iarriric,erezten dituzte eta emaiten onac otharretan, tçarrac aldiz botatzen.

**49.** Halaber guerthatuco da mendeen az-quenean : ilkhico dira ainguernac, eta alda-ratuco dituzte gaichtoac onen artetic,

**50.** Eta aurthiquico dituzte labe gorritu-rat; içanen da ban nigar eta hortz-carrasca.

**51.** Aditu ditutçue hauc guciac? Diotsate hec : Bai, launa.

52. Eta harc erran çaroen : Bada cerueta-co erresumari datcheconetan iaquintsun de-na, etcheco iaun baten pare da, ceinae atheratcen baititu bere gordailuetarie gauça berriac eta çaharrac.

53. Eta iduripen hauc crakhatsi cituen on-doan, ioan cen handic Jesus.

54. Eta ethorri cenean bere herrirat, hari cen biltçarretan erakhasten, halatan non guciec miretsiric, erraiten baitçuten : Nondic othe ditu hunec çuhurteia hori, eta ikhusgarri horiec?

55. Eztea hau çurguin-seme? Eztea hunen ama Maria deitcen, eta anaiae Iaques, eta Ioseph, eta Simon, eta Iudas?

56. Eta eztira hunen arrebac oro gutarteau? Nondie dituzque beraz hunec horiec guciac?

57. Eta gaiz-bide hartcen çuten Jesus bai-than. Erran çaroen bada : Ezta Profetaric ohoratua eztenic, bere herrian baicen, eta bere etchean.

58. Eta etçuen eguin han ikhusgarri hainicic, hequier sinhes-gogortasuna celacotz.

#### XIV. CAPITULUA.

*Ion Done Ioanes Baptista cephoetan; eta hil-  
teen dute. Bortz ogniz osteac hazten ditu Je-  
susec. Jesus eta Ion Done Petiri uraren gai-  
nean ibiltzen dira.*

1. ORDU harten Herodes erreguec aditu çuen Iesusez handizqui aiphateen,

**2.** Eta erran çaroen bere cerbitçariei : Hori Ioanes Baptista da; hora bera da, hiletaric phiztua; eta hargatic hambat ikhusgarri egiten dira haren escuz.

**3.** Herodesec ecen Ioanes har-araci çuen, eta estecaraci, eta cephoetan ecarri, Herodias bere anaiaaren emaztea gatic;

**4.** Ioanesec erraiten baitcioen : Etçaiteu haiçu emazte horren içaitea.

**5.** Eta nola hil nahi baitçuen Herodesec, beldur içan cen populuaren, ceren baitçaducaten Profeta batentçat.

**6.** Herodesen sor-egunean bada, Herodiasen alaba dantçatu içan cen Herodesen aitcinean, eta onhetsi çuen ;

**7.** Hambat non, cin eginez aguindu baitcioen emanen ciuela galde cioçoquen gucia.

**8.** Eta harc, aitcinetic amac erran baitcioen, diotsa : Indaçu, hemenche, untei batean, Ioanes Baptistaren burua.

**9.** Galde horrec lotsatu çuen erregue; bainan cin eguin çuelacotz, eta mahainean harquin cireneng gatic, manatu çuen eman cequioela.

**10.** Eta egorri çuen ebaquitcera burua Ioanes Baptisari bere presondeguian.

**11.** Eta ekharri çuten burua untei batean, eta eman cioten nescatchari, eta harc era man cioen bere amari.

**12.** Guero ethorriric haren dicipuluac, eraman çuten gorputça, eta ehortei çuten, eta ioan ciren Iesusi erraitera.

**13.** Aditu cituenean horiec, Iesus, untcitto

batetara iganic, aldaratu cen handic eremura, bakhartasuna nahiz. Bainan iaquin çuen populuac, eta oinez iarrai qui citçaizecon hainitz hiritaric.

14. Ilkhitcean bada unteicie, eta ikhustearequin iende bilduma handi bat, urricaldu citçaizecon, eta eriac sendatu cituen.

15. Nola ilhunari hari baiteen, hurbildu citçaizecon dicipuluac erraitera : Lekhu mortu bat da hau, eta ia eguna badoha ; egor ecatçu oste hauc, dohacela herrietarat, eta eros deçaten iateco behar dutena.

16. Bainan erran çaroen Iesusec : Eztute ceren ioan ; emoquete quec iatera.

17. Ihardetsi cioten : Eztitugu eta hemen bortz ogui baicen, eta bi arrain.

18. Erran çaroen : Ekhar dietçadatçuet hunat.

19. Eta iar-araciric osteac belharraren gainean, hartu cituen bortz oguiac eta bi arrainac, eta, beguiac cerura alchaturic, othoitz eguin çuen hequien gainean, hautsi eituen, eta dicipuluei eman çarozten, eta dicipuluec osteei.

20. Ian çuten guciec, eta ase ciren ; eta bildu cituzten goitituetaric hamabi sasqui phuscaz betheac.

21. Bada ian çutenac baciren bortz mila guiconetaraino, emazteac eta haur chumeac bertçalde.

22. Handic berehala hertchatu cituen Iesusec bere dicipuluac untcira igan çaitecen, eta cohacen uraren bertee aldera hora baino

lehen, populua guibelat egor ceçan bizquitartean.

23. Eta egorri çuen ondoan, igan cen mendia batetara bera bakharrie, othoitz eguiteco. Eta arratsa ethorri cen, han ber-bera cegoe-la.

24. Bizquitartean dicipuluen untcia itsasoaren erdian uhinec cchatua çabilan; ecen haice gaichtoa cen.

25. Bainan gabazco hirur orduetan, ethori citçaien Iesus, uraren gainean oinez çabilala.

26. Eta ikhusi çutenean nola itsasoaren gainean çabilan, lotsatu ciren, eta erran çuten: Mamua da. Eta icialdurarequin hasi ciren oihuz.

27. Ordu berean mintçatu citçaien Iesus, eta erran çaroen: Auçue (1) bihotz on: ni naiz, ez ici.

28. Ihardetsi cioen Piarresec: Iauna, çubaçara, aguin (2) dieçadaçut ethor nadin çuganat, uraren gainean nohala.

29. Iesusec erran cioen: Çato. Eta iautsiric untcitic, baçabilan Piarres uraren gainean, Iesusen gana cihoala.

30. Bainan nola ikhusi baitçuen hazcarra cela haicea, icitu cen; eta hasi cen hondorat ioaiten, eta deihadar eguin cioen, cioela: Iauna, hel çaquizquit.

31. Eta berehalat escua Iesusec hedaturic,

(1) *Auçuc, auc, içan eçaçue, içan eçac.*

(2) *Aguintcea, manatcea, edo hitz emaitea.*

lothu citçaion, eta erran cioen : Çaren sinheste aphurrecoa! Cergatic beldur içan du-  
eu?

32. Eta igan cirenean untcirat, guelditu  
cen haicea.

33. Untcian cirenac bada ethorri citçaizcon  
eta adoratu çuten, ciotela : Eguiazqui,  
laincoaren Semea cara.

34. Eta uraren bertce aldera iraganic,  
ethorri ciren Yenesargo lurrera.

35. Eçagutu çutenean herri hartaco guiço-  
nec, adi-araci çuten inguru gucico herrieta-  
ra, eta eri ciren guciae ekharri ciotçaten;

36. Othoizten çutelaric, utcioçoten bede-  
ren soinecoaren heguia hunquitcera; eta hun-  
quitu çutenac oro sendo guelditu ciren.

---

## XV. CAPITULUA.

*Pharisauec gaizqui hartcen dute, Iesusen di-  
cipuluec iaten baitçuten escuac garbitu ga-  
be. Khanaandarraren alabari osasuna bihur-  
tcen dio. Laur mila guïçon eta guehiago,  
çazpi oguiz asetcen ditu.*

1. ORDUAN hurbildu citçaizcon Ierusalemeric heldu ciren Isquiribau eta Pharisaubatęu, eta erran cioten :

2. Cergatic çure dicipuluec hausten dituze  
te gure aitcinecoetaric ethorri çarozquigun  
usantçac? Eztituzte ecen escuac garbitcen ia-  
teracoan.

3. Iesusec ihardetsi çaroen : Eta cergatic hausten duçue cebonec Iaincoac aguindua, çuen usantçari iarraiquitcecotçat? Iaincoac eecon erran du :

4. Ohora eçatęn aita eta ama; eta : Aita edo ama laidostatu duena, hil bedi.

5. Çuec berriz dioçue : Norc ere erranen baitio bere aitari edo amari : Nic Iaincoari escaintcen diotçadan emaitçac oro, çure one-tan içanen **dira** ;

6. Eta haina egon daitequela bere aita edo ama lagundi gabe : eta horrela ezdeustatu duçue Iaincoaren aguincta, çuen usantça delacotz.

7. Iduriz baicic on etçaretenac ! Ala ongi çuetaz asmatu içan baitu Isaiasec, erran içan duencan :

8. Populu hunec czpainez goresten nau; bihotça ordean urrun du niganic.

9. Bainan alpherretan ohorateen naute, erakhasten dituztenaz gueroz guiçonen era-khaspen eta manuac (1).

10. Eta deithurie osteac bere ganat, erran çaroen : Entçun eçaçue, eta adi eçaçue.

11. Eztu ahoan sarteen denac satsutcen (2)

(1) Iaunac hemen aiphatcen ditu guiçonen asmu gaichtoac, nola burhasoac ez laguntcea, Iaincoari emaiteco estacuruz; edo eguite eta ohitça arin eta berenaz ez deusac, nola escuen garbitcea, ustez hala bihotçac ere garbi ditezquela : eta çucenequin bata eta bertcea gaizquitçat dauzca.

(2) *Satsua*, Iohia, cikhina.

guiçona; bainan ahotic ilkhitcen denac satutseen du guiçona (1).

12. Orduan hurbildu citçaizeon bere dici-puluac, eta erran cioten : Badaquiçu Phari-sauec, hitz hori entçun dutenean, gaizquirat itçuli dutela ?

13. Ihardetsi çaroen : Ene Aita ceruetacoac landatu içan eztuen landarea, erroetaric atheratua içanen da.

14. Utz eçatçue horiec : itsuae dira, eta itsu aiteindari; bada itsu batec bertce itsu bat bidatcen badu, biac leecra dohaz.

15. Piarresec hunen berteerequin erran cioen : Açalca (2) dieçaguçu idurípen hori.

16. Ihardetsi çuen : Çuec ere oraino admendu gabe çarete ?

17. Eztuçue aditeen, ahòan sartcen direnae oro sabelerat dohacela, eta guero toqui gordeetarat aurthiquitcen direla ?

18. Bainan ahotic ilkhitcen direnac, bi-hoteetic heldu dira; eta hec guiçona lohitcen dute.

19. Bihoteetic heldu dira ecen gogoeta gaichtoac, guiçon hiltceae, bertceen emazteez goçatceac, liçunqueriac, ebascoac, gueçurrezco lekhucotasunac, burhoac.

20. Horiec guiçona liçunteen dute; bainan

(1) Bardin, egun debecuetan haragui iateac, eztu berenaz lohitcen arima; bai ordean haragui equinez, eliçaren manamendua hausteac.

(2) Açalcatcea, chehatcea, esplicatcea.

escuac garbitu gabe iateac, eztu guiçona satsutcen.

**21.** Eta handic ioanic Iesus, ethorri cen Tirgo eta Sidongo bazterretara.

**22.** Eta Khanaandar emazte bat, aldiri hetric ilkhia, hasi citçaioen oihuz, erraiten cioela : Urricari nauçula, Iauna, Dabiten semea ; alaba dut deabruac hainitz oinhazcataua.

**23.** Bainan etcioen Iesusec hitz bat ihardetsi; eta, hurbilduric dicipuluæ, iarri citçaizcon othoizten, ciotela : Eguioçu nahi duena, eta egor eçaçu, ecen ondotic oihuz darraicu.

**24.** Ihardetsi çaroen Iesusec : Ez naiz egorria içan Israelen etcheco ardi galduetarat baicen.

**25.** Bainan emaztea hurbildu citçaioen, eta ahuspez cegocoela, erran cioen : Iauna, hel çaquizquit.

**26.** Ihardetsi cioen : Ezta çucen haurren oguia har dadin, eta çakhurrei egotz.

**27.** Harc berriz erran cioen : Hala da, Iauna; ordean potcho chumeeç ere iaten dute bederen papurretaric, bere nausien mahain azpirat erortcen direnetaric.

**28.** Orduan Iesusec ihardetsi cioen : Oi emaztea! çure sinhestea handia da ! Eguin bequieu guthicia duçunaren arabera. Eta sendatua içan cen haren alaba ordu beretic.

**29.** Ioan cen handic Iesus, eta ethorri Galileaco itsas aldera; eta mendi baten gainera iganic, iarri cen han.

30. Eta ethorri citçaizcon iende oste handiac, berequin çakharztela mutu, itsu, maingu, hebain, eta bertee hainitz eri; eta oinetan ecarri ciotçaten, eta sendatu cituen :

31. Hala non miretsi baitçuten, çakhusquetenean mutuac mintçatcen, mainguac chuchen ibiltcen, itsuac ikhusten; eta handiesten çuten Israelen laincoa.

32. Iesusec bada bere ganat dicipuluac deithuric, erran çaroen : Urricalteen çazquit oste hauc, ceren hirur egun hautan enequin baitaude, eta ezpaitute cer ian; eta ian gabe eztitut egorri nahi, bercelaz bidean ahul (1) litezque.

33. Dicipuluac diotsote : Nondie bada guinduque mortu huntan oguiric asqui, huelaco osteen asetceco ?

34. Iesusec erran çaroen : Cembañ ogui ditutçue ? Ihardetsi cioten hec : Çazpi, eta arraintto batçu.

35. Orduan manatu çuen populuia jar çadila lurraren gainean.

36. Guero harturic çazpi oguiac eta arrainac, eta esquerrac bihurturic, hautsi cituen, eta eman ciotçaten dicipuluai, eta dicipuluac eman ciotçoten populuari.

37. Içan çuten guciec, eta ase ciren, eta gaineratu ciren phusquetaric, eraman cituzten çazpi otharre betheac.

38. Baciren bada ian içan çutenac laur

(1) *Ahultcea*, barnea ttipi içaitea.

mila guicon, haur checheac eta emazteac berçalde.

39. Eta populua guibelat egorri ondoan, igan cen Jesus unteitto batetara, eta ethorri cen Magdalaco bazterretara.

---

## XVI. CAPITULUA.

*Iesusec Pharisauei miracuilo bat eztaroe equin nahi. Ion Done Pétiric aithortcen du Christo, eta equina da Eliçaren buruçagui. Iesusen pairamendua, eta nola batbederac behar duen bere khurutcea eraman.*

1. ORDUAN ethorri citçaizcon Pharisauec eta Sadduceartac, cer ahal cuen bada jaquin nahiz, eta othoiztu çuten erakhuts cioçatela cembait ceruticaco ikuusgarri.

2. Bainan ihardetsi çaroen : Arratsean dioque : Egun eder bat içanen dugu, gorri da ecen cerua;

3. Eta goicean : Gaur, egun tcharra eguien du, ecen holtz gorri (1) da, eta goibeldua da cerua.

4. Badaquique beraz cer dakharquen ceruaren itchurac, eta Iaincoac adi-araci darozquitquen mugac eztaquitçatque certaric eçagut? Casta gaichto eta sinheste gabe hu-

(1) *Holtza*, escuara çaharrez *hedoia* erran nahi da, eta aurkhitcen da hitz hautan : Hortz-adarra edo holtz-adarra, bortzia edo holcia, hortçantça edo holtz-açantça.

nec ikuusgarri galde du, eta etçao emanen Ionas profetarena baicen. Eta hec han uteric, ioan cen.

5. Eta uraren bertce alderat iragaitean, ahantei içen çuten dicipuluec oguiric berequin hartcea.

6. Iesusec bada erran çaroen : Begnirauque eta çain çaitezte Pharisaen eta Sadducearren altchagarritic.

7. Ordu berean gogoratu citçaien hei, eta cioten bere artean : Horrela dio ceren eztugun oguiric hartu.

8. Bainan Iesusec baitçaquien cer cioten, erran çaroen : Sinheste aphurrecoac, cergatik derasäue cerorren artean, oguiric eztuquela hartu ?

9. Eztuque aditcen oraino, eta etçarete orhoit bortz mila guïconi eman bortz oguiez, eta cembañ sasqui goititu cinituzten ?

10. Ez eta ere laur mila guïconi eman çazpi oguiez, eta cembañ otharre goititu cinituzten ?

11. Nola eztuque aditcen ez nintçaitquela oguiz mintço erraitean : Beguirauque Pharisaen eta Sadducearren lemamitic ?

12. Orduan aditu çuten, etçaroela erran beguirira çutela ogni altchagarritic, bainan bai Pharisaen eta Sadducearren erakhaspenetaric.

13. Guero ethorri een Jesus Cesarea Philippeeco bazterretara, eta galde eguin çaroen dicipuluei : Nor dela diote guïçonaren Semea ?

14. Ihardetsi cioten : Batquec Ioanes Bap-tista, bertcee Elias, bertee batquec berriz Ie-remias, edo Profetetarie cembait.

15. Dioste lesusec : Eta quec, nor naicela dioque?

16. Simon Piarresec ihardetsi cioen : Cu Christo cara, Iainco biciaren Semea.

17. Eta lesusec erran cioen : Dohatsu ca-ra, Simon Ioanesen semea, eren ezpaitaro-tçute hori haraguiac, ez eta odolac erakhatsi, bainan bai ene Aita eeruetan denac.

18. Bada nic çuri erraiten darotçut, ecen Piarres çarela, eta harri horren gainean iar-rico dutala ene Eliça, eta ifernuco atheac eteaizcola hari garaituco (1).

(1) Ion Done Petiric aithortu içan duenean hain garbi qui lesusen iaincotasuna, lesusec, sinheste handi horren saritçat, eguiten du bere Eliçaren bu-ruçagui; eta ez bakharric hura, bainan harequin batean Aita Saindu guciac, ceinac haren Erromaco alkhian iarri bebar baitciren ondoco mendeetan. Lehenic deitcen du lesusec *Petiri, Harria, Siriaco* mintçajan *Khephas*; icen goithi hortaz adi-arazten duela, baren gothortasunaren gainean iartzen duela Eliça, higui, khordoca eta aurthic eztadin nehoiz ere. Guero emaiten diozca ceruco gakhoac, adi-araci nahiz nola ahal guciac dituen ceruan eta lurrean. Azquenean hitz emaiten dio, *ifernuco atheac* nehoiz eteaizcola garaituco; erran nahi du ifernuco ispiritu gaichto gucien indarrac eta ahalac azpiratuko dituela. Hebreo hizcuntçan ecen *atheac* erraiten ciren *bo-thorea* erraitecotçat, cereu hirietaco cargudunac atheen aitcineco placetan biltzen ohi baitciren, berreciqui batbederari bere çucenac aucietan bibur-teco. Holatan Piarresec eta haren ondoco Erroma-

**19.** Eta curi emanen darozquitçut ceruetaco erresumaco guiltçac (1); eta cer nahi esteca deçaçun lurraren gainean, eta hura estecatua içanen da ceruan ere; eta cer nahi desloth deçaçun lurraren gainean, eta hura deslothua içanen da ceruan ere.

**20.** Orduan debecatu çaroen dicipuluei ne-hori erraitea hura cela Iesu-Christo.

**21.** Ordu beretic ere hasi citçaien aguer-teen nola beharco çuen ioan Ierusalemera, eta hainitz pairatu hango Çaharretaric, Is-quiribauetaric eta Aphez nausietaric; nola behar çuten hil, eta hirurgarren egunean phiztuco cela.

**22.** Eta berecherat harturie, hasi citçaison Piarres erantçuten, ciotsola : Balinba ez, launa; ez bide çarotçu holacoric guertha-tuco!

**23.** Bainan itçuliric erran çioen Piarresi : Cohaz niganic, Satan, gaizquira naramaçu, ez ditutçulacotz onhesten Iaincoaren gauçac, bainan bai guiçonenac.

**24.** Orduan erran çaroen Iesusec bere di-cipuluei : Baldin nehore nahi badu ethorri ene ondotic, ukho eguin bioça bere burua-ri, eta iasain beça bere khurutcea, eta iar-raic bequit.

**25.** Ecen norc ere nahico baitu bere bu-co aphezpicuec gueizco ahala dute Eliça sainduan, eta Iesu-Christo beraren ordaintçat behar dira eça-gutu.

(1) Gakhoac.

rua caindu, eta harc galduco du; bainan norc ere galduco baitu bere burua ni gatic, eta harc aurkhituco du.

**26.** Ecen cer lihoaque guiçon batí, baldin mundu gucia irabaz baleça, eta bere arima gal? Edo cer eman decaque guiçonac bere arimaren ordain?

**27.** Ecen guiçonaren Semea ethorri behar da bere Aitaren handitasunaz iaunteia, eta bere aingueruequin, eta orduan bihurtuko du bat bederari egui dituenen arabera.

**28.** Erraiten darotuet eguiaz : Badira hemen direnetaric batçu hilen eztirenac, ikhus decaqueten artean guiçonaren Semea bere erresuman heldu dela.

---

### XVII. CAPITULUA.

*Jesusen itchuraz aldatcea Thaborreco mendi gainean. Nola ilhargui aldidun guiçon baten ganic deabrua egozten duen, dicipuluec ecin khendu cutena. Legarra pagatzen du, bere pairamenduaz aiphatzen.*

**1.** ETA handic sei egunen buruan, hartu cituen Iesusec berequin Piarres, Iaques eta Ioanes haren anaia, eta craman cituen mendi gora batetarat, bertce nehore etçacusala.

**2.** Eta itchuraz guciz aldatu içan een hequien aitcinean. Eta egui een haren begi thartea iguzquia beçain argui, eta haren soinecoac churi elhurra beçala.

3. Eta betbetan aguertu eitçaitzen Moises eta Elias, harequin mintço cirela.

4. Piarresec bada erran cioen Iesusi : Iau-na, ongi gara hemen : atseguin baduçu, eguin detçagun hementche hirur etchola, bat curetçat, bat Moisesen, bat Eliasen.

5. Oraino mintço cela, hedoi arguitsu bat-tec estali içan cituen ; eta hain bertcenare-quin, boz bat ilkhi eën hedoietic, cioela : Hauche da ene Seme maitea, ceinetan har-teen baitut ene atseguin gucia : hau entçun eçaçue.

6. Hori aditcearequin, erori ciren dicipu-luac ahuspez lurrera, eta harritu ciren.

7. Bainan hurbildu eitçaien Jesus, eta hunquitu cituen, eta erran çaroen : Iaiqui çaitenze, eta eztuñela heldurric.

8. Orduan, goititu citutzenean beguiac, uehor etçuten ikhusi Jesus bera bakharric baicen.

9. Eta menditic iausten hari cirela, debecu eguin çaroen Iesusec, eta erran : Ne-hori ezterroçuela cer ikhusi duquen, guico-naren Seínea hiletaric phitz daitequen ar-tean.

10. Eta galdeguin cioten dicipuluec : Cer-gatic bada Isquiribauec erraiten ohi dute, Elias lehenago ethorri beharra dela?

11. Ihardetsi çaroen : Egua da, Elias ethortcecoa da, eta gauça guciac ongi di-tezquen beçala eçarrico ditu.

12. Bainan erraiten darotçuet, eën Elias ia ethorri dela, eta eztute eçagutu; aiteitic

eguin diote nahi içan dutena oro. Halaber pairatuco du guiçonaren Semeac ere hequien ganic.

**13.** Orduan ohartu ciren dicipuluac Ioa-nes Baptizaz mintçatu citçaiela.

**14.** Eta ethorri içan cenean populuac gana, hurbildu citçaioen guiçon bat, eta oinetan belhaunico eçarriric, erran cioen : Iauna, urrical bequieu ene semea, ceren ilhargui aldiac baititu, eta oinhace handitan baita, ecen erortcen da maiz surat eta maiz ure-rat.

**15.** Eta ekharri içan diotet çure dicipuluei, bainan ecin sendatu dute.

**16.** Iesusec ihardetsi çuen : Oi sinhesgo-gorrac eta bihurriac! Noiz artean çequin içan-en othe naiz? Noiz artean iasainen othe çaituztet? Ekhar dieçadaçuet huna.

**17.** Eta mehatchatu çuen Iesusec deabrua, eta ilkhi cen, eta sendatua içan cen haurra ordu beretic.

**18.** Orduan hurbildu citçaizcon dicipuluac Iesusi ichilic, eta erran cioten : Cergatic ba-da gue ecin khendu dugu deabru hura?

**19.** Iesusec erran çaroen : Çuen sinhes-gogortasuna gatic. Erraiten darotçuet ecen eguiaz : Baldin hacindute mustarda bihi bat den becembat sinheste, erran cinioçoquete mendi horri : Oha hemendie harat; eta ioan liteque, eta ez laite dens ecin eguin cineça-quetenic.

**20.** Bainan deabru mota hori ezta ilkhi-teen othoitz eta barur eguitez baiceen.

21. Galilean cirela bada, erran çaroen Iesusec : Guiçonaren Semea saldua içan beharra da guiçonen escuetara;

22. Eta bilen dute, eta heren egunean phiztuco da. Eta atsecabetu ciren handizqui.

23. Eta ethorri içan cirenean Capharnaumera, ien citçaizcon Piarresi bi drakhma biltçailac (1), eta erran cioten : Çuen nau-siac ez ditu bi drakhmae pagatcen ?

24. Ihardetsi çuen : Bai bada. Eta etchean sarthu cenean, aitcindu citçaioen Jesus erraitera : Cer çaitçu, Simon ? Lurreco erre-gueec nor ganic harteen ohi dute cerguera ? Bere umectaric, ala atceetaric ?

25. Ihardetsi cioen hare : Atceetaric. Erran cioen Iesusec : Beraz umeeec ez dute çor ?

26. Bainan gaiz-bideric horier ez demoteguntçat, çohaz itsasora, aurthic eçaçu çure amua; eta atheratuco duçun lehen arrainari ahoa idee dioçoçu; eta aurkhituco bai-tioçu laur drakhmaeo bat, har eçaçu hura, eta emoçute enetçat eta çuretçat.

(1) *Bi drakhma* ciren Iudutar bakhoitçac Errormarrei urthe oroz çor cioten *cerga, cerguera, legarra, imposa*. Bi drakhma baciren hurbil gure hogoi sosac becembat.

## XVIII. CAPITULUA.

*Nola behar dugun gure burua aphaldu. Gaiz-bideric ez emaiteaz, bereciqui ttipiei. Bakhoitçac nola behar duen bere hurco laguna bide cucenerabihurtu. Ardi basatua. Bidegabeac cembatetaraino barkhatu behar diren. Sehi esquer gabea eta bihotz gogorra.*

**1.** ORDUTSU harten berean hurbildu ciren dicipuluac Iesusen gana, eta erran cioten : Nor uste duen handiena daitequela ceruetaco erresuman ?

**2.** Eta Iesusee deithuric bere gana haur chumetto bat, ecarri çuen hequien erdian,

**3.** Eta erran çaroen : Eguiaz erraiten darotuet : Baldin ezpaçarete hobeagoteen, eta ezpaçarete haurtto batçu beçalacateen, etçarete ceruetaco erresuman sarthu.

**4.** Nore ere beraz bere burua asphalteen baitu haurtto hunen heinera, eta hura da handiena ceruetaco erresuman.

**5.** Eta nore ere ongui eguiten baitio huncalco haurtto bati ene icenean, niri neroni eguiten darot.

**6.** Bainan nore ere, gaiz-bideric emaiten baitio ni baithan sinhesten duten chume hautarie bati, hobe luque hare lotcen baliote lephotic ihara harri bat dilindan, eta aurthiquiteen balute itsas hondarreraino.

**7.** Corigaitz munduari gaiz-bideen gatic ! Baitezpada guerthatuco dira gaiz-bideac ;

bainan ondico guionari, ceinen ganic gaizbidea heldu baita!

8. Baldinetariae bada çure escuac edo çure oinac gaizquirat eramaiten baçaitu, ebaqui eçatçu, eta egotz çu ganic urrun; hobe da curetçat sar çaitcen bicitcean escuahkoizdun edo maingu, ecen cz bi escuac edo bi çangoac ditutçula, aurthiquia içan çaitcen su bethierecorat.

9. Eta baldin çure beguiac gaizquirat eramaiten baçaitu, idoc eçaçu, eta iraiz çu ganic urrun; hobe da curetçat begui bakhar batequin sar çaitcen bicitcean, ecen ez bi beguiac ditutçula, egoteia içan çaitcen ifernuco surat.

10. Beguirauçue gutitan educ ezteçaüen chume hautaric batto ere; erraiten darotçuet ecen hauquien ainguueruec ceruetan be-thi dakhusatela ene Aita ceruetan denaren beguithartea.

11. Ethorri içan da ecen guionaren Semea galdu cénaren bilha.

12. Cer çaitçue? Baldin baditu guion bat tec ehun ardi, eta hetarie bat basatcen baçao, eztoha othe, laur ogoui eta hemeretciac mendietan uteiric, basatu çaoenaren bilha?

13. Eta baldin guertha badadi ediren deçan, erraiten darotçuet eguiaz, bozario guehiago duela hartaz, ecen ez laur hogoi eta hemeretci basatu eztirenez.

14. Halaber eztu nahi çuen Aita ceruetan denac chume hautaric bat ere gal dadin.

15. Baldinetariac çure anaia hobendun bada çure alderat, cohaz, eta beguietara eman dioçoçu bi bien artean ichilic ; aithorteen badarotę, irabaci duqueçu çure anaia.

16. Bainan ezpaçaitu nahi aditu, har eça-tę oraino çurequin guiçon bat edo bia, eguiteco gucia dohantçat bi edo hirur lekhu-coen erranera.

17. Hec ere ezpaditu aditu nahi, erroę Eliçari; ezpadu ordean Eliça ere nahi aditu, edue eçaçu pagano eta publicano batentçat.

18. Eguiaz erraiten darotçuet : Cer ere lo-thuco baituque lurraren gainean, eta hura lothua içanen da ceruan ere ; eta cer ere des-amarratuco baituque lurraren gainean, eta hura desamarratua içanen da ceruan ere.

19. Berriz diotsuet : Baldinetariac çueta-ric biec elkhar aditeen badute lurraren gai-nean, eta cerbait galdeguiten, cer nahi içan dadin, ardietsico dute ene Aita ceruetan de-na ganie.

20. Ecen non ere baitira bia edo hirur bil-duac ene icenean, han naiz ni hequien er-dian.

21. Orduan hurbildu citçaoen Piarres, eta erran cioen : Iauna, cembat alditaraino-coan, ene anaiaac bide-gabe eguiten badarot, ahantci beharco diot? Çazpi alditaraino?

22. Diotso Iesusec : Eztarotçut erraiten çazpitaino, bainan bai çazpitän hirur hogoi eta hamarretaino.

+ 23. Halatan iduri içan deçaque ceruetaco erresumiac erregue bat, ceina iarri nahi içan

baitcen bere sehiequin çor-hartceen cheha-  
tceen.

24. Hasi cenean bada, ekharri cioten bat  
çor ciozeana hamar mila talentu (1).

25. Bainan nola ezpaitzen nondic bihur,  
manatu çuen nausiac sal cetçatela hura, be-  
re emaztea, bere haurrac eta cituenac oro,  
eta bihur-araz cioçotela çor çuena.

26. Orduan sehi hare bere burua nausia-  
ren oinetarat aurthiquiric, othoizten çuen  
hertsiqui, erraiten cioela : Iauna, emadaçut  
ephe, eta guciac orobihurtuco darozqui-  
tçut.

27. Urricaldu citçaioen bada nausiari sehi  
hura, eta utei çuen, eta çorra ere guibelat  
eman cioen.

28. Bainan ilkhitcean, aurkhitu çuen sehi  
harc bere schi-quidetarie bat, ceinac çor  
baitciozcan ehun denario (2); eta lephotic  
ceducala, ithotceco corian, erran cioen :  
Emadateic çor daroztacanac.

29. Eta sehi-quide hura, oinetarat erori-  
ric, othoizca cegocan, erraiten cioela : Ema-  
daçut ephe, eta guciac orobihurtuco daroz-  
quitçut.

30. Bainan harc etcioen eman nahi içan ;  
aitcitie ioan cen cephoetan eçar-arazteria,  
bihur cioçoquen artean çor cioena.

(1) *Talentua* dirutce bat cen, gure dirutan bortz  
mila liberatara errechqui heltcen cena.

(2) *Denarioa*, Erromatarren diru bat, gure ha-  
mar sosecoa baino guehichagocoa cena.

31. Bertce sehi-quideac bada, ikhusiric cer guerthatu içan cen, damu handitan sar-thu ciren; eta ethorri citçaizcon bere nau-siari erraitera iragan ciren guciac.

32. Orduan deithu çuen nausiac, eta erran cioen : Sehi gaichtaguina, hire çor gu-cia guibelat eman daroat, ceren othoiztu nauan :

33. Etcitçaican bada hiri ere urricaldu be-har hire sehi-quidea, niri hi urricaldu ha-tçaitan beçala ?

34. Eta baserreturie, egorri çuen bere iaunac ceha ceçatela, çor cioen gucia bihur cioçon arteraino.

35. Halaber ene Aita ceruetacoac ere egui-nen darotçue quei, baldinetariac ezpadioque bat bederac bere anaiari barkhateen bihotz osoz.

---

### XIX. CAPITULUA.

*Nola eztitequen ezcontça hauts. Bihotcez eba-quiez. Haur ttipiac nola Iaunac benedica-tcen dituen. Morroin aberatsaz, eta cein gaitz den aberatsac salba ditecen. Jesus ga-tic guciac uzten dituenaren sari nasai eta gaindizcacoa.*

1. SOLHAS horien ondoan, ioan cen Jesus Galileatio, eta ethorri een Iudeaco bazterre-tarat, lordan ibaiaren bertee aldea gaindi.

2. Eta oste handiac iarrai qui citçaizeon; eta hequien arteco eriae sendatu cituen.

3. Pharisauac bada hurbildu citçaizcon, hura cembait hutsetan hatceman nahiac, eta erran cioten : Haiçu othe çaoi guïçon batí bere emaztea uztea, cer nahi den gatic?

4. Ihardetsi çaroen : Eztueue iracurri, hastetic guïçona egun çuenac, guïçona eta emaztea egun cituela, eta erran çaroela :

5. Hartaracotz uteico ditu guïçonae aita eta ama, eta atchequico du bere emaztearequin, eta içanen dira biac bat haragui bat-tean.

6. Bada guerozgoiti eztira bia, bainan bai haragui bat. Beraz laincoac batu duena, guïçonac ezpeça berech.

7. Hec erran cioten : Cergatic bada manatu içan du Moisesec, eman daquioela emazteari utcia delaco argui bat isquiribuz, eta guero utz daitequela ?

8. Ihardetsi çaroen : Ceren Moisesec, quen bihotz-gogortasunari behatuz, haiçn egun baitarotçue quen emazteen uztea; hastetic ordean ezta horrela içatu.

9. Bada nie erraiten darotçuet : Norc ere uteico baitu bere emaztea, ezpada ceren bertce guïçon batequin egon den, eta ezconduo baita bertce emazte batequin, haina lohiquerian datça; eta batec utcia bertce batec harteen badu, hura ere lohiquerian datça (1).

(1) Iaunac cilhegui eguiten dio senharrari bere emaztea ganic berechtea, bertce nor nahiequin na-hastu içan denean; ez ordean, bere emaztea utci-ric, bertce baten hartcea. Moisesen leguea Iesu-Christorenac hunela çuentzen du, hastapenean cen beçala berriz eçarriz.

**10.** Erran cioten dicipuluec : Baldin horrelacoa behar badu guiçonac içan emaztearen alderat, ezta on ezconteea.

**11.** Ihardetsi çaroen : Eztira ere oro gai horren aditceco, bainan hainac bakharrie, ceinei emana içan baitçiae cerutie.

**12.** Badira ecen ebaquiac, bere amaren sabela danic halaco sorthu direnac; eta badira ebaquiac guiçonec halacatu dituztenac; eta badira bere buruac ebaquitçat daduzcatenac ceruetaco erresuma irabaztea gatic (1). Hau adi deçaquenac adi beça.

**13.** Orduan ekharri ciotçaten haur ttipi batçu, eman ciotçatentçat escuac buruen gainean, eta hequientçat othoitz eguin ceçan. Eta dicipuluec mehatchuz urrunteen cituzten.

**14.** Iesusec ordean erran çaroen : Utz ecałue haurto hauc, eta ez debeea ni ganat ethortcetic; hunelacoena da ecen ceruetaco erresuma.

**15.** Eta escuac gainean ecarri ciotçatenean, ioan cen handie.

**16.** Eta guiçon gazte batec, hurbildurie, erran cioen : Nausi ona, cer ongui eguin behar nuque bicitee bethierecoa ardiets deçadantçat.

**17.** Erran cioen Iesusec : Cergatic ona dei-

(1) Horrela ebaquiac, San Agustinen arabera, hainac dira, ceinec, haraguico atseguiñ haiçu direuei ere osoqui ukho eguinie, bihotz garbitasun handi batequin launari jarraiuitcen baitçavezco.

teen nançu? Iaincoa da bakharric ona dena. Bertçalde, nahi baduçu bicitcean sarthu, beguira eçatę manamenduaç.

18. Morroinac (1) galdeguin cioen : Cer manamendu? Ihardetsi cioen Iesusec : Eztuę nehor hilen; etçara berteeren emazteaganatuco; eztuę ebatsico; eztuę lekhuco-tasun gueçurrezeoric egünen;

19. Ohora eçatę aita eta ama, eta maitha eçaçu çure urkho laguna çure burua beçala.

20. Diotso guiçon gazte horrec : Horiec guciac beguiratu ditut ene gaztetasunetie; cer dut oraino escas?

21. Diotso Iesusec : Nahi baduçu egün guciz ongui, çohaz, sal eçatę ditutęunac, emozquiötę beharrari, eta içanen duę aberastasun handi bat ceruan; eta guero ca-to, iarraig caquizquit.

22. Hitz horiec aditu eta, ioan cen morroin hori bihotz-mindurie, ceren onthasun handien iabe baitcen.

23. Eta Iesusec erran çaroen bere dicipuluci : Eguiaz erraiten darotçuet, aberatsa nequez sarthuco dela ceruetaco erresuman.

24. Berriz ere erraiten darotçuet : Errechago da camelu bat orratz baten chilhotic iragan dadin, ecen ez aberats bat ceruetaco erresuman sar dadin.

25. Horiec adituric balditu içan ciren han-dizqui, eta cioten : Beraz nor da salba ahal daitequena?

(1) *Morroina*, guiçon gaztea.

26. Behatu çaroen Iesusec, eta erran : Bai, ecin daitequena da guiconentçat ; ordean Iaincoarentçat deus ezta eguiquiçun eztenie.

27. Orduan Piarresec erran cioen : Huna non gue utei ditugun gauça guciac, eta iarrailqui gaitçaizquitçu ; cer içanen dugu bada saritçat ?

28. Iesusec ihardetsi çaroen : Diotsuet eguiaz : Quee niri iarrailqui çaiquidatenac, mende hauquien erreberritcean, noiz ere guiconaren Semea iarrico baita bere handitasunaren alkhian, iarrico çarete hamabi iarr-lekhutan, iuiateen ditutçuela Israelgo hamabi leinuac (1).

29. Eta nore ere utcieu baititu bere etchea, edo bere anaiaç, edo bere arrebac, edo aita, edo ama, edo emaztea, edo bere haurrac, edo bere lurrac, ene icena gatic, hainari ordain emanen çao chunetan bertee hainberte eta bicitte bethierecoaz goçatueo da.

30. Bada hainitçac içanen dira lehen cirenac azquen, eta azquen cirenac lehen.

## XX. CAPITULUA.

*Mahastiçainen iduripena. Iauna bere pairamenduaz aitcinetic mintço da. Zebedeoren semeen galdea. Ierikhoco itsua.*

1. IDURI du ceruetaco erresumac etcheco-iaun bat, ceina ilkhi baitcen goiz goicetic languileac eguitera bere mahasticotçat.

(1) *Leinua*, erran nahi da familia edo arraça.

2. Eta hitz harturic languileequin hunen bertcez eguneco, egorri içan cituen bere mahastirat.

3. Ilkhi cen berriz bederatcietaco irian, eta ikhusi cituen bertce batçu plaçan alpher çaudecela.

4. Eta erran çaroen : Cohazte çuec ere enc mahastirat, eta çucen ditequena emanen da rotçet.

5. Eta ioan ciren. Ilkhi ceñ oraino egüerditan, eta handic hirur orenetan ere, eta gauça bera eguin çuen.

6. Azquenean ilkhi cen arrats-aldeco bor-teen inguruau, eta aurkhitu cituen bertce batçu alpher çaudenac, eta dioste : Cergatic hemen çaudete egun gueian deus eguin gabe?

7. Diostete hec : Ceren nehore ezpaicaitu galdeguin. Erraiten diote : Cohazte çuec ere ene mahastirat.

8. Arratsa ethorri denean bada, etcheco-iaunac erraiten dio bere muthil-nausiari : Deith eçatçu languileac, eta emoçute bere irabacia, azquenetaric hasiric lehenetaraino.

9. Hurbildu cirenean arratseco bortz orduen ingurutsuan ethorri cirenac, içan çuten bakhoitçac denario bat (1).

10. Eta hurbiltcean lehen ethorriac, uste içan çuten içanen çutela guehiago; bainan içan çuten hequiec ere denario bana.

11. Eta hura hartcearequin, bacerasaten etcheco-iaunarentçat,

(1) Denarioa gure hamar sosen ingurua cen.

**12.** Ciotela : Azquen ethorri hauc oren bat bakharra lanean hari içan dira, eta gurequin bardin eguiten ditutçu, iasain dugularic guc egun osoaren beroa eta nekhea.

**13.** Bainan hare ihardetsi cioen hequieta-  
ric bati, ciocla : Adisquidea, eztarotçut bi-  
degaberic eguiten; etçara enequin hitz-har-  
tua eguneco denario batez?

**14.** Har eçaçue heldu çaitçuna, eta çohaz;  
nahi diot bada azquen ethorri huni ere eman  
çuri becembat.

**15.** Ez naiz haiçu nahi dutanaren eguite-  
ra? Ala bekhaizti çara çu, ceren ni ona nai-  
çen?

**16.** Horrelache içanen dira azquenac le-  
hen, eta lehenac azquen; hainitçac ecen dira  
deithuac, hautatuac ordean guti.

**17.** Ierusalemera cihoala guero Jesus,  
hartu cituen hamabi dicipuluac berech, eta  
erran çaroen :

**18.** Huna non goacen Ierusalemera, eta  
guiçonaren Semea saldua içanen çiae Aphez  
aitcindariei eta Isquiribauei, eta hequiec  
hil-aracico dute;

**19.** Eta emanen dute paganoen escuetar-  
rat, escarnia deçatentçat, eta açota, eta khu-  
rutee bati ios; eta hiletaric phiztueo da hirur-  
garren egunean.

**20.** Orduan hurbildu citçaioen Zebedeo-  
ren semeen ama, bere semeequin, eta bel-  
haunico eçarri citçaioen, adi-araciz cerbait  
nahi cioquela escatu.

**21.** Jesusec erran cioen : Cer nahi duçu?

Harc diotso : Aguin eçaçu iar daitecen enc bi seme hauc, bata çure escuinean, eta ber tcea çure ezquerrean, çure erresuman.

22. Ihardetsi çaroen bada Iesusec : Ezta quiçue cer galdeguiten duçuen : Edan diro çue nic edan behar dudan untcitic? Diotsote hec : Edan deçaquegu.

23. Harc berriz dioste : Hala da, ene untcitic edanen duçue; ordean ene escuinean edo ezquerrean iartcea, etçait niri çuei emai tea; bainan hainec içanen dute, ceinei aphaindu baitaroe ene Aitac.

24. Horiec entçutean, haserretu ciren bertce hamarrac bi anaientçat.

25. Iesusec bada deithu cituen bere ganat, eta erran çaroen : Badaquiçue populu atceetan erregueac nausiteen direla, eta ahalsue nee gogorqui erabilteen dituztela.

26. Ordean ezta hala içanen çuen artean; bainan norc ere nahico baitu çuen artean handiena içan, çuen cerbitçari içan bedi;

27. Eta norc ere nahico baitu çuen artean lehena içan, biz çuen sehi.

28. Hala nola/guiçonaren Semea ezpaita ethorri cerbitçatua içaiteco, bainan bai cerbitçatcera, eta emaitera bere bicia hainiteen erospenetan.

29. Ierikhetic ilkhitcen cirela, iarrai qui citçaoien iende aralde handi bat.

30. Eta bi itsu bide bazterrean çau dece nae, aditurie ecen Jesus iragaiten cela, hasi citçavez oihuz erraiten : Iauna, Dabit en semea, gaitçatçun urricari.

31. Iendetce harc bada mehatchatcen cituen ichil citecela; bainan hec oraino gorago oihuz cioten: **Iauna**, Dabitent semea, gaitçatçun urricari.

32. Orduan baraturic, Iesusec deithu cituen, eta erran çaroen: **Cer nahi duçue daguiqedan?**

33. Diotsote: **Iauna**, idec daquizquigun beguiac.

34. Ürricaldu citçaizeon bada Iesusi, eta beguiac hunquitu ciotçaten. Eta berehala hasi ciren ikhusten, eta iarrai qui citçaizeon.

---

## XXI. CAPITULUA.

*Iesusen sartcea Ierusalem. Templotic egozten ditu saltçailiac. Cer escuz eguiten dituen bere eguite miresgarriac. Bi semeen, mahastiçainen, etche buruco harriaren iduripenac.*

1. HURBILDU eirenean Ierusalemera, eta ethorri Bethphayeco aldera, Olibetaco mendil hegura, Iesusec egorri cituen bi dici-pulu,

2. Erranic: Çohazte aitcinean duçuen herrisca hortara, eta sartce-sartcean aurkhituko duçue asto bat bere umearequin, estecatua dagoela; deslothuric hura, ekhar dieça-daçuet.

3. Eta baldin nehore deusic erraiten badarotçue, erroçue ecen Iaunac behar dituela, eta ordu beretic uteico darozquitçue.

4. Bada hori gucia eguin içan cen, bethe çadintçat Isaias profetac erran çuen hitz hau :

5. Erroęue Siongo alabari : Huna non heldu çaitçun çure Erregue eztia, iarria asto batzen eta bere umearen gainean.

6. Dicipuluac bada ioan ciren, eta eguin içan çuten Iesusec manatu çaroen beçala.

7. Eta ekharri cituztenean astoa eta umea, bere soinecoez estali cituzten, eta iar-araci çuten gainean.

8. Iende oste handi batec ere hedatu cituen bere soinecoac bidean; bertee batçuec berriz, çuhaitcetarie adarrac hautsiric, aurthiquitcen cituzten bidera.

9. Eta guciac, aitecinean cihoacenac eta ondotic heldu cirenac, oihuz çaudesen, ciotela : Agur, Dabiten semea; ongi ethorri çarela, Iaincoaren icenean heldu çaquizqui-guna; altchatua içan çaitela ceru goreneta-raino!

10. Eta sarthu cenean Jerusalemen, hiri gucia iaiqui cen, eta galde çuten oroc : Nor da hau?

11. Eta harequilaco iendeeec cioten : Horida Iesus profeta, Galilea Nazarethecoa.

12. Iesus bada sarthu cen temploan, eta etchatu cituen handie saltçaile eta erosle guciac; eta aurthiqui cituen diru khambiatçaileen mahainac eta uso saltçaileen alkhiac.

13. Eta erran çaroen : Isquiribatua da : Deithua içanen da ene etchea, othoitceco

etchea, eta çuec eguin duçue ohoin cilho bat.

**14.** Eta ethorri citçaizeon temploan itsuac eta mainguac, eta sendatu cituen.

**15.** Ikhuisiric bada Aphez nausiec eta Isquiribauec eguin cituen gauça miresgarriac, eta nola haurrac oihuz çauddeen temploan, ciotela : Agur eta khur Dabitzen semeari! haserretu ciren handizqui.

**16.** Eta erran cioten : Badantçuñ cer dioten horie? Ihardetsi çaroen Iesusec : Bai, badantçut; eta çuce eztuçue egundaiño iracurri nola errana den : Haurttoen eta bulharrecoen ahotic athera duçu laudoriorie garbiena?

**17.** Eta hec utcirie, ilkhi cen hiritic Beñthaniarat, eta han iragan çuen gaua.

**18.** Biharamun goicean bada, hirirat bihurtzen cela, gosetu cen.

**19.** Eta ikhuisiric phico hondo bat bide bazterrean, hurbildu cen haren aldera, eta ezpaitcioen densic khausitu hostoric baicen, erran cioen : Nehoiz eztadila deus onic hitaric sor. Eta betbetan ihartu cen phico hondoa.

**20.** Hori ikhustea requin, harritu ciren dicipuluac, erraiten çutela : Nola batbatean ihartu den!

**21.** Erran çaroen Iesusec : Eguiaz diotsuet : Baldin baduçue sinhestea, eta khor docateen eztena, eztuçue choilqui phico hon doaz eguiten ikhusi duçuena eguiñen, bainan oraino mendi horri berari erraiten ba-

dioçue : Khen hadi hortic, eta aurthic hadi itsasorat, eguiñen da.

22. Eta cer nahi othoitcean sinhesterequin galde deçaçuen, ardietsico duçue.

23. Ethorri cenean templorat, hurbildu ciçaizeon Aphez aitcindariac eta Çaharrac, erakhasten hari cela, eta erran cioten : Cer escu duqueñu gauça horien eguiteco, eta norc eman darotęu ahal hori ?

24. Ihardetsi çaroen Iesusec : Eguinen darotęuet bada nic ere galde bat; eta ihardesten badarotaçuet çucen, erranen darotęuet nic ere cer escuz hauc eguiten ditudan.

25. Ioanesen bathaioa nondicacoa cen ? Ceruticacoa, ala guiçonen ganieacoa ? Hec berriz, gogoetan çaudescen, ciotsatela bere baithan :

26. Baldin ihardesten badugu, cerutic cela, errauen darocu : Cergatic beraz eztueue hura sinhetsi ? Eta baldin baderragu, guiçonetaric cela, beldur içaiteco dugu populuaren. Guciec een Ioanes Profeta batentçat cedudaten.

27. Ihardetsi cioten bada Iesusi, eta erran : Eztaquigu. Eta harc erran çaroen : Eztarotęuet bada nic ere erraiten cer escuz gauça hauc eguiten ditudan.

28. Bainan huntaz cer çaitęue ? Guiçon batec bacituen bi seme, eta guehienari cegoela, erran çioen : Ene semea, cohaz egun ene mahastian lanean haritcerat.

29. Ihardetsi cioen hare : Eztut nahi ioan. Bainan guero urriquituric, ioan cen.

30. Berriz bertceari cegoela, erran cioen gauça bera. Hunec ihardetsi cioen : Banoha, Iauna. Eta etcen ioan.

31. Bietaric ceinec eguin içan othe du aitaren nahia? Diotsote : Lehenac. Iesusec erran çaroen : Eguiaz erraiten darotçuet : Publicanoac eta emazte galduac aitcinduco çaiquitçue ceruetaco erresumara.

32. Ethorri içan çaitçue ecen Ioanes, çuentasunean bici cela, eta hura eztuçue sinhetsi; publicanoec ordean eta emazte galduec sinhetsi dute, eta quec hori ikerki duen arren, etçarete hargatic urriquitian sartu, eta eztuçue sinhetsi nahi içan.

33. Bertee iduripen bat entçun eçaçue : Bacen etcheco-iaun bat, ceinac landatu baituen mahasti bat, eta inguratutu çuen hesibatez, dolhare bat (1) ere eguin çuen, eta dorre bat altchatu : guero mahastiçain batçuei emanie, artha cioçotentçat, ioan een atce-herri urrun batetarat.

34. Ethorri eonean bada mahatsac biltceco aroa, egorri cituen bere sehiac mahastiçainen gana, hari cegozquion mahatsen altchatcera.

35. Bainan mahastiçainec, sehi hec harthic, bat cehatu çuten, bertcea hil, bertcea berriz harricatu.

36. Egorri cituen orduan bertce sehi batçu, lehenac baino guehiago; bainan hequiei ere halaber iaçarri citçaitzen.

(1) *Dolharea* edo lacoa.

37. Azquenean egorri çaroen bere semea, bere baithan cioelaric : Lotsa içanen dira ene semearentçat.

38. Bainan mahastiçainec, ikhustearquin etheco semea, erran çuten bere artean : Huna non den premua; goacen, hil deça-gun, eta haren primantçaren iabe içanen gara.

39. Eta harturic, aurthiqui çuten mahastiç lekhora, eta hil çuten.

40. Ethorrico denean bada mahastiaren iabea, cer eguiñen othe daroe mahastiçain hei?

41. Ihardesten diote : Gaichtaguin hec do-hacabequi galduco baititu, eta bere mahastia emanen baitaroe bertee languile batuei, mahatsac bere aroanbihurtuco diotçateniei.

42. Dioste Iesusec : Eztuçue egundaiño iracurri isquiribatua içan dena : Etche-eguileec bazterreraurthiqui çuten harria, eçarria içan da etchea iasain deçaquen toquitán ; launac eguina da hau, eta miresgarri ere çaiégure beguiei?

43. Hartacotz erraiten darotçuet, edequico çaitçuela Iaincoarén erresuma, eta emana içanen dela bertee populu bati, ceinac iguriqui fruituac ekharrico baititu.

44. Eta harri haren gainera erorico dena çathicatuco da, eta noren gainerat ere erorico baita, hora lehertuco du.

45. Aditu cituztenean bada Aphez nau-siec eta Pharisauec, Iesusec erran ciotçoten

iduripen horiec, eçagutu çuten hequiez mintço cela.

**46.** Eta harti nahi çuten arren, popularen beldur içan ciren, ceren Profeta baten-tcat baitceducaten guciec.

---

## XXII. CAPITULUA.

*Ezteien iduripena. Ezteietaco soinecoa. Nola behar diren legarrac bihurtu. Hilen phizteaz. Cein diren Iaumaren aquintcetan handienac. Mesia Dabitzen seme dela eta iaun.*

**1.** **IDURIPISETAN** oraino mintço citçaiotela, erran çuen Iesusec :

**2.** Iduri du ceruetaco erresumac errengue bat, ceinac eguna nahi içan batcituen bere semearen ezteiac.

**3.** Eta nola egorri baitcituen bere sehiac ezteietata othoiztuac ciren den deitcera, etcitçaizcon ethorri nahi içan.

**4.** Berriz egorri içan cituen bertee sehi batzu, erranic : Erroeçue othoiztu ditudanei : Ene barazearia aphaindua dut; idiac eta bertee guicendu ditudanac hilac ditut, eta behar direnac oro aphainduac daduzcat; çatotze ezteietarat.

**5.** Bainan achola guti içan çuten hec, eta ioan ciren, bat bere bordarat, bertcea bere sal-eroscoetarat;

**6.** Berteeec berriz harti cituzten sehiac, eta laidostatu ondoan, hil cituzten.

7. Erregue bada, hori entçun çuenean, haserretu cen, eta egorriric bere armadac, suntsi-araci cituen guiçon-hiltçaile hec, eta hequien hiria erre.

8. Orduan erran çaroen bere sehiei : Ezteiae bada aphainduac dira, bainan ethor-teeaz othoiztu nituenac, eztira gai içan.

9. Cohazte beraz bide buruetara, eta aurkhi dituzquetçuenac oro deith eçatçue ezteietaratz.

10. Ilkhi ciren sehiac, eta ioan bideetara, eta bildu cituzten aurkhitu guciac, onae eta gaichtoac, eta bethea içan cen ezteietaco guela gucia barazcaltiarrez.

11. Sarthu cenean erregue mahainean iarriac çaudecenen ikhustera, ikhusi çuen hetarie bat ezteietaco soinecoa etçuena.

12. Eta erran cioen : Adisquedea, nola sarthu cara hemen eztei soinecoa gabe? Eta harc etcioen hitcie ihardetsi.

13. Orduan erran çaroen erreguec bere sehiei : Esteca dioçotçue escu-çangoac, eta egotz eçaçue campoco ilhumbetarat. Han içanen da nigar eta hortz-carrasca.

14. Ecen hainitçac dira deithuac, hautatuac ordean guti.

15. Orduan ioanic handic, eguin çuten bere artean Pharisauec, behar çutela Jesus bere hitcetan hatceman.

16. Egorri ciotçoten bada bere dicipuluac, Herodiandarquin batean, erraitera : Nauzia, badaquigu eguiatia çarela, eta Iaincoaren bidea eguiaz erakhasten duçula, eta ne-

hor gutiren lotsa duçula; eztu ecen guionetan nor nor daitequen behatcen.

17. Erraguçu beraz cer çaitçun huntaz : Haiçu da Cesarri cergareu emaitea, ala ez?

18. Bainan lesusec, eçagutu baitœuen hequien amarrua, erran çaroen : Cergatic gaizquitan bilhatcen nauçue, iduriz baicen on etçaretenac?

19. Eraeuts dieçadaçuet cergaeo emaiten den dirua. Eta hec eracutsi cioten denario bat.

20. Erran çaroen lesusec : Norena da huntan den itchura hau, eta hemen eçarria den icen hau?

21. Diotsate hec : Cesarrena. Orduan lesusec erran çaroen : Bihur dioçatçue heraz Cesarrenae Cesarri, eta Iaincoarenac Iaincoari.

22. Hori entçun çutenean, miretsi çuten ; eta hura han utciric, ioan ciren.

23. Egun hartan berean ethorri citçaizcon Sadducearrac, ceinec baitiote eztela hilén phizteric ; eta eguin cioten galde hau :

24. Nausia, Moisesec erran içan darocu : Baldin norbait hiltseen bada haurric içan gabe, haren anaia ezcon dadila haren emaztearequin, eta bere anaiari emau dioçola ondorio.

25. Baciren bada gutartean çazpi anaia ; eta guehiena ezcondu ondoan hil een ; eta nola ezpaitçuen haurric, utei içan cioen bere emaztea bere anaiari.

26. Eta halaber bigarrena eta hirurgarra na, çazpigarreneraino.

27. Gucien ondoan hil cen emaztea bera.
28. Hilac phiztean bada, çazpiataric ceinenan içanen da emazte hura? Ecen gucienna içan da.
29. Ihardetsi çaroen Iesusec : Makhur çabiltçate, ez iaquinez cer dioten Isquiribuec, eta Iaincoa cer ahal duen.
30. Hilac phizten direnean, eztute hartuko ez guiconec emazteric, ez emazteec senharrie; bainan içanen dira Iaincoaren aingueruaec beçala ceruan.
31. Hilen phizteaz denaz becembatean, eztueue iracurri nola erran darotçuen Iaincoa :
32. Ni naiz Abrahamen Iaincoa, eta Isaakuen Iaincoa, eta Iacoben Iaincoa? Iaincoa bada ezta hilen Iaincoa, bainan bai biciena.
33. Iende osteec hori entçuten çutela, miresten çuten haren iaquintasuna.
34. Bainan Pharisauc, adituric nola Saducearrac ichil-araci cituen, bildu ciren el-khar gana;
35. Eta hetaric leguearen crakhasle cen batec, egun cioen galde hau, behaztoparaci nahiz :
36. Nausia, cein da leguean handiena den manamendua?
37. Iesusec erran cioen : Maithatuco duçu cure Iainco Iauna cure bihotz guciaz, eta cure arima guciaz, eta cure gogo guciaz.
38. Hori da manamenduetan handiena eta lehena.
39. Bigarrena bertsua da : Maithatuco duçu cure urkho laguna cure burua beçala.

40. Bi manamendu horietan dagotei legue gucia eta Profetac.

41. Bilduac baitciren bada Pharisauac, eguiñ caroen Iesusec galde hau :

42. Cer çaitçue Christoz? Noren seme dela? Diotsate : Dabiten.

43. Erran caroen : Nola bada deitcen du bere launa, dioela ispirituz :

44. Iaunac erran dio ene iaunari : lar çaitet ene escuineco aldean, eçar detçaquedan artean cure etsaiac cure oinen azpico alkhitçat?

45. Baldin beraz Dabitec deitcen badu bere launa, nola duque bere semea?

46. Eta nehorc ecin ihardetsi cioen hitz bat; eta egun hartaz gueroztic, nehor eteitcaion guehiago cerbaiten galdeceera ausartatu.

---

### XXIII. CAPITULUA.

*Moisesen alkhiaren gainean direnac, nola behar diren entçun. Isquiribaueri eta Pharisauei iaçartcen çiae Jesus. Nola içanen den Jerusalem desequina.*

1. ORDUAN Iesusec, populuari eta bere discipuluei cegoquitela,

2. Erran caroen : Moisesen alkhan iarriac daude Isquiribauac eta Pharisauac;

3. Cer ere bada erranen baitarotxete, begira eçaçue eta eguiçue; bainan hec egui-

ten dutenaren arabera, eztarriquelatuec; ecen erraiten dute, bainan ez berec eguiten.

4. Eta bilhurrez lotcen dituzte çama gorrac eta ecin iasinezcoac, eta bertcei soinen gainerat eçartean, berec ordean erhiaz ere eztituzte higuitu nahi.

5. Bizquitartean, eguiten dituztenac oro eguiten ohi dituzte guionec behatuac içai-tea gatic; ekhartean dituzte ecen larruzeo cherrendae ahal beçain çabal, eta soinecoen bazterrac ahal beçain luce (1).

6. Lakhet çaiquiote lehen lekhuac barazcarietan, eta lehen iar-toquia bilkhuetan,

7. Eta agurrae placetan, eta guionec deith detçaten, Nausiac.

8. Bainan quec ezteçaquela bilha deith çaitçaten Nausiae; bat da bakharra çuen Nausia, eta quec oro anaiaç çarete.

9. Ezteçaquela nehor Aita deith luraren gainean; bat da bakharra ecen queh Aita, ceina baita ceruetan.

10. Eta ezteçaquela utz deith çaitçaten Nausiac, ceren çuen Nausi bakharra Christo baita (2).

(1) Iudutarrec ekhartean ohi cituzten leguetic atheraricaco cembait hitz ferro, besoetan estecatuac, eta ardi edo akher larru curratu batçuetan isquiribatuac. Pharisauec, bericeac baino hobeagoena eguitecotçat, larru cherrenda hec ahal beçain çabalac çakharzten.

(2) Erran nahi da hemen, Iesu-Christo dela Nausi eta erakhastun ororen gaimecoia, hala nola ceruetaco

**41.** Çuen artean handiena dena, içanen da çuen cerbitçari.

**42.** Ecen norc ere bere burua goratuco baitu, eta hura içanen da aphaldua; eta norc ere bere burua aphalduco baitu, eta hura goratua içanen da.

**43.** Bainan çorigaitz çuentçat, Isquiribau eta Pharisau, on iduri nahiac! Ceren hersten baituçue guiçonei ceruetaco erresuma. Etçarete sartcen çuec berac, ez eta ere uzten sar-terea sarthu nahi luquetenac.

**44.** Çorigaitz çuentçat, Isquiribau eta Pharisau on iduri nahiac! Ceren iresten baititu-çue alhargunen etcheac, çuen othoitz lu-cean estacuruan; hargatic içanen duçue iuia-mendu garratçagoa.

**45.** Çorigaitz çuentçat, Isquiribau eta Pharisau gueçurtiac! Ceren itsaso-leihorrac itçu-llicatcen baititutçue, Iudutarren leguerat norbait irabaci nahiz; eta irabaci duqueçue-nean, eguiten baituçue ifernuco seme, bie-tan ceronee baino areago.

**46.** Çorigaitz çuentçat, aiteindari itsuac! Ceinec baitioçue : Baldinetariac norbaitec cin eguiten badu temploaz, ezta deus; bal-din ordean cin eguiten badu norbaitec tem-ploco urheaz, çordun da.

**47.** Erhoac eta itsuac! Gein da guehiago-

Aita aitetan lebena. Badugu ordean bertce aita, nausi eta erakhasleric ere, Iaincoac eta Iesu-Chris-toc gure gainean eçarriac, eçagut detçagun hequien eguiazco ordaintçat.

coa, urhea ala urhea bera saindu eguiten duen temploa?

18. Dioçue oraino : Baldin norbaitec cin eguiten badu aldareaz, deusie ezta : ordean norbaitec cin eguiten badu aldarearen gai-nean eçarri emaitçaz, çordun da.

19. Itsuac! Eta cein da handiagoa, emaitça, ala emaitça saindu eguiten duen alda-reia?

20. Norc ere beraz cin eguiten baitu alda-reaz, hartaz eguiten du cin eta haren gai-nean diren gauça guciez.

21. Eta nore ere cin eguiten baitu tem-ploaz, hartaz eguiten du eta harten bere egoi-tça duenaz.

22. Eta eeuaz cin eguiten duenac, egui-ten du cin Iaincoaren alkhiatz, eta haren gai-nean iarria dagoenaz.

23. Corigaitz çuentçat, Isquiribau eta Phari-sau begui lilluratçailleac! Ceinee bihurtcen baititutçue mentatic, milhutic, eta cumine-tic hamarrenac (1); eta bazterrerauztzen baititutçue aguinduaç çazquitçuen gauça han-dienac, çuentasunna, urrialemendua eta sin-hestea. Eguiten ditutçuen horiec eguin behar ciren, ez ordean berteeac utci.

24. Aitcindari itsuac! Çuen edatecoa iraz-ten duçue uli haten gatic, eta camelu bat ires-ten duçue.

(1) Horiec belhar batçu dira, ceinetaric ere detche-mac bihurtcen baitcituzten Pharisauec, legues che-betasun gucietan bethetcen çatela erakhustecotçat.

**25.** Ondico çuentçat Isquiribau eta Pharisau, gaichtaguin ongui ethorri beharrac ! Ceren edari eta iaqui untciaren campoco aldea arthosqui chahutcen baituçue; barnean ordian betheac baitçarete ohoinququeriaz eta lohquieriaz.

**26.** Pharisau itsua, garbi eçac lehenie edari eta iaqui untciaren barneco aldea, campocoa ere garbi içan dadintçat.

**27.** Ondico çuentçat Isquiribau eta Pharisauac ! Ceren iduri baititutçue hil-hobi chnritu batçu, ceinee campotic ikhustez eder eguiten baitute, eta barnean betheac baitira hil-heçurrez eta cer nahi cikhinqueriaz.

**28.** Halaber eta quec ere, campoz guicon, çucenen eguitea dakhartçue, eta barnean betheac çarete gueçurrez eta gaichtaqueriaz.

**29.** Çorigaitz çuentçat Isquiribau eta Pharisau gueçurtiac ! Geinec altchateen baitiotçatçuete hil-hobi ederrac Profetei, eta berreguinteen iustuen ehortz-lekhuac ;

**30.** Eta erraiten baituçue : Içan baguina gu gure aiten egunetan, ezquinuen ez hec beçala Profeten odola ichurico.

**31.** Hargatic beraz, lekhuco çarete eeboce ceben buruen contra, Profetac hil içan ditüttenen seme çaretela.

**32.** Quec ere bada mucurru eçaçue çuen aiten neurria.

**33.** Sugue cirau casta ! Nola ihes eguin diecoqueçue ifernurat aurthiquiac içaiteari ?

**34.** Egorrico darozquitçuet beraz Profetac, eta Çuhurrac, eta Isquiribauac, eta quec he-

tarie batçu hilen ditutçue, bertceac khuruteei lothuco, bertceac açotatuco çuen bilkhuetan, eta bilhatuco ditutçue hiriz hiri, gaizqui erabili beharrez;

35. Dathorren çuen gainera luraren gai-nean ichuri içan den odol garbi gucia, hasi Abel çucenaren odoletie, eta Zakhariaz Barrakhiaren semearen odoleraino, ceina hil içan baituçue temploaren eta aldarearen artean.

36. Eguiaz diotsuet : Ethorrico dira horiec guciac orai biei diren hauquien gainera.

37. Ierusalem, Ierusalem, Profetac hil-teen ditunana, eta hire gana egorri içan dírenac harricatcen, cembañ aldiz nahi içan ditinat hire haurrac bildu, oilo batec bere chitoac hegalen azpira bilteen dituen beçala, eta ezpaitun nahi içan!

38. Sarri beraz gueldituco çautçue çuen etchea nehor gabe.

39. Ecen erraiten darotçuet, ez nauçuela ikhusico gaur guehiago, derraqueçuen artean : Ongui ethorri dadiela Iaincoaren ice-nean heldu citçarocuna.

#### XXIV. CAPITULUA.

*Nola içanen den Ierusalem deseguina ; eta certaric eçagutuko den deseguitera dohal a. Iesu-Christoren azquen aldicotçat ethortcea.*

1. Iesus templotic ilkhiric cihoala, hurbildu citçavezcon dicipuluac, erakhusten cio-

tela cer edertasun eta handitasunequin templa eguna cen.

2. Bainan ihardetsi çaroen Iesusec : Ikhusten ditutçue horiec oro? Erraiten darotçuet bada egua : Ezta gueldituco hemen harria harriaren gainean, aitcitic guciak lurrerat aurthiquiac içanen dira.

3. Guero, cegoela Olibetaco mendi gainean iarriric, ethorri citxaizecon dicipuluac bakhartasunean, eta galdeguin cioten : Erraguçu, noiz guerthatuco dira gauça horiec, eta certaric eçagunen dira çure ethortcea eta mendeen akhabantça?

4. Ihardetsi çaroen Iesusec : Beguirauçue nehorre engana etçaitçaten.

5. Ethorrico dira ecen hainitzene icenean, diotela : Ni naiz Christo; eta hainitçac bere ganatuco dituzte.

6. Adituco ere ditutçue guerla-otsac eta guerla-ospeac ; beguirauçue ordean asalda etçaitzten ; horiec oro ecen guerthatu beharrac dira ; bainan eztiteque oraino akhabantça.

7. Ecen altchatuco dira populua popularen contra, eta erresuma erresumaren contra; eta içanen dira içurriteac, eta goseteac, eta hainitz toquitan lur-ikharateeac.

8. Ordean horiec oro eztira içanen ondicoen hasteac baicen.

9. Orduan emanen çaitztete etsaiei, oin-hazeatuac içaitecotçat, eta hilen çaitztete; eta populu guciec gaitecetsiac içanen çarete, ene icena gatic.

40. Egun hetan hainitçac erorico dira, eta batac bertcea salduco dute, eta batac bertcea gaiteetsico dute.

41. Eta altchatuco dira hainitz profeta gueçurti, ceinec hainitz bertce enganatuco baitituzte.

42. Eta nola gaindi egunen baitu gaichtaqueriae, hainitcen amodioa hoztuco da.

43. Bainan norc ere iraunen baitu azqueraino, eta hura içanen da salbatua.

44. Eta hedatua içanen da erresumaco Ebanyelio hau mundu gucian, eta guero içanen da ororen suntsitcea.

45. Dakhusaqueçünean bada, lekhu sainduan, ecin asqui higüin daitequen ondicoa, Daniel profetac erran içan duena (iracurcen duenac adi beça),

46. Orduan Iudean direnee, ihes egun beçate mendietarat;

47. Eta etche gainean dena, ezpedi iauts etchetic cerbaiten cramaitecotan;

48. Eta landan dena, ezpedi bihur bere soinecoaren harteera.

49. Corigaitz ordean emazte içorrentçat, eta haurrae eredosquitcen dituztenentçat e-gun hetan!

50. Othoitz eguiçue bada cuen ihesia neguan eztadin içan, ez eta larumbat egunarequin (1).

(1) Larumbata, Hebreo hizcuntçaz *Sabbath*, Iuduen igande eguna beçala cen, ceinetan ezpaitcecaqueten ez lanic egun, ez bideric hunen bertce urhats luce cenic.

**21.** İçanen dira ecen orduan atsecabe hainitz gaitçac, nolacoric ezpaita içan munduanen hastetic hunaraino, eta ez içanen ere nehoiz.

**22.** Eta baldin laburtuac içan ezpalira egun hec, nehor etcen salbatuco; ordean hantetsiac gatic, laburtuac içanen dira egun hec.

**23.** Baldin orduan norbaitec baderrautue : Huna Christo, hemen da, edo, horra hor da; ezteçaçuela sinhets.

**24.** Altchatuco dira ecen hala eztiren christoac eta profetac; eta eguiñen dituzte ikuusgarri hain harrigarriac, non, ahal balitz, bere gueçurretarat lerraraz bailitçazquete hantetsiac berac.

**25.** Horra non aitcinetic erran darotquetan.

**26.** Baldinetariac beraz erraiten badarotquete : Hara non den mortuan Christo, etçaitzela ilkhi; huna non den etche barne gordean, ezteçaçuela sinhets.

**27.** Ecen nola ilkhiteen baita chismista iguzqui-iaiquitcetic, eta arguiteen baitu iguzqui-elçateraino, halaber içanen da guiçonaren Semearen ethortcea.

**28.** Non ere içanen baita sarrasquia, eta hara bilduco dira arranoac ere.

**29.** Atsecabezco egun hequier ondoan berhala, iguzquia goibelduco da, eta ilharguiac eztu emanen bere arguia, eta içarrac erorico dira cerutic, eta ceruetaco bothereac (1) khor docatuac içanen dira.

(1) *Ceruetaco bothereac*, Hebreo hizeuntçaz erran nahi dira ceruetaco içarrac, hainitz direlacotz.

30. Eta orduan aguertuco da guionaren Semearen bandera ceruan; eta lurreco leinu guciac nigar marrascaz hasico dira; eta ikusio dute guionaren Semea dathorrela ceruco hedoien gainean, bothere eta argitasun handirequin.

31. Eta egorrico ditu bere ainguerauc adarots handirequin, eta bildueo dituzte haren hautetsiac laur haiceetaric, ceruaren bazter batetaric bertce bururaino.

32. Phico hondo batetarie bada ikhas ecaque iduripen bat. Noiz ere iadanie haren adarrac samur eta ninicatuac baitira, eta hostatcen hasia baita, badaquiue uda hurbil dela.

33. Halaber quec ere horiec guciac dakhushquitquenean, iaquin ecaque guionaren Semea hurbil eta athean daitequela.

34. Eguiaz erraiten darotquet, eztela iraganen mende hau, non eztiren horiec guciac bethetcen.

35. Cerua eta lurra iraganen dira, bainan ene hitcac eztira iraganen.

36. Egun hura ordean eta ordu hura nehorc eztaquizqui, ez eta ceruetaco ainguerruec ere, ene Aitac bakharric baicen.

37. Noeren egunetan guerthatu içan cena bada, guerthatuco da guionaren Semea dathorquenean ere.

38. Ecen nola uholdearen aitcineco egunetan, hari baitciren iaten eta edaten, ezkontcen eta bere umeac ezcontçaz emaiten;

39. Eta ezpaitçuten eçagutu uholdearen

ethortceco muga, ethortciten quen artean, eta  
oro eraman baitcituen; bardin içanen da gi-  
conaren Semea dathorquenean ere.

40. Orduan bi giçon içanen dira landan;  
bat içanen da hartua, eta berteea utcia.

41. Bi emazte içanen dira ihara batean  
ehotcen harico direnac; bat içanen da har-  
tua, eta berteea utcia.

42. Atçarriiac çaudete beraz, ceren ezpai-  
taquiçue cer orduz quen launa ethor daite-  
quen.

43. Iaquiçaue bada hau; baldin etcheco  
iaun batec balaqui cer mugaz ethor daiteqnen  
ohoina, atçarriirc legoque, eta ez liro bere  
etchea cilhatcera utz.

44. Halaber çaudete quec ere goait, ceren  
uste eztuquen orduan giçonaren Semea  
ethorrico baita.

45. Gein uste duçu dela cerbitçari arthos  
eta çuhurra, bere nausiac eçarri duquena be-  
re sehi gucien gaineco, hei ordu denean iate-  
ra eman dioçatentçat?

46. Dohatsua da cerbitçari hura, ceina  
nausiac, dathorreanean, horrela hari dela  
aurkhitueo baitu.

47. Eguiaz erraiten darotçuet, haina bere  
onthasun gucien gaineco eçarrico duela.

48. Baldinetariaic ordean cerbitçari hare,  
gaichtoa delaric, erraiten badu bere baithan:  
Berantcen du ene nausiac, eztago ethorri-  
ric;

49. Éta hasten bada bere sehi lagunen ce-  
hatcen, eta iaten eta edaten hordiequin:

50. Ethorrico da sehi haren nausia, harc iguriquitcen eztuen egunean, eta eztaquien orenean;

51. Eta aldaratnco du, eta eçarrico gaichtaguinequin batean : han içanen da nigar eta hortz-carrasca.

---

## XXV. CAPITULUA.

*Hamar biryinen iduripena. Diruen iduripena.  
Azquen iudicioa.*

1. ORDUAN ceruco erresumae iduri içanen ditu hamar biryina, ceinac, bere lampac harturic, ilkhi baitciren ezcon-berrien bidera.

2. Ciren bada hetaric hortz erhoac, eta çuhurrae bortz.

3. Bortz erhoec, bere lampac hartcean, etçuten oliotic hartu berequin.

4. Bainan çuhurree, hartu içan çuten olioia bere untctean lampequin.

5. Eta nola berantcen baitçuten ezcon-berrieet ethortcera, logaletu ciren oro, eta loakhartu.

6. Bainan gau erditan eguin een oihu handi bat : Huna ezcon-berria non heldu den, ilkhi çaquizquiote aiteinera.

7. Orduan iaiqui ciren nescatcha hee guiac, eta bere lampac aphaindu cituzten.

8. Eta erhoec erran cioten çuhurrei : Iguçue çuen oliotic, ceren lampac iraunguitcen baitçaizquigu.

9. Çuhurrec ihardetsi cioten : Ez, beldur-

rez ezteçagun asqui içan gure eta çuentçat; bainan çohazte saltçaileetara, eta eros eça-  
çue.

**10.** Eta eroстera cihoacen bizquitartean, ethorri içan cen ezcon-berria; eta lampac aphainduric çauzeatenac, sarthu ciren harequin ezteietara, eta athea hertsi cen.

**11.** Noizbait guero ethortcen dira bertee nescatchae ere, diotela : Iauna, Iauna, idec dieçaguçu.

**12.** Bainan harc ihardetsi çaroen : Eguiaz diotsuet, etçaituztet eçagutcen.

**13.** Çareten beraz atçarriric, ceren ezpaitaquiçue eguna ez ordua.

**14.** Hala nola guiçon batec, herritic urrun cihoala, dcithu baitcituen bere cerbitçariac, eta eman baitçarozten bere onthasunac es-  
cuetara.

**15.** Bati eman ciotçan bortz talentu diru, bertceari bia, eta bertee bati bat, batbede-  
rari bere antecaren arabera, eta handic be-  
rehala ioan cen.

**16.** Ilkhi cen bada bortz talentu içan citue-  
na, eta iarri cen sal-eroscoetan hequiequin,  
eta irabaci cituen bertee bortz.

**17.** Halaber bia içan cituenac ere, irabaci  
cituen bertee bia.

**18.** Ordean bat içan çuena, ioan cen lur-  
rean cilho baten eguitera, eta nausiaren di-  
rua gorde çuen han.

**19.** Bada handic hainiteen buruan, ethorri  
içan cen cerbitçari hequien nausia, eta sar-  
thu cen khondutan hequiequin.

**20.** Eta hurbilduric bortz talentu içan ci-tuena, escaini ciotçan bertee bortz ere, erraiten cioelaric : Iauna, eman içan darozquidatçu bortz talentu, huna bertce bortz irabaci ditudanac.

**21.** Erran cioen bere nausiac : Ongui da, cerbitçari ona eta arthosa; ceren gauça gu-tian leial içan çaren, eçarrico çaitut haini-teen gainean; sar çaitie çure launaren bozcarioan.

**22.** Hurbildu cen guero bi talentu içan ci-tuena, eta erran çuen : Iauna, eman daroz-quidatçu bi talentu; huna bertce bia irabaci ditudanac.

**23.** Erran cioen bere nausiac : Ongui da, cerbitçari ona eta arthosa; ceren gauça gu-tian leial içan çaren, eçarrico çaitut haini-teen gainean; sar çaitie çure launaren bozcarioan.

**24.** Ondoan ethorri cen talentu bakhar bat içan çuena ere, eta erran çuen : Iauna, ba-daquit ecen guiçon çorrotz bat çarela, eta uztatcen duçula erein eztuçun toquian, eta biltcen barraiatu eztuçularic.

**25.** Eta beldurtu naiz, eta ioan naiz, eta gorde dut çure talentua lurrean; huna non duçun çurea.

**26.** Bainan ihardetsi cioen bere nausiac : Cerbitçari gaichto eta alpherra, bacinaquien uztatcen dudala erein eztudan toquian, eta biltcen dudala barraiatu eztudalaric;

**27.** Behar cinuen beraz eman ene dirua irabacian, ethorri eta hartuco bainuen enea, gaineraco irabaciarequin.

28. Edec eçoque beraz bere talentua, eta emoque hamar talentu dituenari.

29. Eeen duenari emanen caio, eta içanen du gaindizca; bainan eztuenari, duela dirudienetan ere khenduco caio.

30. Eta cerbitçari alpher hori aurthic eçaque lekhoreco (1) ilhumabetarat; han içanen da nigar eta hortz-carrasca.

31. Noiz ere bada ethorrico baita guionaren Semea bere handitasunean, ainguera guciad berequin dituela, iarrico da bere alkhi arguitsuan;

32. Eta bilduco dira populu guciad haren aitcinera, eta berrecico ditu batzu bertceen ganic, hala nola artçain batec ardiac akherretaric berezten baititu;

33. Eta eçarrico ditu ardiac bere escuinenco aldean, eta akherrac bere ezquerreco aldean.

34. Orduan erranen daroe erreguec bere escuineciei : Çatozte, ene Aitaren benedituac, goça eçoque mendeen hastetic aphaindua içan çaitçuen erresuma.

35. Eeen gose içan naiz, eta eman darotaque iatera; egarri içan naiz, eta eman darotaque edatera ; arrotz içan naiz, eta hartu nauque etcherat;

36. Bilucia içan naiz, eta iauntei nauque; eri, eta ikhustera ethorri çazquidate; gathetan naintean, eta ethorri çarete ni gana.

(1) *Lekhoreea*, mintçaiia çaharrez, erran nabi da campoa.

37. Orduan ihardetsico diote iustuec : Iau-na, noiz ikhusi çaitugu gose cinela, eta eman baitarotçugu iatera; egarri cinela, eta eman baitarotçugu edatera?

38. Noiz ikhusi çaitugu arrotz, eta etcherat hartu baitcitugu, edo bilucia, eta estali baiteitugu?

39. Eta noiz ikhusi çaitugu eri, edo gathibu, eta ethorri baicara çugana?

40. Eta ihardetsico daroe erreguec : Eguiaz erraiten darotçuet : Noiz ere egun baitioqueçue enc anaia chumeen hautaric bat, niri neroni egun darotaçue.

41. Orduan erranen daroe ezquerrecoei ere : Çohazte ni ganic, madaricatuac, su bethierecorat, ceina phiztua içan baita deabruarentçat eta haren ainguueruentçat.

42. Gose içan naiz écen, eta eztarotaçue eman iatera; egarri içan naiz, eta eztarotaçue eman edatera;

43. Arrotz naintcen, eta ez nauçue etcherat bildu; bilucia, eta eznauçue iauntci; eri eta gatheetan, eta etçaizquidate ikhustera ethorri.

44. Orduan ihardetsico diote hec ere : Iau-na, noiz ikhusi içan çaitugu gose, edo egarri, edo arrotz, edo bilucia, edo eri, edo gatheetan, eta etçaitugu lagundu?

45. Eta harc ihardetsico daroe : Eguiaz diotsuet : Noiz ere ezpaitioqueçue egun chumeen hautaric bat, niri neroni eztarotaçuet egunin.

46. Eta ioanen dira hauc ondico bethierecorat, iustuac aldiz bicitee bethierecorat.

## XXVI. CAPITULUA.

*Iesusen pairamenaren hastea.*

1. IESUSEC, akhabatu cituenean solhas horiec, erran çaroen bere dicipuluei :

2. Badaquique bi egunen buruan Phazeo eguiñen dela, eta guiçonaren Semea saldua içanen dela, habean (1) itçatua içan dadintcat.

3. Bizquitartean bildu ciren Aphez aitcindariac, eta populuko Çaharrac, Caiphas caritan Aphez handiaren salhara;

4. Eta elkharrquin hiltçar eguin çuten Iesusen amarruz hatcemaiteco, eta hil-arazteco.

5. Eta erraiten çuten : Ezteçagun eguin iai-egunaz (2), beldurrez populuan eztadin içan cembait muguidura.

6. Bethanian celaric bada Jesus, Simon sorhaioaren etchean,

7. Hurbildu citçaioen emaztequi bat, alabastrazco (3) untei bat escuan, urrin on diru handico batez bethea; eta iaten iarria celarian, ichuri cioen burutic gain behera.

8. Hori ikhustearequin, dicipuluac haseretu ciren, eta cioten : Cergatic hori horrela gal?

(1) *Habea*, hemen khurutcea erran nabi da.

(2) *Iaia*, phesta, *iai-eguna*, phesta eguna.

(3) Harri churi mota batezcoa.

9. Sal çaitequen ecen diru hainitctean usain goço hori, eta beharrari eman.

10. Iesusec ordean, baitçaquien cer cerasaten, erran çaroen : Cergatic eguiten dioçue damuric emazte huni? Hunec niri eguin darotana ongui da.

11. Behar duquetenac ecen bethi baditutue çequin; ni ordean eznauque bethi içanen.

12. Eta usain goço hau gainera hustu darotanean, ene ehorztecotçat eguin içan du.

13. Erraiten darotçet eguiazqui : Non nahi barraia dadin Ebanyelio hau mundu gucian, hunee eguin duena ere errana içanen da hunen orhoitçapenetan.

14. Orduan ioan cen hamabietarie bat, Iudas Iscariot çaritçana, Aphez aitcindarietara;

15. Eta erran çaroen : Cer nahi darotaçue eman, eta escuetan eçarrico darotçet? Eta hee hitz eman ciotçaten hogoi eta hamar cilhar pheça.

16. Eta gueroztic bide bilha çabilan, nola escuetara eman cioçoqueten.

17. Altchagarri gabeco oguien lehen egunean bada (1), ethorri citçaizecon dicipuluac Iesusi, eta erran cioten : Non nahi duçu aphain dieçaçugun Phazcoa iateco behar de-na?

(1) Phazcoren aitcineco egunaren arrats aldetic, phazcoco phestec cirauteno, Iudutarrei etcitçaien sori lemamiareqnilaco oguiric iatea.

18. Iesusec ihardetsi çaroen : Cohazte hirira, holacoaren gana, eta erroque : Nausiac dio : Ene ordua hurbil da; çure etchera heldu naiz Phazcoaren eguitera ene dicipuluequin.

19. Dicipuluec egun çuten Iesusec manatu çaroen beçala, eta aphaindu çuten Phazcoa (1).

20. Arratsa ethorri cenean, eman cen mahainean bere hamabi dicipuluequin.

21. Eta iaten hari cirela, erran çaroen : Eguiaz diotsuet, çuetaric batec salduco nau.

22. Eta atsecabetu ciren handizqui, eta hasi citçaizeon cein bere alde erraiten : Ni othe naiz, launa ?

23. Ihardetsi çaroen : Escua enequin iatecora emaiten duenac, hare salduco nau.

24. Behintcat badoha guiçonaren Semea, hartaz isquiribatua den beçala : bainan corigaitz guiçonaren Semea saldueo duenarentcat! Hobe çuqueen baldin egundaiño sorthu ezpalitz.

25. Erran cioen bada Iudasec, ceinac saldu baitzen : Nausia, ni othe naiz? Ihardetsi cioen : Ceronec erran duçu.

26. Eta aphaniten hari cirela, hartu çuen Iesusec oguaia, eta, othoitz egun ondoan, hautsi çuen, eta eman çaroen dicipuluei, ciotsotela : Har eçaçue, eta ian eçaçue; hau ene gorputça da.

27. Eta edan-unteia hartu eta, esquerrac

(1) Erran nahi da phazcoco bildotsa.

bihurtu cituen, eta eman çaroen dicipuluei, ciotsotela : Edan eçaçue huntaric guciec (1) ;

28. Ecen hau ene odola da, testament berrioa, ceina ichuria içanen baita hainitcentçat, bekhatuen barkhamendutan.

29. Erraiten darotçuet bada, eztudala hemendie harat edanen mahats arno huntaric, ene Aitaren erresumana quequin berritan edanen duquedan eguneraíno.

30. Eta esquerrac erran ondoan, ioan ci-ren Olibetaco mendirat.

31. Orduan erran çaroen Iesusec : Çuec guciec gau huntan gaiz-bide içanen duçue nit-an. Isquiribatua da ecen : Ioco dut artçaina, eta barraiatueo dira arthaldeco ardiac.

32. Bainan hiletaric phiztuco naicen ondoan, çuec baino lehen ioanen naiz Galileara.

33. Piarresec ihardetsi cioen : Bertce guciei gaiz-bide bacina ere, niri nehoiz etci-çeazquit içanen.

34. Erran cioen Iesusec : Eguiaz erraiten darotçut, gau huntan bercan, oilarrac ioco

(1) *Edan eçaçue huntaric guciec* : hori Apostolei dagocote, eta hequier ondotic aphecei, ceinec, meça erraiten duten guciez, baitezpada behar baitute oguiaren eta arnoaren itchuran launa hartu. Bainan bertce guciec oguiaren itchuran baicic eztute bartcen; eta eztute deusic galtzen, Iesu-Christo bardin denaz gucroz itchura baten ala bien azpian. Eta hainitz mende duela, hala nahi içan du Eliçac, bereciqui eztadin uste gabez odol saindua lurrerat ichur comunitatceria emaitean.

duen baño lehenago, hirur aldiz ukhatuco nañu.

35. Ihardetsi cioen Piarresec : Hil behar banintz ere çurequin, etcintzazquet ukha. Halaber erran cioten bertce dicipulu gueciec ere.

36. Orduan heldu cen Jesus hequiequin Yethsemani deitzen cen herrichea batetara, eta erran çaroen : Gaudete hemen, harache othoitz eguitera nohan bizquitartean.

37. Eta harturic berequin Piarres eta Zebedeoren bi semeac, hasi cen goibeltzen eta guezatsecabetzen.

38. Orduan erran çaroen : Goibel da ene bihotça hil arteraino; çaudete hemen atçarriac enequin.

39. Eta aiteinaachago ioanic, ahuspez ecarri cen, othoitz eguiten çuela, eta ciocla : Ene Aita, ahal badaite, urrun bedi khalitz hau ni ganic; halaric ere bada eguin bedi que nahi duçun beçala, ez nie nahi dudan beçala.

40. Ondoan ethorri cen dieipuluetara, eta aurkhitu cituen lo çountçala, eta erran cioen Piarresi : Cer bada! ecin egon carete ordu bat atçarriac enequin?

41. Çaudete atçarriric, eta eguiçue othoitz, tentacionetan elçaitezten sar; ispiritua ecen erne da, bainan haraguia eri.

42. Berriz ioan cen bigarren aldian, eta othoitz eguin çuen, ciocla : Ene Aita, ezpandaite khalitz hau iragan dadin ni ganic, non eztudan edaten, eguin bedi çure nahia.

43. Eta berriz bihurtu cen, eta aurkhitu cituen lo  aunt ala; beguiac ecen logalez ero-riac cituzten.

44. Eta utciriec hec, berriz ioan cen, eta o hoitz eguna  uen hirurgarren aldico, hitz berac erraiten cituela.

45. Guero it uli cen bere dicipuluetara, eta erran  aroen : Lo egui ue gaurguero, eta descantsu har e a ue; huna non hurbildua den ordua, eta guiconaren Semea emana i ai-tera doha gaichtoen escuetarat.

46. Haica  aitezte, goacen; huna non hur-bil den ni saldu behar nauena.

47. Oraino mint o cela, Iudas, hamabie-tarie bat, ethorri cen, eta harequin guicon-tee handi bat, ezpata eta makhilequin, Aphez aitcindariec eta populuko  aharrec egorri-ric.

48. Bada Iesus saltcen  uenac, haren e a-guf-arazteco, erran  aroen : Ceini ere musu emanen haitiot, eta hura da; har e a ue.

49. Eta berchala hurbildurie Iesusi, er-ran cioen : Agur, Iauna. Eta musu eman cioen.

50. Erran cioen Iesusec : Adisquidea, cer-tarat ethorri cara huna? Ordu berean hurbil-durie, escuac gainera eman ciot aten, eta hartu cuten.

51. Eta Iesusequin cirenatarie batec, escua ezpatara emanic, athera  uen, eta io  uen Aphez handiaren cerbit ari bat, eta beharri bat ebaqui cioen.

52. Erran cioen Iesusec : Bihur e a u

çure ezpata bere toquirat; ecen ezpata hartuko duten gueiac, ezpataz hilen dira.

53. Eztuçu uste othoitz deçaquedala ene Aita, eta harc egor dietçadaquetala orai berean hamabitan sei mila aingueru baino guehiago?

54. Bainan nolatan bethe liteque isquiribatua dena, gauçac hunela behar direla eguin?

55. Ordu hartan berean erran çaroen Iesus-sec guiçon oste hei : Ohoin baten ondoan becala ilkhi çarete ezpatequin eta makhilequin ene hatecemaitera : egun oroz bizquitartean çuen erdian nindagoen iarriric, temploan erakhasten nuela, eta ez nauçue harta.

56. Bainan hau gucia guerthatu içan da, Profetec isquiribatua bethe dadintçat. Orduan dicipulu guciec utci çuten, eta ioan cieren ihesi.

57. Eta Iesus harta çutenec, eraman çuten Caiphas Aphez nausiaren ganat, ceima baithan Isquiribauac eta populuco Çaharrac bilduac baitçauden.

58. Piarres bada urrundanic iarrai qui ci-tçaioen Aphez nausiaren etcheco ezcaratceraino, eta barnerat sarthuric, iarri cen se-hiequin hatean, ikhusteco hauc certan gueldi citezquen.

59. Bizquitartean Aphez nausia eta biltçar gucia lekhucotasun gueçurrezco cembaiten bilha çabiltçan, Iesus hil-araztecotçat.

60. Eta etçuten aurkhitcen moldezcoric, hainitz lekhuco gueçurti ethorri ciren arren. Azquenean athera ciren bia,

**61.** Eta cioten : Hunec erran du : Aurthic ahal dirot Iaincoaren temploa, eta hirur egunen buruco berriz chutie eman.

**62.** Horren gainean, Aphez handiac erran cioen iaiquiric : Eztu*ç*u ihardesten deus hauquiec çutaz diotenz?

**63.** Bainan Iesus ichilic eegoen. Eta Aphez handiac erran cioen : Iainco bici denaren ice-nean galdeacen darotçut, erran dieçaguçun, hea çu çaren Christo Iaincoaren Semea.

**64.** Diotso Iesusec : Dioçun beçala da; eta erraiten darotçuet : Ikhusicò duçue oraino guïçonaren Semea Iainco guciz indartsuaren escuinean iarria, heldu dela ceruce hedoiien gainean.

**65.** Orduan Aphez nausiac urratu cituen bere soinecoac, cioletaric : Burho eguin du; cer behar dugu guehiagoco lekhucoric? Horra non cebonec aditu dioçuen burhoa;

**66.** Cer çaitçue? Ihardetsi cioten : Horren saria heriotcea da.

**67.** Orduan thu eguin cioten beguithartera, eta io çuten ukhabilacaldiz; bertce batçuec berriz beharrondococa hari citçaizcon,

**68.** Erraiten ciotela : Christo, asma dieçaguc; norda io hauena?

**69.** Arte hartan, Piarres lekhorean (1) eegoen, ezcaratcean iarriric; eta hurbildu citçaioen neseato bat, ciotsola : Çu ere Iesus Galileacoarequin einen.

(1) *Lekhorean*, campoan.

70. Bainan harc ukhatu çuen gucien aiteinean, cioela : Eztaquit cer dioçun.

71. Berriz athetic ilkhitcen cela, ikuhi  
çuen bertce nescato batec, eta erran çaroen  
han cirenei : Hau ere Iesus Nazarendarrare-  
quin cen.

72. Eta harc berriz ukhatu çuen, cin egui-  
nez cioela : Eztut eçagutcen ere guïçon hori.

73. Aphur baten buruan hurbildu citçaiz-  
con han çaudecenac, eta erran cioten : E-  
guiazqui, çu ere hetarie cara, ecen çure min-  
tçaiac berac salhatcen çaitu.

74. Hasi cen orduan cinez eta arneguz er-  
raiten, etçuela eçagutcen guïçon hura. Eta  
berehala oillarrac io çuen.

75. Eta orhoitu cen Piarres Iesusec erran  
cioen hitçaz : Oillarrac io deçan baino lehen,  
hiruretan ukhatuco nauçu. Eta camporat il-  
khiric, nigar eguin çuen minqui.

## XXVII. CAPITULUA.

*Iesusen pairamenaren akhabantça. Haren  
ehorztea.*

1. Goiça ethorri cenean, biltçar eguin çu-  
ten Aphez aitcindari gueicc eta populuaren  
arteco Çaharrec, Iesus hil-araztecotçat.

2. Eta estecatua eraman çuten, eta eman  
cioten Poncio Pilatus gobernadoreari escue-  
tara.

3. Orduan Iudasi, hura saldu çuenari,

ikhusi çuen ondoan nola galtcera çaramaten, urriquitu citçaison, eta ekharri çaitzen guiblat hogoi eta hamar diru pheçac Aphez aitcindarici eta Caharrei,

4. Ciotsotela : Gaizqui eguin dut, saldu baitut hobenic gabecoaaren odola. Bainan hec ihardetsi cioten : Guri cer dohacu? Herorrec ikuhs eçac.

5. Aurthiqui cituen hada diruac temploan, eta ioan cen, eta bere burua urkhatu çuen.

6. Eta Aphez aitcindariec, diruac harturic, erran çuten : Etçaien cilhegui hauc temploco diruequin eçartcea, ceren odolaren saria baita.

7. Eta elkar adituric, erosi çuten hetaz bachera eguale baten alhorra, arrotçac han ehorztecotçat.

8. Hartacotz da alhor hura egungo egunerraino deithua Haceldama, erran nahi baita, odol landa.

9. Orduan bethe içan cen Ieremias profetac erran içan çuena : Eta hartu dituzte hogoi eta hamar diru pheçac, ceinac baitira saldu içan denaren saria, eta ceinetan erosi içan baitaroe Israelgo umei;

10. Eta eman dituzte bachera eguale baten landaren erosteco, launac niri aguindu darotan beçala.

11. Jesus bada eçarria içan cen Gobernadorearen aitcinean, eta Gobernadoreac galdeguin cioen : Iudutarren Erreguea cara çu? Ihardetsi cioen Jesusec : Ceronec dioçun beçala.

12. Eta acusatcen baitçuten Aphez aitcindariec eta populuco Caharrec, etçuen deusic ihardetsi.

13. Orduan diotso Pilatusec : Eztantceu (1) cembañ lekhucotasun derasaten cure gain?

14. Bainan eteioen hitz baten gainean ere ihardetsi, halako moldez non handizqui miresten baitçuen Gobernadorcac.

15. Phazcoco egun handiarequin bada, ohitça cen, Gobernadoreac ioaitera utceçan gatheetan cirenitarie bat, populuac hautsteen çuena.

16. Eta baceucan orduan escuetan, Barrabbas deitcen cen, gaichtaguin hainitz eçagutu bat.

17. Beraz bildu cituen Pilatusee, eta erran çaroen : Cein nahi duçue utz dieçadaçuetan, Barrabbas ala Jesus, Christo deitcen dena?

18. Baçaquien ecen bekhaizéoz ekharri ciotela escuetarat.

19. Eta, nola bere alkhian iarriric baitcegoen, egorri içan cioen bere emazteac erraitera : Eztuçula equitecoric guiçon hoben gabeco horrequin ; ecen hainitz pairatua nago gaur ametsetan horren gatie.

20. Bizquitartcan Aphez aiteindariec eta Caharrec burutan eman cioten populuari, Barrabbas galde ceçatela, eta Jesus gal-araz.

21. Erran çaroen bada Gobernadoreac :

(1) Eztuçu entçuteu.

Cein nahi duçue bietaric utz dieçadaçuetan ?  
Bainan hec ihardetsi cioten : Barrabbas.

22. Pilatusec dioste : Cer eguiten dut beraz Iesusez, Christo deiteen denaz?

23. Diotsote guciec : Khurutcean itea bedi. Erraiten diote Gobernadoreac : Ordean cer gaizqui eguin du? Bainan hec oihua gorago çaramaten, ciotsotelaric : Khurutcean eman bedi.

24. Ikhusiric bada Pilatusec etçuela deus aitcinateen, aiteitic alborotamendua handi-teenago baicic etcela, harturiç ura, ikhuci cituen escuac populuaren aitcinean, cioela : Behintçat ni chahu naiz guiçon hoben gabeco hunen odoletic : çuetaz denaz, ikhus-aue.

25. Eta ihardetsi çuen populu guciac : Deila hörren odola gure gain eta gure umeen gain.

26. Orduan utci çaroen Barrabbas, eta Iesus açotaturic, eman çaroen escuetarat, khurutcean eçarria içan çadintçat.

27. Berehala Gobernadorearen soldadoec, eramanic Jesus iaureguirat, bere lagun guciac haren ingurutara bildu cituzten,

28. Eta biluci ondoan, iauntci cioten es-carlatazeo capa bat;

29. Eta arantcezeo khoro bat eguinic, eçarri cioten buruan, eta khanabera bat escu es-cuinean; eta escarnioz aitcinean belhaunicateen citçaizeon, erraiten ciotela : Agur, Induen Erreguea.

30. Eta bekhoquiora thu eginez, hartcen

cioten escutic sesca, eta burua hartaz ioteen cioten.

31. Eta horrela hartaz dostatu cirenean, erauntei cioten capa, eta bere soinecoae iauntei, eta eraman çuten khurutcean ecar-teera.

32. Ilkhiteen cirela bada, aurkhitu çuten guiçon bat Cirenacoa, Simon çaritçana, eta behartu çuten Iesusen khurutcearen eramai-tera.

33. Eta ethorri ciren Golgotha deitcen den lekhura, erran nahi baita Calbarioco lekhura (1).

34. Eta eman cioten edatera arnoa ozipina-requin nahasteeaturie, eta dastatu çuenean, eteuen edan nahi içan.

35. Khurutcean ecarri çuten ondoan, haren soinecoae beren artean bereci cituzten, çorthe emanie; bethea içan çadintçat Profetaren erran hau: Bereci dituzte bere artean ene phildae, eta ene soinecoaz çorthe aurthi-qui dute.

36. Eta iarriric, haren beguirateen çaud-een.

37. Ecarri ere cioten buru gainean isqu-ribuz, ergatic hil-arazten cen: HAU DA JESUS, IUDUTARREN ERRECUEA.

38. Harequin batean khurutcetan itxatu cituzten bi ohoin, bata escuinatarie, eta ber-teea ezquerretarie.

(1) *Calbarioco lekhua, buru-heçur toquia, nasqui han gaichtaguinac urkbatzen cituztelacotz, eta thorzten.*

39. Eta handic iragaiten cirenec laidostatzen çuten, buruac erabiliz,

40. Ciotsotela : Hea bada, Iaincoaren templa barraiatcen ducanaz gueroz, eta hirur egunez berriz chutitcen, beguira eçac heure burua ; Iaincoaren Semea bahaiz, iauts hadi khurutcetic.

41. Halaber Aphez nausiac ere hartaz burlatcen hari ciren, Isquiribauequin eta Çaharrequin, ciotsatela :

42. Bertceac beguiratu ditu, bere burua ecin beguira diro ; Israelgo erregue bada, iauts bedi oraintche khurutcetic, eta sinhetsico dugu horren baithan.

43. Iaincoa baithan uste içan du ; athera beça orai hortic, haren gogaraco balin bada ; erran du ecen : Iaincoaren Semea naiz ni.

44. Erantçute bera eguiten cioten harequin khurutcean ciren ohoinec ere.

45. Egüerditic bada hirur orduetaraino, lurra estalia içan cen ilhumbeac.

46. Eta hirur orenen inguruau, oihu bat eguin çuen Iesusec oœenqui, cioela : Eli, Eli, lamma sabacthami ; erran nahi baita : Ene Iaincoa, ene Iaincoa, cergatic utci nauçu ?

47. Han cirenetaric cembaitec, hori adituric, cioten : Elias deiteen du hunec.

48. Eta berehala laster eguinic batec, hartu çuen belogui bat (1), eta bethe çuen arno minfluz, eta sesca batean eçarriric, eman cioen edatera.

(1) *Belognia*, edo esponya.

49. Bertceec berriz erraiten çuten : Utça-  
çu, dakhusagun bada hea ethorrico çaison la-  
guntcera Elias.

50. Bainan Iesusec berriz ere oihu handi  
bat eguinie, aurthiqui çuen azquen hatsa.

51. Ordu berean temploeo beloa erdiratu  
cen bi çathitara, gainetie behereraino, eta  
lurra ikharatu cen, eta harriac arraildu ci-  
ren.

52. Hil-hobiae idequi ciren, eta hainitz  
hilac ciren sainduen gorphutçae phiztu.

53. Eta hura phiztearequin batean, ilkhi-  
ric bere hobietaric, ethorri içan ciren hiri  
saindura, eta aguertu cequizquien hainitei.

54. Bizquitartean ehun guionen aitcin-  
daria, eta harequin Iesusen beguiratcen çau-  
decenac, ikhusiric lur ikbara eta bertce ira-  
gaiten ciren gnciae, icitu ciren handizqui,  
ciotela : Eguiazqui Iaincoaren Semea een  
hau.

55. Baciren bada han hainitz emazte ur-  
rundanic cegocenac, ceinac Iesusi iarrai qui  
baitcitçaizcon Galileatie, cerbitçatcen çu-  
tela;

56. Hequier artean eiren Maria Magdale-  
na, eta Maria Iaquesen eta Iosephen ama,  
eta Zebedeoren semeen ama.

57. Arrastu cenean, ethorri içan cen güi-  
con aberats bat Arimatheacoa, Joseph cari-  
tana, eta Iesusen dicipuluetaric cen ere;

58. Hura ioan een Pilatus gana, eta es-  
catu cioen Iesusen gorphutça, eta berehala  
manatu çuen Pilatusec eman ceqion.

59. Eta gorputça harturic Iosephec, mi-hise churi hatz thorochatu çuen,

60. Eta guero eman çuen bere hobi berri batean, barroca batetan eguna çueñean; eta harri handi bat hobiaren atherat irauliric, ioan cen.

61. Han çaudesen bada Maria Magdalena eta bertee Maria, iarriac hobiaren aldean.

62. Biharamunean, ceina baitcen larumbataren aiphaintceco egunaren ondoko (1), Aphez nausiac eta Pharisauac, elkhar hartzeta, ethorri ciren Pilatus gana,

63. Eta erran cioten : Orhoitu gara nola cilibocatçailo (2) horrec erraiten çuen biei celarie : Heren egunean berriz phiztueo naiz.

64. Mana eçaü beraz çain dadin hobia herren eguneraino, heldurrez horren dicipuluac ethor eztaitecen, eta czteçaten ebats, eta erran populuari : Hiletarie berriz phiztu da ; eta azquen enganioa bailicâte lehena baino areagoa.

65. Ihardetsi çaroen Pilatusec : Baditutxue çaintçaleac ; çohazte, çain eçaüe, dari-tçaüen beçala.

66. Ioan eiren beraz, eta hobia ongui her-tsiric, harria ciguilatu çuten, eta eman cituzten çainac.

(1) Ewan nahi baita larumbata edo Sabbathoa bera.

(2) Cilibocatcea, enganatcea, bairatcea, lilluratcea.

## XXVIII. CAPITULUA.

*Iesusen hiletaric phiztea. Aguertcen da emazte sainduei eta dicipuluei. Nola bere Apostoluac egortcen dituen.*

1. LARUMBATA iragan eta, bertce astoaren lehen egunean (1), doidoia arguiteen celaric, ethorri ciren Maria Magdalena eta bertce Maria, hobiaren ikhustera.

2. Eta bethetan lur ikharatce handi bat egun içan cen. Ecen launaren ainguero bat iautsi cen cerutic, eta hurbildu eta, aldara-  
tu çuen hobiaren aitcineco harria, eta iarri  
cen haren gainean.

3. Haren itchurac distiateen çuen chismis-  
taç beçala, eta iaunztura çuen elhurra beçain  
churi.

4. Icialdurac harritu cituen çaintçaleac,  
eta hilac beçalacatu ciren.

5. Bainan mintçatu eitçaien ainguera  
emazteei, eta erran çaroen : Eztuçuela bel-  
durric quec : badaquit eeen Jesus khurutcean  
itçatua içan denaren bilha çabiltçatela.

6. Ezta hemen ; phiztu da, erran çuen beçala. Çatozte, ikhusaçue launa eman içan  
çuten toquia.

7. Eta laster eguinie, erroeçue haren dici-  
puluci, phiztu dela; eta Galileara aitciñduco

(1) Gure igande goicean beçala.

çaitçue; han ikuhisco duçue. Horra non erran darotçuetan aitecinetic.

8. Ioan ciren berchala hobitic, icituac eta boztuac handizqui, eta laster egun çuten berri horren dicipuluei emaitera.

9. Bainan cihoacela, Iesus aiteinera ethori citçaien, eta erran çaroen : Agur. Eta hec hurbilduric, besarcatu cituzten haren oinac, eta adoratu çuten.

10. Orduan erran çaroen Iesusec : Eztuçuela beldurric; çohazte, erroeçue ene anaiei, dohacela Galilearat; han ikuhisco naute.

11. Hec ioan cirenean, çaintçaleetaric cembait ethori ciren hirira, eta erran ciotçaten Aphez aiteindariei iragan cirenac oro.

12. Bildu ciren hauc Çaharrequin, eta el-khar aditoric, dirutce handi bat eman içan cioten soldadoei,

13. Ciotsotela : Erraque : Haren dicipuluac ethori dira gauaz, eta ebatsi içan dute, gu lo guinaudela.

14. Eta baldin iaquitera heldu bada ere Gobernadorea, guc sinhets-aracico diogu, eta gueriçatuko çaituztegu.

15. Hec beraz dirua hartu çutenean, era-khatxi citçaien beçala egun çuten, eta solhas hori barraiatusa içan cen, eta egungo eguneraino Iduuen artean badirau.

16. Hameca dicipuluac bada Galilearat ioan ciren, Iesusce erran içan çaroen mendira.

17. Eta ikuhi çutenean, adoratu çuten; bainan beldur ciren hora cenetz.

18. Eta hurbilduric Iesus, mintçatu ci-  
tçaien, ciostela : Eman içan çait niri ahal  
gucia ceruan eta lurrean.

19. Cohazte beraz, eta erakhats eçatçue  
populu guciae, bathaiateen ditutçuela Aita-  
ren, eta Semearen, eta Ispiritu Šainduaren  
icenean :

20. Erakhasten diotçuetelaric beguiratcen  
nie manatu darozquitçuetadan guciac. Eta  
huna non çequin naicen mendeec dirau-  
teno.

---

IESU-CHRISTOREN  
EBANYELIO SAINDUA  
SAN MARCOREN ARABERA.

---

I. CAPITULUA.

*Ion Done Baptistaren predicacionea. Iesusen bathaioa, tentacionea. Deitcen ditu Piarres, Andreas, Iaques eta Ioanes. Piarresen ama-guinarrreba sendatcen du. Predicatcen du, sorhaioa garbitcen.*

1. IESU-CHRISTO Iaincoaren Semearen Eban-yelioaren hastapena.

2. Isquiribatua den beçala Isaias profeta baithan : Huna non egortcen dudan ene ainguera, çure beguithartearen aitcinean, ceinac aphainduco baitarotçu aitcinetic çure bidea.

3. Adituco da mortuan oihuz dagoenaren boça : Aphain eçaqne launaren bidea, chuchen eçar eçatçue haren bidechcac.

4. Mortuan cen Ioanes, bathaiatcen hari cela, eta predicateen urriquizco bathaioa, bekhatuen barkhamenducotçat.

5. Baçohacen haren gana Iudeaco herria oro, eta Ierusalendar guiac, eta, bere hobenac aithorteen citutzela, harten çuten bathaioa Iordan ibaian.

16. Galileaco itsas bazterrean çabilan al-di batez, ikhusi içan cituen Simon eta Andreas haren anaia, sareac itsasorat aurthiqu-teen cituztela; ecen arrantçaleac ciren.

17. Eta erran çaroen Iesusec : Çatozte ene ondotic, eta egüinen çaituztet guïça-arran-tçale.

18. Hec, berehala utciric sareac, iarrai qui citçaizcon.

19. Handic aphur bat aitcinachago, ikhusi içan cituen berriz Iaques Zebedeoren semea, eta haren anaia Ioanes, hec ere untcian hari cirela sare antolatcen.

20. Eta ordu berean deithu cituen. Eta hec, utcirie bere aita Zebedeo untcian bere languileequin, iarrai qui citçaizeon.

21. Ethorri ciren guero Capharnaumera, eta larumbata celacotz, sarthu cen berehala Jesus hangoen bilduman, eta eman cen hequie erakhasten;

22. Eta miretsiric çaudesen haren iaquin-çaz, erakhasten çuen ecen escu çuenac beçala, eta ez Isquiribauec beçala.

23. Bacen bada hequier bilkhuan guiçon bat ispiritu lohiac cedueana, eta iarri cen oihuz,

24. Cioela : Cer da çure eta gure artean, Jesus Nazaretheecoa? Gure galteera ethorri çara? Badaquit nor çaren, Iaincoaren Sain-dua.

25. Bainan mehatchatu içan çuen Iesusec, eta erran cioen : Ichil hadi, eta ilkhi hadi guiçon hortarie.

16. Galileaco itsas bazterrean çabilan al-di batez, ikhusi içan cituen Simon eta Andreas haren anaia, sareac itsasorat aurthiquiteen cituztela; ecen arrantçaleac ciren.

17. Eta erran çaroen Iesusec : Çatozte ene ondotic, eta egunen çaituztet guïça-arrantçale.

18. Hec, berchala utciric sareac, iarrai qui citçaizeon.

19. Handic aphur bat aitcinachago, ikhusi içan cituen berriz Iaques Zebedeoren semea, eta haren anaia Ioancs, hec ere untcian hari cirela sare antolateen.

20. Eta ordu berean deithu cituen. Eta hee, uteiric bere aita Zebideo untcian bere languileequin, iarrai qui citçaizeon.

21. Ethorri ciren guero Capharnaumera, eta larumbata celacotz, sarthu cen berchala Jesus hangoen bilduman, eta eman cen hequiei erakhasten;

22. Eta miretsiric çaudesen haren iaquintçaz, erakhasten çuen ecen escu çuenac berçala, eta ez Isquiribauec beçala.

23. Bacen bada hequien bilkhuan guïçon bat ispiritu lohiac ceducana, eta iarri cen oihuz,

24. Gioela : Cer da çure eta gure artean, Jesus Nazarethecoa? Gure galtcera ethorri cara? Badaquit nor çaren, Iaincoaren Saindua.

25. Bainan mehatchatu içan çuen Iesusec, eta erran cioen : Ichil hadi, eta ilkhi hadi guïçon hortaric.

26. Eta ispiritu satsua, gniçona urratcen çuela, eta oihuz ocenqui hari cela, ilkhi içan cen.

27. Eta espantatu ciren guciac, halaco moldez non galdez baitçauden elkarri : Cer da hau? Cer da erakhaspen berri hau? Horrelaco burupearequin (1) manateen baitiote ispiritu lohiei, eta entçuten baitute.

28. Eta betbetan io çuen haren omenac Galileaco herri gucietan.

29. Ordu berean bilkhutic ilkhi eta, ioan ciren Simonen eta Andreasen etchera Lagues eta Ioanesequin.

30. Ohean eetçan bada Simonen ana-guin-arreba, helgaitçae cituela, eta berehala hartaz mintçatu citçaizeon.

31. Eta hurbildurie, escutie hartu çuen eta alcharaci; eta betbetan utci çuen sukharrac, eta eman cen hequien cerbitçatcen.

32. Eta arratsean, iguzquia sarthu cenean, ekharri ciotçaten eri cirenac eta deabruac ceduzceanac oro;

33. Eta hiri gucia athearen aitcinera bilda cen.

34. Eta osatu cituen hainitz, eritasun hainitzen azpian çauddeenac, eta egotci cituen hainitz deabru, eta etcituen nahi içan utci mintçateera, ceren baitçaqüiten nor cen.

35. Biharamunean goiz goicic iaiquiric, ilkhi cen eta ioan bakhar lekhu batetara, eta iarri cen han othoitcean.

(1) *Burupea*, bertcela autoritatea.

36. Eta iarrai qui citeaizeon Simon, eta harquin ciren bertceae.

37. Eta aurkhitu çntenean, erran cioten : Oro çure bilha dabilta.

38. Ihardetsi çaroen : Goacen hurbileco herri eta hirietarat, predica deçadan han ere; hortaeotçat ecen ethorria naiz.

39. Eta hari cen predicatecen hequien bildumetan, eta Galilea gucian, eta deabruen khenteen.

40. Eta ethorri içan citeaioen sorhaio bat othoizea, eta belhaunicaturie ciotsola : Nahi baduçu, garbi niroeu.

41. Urricaldu citeaioeh bada Iesusi, eta escua hedatzunquitzen çuela, erran cioen : Nahi dut, çarela chahu.

42. Hori erran çuen beçain sarri, ioan citeaioen sorhaiotasuna, eta ediren een garbitua.

43. Eta berehala egorri çuen handic mehatuequin,

44. Ciotsola : Beguirauçu nehori deus exterroçun; bainan çohaz, eta erakhus çaquizquio Aphez nausiari, eta escain eçatçu çure garbitcearentçat Moisesec manatu içan dituenae, içan detçaten lekhucotasuntçat.

45. Bainan hora ilkhi ceneeo, hasi cen banateen eta barraiateen bazter gucietan, halatan non ezpaitequen guehiago Iesus hirian sar agueriric, aitcitic lekhorean baitcegoen bakhar lekhuetan; eta ethorteen ciren alde orotaric hora gana.

## II. CAPITULUA.

*Paraliticoa. S. Matheoren deitcea. Baruraz.  
Oihal berri eta untei caharren iduripena.  
Sabbathoaz edo Iudutarren larumbataz.*

**1.** BERRIZ ere sarthu cen Capharnaumen  
eembait egunen buruan.

**2.** Eta etchean cela aditu çuteneco, bildu  
içan ciren halaco osteac, non ecin baitçauz-  
quen etcheac, ez eta athe inguruec ere, eta  
Iaincoaren hitça adî-arazten çaroen.

**3.** Eta ekharri cioten osoqui ecindu eta  
laur guiçonec çaramaten gaicho bat.

**4.** Bainan nola ezpaiteeçoqueten aitcinera  
eman, ostea celacotz, barraiatu çuten hegas-  
teguia, eta idequidura bat eguinic, crautsi  
içan çuten beheiti eria bere ohean çatçala.

**5.** Ikhusiciric bada hequien sinhestea, Iesu-  
sec erran cioen guiçon ecinduari : Ene haur-  
ra, barkhatuac çaiquitçu çure bekhatuac.

**6.** Eta baciren han Isquiribauetaric cem-  
bait iatriiac, eja bere barnean cerasaten :

**7.** Cer dio horrela hunec? Burho eguiten  
du. Nore barkha detçaque bekhatuac, Iain-  
coac bakharric haicen?

**8.** Bainan Iesusec, ordu berean eçagutu  
baitçuen bere çuhurciaz, bere baithan asmu  
hori çutela, erraiten daroe : Cergatic dara-  
biltçue gogoeta horiec çuen bihotcetan?

**9.** Cein da errechago, eri huni erraitea :

Barkhatuac çazquitę cure bekhatuac; ala erraitea : Chuti caite, har eçaçu cure ohea, eta ibil caite?

10. Daquienentçat bada guionaren Semear baduela escua lurraren gainean bekhatuen barkhatceco, diotso eriari :

11. Curi nagotę : Haica caite, eramaçu cure ohea, eta cohaz cure etcherat.

12. Eta hora berehala iaiqui cen, eta ohea harturic, abiatu cen ororen aiteinean; halatan non guciac liarritu baitciren, eta Iain-coa goresten baitçuten, ciotsatellarie : Egun-daino holacoric eztugu ikhusi.

13. Handic ilkhi cen berriz itsasoco alderat, eta heldu citcaion populu gucia, eta era-kastean cuen.

14. Iragaiten cela bada, ikhusi içan quen Lebi Alpheorena (1), diru biltcen iarria, eta erran cioen : Iarraic çaquizquit. Eta chuturic, iarrai qui citcaioen.

15. Eta nola haren etchean iaten eman baitcen, hainitz publicano eta bekhatoros halaber aurkhitu ciren Iesusequin, eta haren dicipuluequin : hainitçac eiren ecen iarraquiteen citcaizconac.

16. Eta Isquiribauec eta Pharisauec, ikhusi çutenean publicanoequin eta astura (2) tçarreco guionequin iaten çuela, erran ioten dicipuluei : Cergatic iaten eta edaten du

(1) San Matheo Apostolua, publicano içana.

(2) Astura edo aztura, ohitça, ohitura, khostuma.

çuen nausiae publicanoen eta ohitura gaichtoco gniçonen baltsan?

17. Hori entçun baitçuen Iesusec, ihardetsi çaroen: Osasundunec eztute osaquin edo miricu beharric, bainan bai eriec; ez naiz ecen ethorria hoben gabecoen deiteera, bainan bai hobendunen.

18. Eta Ioanesen eta Pharisauen dicipuluec maiz barur eguiten baitçuten, ethorri citçaizeon, eta erran eioten: Cergatze barurteen dira Ioanesen eta Pharisauen dicipulua, eta çureac ezpaitira barurtzen?

19. Ihardetsi çaroen Iesusec: Ezteiliarrac barur ahal othe deçaquete ezcon-berria hequiequin deino? Berequin duteno ezcon-berria, ezteçaquete baruric egun.

20. Bainan ethorrico dira egunac ceinetan ezcon-berria khendueo baitçae, eta orduan barurtuco dira.

21. Nehorc eztio iosten oihal berri çathi latz bat soineeo çahar bat; bertcelaz edequico dio berriac çaharrari phusea, eta handiteenago da ethendura (1).

22. Halaber nehorc eztu eçartcen arno berria çahagui çaharretan; ezperen (2) arnoac leher eraguinen daroe çahaguiiei, eta ichurico da arnoa, eta çahaguiac galduco: bainan eçarri behar da arno berria çahagui berrietan.

23. Guerthatu içan cen oraino Iauna ira-

(1) *Urradura* edo *ethendura*; biec bat diote.

(2) *Ezperen* edo *ezpere*, errau nahi da *berteela*.

gaiten cela ereintce batçu gaindi larumbat egun batez, hasi citecen haren dicipuluac, bidean cihoacelaric, ogui burutcha hausten eta harteen.

24. Erran cioten Pharisauec horren gai-nean : Nolatan hari dira bada hauquie, larumbat egunaz, eguiten cilhegui eztena?

25. Ihardetsi çaroen : Eztuque egundaino iracurri cer eguin içan çuen Dabitec, beharrac eta goseae hertchatuac ciren batez, berria eta harequin cirenac?

26. Nola sarthu içan cen Iaincoaren etchean, Abiathar Aphez nausiaren egunetan, eta ian baitcituen Iaunari eschainiricaco o-guiac, ceinetarie iatea ezpaitcitçaien sori aphecei baicen, eta eman baitçaroen berequin cituenei ere?

27. Erran çaroen oraino : Sabbathoa guionna gatic eguna içan da, eta ez guionna sabbathoa gatic.

28. Bada guionaren Semea sabbathoaren ere nausi da.

---

### III. CAPITULUA.

*Escu ihartu duna nola Iesusec osatcen duen. Bertce hainitz ikhusgarri. Apostoluen hau-tua eta icenac. Erresuma bere baithan çathiaren iduripena. Cein diren Iesusen eguiazco ahaideac.*

1. SARTHU içan cen Jesus bertce aldi batez ere biltçarrean, eta bacen han guion bat es-eua ihartua çuena.

2. Eta beguira eegozquion hea larumbat egunarequin osatuco çuen, léguearen haus-teaz bilha ceçateniçat.

3. Eta erraiten dio escu elkhordunari : Eman çaité chutic gucien erdian.

4. Guero dioste hei : Larumbatean ongi eguitea, ala gaizqui eguitea da cilhegui? bi-ciaren emaitea, ala edequitcea? Bainan hec ichilic çauden.

5. Orduan alde gucietara behatce haserretu bat aurthiquiric, eta hezquier bihotecoa itsumienduae atsecabetua cela, dio Iesusec guionari : Heda ecaçu escua. Hedatu çuen escua, eta ontsatu citzaioen.

6. Ilkhiric beraz Pharisauec, berehala batzu ciren Herodianoequin (1), elkhar aditeeo nola gal-araz ceçaqueten.

7. Bainan Jesus aldarako cen dicipuluequin itsas hegira; eta iarrai qui citzaioen oste handi bat Galileatic,

8. Eta Ierusalemetic, eta Idumeatic, eta Iordanez bertee aldetik. Eta Tireko eta Sidoneko ingurueta ric ere ethorri citzaizeon multzo handiac, aditu baitzuten harc eguiten cituenez niphateen.

9. Eta erran çaroen dicipuluei, iduc ciotela han untcitto bat, hartara igan ahal çadin, eta osteec etceçaten guchiegui herts.

10. Ecen nola hainitz sendatzen baitci-

(1) *Herodiandarrec* sinheste bereci bat çuten Iduen artean, ceina ezpaita agueri chuchen ceric othe citequen.

tuen, cembait gaitz çutenaç oro oldarrez gainera cihoazeon, hora hunquitu bederen nahiz.

41. Eta ispiritu satsuec, ikhusten çuteñean, bere buruac aurthiquiz haren oinera, ciotsoten oihuz :

42. Iaincoaren Semea cara çu. Harc ordean mehatchatcen cituen garrazqui, eteeçaten nor cen salha.

43. Igan cen guero mendi batetara, eta bere ganat deithu cituen nahi cituenac; eta ethorri citçaizeon.

44. Bereci cituen hamabi harequin içaiteco, eta predicateera egor cetçantçat.

45. Eta eman çaroen escua eritasunen osateceo, eta deabruen khentceco.

46. Hec ciren : Simon, ceinari eman baitcioen icen goithia Piarres;

47. Iaques Zebedeorena eta Ioanes laquesen anaia, ceinei eman baitçaroen icen goithia Boanergues, erran nahi dena, ihurturiaren semeac;

48. Andreas, Philipe, Bartholomeo, Matheo, Thomas, Iaques Alpheorena, Thadeo, Simon Khanaandarra;

49. Eta Iudas Iscariot, ceinac saldu baitœuen.

50. Eta ethorri cirenean etcherat, bildu içan cen berriz hara oste handi bat, non ecin har baitçeçaqueten bere othuruntea ere.

51. Eta hori aditurie, ethorri ciren Iesu sen ahaideac haren hartcera, cioten ecen : Çoratua dabila.

22. Ierusalemetic ethorriricaco Isquiribauec berriz cerasaten : Beelzebutec hartua da, eta deabruen aitcindariaren indarrez deabruac khenteen ditu.

23. Bainan harc, erakharri cituen bere gana, eta erran caroen iduripenetan : Nola Satanec Satan etcha ahal deçaque?

24. Baldin erresuma bat bera bere etsai bada, ecin dirauque erresuma harc.

25. Eta baldin etche bat bera beraren etsai bada, ecin dagoque chutic etche hora.

26. Beraz baldin Satan bera bere buruaren caltetan altchatcen bada, beraren etsai da, eztirauque, bainan galtcera doha.

27. Nehore eztiotçoque guiçon hazcar bat, etchean sarthuric, bere dituenac eraman, ezpadeça lehenic guiçon phizcor hora estecca, guero haren etchea biluzteco.

28. Eguiaz erraiten darotçuet, barkhatuco çazte guiçonen umei eguinien dituzqueten bekhatu eta burho guciac;

29. Bainan norc ere gaizqui solhas eguiñen haituque Ispiritu Sainduaz, eta harc eztu nehoiz barkhamenduric ardietsico; aiteitic içanen da hobenduri nehoiz iraganen etçaoen hoben batez (1);

30. Erraiten çuten ecen : Ispiritu lohiac dauca.

31. Etherri ciren bada haren ama eta

(1) Bekhatu *ecin barkhatuzcoa* deitzen du Iau-nac, neguez barkha ditequena, gúciz handia dela-cotz.

anaiac (1), eta lekhorean çaudecela, deitcera norbait egorri cioten.

32. Eta osteac inguratua celarie, erran cioten : Hor dira çure ama eta anaiac athean çure galdez.

33. Orduan ihardetsi çaroen : Nor da ene ama, eta nor dira ene anaiac ?

34. Eta inguruan iarriric çaudecenei behatu eta, erran çuen : Huna ene ama eta anaiac.

35. Nore ere ecen egunen baitu Iaineoaren nahia, eta hura da ene anaiac, ene arreba eta ene ama.

---

#### IV. CAPITULUA.

*Haciaren iduripena, bere chehatcearequin. Argia gaitçuruaren pean. Bihia lurrerat aurthiquia. Mustarda bihia. Ekhaitça ematzen du Jesusec.*

1. GUERO berriz hasi cen erakhasten itsas bazterrean; eta hain guïçontce handia bildu citçaoen, non untei batetara igan eta, iarri baitcen, oste gucia leihorrean itsas ondean cegoela.

2. Eta erakhasten çaroen iduripenetan hainitz gauça, eta erraiten çaroen ohi çuen moldean :

3. Adi eçaçue : Ilkhi içan cen ereile bat creitera;

(1) Iannaren anaiac erraiten çaiote baren ahaide hurbilei.

4. Eta ereiten hari cela, bihi alde bat erori cen bide bazterrera, eta aireco choriec ethoriric ian içan çuten.

5. Bertee bat berriz erori cen toqui harritsu batçuetara, non ezpaitçuen lur hainiteic; eta laster sorthu cen, ceren etçuen lurrac loditasunic :

6. Eta athera cenean iguzquia, erre cen; eta erroric etçuelacotz, quiscaildu cen.

7. Bertee bihi alde bat erori cen elhorri batçuen erdira, eta elhorrieic, handituric, itho çuten, eta etçuen deusic ekharri.

8. Bertee bat bada erori cen lur onera, eta handitu cen eta ekharri çuen, emaiten çuela bihi batec hogoi eta hamar, bertceac hirur hogoi, eta bertceac chun.

9. Eta erraiten çuen : Duenac aditceco beharri, adi beça.

10. Bakharric içan cenean bada, galdeguin cioten harequin ciren hamabieic, cer çakharquen iduripen harc.

11. Eta erran çaroen : Çuei eman içan çaiçue laincoaren erresumaco gauça gordeen eçagutcea; bainan çuetariec eztirenentçat, hitz estalitan dohaz guciak;

12. Beguiez dakhusatelaric, eztitecen o-hart, eta beharriz dantçutelaric, ezteçaten adi; beldurrez urriquitan sar ditecen, eta barkha daquizquioten bere bekhatuac (1).

(1) Erran nahi da, laincoac çucenqui khentcen dartzela bere graciaren arguiac, ceren berec beguiae kertsia nahi içan baititozte.

13. Erran çaroen bada : Eztuue aditeen iduripen han? Nola beraz bertce guciac adi detçaquetçue?

14. Ereilea, Iaunaren hitça ereiten duena da.

15. Hitça erein içan den bide bazterrecoac, hec dira aditçaileac, ceinec aditeen baitute, bainan berehala ethortcen çaiote Satan, eta erein hitça bihotcetic edequitcen daroe.

16. Halaber toqui legortsuetara ereiten çaroenac, hec dira aditçaileac ceinec, hitça entçun duteneco, gogotic harteen baitute;

17. Bainan eztioite emaiten bere baithan erroric, eta hargatia iraupena ere gutia; guero heldu citçaizeotenean aldarteac eta atsecabeac, hitça gatic, berehala behaztopa-teen dira.

18. Eta elhorrietañ ereiten çaroenac, hainac dira ceinec entçuten baitute hitça;

19. Bainan mende huntaco antsiec, eta onthasunen lilluramenduac, eta bertce gaincrao guthicia gaichtoec, gogoan barna sarthuric, ithotcen diote hitça, eta deus ekhartcetic debecateen.

20. Azquenean, lur onean ereiten çaroenac, hainac dira ceinec entçuten baitute hitça, eta hartcen; eta ekhartcen dute bihi hantçat, batac hogoi eta hamar, bertceac hirur hogoi, eta bertceac ehun.

21. Erraiten çaroen halaber : Ekhartcen othe dute argui bat, eçartcecotçat gaitçuru baten edo ohearen azpian? Ala ez othe dute ekhartcen candelerean eçartcecotçat?

**22.** Ezta ecen gorderic deus, aguertu beharco eztenic; eta deus ere ezta egun denic estalian, begietaratuco eztenic.

**23.** Duenac aditceco beharri, adi beça.

**24.** Guehiago erraiten çaroen : Beguirauçue cer entçuten duçuen. Cein ere neurritan neurtuco baituqueçue, eta hartan neurtuco çarotçue çiei ere, eta berretuco (1) çarotçue oraino.

**25.** Ecen duenari emanen çao, eta eztuenari, duena ere khenduco çao.

**26.** Oraino ciosten : Iaincoaren erresumaz bardin diteque, guicon batec hacia lurrerat aurthiquiteen balu beçala.

**27.** Ala lo datçan, ala dabilan iaiquia gau eta egun, bardin sortcen da hacia eta handi-teen, harc eztaquielo.

**28.** Bere baitharic ecen ekhartcen du lurrac, behin belharra, guero burua, guero ogui bihi onthua buruan.

**29.** Eta onthu ditequenean, berehala higuitaia eçarteen çao, ceren uzta baita.

**30.** Eta oraino erraiten çuen : Cerequin bardin dela dioquegu ceruetaco erresuma? Edo cer iduri duela?

**31.** Iduri duque mustarda bihi bat, ceina lurrean ereiten denean, baita lurreco haci guciataric cheheena;

**32.** Bainan erein den ondoan, goiti doha, bertce belhar guciac baino gorago, eta halaco adarrac dakharzca, non ceruko hegastinec

(1) Berretcea, emendantcea, guehiagotcea.

haren itçalean ohateeac eguin abal baite-  
tçazquete.

33. Minteo eitçaien horrelaco iduripen  
hainitez, adi cirotaren arabera.

34. Iduripenez baicen ordean etcitçaien  
minteo; bainan bakharrie cirela, chehateen  
çarozten oro dicipuluei.

35. Egun harten berean, arratsa ethorri  
cenean, erran çaroen : Iragan gaitecen he-  
mendic bertee alderat.

36. Eta osteac uteiric, hartu çuten untei  
batean, eta baciren bertee unteiac ere  
harequin.

37. Orduan iaiqui een haice buhumba (1)  
handi bat, eta uhinae (2) aurthiquiteen ci-  
tuen untei gainera, halatan non unteia be-  
thetcen baitcen.

38. Bizquitartean Iesus lo çatçan cho-  
pan (3), bururdi baten gainean. Iratçarteen  
dute bada, eta erraiten diote : Nausia, gal-  
teera gohaz, eta eztuçu antsiarie?

39. Eta iratçarri cenean, mehatchatu  
çuen haicea, eta erran cioen itsasoari : Ichil  
hadi, ema hadi. Eta haicea guelditu cen,  
eta eguin içan cen sosegu handi bat.

40. Eta erran çaroen Iesusec : Cergatic  
çarete horren iciper? Sinhesteric eztuçue  
oraino? Beldurtu ciren beraz handizqui,  
eta ciotsaten batac bertceari : Nor othe da  
hau, haiceac eta itsasoac entçuten baitute?

(1) Chirimola.

(2) Bagac.

(3) Untei guibela, *chopa* deitzen da.

## V. CAPITULUA.

*Deabruac egotciae. Urdeac itsasorat aurthi-quiae. Emaztea sendatua odol galtce batetarie. Iairoren alaba phiztua hilez gueroz.*

1. **ITSASOA** iragan çutenean, ethorri ciren Yeresendarren herrira.
2. Eta untcitie iausten cela Jesus, ilkhi citçaoen hil-hobietarie aiteinera, ispiritu lohiac ceduean guiçon bat,
3. Ceinac bere egoitça baitquen hil-hobietan; eta nehorc ecin esteca ciroen gatheez ere;
4. Ecen hainiteetan cephoz eta gatbez lothu içan çutelarie, hautsi içan cituen gatheac, eta cephoac phorroscazu, eta nehorc etceçaqueen ceba.
5. Eta bethi hobietan eta mendietan barna çabilan gau eta egun, bere burua harriz iotçen cuela eta sakhliteen.
6. **Ikhusi** baitquen bada urrundic Jesus, laster eguin çuen hora gana, eta iarri citçaoen ahuspez;
7. Eta oihu handi batequin erran cioen: Cer da çu eta ene artean, Jesus, Iaun goicoaren Semea? Iaincoaren icenean othoiteez nagotçu, ez naçaçula oinhazcea.
8. Erraiten cioen ecen Iesusec : Ilkhi hadi, ispiritu satsua, guiçon hori ganie.
9. Eta galdeguiten cioen : Nola deitcen

haiz? Ihardetsi çuen : Multçoa da ene icena, ceren hainitz garen.

10. Eta othoizten çuen minqui etceçan herri hartarie etcha.

11. Bacen bada han cerrialde handi bat, mendi aldapetan cegoena bazcateeñ.

12. Eta othoizten çuten ispirituec, ciotsotelaric : Egor gaitçatçu urde horietara, sar gaizquioten barnean.

13. Eta berehala baimena eman çaroen jesusec. Eta ilkhirie ispiritu lobiac, sarthu ciren urdeetan, eta aralde gucia, bi milen ingurua baiteen, bulta handi batequin gain behera aurthiqui cen itsasorat, eta itho.

14. Urdeen alhatçaireac bada ioan ciren ihesi, eta eraman çuten berri hori hirira eta inguruetara; eta ilkhi ciren hainitçac ikhustera cer guerthatu cen.

15. Ethorteen dira beraz Jesus gana, eta ikhusten dute deabruac orduraino ceducan guionia iarria cegoela, iauntecia, eta adimendu onean; eta ikharatu ciren.

16. Eta ikhusi içan çuteneç, erran cioten cer guerthatu içan cen deabruac hartua cenari, eta urdeei.

17. Orduan hasi eitçavezcon othoizea, arren cihoan hequier bazterretaric.

18. Untcirat igaiten cela bada, othoiteez iarri eitçaoen deabruac hartua içan cena, arren berarequin ioaitera utz ceçan.

19. Bainan etçuen utci nahi içan jesusec, eta erran cioen : Cohaz etcherat, cure

hurcoetarat; eta erran eçoçute cein gauça handiac eguiñ darozquitçun launac, eta nola urricaldu çatçaizcan.

20. Ioan cen, eta hasi cen adi-arazten Decapoli gucian cein ongui handiac eguiñ ciotçan Iesusee : eta gueiac miretsiric çaudesen.

21. Iragan baitzen berriz Iesus unteiz itsasoaren bertze alderat, oste handi bat bildu cen haren gana, itsas heguian celarie.

22. Eta ethorri citçaion Iuduen biltçarretaco buruçagui bat, Iairo çaritçana, eta ikhusi çueneco, erori citçaioen oinetara ahuspez;

23. Eta hertchatcen çuen othoitcez, ciotsola : Alaba hil hurran dut; çato,emoçu escua gainean, osa dadintçat, eta bici dadiñ.

24. Ioan cen harequin Iesus, eta bacerraioen oste handi bat, eta alde orotarie hersten çuten.

25. Eta emazte bat, odol galtee batetan cena, hamabi urthe hartan,

26. Mirieu hainitcetaric ere hainitz pairatu cuena, eta cituenac oro chahutu cituen arren, batere hobequiagotu etcena, hai ordean aurkhitu cena gaizquiago,

27. Mintçatecen entçunic Iesusez, ethorri citçaioen ostearen erdian guibeletic, eta soinecoa hunquitu cioen.

28. Bacioen ecen bere baithan : Haren soinecoa hunqui baicen ezpadęçat ere, sendo naiz.

29. Eta ordu berean iabaldu (1) citçaioen odol ithurria, eta bere gorphutz gucian ohartu een eritasun hartaric osatua cela.

30. Eta Jesus hain bertcenarequin, eca-gutu baitçuen bera ganie ilkhi cen boherea, itçuli een osteari buruz, eta erran çuen : Nore hunquitu nau ?

31. Ihardetsi cioten dicipuluec : Ikhusten duçu nola hersten çaituen osteac, eta galdeceen duçu, nore hunquitu çaituen ?

32. Eta beha cegoen ingurueta, hunquitu çuena ikhusteco.

33. Orduan emaztea ieitua eta ikharan, baitçaquien bere baithan cer iragan cen, ethorri citçaioen, eta aurthiquiric bere burua haren oinetara, aithortu cioen eguiagucia.

34. Bainan erran cioen Iesusec : Ene haurra, çure sinhestea salbatu çaitu; co-haz baquearequin, eta çaren çure gaitetic sendo.

35. Oraino mintço cela, ethorri ciren batçarreco aiteindaria baitharic, hari erraitera : Cure alaba hil da; ez guehiago nekharaz Nausia.

36. Bainan Iesusec, adituric hec ciotena, erran cioen batçarreco aiteindariari : Eztuçula beldurric, sinhets eçaçu, eta asqui da.

37. Eta etçuen nahi içan iarraiç cequion nchor, Piarres, eta Jaques eta hunen anaia Ioanes baicic.

(1) *Iabalcea*, agortcea, akhitcea.

38. Ethorri denean batçarreco aiteindariaren etchera, ikhusten du han iendetee handi bat, nigarrez eta heiagoraz daudecela;

39. Eta sarthu denean, erraiten daroe: Cergatic asaldatcen çarete, eta çaudete marrascaz? Nescatcha ezta hila, bainan lo dago.

40. Eta burlatcen çaizeichon. Harc ordean, bertee guciae khendurie, hartcen ditu nescatcharen aita eta ama, eta berequin ci-tuenac, eta sartcen da nescatcha çatçan toquira.

41. Orduan, hartcen du nescatcha es-cutic, diotsola : Talitha, cumi ; erran nahi dena : Nescatcha, iaiqui çaitet, manateen darotçut.

42. Eta berehala iaiqui cen nescatcha, eta baçabilan; bacituen ecen hamabi urthe; eta harritu ciren ecin guehiago.

43. Bainan hertsiqui debecatu çaroen nehori ez erraiteaz; eta eman-araci cioen iatera.

## VI. CAPITULUA.

*Iesus bere herrian gutitan eduquitcen dute.*

*Ion Done Baptistaren hiltcea. Bortz oquiz osteac bazcatuac. Iesus uraren gainean ibil-teen da.*

1. IESUS handie ilkhi eta, ioan cen bere herrirat, eta dicipuluac iarrai qui citçaizcon.

2. Larumbat eguna ethorri cenean, hasi cen erakhasten biltzarrean, eta enteuten çutenetaric hainiteec miresten çuten haren iaquintasuna, ciotela : Nondie dituzque hunec gauça horiec oro? Cer da eman içan çaison çuhurcia hori, eta cein dira bere esuz eguiten dituen ikuusgarri handi horiec?

3. Ez othe da hau çurguin hora, Mariaren seme dena, eta Iaquesen, Iosephen, Iudaren eta Simonen anaia? Eztirea hunen arrebae gure artean? Eta gaizqui mintxo ciren hartaz.

4. Bainan erran çaroen Iesusec : Ezta Profetaric laidoztateen denic bere herrian baicen, eta bere etchean, eta bere hurocoen (1) artean baicen.

5. Eta eteuen eguin ahal han miraculic batere, lekhat (2) cembait eri bakhanen sendateeaa, escuac gainean emanez (3).

6. Hala non miresten baitzen hequier sinheste escasa. Bizquitartean başabilan inguruetao herrichquetan barna, erakhasten hari cela.

7. Eta deithuric hamabiak, hasi cen hequier egorteen birazca, eta eman çaroen ispiritu lohien gainean escu.

8. Eta aguindu çaroen, etceçatela bide-

(1) *Hurcoa*, edo *urkhoa*, hurbilecoa, abadea, protsimoa.

(2) *Lekhat*, lekhot, ezpada, esperen, baicen.

(3) Baçuen miraculu eguiteco bothiere; bainan, bere herritarren gogortasuaren ariaz, etceçaqueen nahi çuquena eguin.

cotçat deusie eraman, makhila baicen; ez çakhuric, ez oguiric, eta ez guerricoan dirurie;

**9.** Cihoacela bere oinetacoequin, eta soineco aldañecoric gabe.

**10.** Eta erran caroen : Cein etchetan ere sarthueo baitçarete, çaudete han, lekhu hartaric ilkhi çaitezqueten arteraino.

**11.** Eta cembaitec ezpaçaituztete hartu nahico eta entçun, hainen ganic ilkhitcean, iharros eçaçue çuen oinetacoen herrautsa, lekhucotasuntçat içan dadin hequien caltetan.

**12.** Ioanie beraz hec, predicateen hasi ciren batbedera sar çadin urriquitan.

**13.** Eta deabru hainitz egozten cituzten, eta eri hainitz, olioz gantçetu cituzteneco, ontsateen ciren.

**14.** Enteun çuen bada Herodes erregueac Jesusez aiphaitcen; eeñ handia cen hartaz aiphua; eta cioen : Ioanes Baptista da hori, phiztua hiletarie; eta hargatic hambat ikhusgarri eguiten dira horren escuz.

**15.** Bertceec cioten : Elias da. Bertceec beriz : Profeta da, edo lehenagoco profetetaric bat begalacoa.

**16.** Horiec aditurie, erran çuen Herodes : Nic burna ebaqui-araci diotan Ioanes Baptista da, phiztu dena hiletarie.

**17.** Herodes harc berac har-araci çuen Ioanes, eta cephoetan eçar-araci, Herodias bere anaia Philiperen emaztea gatic, ceinarequin ezcondu baitcen.

48. Ioanesec ecen erraiten cioen Herodesi : Etçaitetu haietu çure anaiaren emaztea çure ganat harteea.

49. Herodias horren gatic aiher citçaoen, eta nahi çuen hartu eta hil-araci; bainan ecin cecaqueen;

20. Ceren Herodes lotsa baitcen Ioansen, baçaquielacotz guiçon çucena eta saindua cela; beguirateen çuen bada, eta are haren erranera hainitz gauça eguiten ci-tuen, eta entçuten çuen gogotie.

21. Azquenean, halaco egun hautu batez, eeintan Herodesec, bere sor eguna quelacotz, barazcalteera emaiten baitçaien handiei, eta bere capitainei, eta Galileaco aitcindariei;

22. Sarthu cen Herodiasen alaba, eta dantçatu cen; eta onhetsi çuten Herodesec eta haren barazcaltiarrec; eta erran cioen erreguee nescatchari : Esca dieçadaçut cer nahi baituçu ere, eta emanen darotçut.

23. Eta cin ere eguin çuen : Bai, cer nahi galda dieçadaçudan, emanen darotçut, balitz ere ene erresumaren erdia.

24. Ilkhi een nesca, eta erran cioen amari: Cer escatueo dut? Diotsa harc : Ioanes Baptistaren burua.

25. Eta berehala berriz sarthuric lehia handirequin, bere galdea hunela eguin çuen : Nahi dut orai berean emadaçun untei bateau Ioanes Baptistaren burua.

26. Goibeldu cen erregue; bainan cin eguin quelacotz, eta mahainean berequin

cituenen gatic, etcioen nahi içan egain da-muric.

27. Beraz egorri quen bere guardetarie bat, meçurequin ekhar cioçon Ioanesen burua unci batean. Harc ebaqui cioen burua presondeguian.

28. Eta unci batean ekharri quen, eta eman nescatchari, eta nescatchae amari.

29. Entun çutencan hori, Ioanesen dicipuluac ethorri ciren, eta eraman çuten haren gorputça, eta hobi batean ecarri.

30. Bizquitartean bihurtu ciren Apostoluac Iesus ganat, eta eman cioten eguiñ eta erakhatsi cituztenen chehetasun gucia.

31. Eta erran caroen : Çatozte bakharri lekhu bereci cembaitetara, eta har ecaque aphur bat phausu. Hainitçae ciren eeñ çabiltçanac ioan-ethorri, non ezpaitçuten berec iateco astiric ere.

32. Unteira beraz iganie, ioan ciren bakharri lekhu bereci batera.

33. Bainan ikhusi baiteitzten ioaiten batçuec, eta bertee hainitcec ere nabaritu, laster eguiñ çuten hara berera oinez biri guciataric, eta aiteindu ere citçaizcoten.

34. Eta uncticie ianstean, aurkhitu quen Iesusec oste handi bat; eta urricaldu citçaizeon, ceren artçainic gabeco ardi batçu beçala baitciren; eta hasi citçaroen era-kasten hainitz gauça.

35. Eta nola berantü baitçuen, ethorri citçaizeon dicipuluac, ciotela : Mortua da toqui hau, eta iadanic berandua ere da.

36. Egorratçu hauquiec auçoco herri eta

herrichquetarat, eros deçatentçat iancai.

37. Ihardetsi çaroen : Emoeçue iatera quec. Hec berriz erran cioten : Behar othe dugu beraz laur hogoi liberaren ogua eros-tera ioan, hauquier iatera emaitecotçat?

38. Galdeguin çaroen Iesusec : Cembañ ogui tutçue? Çohazte, eta mira eçaçue. Eta iaquin çutenean, erran cioten : Bortz ogui tugu, eta bi arrain.

39. Orduan agnindu çaroen iar-araz ce-  
tateala mahaintaraca belhar pherdearen gai-  
nean.

40. Eta iarri ciren ehunca, eta berrogoi  
eta hamarca berecirim.

41. Hartu cituen bada Iesusec bortz  
oguiac eta bi arrainac, eta beguiac ceru-  
rat alchaturie, benedicatu cituen, eta hau-  
tsi oguiac, eta dicipuluci eman, eçar ce-  
teaten populuaren aitcinean, eta halaber  
bi arrainetaric eman çaroen guciei.

42. Ian çuten oroc, eta ase ciren.

43. Eta goittu ciren ogui phusca eta  
arrainetaric, bethe içan ciren hamabi sas-  
qui mucurru.

44. Baciren bada ian içan çutenac, bortz  
mila guion.

45. Handic berehala dicipuluac unteirat  
igan-araci cituen, cihoacen haren aitcinean  
uraz bertee alderat, Bethsaidari buruz, be-  
rac populua guibelat egor ceçan artean.

46. Eta egorri çucnean, ioan cen men-  
dirat, othoitz eguitera.

47. Illuna celaric bada, untcia itsas er-  
dian cen, eta bera leihorrean bakharrie.

48. Eta ikhusi baitcuen dicipuluac arranan nekhe handirequin hari cirela (cihocen ecen haiceari burnz), goiceeo hirur orduetaco irian, ethorri citçaien itsasoaren gainean çabilala, eta iduri çuela aitcindu nahi citçaiela.

49. Eta hequiee, ikhustearequin batean nola uraren gainean çabilan, ustez mamua cela, betan ichquiritu handi bat eguin çuten.

50. Guciec ecen ikhusi çuten, eta ikharatu ciren. Bainan mintçatu citçaien berehala, eta erran çaroen : Euçue bihotz; ni naiz, ez ici.

51. Orduan igan cen hequien ganat unteira, eta betbetan guelditu cen haicea, eta arc guehiago harritu ciren.

52. Etçuten ecen aditu oguiez eguin içan çuena, ceren itsutua baitcen hequien bihotça.

53. Eta bertce aldera heldu cirenean, ethorri ciren Yenesaretheco lurrera, eta leihor hartu çuten.

54. Eta untcitic ilkhi cirenecotz, eçagutu çuten hangoec Iesus;

55. Eta inguru hartaco herri guciac itçuliric, hasi citçazcon alde orotaric ekharteen gaizqui cirenae bere ohetan, non nahi adi ceçaten aurkhiteen cela.

56. Eta sarteen cen herrichea, herri eta hiri gucietan, placetan eçarteen ciotçaten eriae, othoiteez çaudeccla utz cioçoten bere soinecoaren ezpaina bederen hunquitcera ; eta hunquitcen çutenac oro sendatcen ciren.

## VII. CAPITULUA.

*Dicipulu ec iaten dute escuric ikhuci gabe, eta hori gaitciten caiote Pharisauei. Cer den equiazqui cikhinten duena. Emazte Khanaandarraren haurra sendateen du Iesusec, guero berriz gor eta mutua cen guion bat.*

1. BI DU eiren Iesus gana Pharisa eta Isquiribau cembait, ethorri içan cirenac Jerusalemetic.

2. Eta ikhusiric haren dicipulu batcu iaten hari cirela escu lohiequin, erran nahi da, garbitu gabeequin, gaizqui erasten hasi ciren.

3. Pharisauec ecen, eta Iudu gueiec ere, eztute iaten, non eztitzten maiz chahutzen escuac, bere aitcinecoen erakhaspena hortan daucatela.

4. Merkhatutie ere sarteen direnean, eztute iaten, lehenie ikhuzten ezpadira; eta bertce hainitz eguinbide badituzte, begiratzeoco eman caitzenac, hala nola gophor, eltce, burdinazcoo bachera, eta oheen garbitcea.

5. Pharisauec beraz eta Isquiribauec galdeguin cioten : Certaco eztabilga cure dicipuluac gure lehenagocoen usantzen arabera, escuac lohiric iaten baitute ?

6. Ihardetsi çaroen Jesusec, cioela : Ala

ongui erran baitu Isaias profetac çuetaz, gaichtaguinac, isquiribatu duenean : Populu hunc ezbainez onhesten nau, eta bihotça ni ganic urrun du !

7. Eta alpherretan ohoratcen naute, guiconetaricaco erakhaspen eta manuac era-kasten dituztela.

8. Ecen Iaincoaren aguinctac bazterreraat uteiz, guionee asmatuzco erakhaspen batçu eduquitcen tutçue, hala nola edateeo untei eta pellar garbitceac, eta horrelaco bertee gauça hainitz ere eguiten ohi ditutçue.

9. Halaber erraiten çaroen : Nombait ongi eceztateen baititutçue Iaincoaren manuac, çuen cebonen erakhaspenac atxekuitceecotçat !

10. Moisesc ecen erran içan du : Oho-ra etçac heure aita eta heure ama. Eta : Bere aita edo ama ahaphaldiztatueo duena, herioteez hil bedi.

11. Cuec berriz dioçue : Baldin norbaitce baderro aitari edo amari : Nie launari escaintcen diotan corbanac (erran nahi da, emaitçac), curi ere on daguiçula; hainac leguea bethe duque.

12. Eta eztuçue uzten deus guehiagoco-ric eguin dioçon aitari edo amari ;

13. Eta holatan ez deustatcen duçue Iaincoaren hitça, cebonee asmaturicaco erakhaspen baten ariaz; eta horrelaco bertee hainitz ere eguiten tutçue.

14. Orduan berriz bere gana deithurie populua, erran çaroen : Enteun naçaçue ni guciec, eta adi naçaçue ongui.

15. Deus ezta campotic guïçonaren barnera sartcen, hura lohi deçaquenic; bainan guïçona ganic ilkhitcen denac, harc hidoižtalceen du guïçona (1).
16. Duenac aditceco belharri, adi beça.
17. Guero ostea utci eta, sarthu cenean etchean, galdegnin cioten dicipuluec cer erran nahi çuen iduripen horrec.
18. Eta dioste : Cer bada, quec ere hoin adimendu aphurrecoac çarete? Eztuçue aditeen cer nahi guïçonaren barnerat campotic sar dadin, ecin hidoižta deçaquela?
19. Ecen etçao bihotcean sartcen, bainan sabelerat dohaco, eta guero toqui gordetan aurthiquitcen du, ianhari gucien cikhinac chahutcen diotçala.
20. Erraiten çaroen bada : Guiçona ganic ilkhiteen direnec, hec guïçona liçunteen dute.
21. Barnetic ecen eta bihotcetic ilkhiteen dira gogoeta gaichto, bertceen emazteez nahitce, emacoitasun, guïçon hiltce,
22. Ebasco, cikhoizqueria, gaichtaquezia, hatcemaite, lohiqueria, bekhaizeo, erasia tçar, bere buruaz hartee, çoroqueria,
23. Gaitz horiec gueiae; barnetic heldu dira, eta liçunteen dute guïçona.
24. Eta iaiquirie handic, ioan cen Tireco eta Sidongo aldirietara, eta sarthu cen etche batean, etçuela nahi nehore iaquin ceçan; bainan ecin gorde cen.

(1) *Hidoiztalcea*, cikhintcea, lohitcea, satsuma, liçuntea. Hidoia edo idoia, lohiarequin, bat-sarequin, ligarequin bardin da.

25. Eeen emazte bat, ceinac baitœuen alaba bat ispiritu lohiae hartua, han cela entœun çuen beçain sarri, sarthu citœaioen, eta oinetarat erori;

26. (Emazte hura paganoa cen, eta ethor-quiz Sirophenicianoa), eta othoiteez cegocon, arren khen ceçan deabrua haren alaba ganic.

27. Bainan erran cioen Iesusec : Utz na-çaœu ase detçadan behin haurrac; ecen ezta çucen haurren ogua hartcea, eta aurthiquitcea chakhurrei.

28. Ihardetsi cioen harc : Ongui dioœu, launa; bainan chakhurttoec ere iaten ohi dituzte mahain azpian haurrec utci ogui-phorrocheac.

29. Orduan erran cioen : Çohaz, hitz horren gatic ilkhia da deabrua çure alaba ganic.

30. Eta etcherat ioan cenean, aurkhitu çuen nescatcha ohean çatçala, eta utci çuela deabruac.

31. Berriz ilkhi cen Iesus Tireco aldirietaric, eta ethorri cen, Sidon gaindi, Galileaco itsas heguira, Decapolico eremuac barna.

32. Eta ekharri cioten guiçon bat mutua cena eta elkhorra, eta othoitz eguin cioten emancioçola escua gainean.

33. Iesusec bada, iende artetic bazter batetara eramanic, eçarri ciotçan erhiaec beharrietan, eta thu eguinic, aho goçoaz mihia hunquitu cioen.

34. Eta beguiac cerurat altxateen ci-tuela, hasbeherapen batequin erran cioen : Ephetha, erran nahi dena, idec hadi.

35. Eta ordu berean idequi içan ciren haren beharriac, eta deslothu cen haren mi-haren lokharria, eta mintço cen garbiqui.

36. Eta debecatu çaroen nehori erraiteaz; bainan cembatenaz harc debecatnago, eta hambatenaz hec barraiatu çuten guehiago;

37. Eta cegocen guez miretsiric, ciotela: Guciac ongi egun ditu, adi-araci ditu gorrac, eta mutuac mintçaraci.

---

### VIII. CAPITULUA.

*Laur mila guion caipi oguirequin aseac.  
Miracuilu bat galdeguina eta ez ardietsia.  
Its bat arguitua. Ion Done Petiriren ai-thorra. Iesus bere pairamenduaz mintça-teen da. Petiri cuentcen du. Khurutcearen ekhartceaz, eta bere buruari ukho equiteaz.*

1. **Egun** hetan, nola oraino ere ostea handia baitcen, eta ezpaitçuten iatecoric, deithu içan cituen bere dicipuluac Iesusec, eta erran çaroen :

2. **Urricalteen** çait populu hau ; ecen badu iadanic hirur egun enequin daudecela, eta iatecoric eztute.

3. Eta baruric egortcen baditut bere etchearat, ahituco (1) dira bidean ; ecen cembait urrundanic ethorriac dira.

(1) *Ahitua, abuldua, goseac barnetic behartsu eta ttipitua.*

4. Ihardetsi cioten dicipuluec : Eta norc nondie horiec oguiz ase letçaque hemen, baso huntan ?
5. Eta galdeguin çaroen : Gembat ogui tutue ? Ihardetsi cioten : Çazpi.
6. Orduan osteac lurrean iar-araci çarozten. Eta harturic çazpi oguiac, esquerrac bihurteen cituela, hautsi cituen, eta eman dicipuluei, hec populuari aiteinean eçartcecotçat, eta eçarri ciotçaten.
7. Bacituzten oraino arrain guti batçu; hec erc benedicatu cituen, eta eman-araci.
8. Ian çnten oroc ase citezquen arteraino; eta goititu içan ciren, phusca soberaquinetaric, çazpi sasquitara.
9. Baciren bada ian çutenac laur milaren ingurutsua : eta guibelat egorri cituen.
10. Handic berehala, untcı batean sarthuric dicipuluequin, ethorri cen Dalmanuthaco bazterretara.
11. Eta ilkhiric Pharisauac, hasi citeaizcon iharduquiteen, eta cer ahal çuen iaquin nahiz, galdeguin cioten erakhuts cioçatela ikhusgarri bat ceruetan.
12. Bainan Iesusec, barnetic hasbeherapen bat egun çuela, erran çuen : Cergatic dagoticit hauc ikhusgarri galdez ? Eguiaz diotsuet : Etçaiote escateen duten ikhusgarria emanen.
13. Eta hec han utciric, sarthu cen beriz untcian, eta uraren bertee alderat iragan cen.
14. Ahantci citçaien bada oguiric har-

teea dicipuluei, eta ogui bakhar bat çuten  
unteian berequin.

15. Eta Iesusec bizquitartean erraiten  
baitcioten : Berautçue Pharisauen alcha-  
garritic, eta Herodesen lemamitic;

16. Elkharri cerasaten hee : Hola dio  
ceren oguiric eztugun.

17. Eçaçtu çuen hori Iesusee, eta er-  
ran çaroen : Ger darasaçue çuen gogoan  
oguiric eztuçuela? Eztuçue hada oraino eça-  
gutçarie eta ez adimenduric? Eta oraino  
itsotua dueue bihotça?

18. Beguiac ditutçuela, eztakhusaçue? Eta  
beharriac ditutçuela, eztantçue (1)? Eta  
orhoitçapena ere galdu dueue?

19. Bortz ogui hautsi nioztenean bortz  
mila guïçoni, cembañ otharre çathi goitiu  
cinituzten? Diotsate : Hamabi.

20. Eta laur mila guïçon çazpi oguiz hazi  
nintuenean, cembañ sasqui phusea bildu  
cinituzten? Diotsate : Çazpi.

21. Orduan erran çaroen : Nola daiteque  
bada ezpaituçue oraino aditcen?

22. Ethorri cireñean Bethsaidara, ekharri  
cioten itsu bat, othoižten çutela hunqui  
eeçan.

23. Hartu çuen beraz itsua escutic, eta  
ilkhi cen herritic harequin; eta beguietara  
thu egüiten cioela, eta escuac gainean emai-  
ten, galdeguin cioen, ea ikhusten çuen  
cerbait.

(1) *Badantçut*, entçuten çaitut, *eztantçue*,  
eztuçue entçuten.

**24.** Behaturic, erran cioen itsuac : Bada-khusquitçat guiçon batçu dabiltçala, hari-teac iduri.

**25.** Guero berriz eman ciozcan escuac beguien gainean, eta hasi cen ikhusten, hain ongui sendatua cela, non garbiqui gauça gueiac baitcekhkusquitçan.

**26.** Eta egorri çuen bere etcherat, erraiten cioelaric : Cohaz çure etcherat; eta herrian sartcen baçara, ezterroçula nehori hunelacoric.

**27.** Ioan cen handie Jesus bere dicipuluequin Philiperen Cesareaco herrichqueta; eta, cihoacelaric bidean, galdeguin çaroen : Ni, nor naicela diote ?

**28.** Ihardetsi cioten hec : Batçuec Ioanes Baptista, bertee batçuec Elias, bertcec ber-riz lehenagoco profetetaric beçalaco bat.

**29.** Orduan galdeguin çaroen berei : Eta çuec, nor naicela dioçue ? Piarresec ihardetsi cioen, ciela : Christo cara cu.

**30.** Eta mehatchurequin debecatu çaroen etcioçatela nehori erran hartaz holacoric.

**31.** Ordu berean hasi citçaroen erakhas-ten, nola beharco çuen hainitz pairatu guiçonaren Semeac, arbuiatua içan Çaharree, eta Aphez-nausiec eta Isquiribauec, eta hil-aracia; bainan hirur egunen buruan berriz phiztuco cela.

**32.** Eta garbiqui mintço citçaien. Orduan Piarres, launa bazterrerat berechten çuela, hasi citçaoen erantçuten.

**33.** Bainan Jesus, itçuliric, eta dicipulue-

tarat behatcen quelaric, iaçarri citçaioen Piarresi garrazqui, ciotsola : Cohazquit urrun, Satanas, ceren ezpaititutçu onirizteu Iaincoaren gauçac, bainan bai guionenac.

34. Eta deithuric ostea bereganat bere dicipuluequin, erran çaroen : Norc ere nahi baitu ethorri ene ondoan, egun bioço ukho bere buruari, eta ekhar beça bere khuruteea, eta iarraig bequit.

35. Ecen bere burna beguiratu nahico duenac, galduco du, eta bere burna galduco duenac ni gatic eta Ebanyelioa gatic, beguiratuco du.

36. Cer dohaco ecen guionari, mundu gucia irabaz badeça ere, baldin galteen badu bere burna ?

37. Edo cer eman deçaque bere buruan ordaintçat ?

38. Ecen nehorc ahalque içaiten badu nitaz eta ene hitçaz guion gaichto eta bekhatore hauquien erdian, guionaren Semea ere ahalque içanen da hartaz, noiz eta ere ethorrico baita bere Aitaren dohasutasunean, ainguero sainduequin.

39. Erran çaroen oraino : Eguiaz diotsuet, badirela hemen direnetaric cembait, ceinac ezpaitira hilen, ikhus deçaten arteraino Iaincoa heldu dela bere erresuma botheretsuan.

## IX. CAPITULUA.

*Iesus itchuraz aldatzen da. Eliasen ethor-teceaz. Haur bat deabriuac ceducana. Iesus aitcinetic bere pairamenduaz mintzo caie dicipuluei. Bihotceco aphaltasunaz. Gaizquiari ihes eguiteaz.*

1. Handic sei egunen buruan, hartu cituen berequin Iesusec Piarres, Jaques eta Ioanes, eta eraman cituen bakharrie mendi batetaco bazter berechi batera, eta hequien aitcinean itchuraz aldatu ean.

2. Eta haren soinecooac argui arguiac eguin ciren, elhurraren idurico churitasun miresgarri batean, non ezpaita lurrean bolaçainic hain ehuriric eguin leçaque-nie (1).

3. Ordu berean aguertu citçaitzen Elias eta Moises, Iesusequin mintzo cirela.

4. Eta erran cioen Piarresec Iesusi : Nau-sia, hemen ongi gara; eguiteigun hirur etchola, bata çuretçat, bertcea Moisesen, eta bertcea Eliasentçat.

5. Etçaquien ecen cer cerasan, cirelacotz larrituac eta ikharatuac.

6. Orduan aguertu ean hedoi bat, hec itçali baiteituen, eta aditu ean boz bat hedoi barnetic, cioela : Hau da ene Seme maite maitea; entçun eçaçue hau.

7. Eta berhala behatu baitçuten alde

(1) *Bolaçaina, bolaçalea, oihal eguiteco ihara edo bola çaina.*

orotarat, nehor etcuten ikhusi guehiago, Iesus bera baicen hequiequin cegoela.

8. Menditic iausten hari cirelaric, debeeatu çaroen nehori etciotçatela salha ikhusi cituzten gauçac, guiçonaren Semea hiletaric phitz çadin arteraino.

9. Eta gorde cituzten bere baithan; el-kharri bizquitartean galdez cegocen cer nahi quen erran hunee : Hiletaric phitz dadin artean.

10. Eta galdetu cioten : Cer diote bada Pharisauec eta Isquiribauac ceen lehenie Elias ethorri beharra dela?

11. Ihardetsi içan çaroen : Eguia da ; lehenie ethorrieo da Elias, eta gauça guciac ongi ditezquen moldean eçarrico ditu, eta, guiçonaren Semeaz isquiribatua den beçala, hainitz pairatuco du, eta ez deusestan eduquico dute.

12. Bainan erraiten darotçuet Elias iadanik ethorri içan dela, eta egun ere diotela nahi içan duten gucia, hartaz isquiribatua içan denaren credura.

13. Eta dicipulnetara ethorri cenean, ikhusi quen guiçontce handi bat hequien inguruau, eta Isquiribauac hequiequin, ciharducatela.

14. Eta berehala populu gucia, Iesus ikhusi queneko, espantatu cen eta icitu; eta laster egun çuten hari agur emaitera.

15. Galdeguin çaroen Iesusec : Cergatic hizcateen çarete elkharren artean?

16. Ihardetsi cioen ostetic batec : Nau-

sia, ekharri darotent ene semea; ispiritu mutu batec dauca :

17. Gein nahi toquitan har deçan, lurrerat aurthiquiteen du, eta haurrari çarrapoa dario, eta hortçac carrascatcen ditu, eta ihartu dihoat (1). Othoiztu ditut çure dicipuluac deabrua khen dioçoten, eta ecin eguin dute.

18. Iesusec erran çaroen : Oi sinheste gabecoa! Noiz artean içanen othe naiz cuequin? Noiz artean iasainen çaituztet? Ekhar dieçadaqnet huna.

19. Ekarri cioten; eta ikhusi çueneco Iesus, ispirituac iharrosi çuen haurra, eta lurrerat aurthquiric, iraulzeatcen çuen, haguna carioela.

20. Galdetu cioen Iesusec aitari : Noiz danic guerthatcen çao hau? Erran cioen harc : Haur danic.

21. Eta maiz aurthiqui içan du surat, eta bai urerat, hil-araci nahiz. Bainan cerbait ahal badaguiçu, lagun gaitçatçen, eta gaitçatçula urricari.

22. Iesusec ihardetsi cioen : Baldin sinhests badeçaçen, gauça guciac ahal detçaque sinhestedunac.

23. Berehala erran cioen haurraren aitae, oihuz eta nigarrez : Sinhesten dut, launa; hel çaquizquit ene sinheste escasean.

24. Orduan Iesusec, ikhusten çuelaric ostea multçoca heldu cela, mehatchatu çuen ispiritu lohia, ciotsola : Ispiritu mu-

(1) Ihartcen çait, gueiz ihartcera iohan çait.

tua eta gorra, nic manatcen daroat, ilkhi hadi haur horren ganic, eta ezhadila gue-hiago horren baithan sar.

25. Eta ispiritua, oihu handi bat egui-nez, eta haurra lazgarriqui phorroscaturic, ilkhi cen; eta guelditu cen haurra hila iduri, hala non hainiteec baitcioten hila ere cela.

26. Iesusec ordean, escutic hartcen cuela, altchatu çuen, eta iaiqui cen haurra.

27. Sarthu cenean etchean, galdeguin cioten bakhartasunean dicipuluee : Cergat-  
ie gue ecin khendu dugu deabru hori?

28. Ihardetsi çaroen : Deabru mota hori  
ecin ilkhi daite othoitz eta barur eginez  
baicie.

29. Ioan ciren bada handie, eta iragan  
ciren Galilean gaindi, eta etçuen nahi ne-  
hore iaquin ceçan.

30. Bizquitartean bere dicipuluei erakhas-  
ten çaroen, eta erraiten : Guiçonaren Se-  
mea emana içanen da guiçonen escuetarat,  
eta hilen dute; bainan, hil ondoko hirur-  
garren egunean, phiztuco da.

31. Hequiec ordean etçuten deusic adi-  
teen hizeuntça hortan, eta lotsa ciren ere  
galdeguiteco.

32. Guero ethorri ciren Capharnaumera,  
eta etchera cirenean, galdeguin çaroen :  
Ceren gainetic hizcatu içan çarete bidean  
elkharrequin?

33. Bainan hec ichilic cegocen; ihar-  
duqui çuten eein bidean bat bertcearequin  
eein cen hetaric handiena.

34. Iarri cen bada, eta deithuric hamabiac, erran caroen : Nahi balin badu norbaitec lehembieicoa içau, içan bedi orotaric azquena, eta gucion sehi.

35. Eta harturic haurtto bat, ecarri çuen hequien erdian, eta besarcatu çuenean, erran caroen :

36. Norc ere, ene icenean, hunelaco haurttoetaric bat harten baitu, ni neroni harten nau; eta norc ere ni harten bainan, ez nau ni harten, bainan bai ni egortean nauena.

37. Orduan erran içan cioen Ioaneseez Nausia, ikhusi dugu norbait çure icenean deabruac egozten cituena, ceina czpaitabila gurequin; eta debecatu dugu.

38. Ihardetsi cioen Iesusek : Eztecaenela debeca; ceren ezta nehor, ene icenean ikhusgarri bat egun duquenean, berehala nitaz gaizqui mintea daitequenic.

39. Ecen çuen etsai eztena, çuen alde da.

40. Hala beraz, norc ere emanen baitarotue baso bat ur ene icenean, Christorenac çaretelacotz, eguiaz diotsuet, eztu harc galduco bere saria.

41. Eta norc ere gaitz bideric emanen baitio nitan sinheste duten ttipitto hautaric bat, on liçate harentçat, lephotic ihara harri bat estecaturie, itsasorat aurthiquia balitz.

42. Baldin çure escuac behaztoparazten bacaitu, motz eçaçu : hobe dueu bici-

teean escu-motz sar çaitcen, ecen ez bi es-  
cuequin cihoacen ifernurat, behin ere iraun-  
guico ezten surat,

43. Ceintan har ialea ezpaita hiltcen, ez  
eta sua iraunguitcen.

44. Eta baldin çure çangoac behaztopa-  
razten baçaitu, ebaqui eçaçu : hobe duçu  
bethiereco bician çango bakhoizdun sar çai-  
tacen, ecen ez bi çangoequin cihoacen ifer-  
nurat, behin ere iraunguico ezten surat,

45. Ceintan hequien harra ezpaita hil-  
teen, ez eta sua iraunguitcen.

46. Eta baldin çure beguiac behaztopa-  
razten baçaitu, iraiz eçaçu : hobe duçu  
laincoaren erresuman okher sar çaitcen,  
ecen ez bi beguiequin içan çaitcen aurthi-  
quia ifernuco surat,

47. Ceintan hequien harra ezpaita hil-  
teen, eta ez sua iraunguitcen.

48. Ecen guciae içanen dira suz gacituac,  
hala nola sacrificio guciac gatcez gacituac  
baitira.

49. Gauça ona da gatça; baldin ordean  
gueçatcen bada gatça, certaz bera gacituco  
duçue? Auçue gatça ceben baithan, eta du-  
cuen baquea elkarren artean.

## X. CAPITULUA.

*Ezconça nola eztaiten hauts. Iesusec haurrac nola besarcatcen eta benedicatcen dituen. Cein gaitz den salbatcea aberatsentzat. Zebedeoaren semeen galdea. Ierikhoco itsua.*

1. Iesus handie abiaturic, ethorri içan cen Iordanez bertçalderat, Iudeao bazterretara: eta ostear ingururat berriz bildu baitcitçaizcon, hasi cen, ohi çuen beçala, hei erakhasten.

2. Eta Pharisauae, hurbildurie, galdez eegozcon, hitetan hatceman nahi çutela: Haiçu çaiò guiconari bere emaztea uztea?

3. Ihardetsi çaroen : Cer aguindu darotęue Moisesec?

4. Erran cioten : Moisesec aguindu du eman dioçola uzten duelaco isquiribù bat, eta guero utz deçaquela.

5. Erran çaroen Iesusec : Çuen bihotz gogortasuna gatic egun darotęue aguinctea bori.

6. Bainan hastetic Iaincoac guicon bat eta emazte bat eguin cituen.

7. Hartaracotz utcico ditu guionae bere aita eta bere ama, eta eduquico dio bere emazteari,

8. Eta içanen dira biac haragui bat. Gueroz goiti eztira beraz bia, bainan bai haragui bat.

9. Eta Iaincoac bat eguin duena, ezteçala guïçonac bereeh.

10. Etchean berriz dicipuluec galdeitu cioten gauça beraz;

11. Eta erran çaroen : Norc ere bere emaztea uzten baitu, eta bertce bat harteen, hainac lehen emazteari bere eucena edequiteen dio.

12. Eta emazte batec bere guïcona uzten badu, eta bertce senhar batequin ezcon badadi, haina ere gaizqui nahasten da.

13. Orduan ekharri ciozcaten haurtto batzen, hunqui cetçan; bainan ekhartçailiac mehatchurequin guibelateen cituzten dicipuluec.

14. Hori ikhusi baitçuen Iesusec, haserreturic handizqui, erran çaroen : Utz eçatçue haurtchoac ni ganat ethor daitecen, eta ezteçatçuela bara; holacoena ecen da Iaincoaren erresuma.

15. Eguiaz diotsuet : Norc ere ezpaitu hartuco Iaincoaren erresuma haurtto baten antçura (1), ezta hartan sarthuco.

16. Guero besarcaturic, escuac gainean eman ciozcaten, eta benedicatu cituen.

17. Athera cenean ioaiteco, lasterrez ethorriric norbait, belhauricatu eitçaoen aiteinean, eta galdeitu cioen : Nausi ona, cer eguin behar dut bicitce bethiereocoaren ardiesteco?

18. Ihardetsi cioen Iesusec : Cergatic dei-

(1) *Antçura*, edo *antçora*, moldera.

teen nauçu ona? Ezta nehor onic Iaincoa bera baicen (1).

**19.** Badaquitçatę manamenduaç : Ez bertceren emazteari hurbil; Ez nehor hil; Ez ebats; Ez lekhucotasun gueçurrezeorie eguiñ; Ez nehori bidegaberic ekhar; Ohora aita eta ama.

**20.** Harc berriz ihardetsi cioen : Nausia, horiec gueciac beguiratu içan ditut ene gaztetasunetik.

**21.** Behatu cioen bada Iesusec, eta onhetsi çuen, eta erran cioen : Gauça bat escas duçu; çohaz, ditutçunac sal eçatçu, emotęte beharrei, eta içanen ditutçu onthasun handiae ceruetan : çato guero, eta iarradic çaquizquit niri.

**22.** Bainan gaiteitu eitçaizecon hitz horiec guicon hari, eta ioan een damutua, ceren hainitz aberatsa baitcen.

**23.** Iesusec orduan, ingurutarat behatcen çuela, erran çaroen dicipuluei : Ala nequez sarthuco baitira Iaincoaren erresuman, hainitz onthasunen iabe direnac!

**24.** Dicipuluec bada miresten çuten hizcuntea hori; bainan erran çaroen Iesusec berriz : Ene haurrae, ala gaitz baita aberastasunetan bere ustea eçarteen dutenac, Iaincoaren erresuman sar daitocen!

**25.** Errechago da camelu bat orratz batzen chilhotic iragan dadin, ecen ez aberats bat sar dadin Iaincoaren erresuman.

(1) Bere baitharic ona dena Iaincoa bakharrie da : guiconac ere on ditezqne, bainan Iaincoac emanez.

26. Are guehiago miresten çuten hec, ciotela elkharrí : Eta nor salbatuco da bada?

27. Bainan behaturie, erran çaroen Iesusec : Guiçonentçat ecin ditequena da, ez ordean Iaincoarentçat; Iaincoac ecen guciac eguiñ ahal detçaque.

28. Orduan hasi eitçaiocen Piarres erraiten : Huna non gue oro utei ditugun, eta iarraiqui gaizquitçun.

29. Ihardetsi cioen Iesusec : Eguiaz diotsuet : Ezta nehor utei dituzquenie etchea, edo anaiae, edo arrebac, edo aita, edo ama, edo haurrac, edo lurrac, ni gatic eta Ebanyelioa gatic,

30. Ceinari ezpaitçao bihurtuko chuntan hambat etche, edo anaia, edo arreba, edo ama, edo haur, edo Iur, mende huntao bereco atsecabean erdian, eta, ethorquiçuneco mendean, bicitce bethierecoa.

31. Hainitçae içanen dira, lehen cirenac azquen, eta azquen cirenac lehen.

32. Bidean ciren bada, Jerusalemera cihoacela, eta aitcinean cihoacoten Iesus, eta espantatuae eta beldurrequin cerraizeon. Hartu cituen beraz berriz hamabiac bakharríe, eta hasi citçaien erraiten cer behar citçaion guerthatu :

33. Huna non goacen Jerusalemera, eta guiçonaren Semea saldua içanen da Apheznausiei, Isquiribanei eta Caharrei; hil-aracico dute, eta emanen dute paganoen esuetara;

34. Escarnio eta thu eguiñen diote, eta

açotatuco dute, eta hilen; eta phiztuco da hirurgarren egunean.

35. Orduan hurbildu citçaizcon Iaques eta Ioanes, Zebcedeoren semeac, eta erran cioten : Nansia, nahi guinduque gue galde-tuco darotçuguna, eguiten bacinarocu.

36. Ihardetsi çaroen : Cer nahi duçue daguiçuedan ?

37. Diotsote hec : Eman dieçaguçu bata çure escuinean, eta bertcca çure ezquerrean iar gaitecen çure dohatsutasuneco le-khuan.

38. Iesusec erran çaroen : Eztaquique ceren galdez caudeten. Edan deçaqueque nic edan behar dudan edaria, eta ni bathaiatua içanen naicen bathaioaz bathaia ahal çaitezquete ?

39. Ihardetsi cioten : Bai, ahal decaquegu. Erran çaroen berriz Iesusec : Hala da, nic edan behar dudan edaria edanen duçue, eta ni bathaiatua içanen naicen bathaioaz içanen çarete bathaiatuac (4) :

40. Ordean ene escuinean iartcea, edo ezquerrean, eztagot niri emaitea; bainan emanen çiae hala beguiratua çaienei.

41. Entçun cituztenean hauc, hasi ciren hamar bertceac suminteen Iaquesen eta Ioanesen gatic.

42. Bainan deithu citnen Iesusec, eta erran çaroen : Badaquique populuen buru-caguiec, erakhusten dutela hequier gainean

(4) Mintço cen Ianna bere heriotceco khalitęaz, eta bathaioaz; eta iaquina da, harc beçala, dicipluec ere bere bicia eman dutela eguiaren aithorretan.

bere iabetasuna, eta hequien aiteindariek bere azpicotçat dauzcatela.

43. Ezta ordean horrela içan behar çuen artean; aiteitic norc ere handiena içan nahico baitu, içanen da çuen sehi;

44. Eta norc ere nahico baitu içan que tarie lehembicico, içanen da gueien mu thil.

45. Ecen guionaren Semea ere ezta ethorri cerbitçatua içaiteco, bainan bai cer bitçateera, eta bere biciaren emaitera hain itcen erospenetan.

46. Ethorri içan ciren guero Ierikhora; eta Ierikhotic ilkhiteen cela, bere dicipu luequin, eta oste handi bat ondotie, itsu batec, Bartimeo ceritçanac, Thimeoren semeac, ceina bide bazterrean baitcegoen iarriric esque,

47. Nabaritu çueneco Jesus Nazaretharra cela, hasi citçaioen oihuz erraiten : Jesus, Dabitzen semea, urrial çaquizquit.

48. Eta larderiatcen enten hainitce, ichil çadila; bainan harc oihua hamberteenaz gorago çaraman : Jesus, Dabitzen semea, urrial çaquizquit.

49. Orduan baratu cen Jesus, eta manatu çuen erakhar cioçotela. Deiteen dute beraz, eta erraiten diote : Emae bihotz onez, iaiqui hadi, deiteen hau.

50. Berehala, aurthiquiric bere capa, iauci cen, eta ethorri cen Jesus gana.

51. Erran cioen Iesusec : Cer nahi duçu eguin dieçaçudan? Diotsa itsuac : Eae launa, ikhus deçadan.

52. Erran cioen bada Iesusec : Çohaz, çure sinhesteaec salbatu çaitu. Eta ordu beretic ikhusi çuen, eta bidean iarrai qui citçion.

---

## XI. CAPITULUA.

*Nola sartcen den Iesus Ierusalem. Madaricatcen du phicotcea, eta saltçaileac templotic egozten ditu. Sinhestearen eta othoitçaren indarra. Iesusen botherea.*

1. HURBILTCEN cirelaric Ierusalemera eta Bethaniara, egorri cituen Olibetaco mendi heguitie, dicipulu etaric bia,

2. Erraiten çaroela : Çohazte çuen aiteinean den herrichea hortara, eta, sarthu çareteneco, aurkhituco duçue astacume bat estecatua, ceintan ezpaita oraino nehoriarri. Desloth eçaçue, eta ekharraçue.

3. Eta baldin erraiten badarotçue nehore : Cer hari çarete hor? Erroçue : Iaunac behar du bau. Eta berehala uteico darotçue ekhartcera.

4. Ioan ciren, eta khausitu çuten astacumea estecatua athe baten aldean, bi bideen artean; eta esteca khendu eioten.

5. Eta han cirenetarie cembaitec erran cioten : Cer hari çarete? Certaco daramaçue asto hori?

6. Eta ihardetsi baitcioten hec Iesusec erran beçala, utci cioten eramaitera.

7. Ekharrí cioten bada astacumea Iesusi,

eta estali çutenean bere soinecoez, iarri cen gainean.

8. Halaber hainitceec bere soinecoac bidearen gainean hedatu cituzten; bertceec berri, euhaitceetaric adarrae ebaquiz, bidean barraiateen cituzten.

9. Eta hala aitcinean cihoacenae, nola ondotie heldu cirenac, oihuz çaudesen, eiotela : Hosanna !

10. Benedica dadila launaren icenean dathorrena ! Benedica dadila gure aita Dabitzen heldu çaicun erresuma ! Ongui ethorri ceru goreneraino !

11. Horrela sartu een Jesus Ierusalemen, guero temploan; eta inguru guciatarat behatu eta, nola iadanic berandua baitzen, ioan een Bethaniarat bere dicipuluequin.

12. Biharamunean, Bethaniatic ilkhitzen cirelaric, gosetu cen.

13. Eta ikhusi baitzen urrun danic phico hondo bat hostatua, ethorri cen ea deusic x aurkhituko othe cioen; eta burbildu cenean, aurkhitu quen hostoric baicen etçuela : ecen eteen phico aroa.

14. Orduan erran cioen phico hondoari : Hemendic harat nehoiz ezteçala nehore deusic ian hic ekharriric. Eta entzen çuten hori dicipuluee.

15. Guero Ierusalemera heldu eta, sartu cen temploan, eta eman cen khenteen handic salteen eta erosten hari cirenac; eta diru aldatçaleen mahainac, eta uso saltçaleen alkhiac aurthiqui cituen;

**16.** Eta etxen uzten nehore unteiric ere erabil ceçan temploan gaindi.

**17.** Eta hari citxaien erakhasten, erraiten çaroelaric : Ezta bada isquiribatua : Ene etchea, othoitceco etchea deithua içanen da bazter gucietan? Bainan çuec egun duque laphurdei bat (1).

**18.** Hori aditu çutela, Aphez-nausiac eta Isquiribauac bilha çabiltçan, cer bidez galarraz othe ceçaqueten; ecen beldur citxazcon, ceren populu gucia espantutan baitcegoen haren erakbaspenaz.

**19.** Arrats aphalean, ilkhi cen hiritic.

**20.** Biharamun goicean iragaiten cirela, ikuusi çuten phico hondoa ihartua erroetaino.

**21.** Eta Piarresec, orhoituric, erran ciòen: Nausia, huna que madaricatu içan duen phico hondoa, non den ibartua.

**22.** Ihardesten quela Iesusec, erran çaroen : Duquela sinheste Iaincoa baithan.

**23.** Eguiaz diotsuet : Nor nahie erran diócon mendi horri : Khen hadi hortie, eta aurthic hadi itsasorat; czpada bere bihotcean durduçatzen, bainan sinhesten badu erran duquen gucia guerthatuço dela, eguinen çao.

**24.** Hartaracotz erraiten darotçuet bada : Cer ere galdetuço baituçue çuen othoitcetan, sínhets eçaçue ardietsico duquela, eta emana içanen çaitçue.

(1) *Laphurra*, ohoina, *laphurdeia*, ohoin gorde-lekhua.

25. Eta ohoitcean iartcen çaretenean, baldin cerbait aihereunde baduçue norbaitentçat, barkha dioçoçue, çuen Aita ceruetan denac ere çuei barkha dietçatçuentçat çuen hobenac.

26. Ecen baldin barkhateen ezpaduçue, çuen Aita ceruetan denac ere eztarozquitçue barkhatuco çuen hobenac.

27. Guero berrizbihurteen dira Ierusalemera; eta temploau dabilalarie, hurbiltcen citçaizeo Aphez-nausiac, eta Isquiribauac, eta Çaharrac,

28. Eta diotsote : Noren indarrez eguiten tutçu horiec? Eta norc eman darotçu escua horien eguitecotçat?

29. Ihardesten daroe Iesusee : Galdetuco darotçuet nic ere bertce gança bat; eta ihardesten badarotaçue, orduan erranen darotçuet nic ere cer ezeuz hauc eguiten ditudan.

30. Ioanesen bathaioa ceruticacoa othe cen, ala guiçonen ganicacoa? Erradaçuet.

31. Bainau gogoetan çaudecen, ciotela bere baithan : Baldin erran badeçagu, ceruticacoa cela, erranen darocu : Cergatic bada eztuçue hura sinhetsi?

32. Badiotsagu berriz, guiçonen ganicacoa cela, populuaren beldur içaiteeo dugu. Guciec ecen Ioanes Profeta eguiazeo batençat ceducaten.

33. Ihardetsi cioten beraz Iesusi : Eztaguigu. Eta Iesusec erran çaroen : Eztarotçuet bada erranen nic ere cer ahalez hauc eguiten ditudan.

## XII. CAPITULUA.

*Mahastiçainen iduripena. Etche buruco harria. Christo arbuiatua. Cor çaiona nola bihurtu behar çaison Cesarri. Hilen phizteaz. Iaincoa eta hureo laguna ganaco onhesgoa. Mesia Dabitzen seme eta iaun. Isquribau gueçurtietaric beguiratceco. Emazte alhargunaren emaitça ttipi handi delacoaz.*

1. ORDUAN hasi citçaien Jesus mintçatecen iduripenez, cioela : Landatu çuen mahasti bat guiçon batec, eta inguratu çuen hesiz; eta, lurra cilhaturic, egun çuen dolhare bat; dorre bat ere altchatu çuen; guero mahastia mahastiçain batçuen escuetara eman çuencan, ioan cen atce-herri urrun batera.

2. Uzta bada ethorri çenean, egorri çaroen sehi bat mahastiçainei, har cetçantxat hari cegozquion mahatsae.

3. Bainan hec, sehia harturie, io çuten, eta deus ere gabe egorri.

4. Berriz bidali çaroen bertce sehi bat; bainan hura ere buruan çaurthu çuten, eta eer nahi escarnio iasain-araci cioten.

5. Egorri çaroen oraino bertce sehi bat, eta hau hil içan çuten; halaber guero hainitz bertcez, edo cehateen edo hiltcen ciutztela.

6. Azquenaz goiti Seime bakhar guciz maite çuen bat içan eta, hura ere egorri

çaroen, cioela : Aguian içanen dute ene se-mearentçat cerbait ikhustate.

7. Bainan mahastiçainec erran çuten bere artean : Huna non den premua; çatozze, hil deçagun, eta gurea içanen da onthasuna.

8. Hartu çuten bada, eta hil, eta mahastiçie aurthiqui.

9. Cer egüinen othe du beraz mahastia-ren iabeae? Ethorrico da, eta mahastiçainec gal-aracieo ditu, eta emanen du mahastia bertee batçuei.

10. Isquiribatua den hau ere eztuçue iracurri : Harguinec bazterrerat utci çuten harria, eguin içan da etche buruco harri;

11. Iaunae eguina da hau, eta miresgarri da gure beguientçat?

12. Bilha çabiltçan bada eer bidez hatcemamen çuten, ezpalira içan populuaren bel-dur; ecen eçagutu çuten hetaz mintço cela iduripen hortan; eta hora han utciric, ioan ciren.

13. Egorteen diozcate guero Pharisaுta-ric eta Herodiarretaric cembait, hora bere hitcetan hatcemaitera.

14. Eta hequiee, ethorrirrie, diotsate : Nausia, badaquigu eguiatia carela, eta eztuçula nehortaz antsiaric; eztuçu ecen cer guionti mintço çaren behatcen, bainan eguiazqui Iaincoaren bidea erakhasten duen : Gilhegui çaiet cergac Cesari (1) bihurtrea, ala eztitugu bihurtu behar?

(1) Cesar, Erromako Emperadoreoa, orduan Indutarren pausi cena.

15. Iesusec baitçaquien hequier amarruanren berri, erran çaroen : Cergatic horrela bilhatseen naroçue ? Emadaquet denario bat, ikhns deçadan.

16. Eman cioten ; eta galdetu çaroen : Hunen gainean eçarria den itchura hau, norena da ? Erran cioten : Cesarrena.

17. Ihardetsi çaroen orduan Iesusec : Bi-hur ecoçue beraz Cesarri Cesarrena, eta Iaincoarena Iaincoari. Eta egon ciren miretsiric haren erraiteari.

18. Ondoan ethorri citçaizeon Sadducearrac, ceinec uste baitute eztirela hilac berriz phizten, eta galde hau eguin cioten :

19. Nausia, isquiribuz utci içan darocu Moisesec, baldin hiltcen bada norbaiten anaia, alhargun bat utciric, eta haurrie ez, haren anaiac har deçala emazte alharguna, eta horrela eman dieçon ondorio bere anaia cenari.

20. Baciren bada çazpi anaia ; lehembieicoac hartu içan çuen emazte bat, eta hil içan cen, leinuric (1) utci gabe.

21. Bigarrenac hartu içan çuen emazte bera, eta hil cen, eta etçuen harc ere utci leinuric ; eta halaber eguin çuen hirurgarenac.

22. Çazpiec bardin hartu çuten emazte hura bera, eta haurric ez ardietsi. Azquenecotz hil içan cen emaztea ere gucien ondotic.

(1) Familiaric utci gabe.

23. Hilac phiztuco diren egun hartan  
bada, ceinena içanen othe da emazte hura?  
Alabainan çazpiec içan dute emaztetet.

24. Ihardetsi çaroen Iesusec : Etçarete  
bada oharteen huts eguiten duçuela ceren  
eztaquitçatçuen Isquiribuac, eta ez cein den  
Iaincoaren ahala ?

25. Ecen hilac phiztuco direnean, eztute  
içanen ez gniçonec emazteric, ez emazteeç  
guiçonic; bainan içanen dira ceruetaco ain-  
gueruac beçala.

26. Eta hilen phizteaz denaz beçamba-  
tean, eztuçue iracurri Moisesen liburuan,  
nola mintçatu içan citçaoion Iaincoa berro  
barnetic, cioela : Ni naiz Abrahamen Iain-  
coa, Isaquen Iaincoa, eta Iacoben Iaincoa?

27. Bada ezta hilen Iaincoa, bainan bai  
bicieua : hargatic egua denetic hainitz ur-  
run çabiltçate.

28. Orduan hurbildu citçaoien Isquiri-  
bauetaric bat, adituric bertceen galdea eta  
cein ongui ihardetsi çaroen, eta erran cioen:  
Cein da manamendu guciataric lehena?

29. Ihardetsi cioen Iesusec : Huna ma-  
namendu gucietañ lehena dena : Adi-eça-  
çu, Israel : Çure Iainco Iauna, Iainco ba-  
kharra da.

30. Maithatuco duen beraz çure Iainco  
Iauna çure bihotz guciaz, eta çure gogo gu-  
ciaz, eta çure adimendu guciaz, eta çure  
indar guciaz. Hori da lehen aguinctea.

31. Bigarrena berriz horren iduricoa da:  
Onhetsico duçu çure hurco laguna ceure bu-

rua beçala. Ezta hauc baino handiago den aguinctcaric.

32. Eta erran cioen Isquiribauac : Ongui, Nausia; egquia erran duçu, Iaincoa bakharra dela, eta eztela hartaz bertceric;

33. Eta hora behar dela maithatu bihotz osoz, eta adimendu guciaz, eta gogo bethez, eta eguin ahalaz; eta hurco lagunaren bera beçala maithatcea, guehiago dela Iaincoaren ohoretan abere hiltze eta erretcea baino.

34. Iesusec, ikuhsiric çuhurqui ihardetsi çuela, erran cioen : Etçara Iaincoaren erresumatic urrun. Eta gueroztic nehor etcitciaioen ansartatu galderic eguitera.

35. Eta temploau erakhasten hari cela, erran çuen Iesusec : Nola dioquete Isquiribauac Christo Dabiten seme dela ?

36. Ecen Dabitec berac, Ispiritu Sainduac mintçarazten duela, dio : Erran içan dio launac ene launari : Iar çaité ene escuinoco aldean, eçar detçaquedan artean çure etsaiac çure oinen azpico alkhitçat.

37. Baldin beraz Dabitec berac Christo deitcen badu launa, nondie diteque haren semea ? Eta oste handia cen hora gogotic entçuten çuena.

38. Eta erraiten çaroen, erakhasten hari citçaiela : Beguirauçue Isquiribauetaric, ceinei lakhet baitçiae soineco luceequin ibiltea, eta agurrac içaitea açoquetan (1),

(1) *Açoqua*, adi diteque plaça agueriaz, ceintan merkhatua eguiten baita.

39. Eta lehen iar-lekhuaç biltzarretan, eta mahain buruaç barazcarietan;

40. Eta iresten dituzte alhargunen etcheac, ohoitz luceac eguiten dituztelaco aitçaquian; hartaracotz içanen dute iuiamendu garra-  
tçago bat.

41. Guero iarria celaric Iesus amoina bil-  
teco toquiaren aldean, beha cegoen nola  
hari cireg hartarat diru emaiten; eta abe-  
rats hainitceem emaiten çuten hainitz.

42. Ethorri içan cen bada emazte alhar-  
guntto behar bat, eta ardit bat eman çuen.

43. Orduan dicipuluac deithurie Iesusec,  
erran çaroen : Eguiaz diotsuet, alhargun  
behar horrec guehiago eman duela amoina  
untcirat, bertce guciec baino.

44. Gucieec eeen eman dute nasaiqui çu-  
tenetic, hunec aldiz bere beharrean citue-  
nac oro eman içan ditu, bai eta bere iateco  
çuena cre.

---

### XIII. CAPITULUA.

*Iesusec aitcinetic erraiten du temploaren ur-  
ratcea. Ierusalem galcearen, eta Iesu-  
Christoren azquen ethortcearen eçagutgar-  
riac.*

1. ILKHITCEN cela templotic Iesus, erran  
cioen dicipuluetarie batec : Nausia, beha  
eçaçu cer harriac, eta cein ederqui iarriac  
diren.

2. Iesusec ihardetsi cioen : Badakhus-quitęu gauęa handi hauc oro? Bada ezta harria harriaren gainean baratuco, non ez-tiren guciae urrateen.

3. Guero Olibetaco mendian temploari behkoz iarriric cegoela, bakharrie hurbil-duric, galdeguin cioten Piarresec, eta Ia-quesec, eta Ioanesec, eta Andreadec :

4. Erraguęu noiz horiec oro guerthatuco diren, eta, betheteera dihoeacela, cer eça-gutgarritaric iaquinen dugun.

5. Jesus orduan mintçatcen hasi citçaien hunela : Beguirauęue etçaitçaten nehore ha-teeman ;

6. Ecen ethorrico dira hainitz ene ice-nean, diotela : Ni naiz Christo; eta haini-tçac batcemanen dituzte.

7. Entçunen ditutçuenean bada guerla harramantz eta ospeac, etçaitztela ici; horiec hola beharrac dirade; bainan ezta oraino içanen orduan akhabantça.

8. Ecen iaiquico da populua populuaren contra, eta iauquico (1) du erresumac er-resuma; eta içanen dira lur-ikharac eta go-seteac toqui haimitestan. Horiec oro ondi-coen hastapenac.

9. Çuec ordean behemoquete cebonen buriei; ecen eramanen çaituztete biltçarretarat, eta batçarretan cehatuco çaituztete, eta eçarrico aitcindarien eta erregueen ai-teinean, ni gatic, nitaz lekhucotasun bihur dioçoquetentçat.

(1) Iauquiteeac, atacatcea erran nahi duque.

10. Bainan lehenago populu gucietara barraiatura içan behar du Ebanyelio hunec.

11. Noiz eta ere bada hequien escuera rat emanen baitçaitztete, etçaitzeta aitcienetic gogoetan iar cer erranen dioçueten; bainan cer ere ordu hartan berean gogora emanen baitçaitçue, eta hora erraçue; etçarete ecen çuec mintço çaretenac, bainan bai Ispiritu Saindua.

12. Orduan hil-aracico du anaiae anaia, eta aitac semea; eta iauquico dituzte burhasoac haurrec, eta heriotcerat eramanen.

13. Eta gaiteetsiac içanen çarete guciee, ene icena gatic; ordean iraunen duena azqueneraino, salbatua içanen da.

14. Dakhusatçuenean bada nardagarrizco dohacabeac behar ezten toquian (iracurleac adi beça); orduan Iudean direnee, menditarat ihes beguite;

15. Eta hegasteguian dena, eztadila etchera iauts, ez eta sar cerbaiten etchetic eramaitecotçat;

16. Eta alhorrean dena, eztadila guibellat itçul bere soineccoaren bilha.

17. Corigaitz egun hetan emazte içorrentat, eta eredosquitçailleentçat (1).

18. Othoitz eguiçue eztitecen horiec guertha negua delaric.

19. Ecen içanen dira halaco ondicozeoac egun hec, non ezpaita halacoric ikuhi

(1) *Edosquitcea*, titia hartcea, *eredosquitcea* titia emaitea, *eredosquitçaillea* unhidea.

Iaincoac mundu hau hasi çuenetic humat, eta ez ikhusico ere nehoiz.

20. Eta laburtu ezpalitu launac egun hec, nehor etcen salbatuco; bainan hautatu içan dituen berecien gatic, laburtu difu.

21. Baldin orduan nehore erraiten badarotque : Huna hemen Christo, edo : Hara han, ezteçaquela sinhets.

22. Aguertuco dira ecen Christo guecurrezcoac, eta hala eztiren profetac, eta eguiñen dituzte espantagarrizeo ikhusgarriac, lillura arteraino hautatuac berae, ahal batitz.

23. Çuec ordean beguirauque; horra non aitekinetic guciae erran darozquitquetan.

24. Ondicozco egun hequien ondoan, iguzquia ilhunduco da, eta ilharguiac bere arguia eztu emanen;

25. Eta ceruco içarrac erorico dira, eta ceruetaco bothereac khordocatuce dira.

26. Eta orduan ikhusico da guiçonaren Semea hedoien gainean heldu dela, ahal handi batequin, eta arguitasun dohatsu batean;

27. Eta egorrico ditu bere aingueruaç, bil diotçoten bere hautatuac laur haiceetarie, luraren bazterretie ceruaren bazterreaino.

28. Phicotce (1) batetaric bada ikhas eçaque iduripen bat. Noiz eta ere haren adarra

(1) *Phicotcea*, phico hondoa, sagartcea, sagar hondoa

iadanic uzterteen hasia baita, eta bera hostatcen, eçaguteen duçue hurbil dela uda.

29. Halaber çuec ere gauça horiec guerthatcen dakhusatçunenean, iaquicaque hurbil dela guiçonaren Semea, eta athe athean.

30. Erraiten darotçuet egua : Ezta mende hau iraganen, non eztiren guerthatcen horiec guciak.

31. Cerua eta lurra iraganen dira, bainan ene hitçac eztira iraganen.

32. Cein içanen den ordean egun hura edo ordu hura, nehorc eztaqui, ez cerueo Ainguerucc, eta ez Semeac; Aitac bakharric daqui (4).

33. Beguirauque, çagozte atçarriric, eta eguique otheitz; ezpaitaquiçue ephea noiz ditequen.

34. Hala nola guiçon batec, urrun dohanean, bere sehici etchearen artha uzten baitaroe, bakhotchari bere eguiñ beharrac beresciric, eta atheçainari erraiten baitio atçarria dagoela.

35. Bardin çuec ore çaudete atçarriac; eztaquiçue ecen noiz ethorrico den etcheco iauna, arratsean, ala gau erditán, ala oilarritean (2), ala goicean;

(1) Iauna hemen bere guiçatasunaz mintço da; lainco beçala, ezta deus eztaquienic; bai ordean guiçon beçala. Erran diteque oraino eztaquiela egun hori guri erakhastecotçat, ceren czten on iaquin deçagun.

(2) Oilarritea, oilarrae gabaz iotcen duen ordua.

36. Ustecabean heldu bada, etçaitçaten aurkhi loakhartuac.

37. Eta quei erraiten darotçuetana, guciei diotet : Çaudete atçarriric.

---

#### XIV. CAPITULUA.

*Emazte batec usain goço batez Iesusi burua gantçutcen dio. Sacramendu Saindua. Ion Done Petiric ukhatuco duela, aitcinetic erraiten çao. Iesusen pairamenduaren hastea.*

1. Bi egunen buruan bada Phazeoco eta lemami gabeco oguien phestacen : eta Aphez-nausiac eta Isquiribauac bilha çabiltçan, ecin asmatuz, cer bide ceiharrez bada Jesus hateemanen çuten, eta hil-aracico.

2. Eta cioten : Ezta iai-egunaz (1) behar, eztadin eguin cembait nahasmendu populuan.

3. Celaric Jesus Bethanian, Simon sorhaiaren baithan, eta mahainean cegoela, ethorri içan een emazte bat, untei eder bat çakharrela eseuan, bethea usain goço diru handitaco batez, ceina eguina baitzen acara buruz (2); eta unteia hautsiric, ichuri cioen burutic behera.

4. Eguite hori gaiteitu citçaioten han eieren batçuei, eta cioten beren artean : Cer-

(1) *Iai-eguna*, phesta eguna.

(2) *Acara*, urrin hainitz on bat khenteen dioten belhar bat; hostoec baino buruac hobeagoa du-

taco galdu behartcen horrela usain on hori?

5. Sal citequen ecen hirur ehun denario baino guehiagotan, eta eman citequen beharrei. Eta bacerasaten emaztearentçat.

6. Bainan erran çaroen Iesusec : Utz ecaque; cergatic damuztateen hari çatçaiizte ? Niri eguiñ darotana, ongai eguina da.

7. Ecen quequin ditutçue bethi beharrac, eta eman ahal diroegue gura duçuencan; bainan ez nauçue ni bethi içancen.

8. Eguin du hunec ahal cuquena, aiteinetie gantçetu baitu ene gorphutça ehortz orducotçat.

9. Eguiaz diotsuet : Ebanyelio hau barriatua içanen den mundueo azquen çokhoeitan, hunec eguiñ duena ere aiphatua içanen da hunen orhoitçapenetan.

10. Orduan Iudas Isariot, hamabictarie bat, ioan cen Aphez-nausietara, Iesus saltteco chedez.

11. Hec entçun çuteneeo, boztu ciren, eta aguindu cioten diru emanen ciotela. Ordutic bilha çabilan cer bidez hobequenic escurratuco çaien.

12. Eta ogui altchagarri gabetaco lehen egunean, ceintan hiltcen baitcen phazcoco bildotsa, erran cioten Iesusi dicipuluec : Norat nahi duen goacen, eta phazcoa aphain dieçaçugun.

13. Egorri cituen beraz dicipuluetarie bia, eta erran çaroen : Cohazte hirira; eta bathuco baitçaitçue guion bat, pegar bat ur daramala, iarraiç çaquitçate;

14. Eta non ere sartuaco baita, erro-eue etcheco iaunari : Nausiac gaztigatcen darotçu : Non da ene dicipuluequin phazcoa ian behar dudan toquia?

15. Eracutsico darotçe hare guela handi bat aphaindua; han behar dena eguiquoçe.

16. Ioan ciren dicipuluac, eta hirira ethorri ciren; eta aurkhitu çuten Iesusec erranaren arabera, eta phazcoa aphaindu çuten.

17. Arratsa ethorri cenean, iin een bera harat hamabiequin.

18. Eta mahainean cirela, eta hari cirela iaten, erran quen Iesusec : Eguiaz erraiten darotçuet : Enequin iaten hari çaretenetarie batte salduco nau.

19. Hasi ciren hec atsecabetcen, eta galdeguin cioten batac bertcearen ondoan ; Ni othe naiz ?

20. Ihardetsi çaroen : Hamabietarie bat da, enequin escua iaquira hedateen duena.

21. Badoha alabainan guiçonaren Semea, hartaz isquiribatua denaren eredura; hainan çorigaitz guiçon harentçat, ceinac guiçonaren Semea saldueo baitu ! Hobe eugeen ezpalitz egundaiño sorthu.

22. Iaten hari eirelarie, hartu quen ogua Iesusec, eta haren gainean othoitz egui ondoan, hautsi quen eta eman çaroen, cioela : Har eçaçe, hau ene gorputça da.

23. Harturic berriz edan-unteia, esquerrac bihurtu cituen, eta edan çuten guciec.

24. Eta erran çaroen : Hau ene odola da,

Testament berricoa (1), ceina ichurico baita hainitateat.

25. Eguiaz diotsuet, eztudala hemendic harat edanen aihenac dakhirren edari huntaric, berriric laincoaren erresuman edanen dudan egun hartaraino.

26. Eta othoitz eguin ondoan, ioan ciren Olibetaco mendirat.

27. Orduan erran çaroen Iesusec : Guciec nitan gaizbide içanen duque gau huntan, ceren isquiribatua baita : Ioco dut artaina, eta barraiatuco dira ardiae.

28. Bainan phitz nadinean hiletaric, aiteinduko natçaitçue Galileara.

29. Piarresec bada erran cioen : Berteeac oro eror balitez ere çu gatic, ez naiz ni erorico.

30. Diotsa Iesusec : Eguiaz erraiten darotçut : Çuc ceroncec, gaurco gau huntan berean, oilarrac bietan io deçan baino lehen, hirur aldiz ukhatuco nauçu.

31. Bainan harc are guehiago ciotson : Behar banintz ere curequin hil, eztut çutaz ukhatuco. Orobak cioten bertee guciec ere.

32. Ioan ciren guero Yethsemani deiteen den baratec batetara, eta erran çaroen dicipuluei : Igurie eçaçue hemen, othoitz eguin duqedan artean.

33. Eta hartzitzen Piarres, Iaques eta

(1) *Testamenta*, bøquea, batcea, adisquidetsuna.

Joanes berequin; eta hasi een iciteen eta gueiz unhatcen.

34. Eta erran çaroen : Khechu da ene bihotça heriotcerainocoan; çaudete hemen atçarririe.

35. Eta aiteinacheago ioanic, aurthiqui çuen bere buruña lurrerat, othoitz eguiten cuela, baldin bacitequeen, urrun çadila harren ganic oren hora.

36. Eta cioen : Ene Aita, ene Aita, gucizco abala duçu; urrun eçaçu ni ganic edari hau; halaric ere, eztadila eguiñ nahi dutxana, bainan bai çuc nahi duçuna.

37. Iin cen guero dicipuluetara, eta aurkhitu cituen lo çautçala, eta erran cioen Piarresi : Simon lo çautça? Eein iraun duçu ordu batez atçarriric?

38. Çaudete atçarriac, eta othoitz eguiñ, etgaitezten sar erortceco çorian; ecen ispiritua çorrotz da, bainan haraguia erorcor.

39. Berriz ioan cen, eta othoitz eguiñ çuen, hitz berac erraiten cituela.

40. Etabihurtu cenean, khausitu cituen oraino ere lohareatnac; bethaçalac ecen loac hersten çajzten, eta etçaquiten cer erran ere.

41. Ethorri cen hirurgarreneco, eta erran çaroen : Gaurgoitic eguiñ lo, eta phausu har eçaçue; asqui da, ethorri da ordua; huna non guiçonaren Semea gaichtaguinen escuetara daramaten.

42. Chuti çaitetzte, goacen; ni saldu behar nauena hurbil da.

43. Eta mintço celaric oraino, aguertu cen Iudas Iscariot, hamabietarie bat, eta harequin batean guïçontce handi bat ezpatequin eta uheequin (1) Aphez-nausiec, eta Isquiribauc, eta Çaharrec egorriric.

44. Eman çaroen bada gaichtaguinac eça-gutgarri hau : Nor ere besareatuco baitut, eta hura da, loth çaquizquiote, eta erama-çue arthosqui.

45. Eta ethorri ceneo, hurbildurie erran cioen : Agur, Nausia. Eta pot eman cioen.

46. Illequiee ordu berean escua gainera eman cioten, eta hartu çuten.

47. Eta Iesusequin cirenetaric batec, ez-pata atherarie, io quen Aphez-nausiaren sehi bat, eta ebaqui cioen beharri bat.

48. Iesusec bada erran çaroen : Ohoin baten hatcemaitera beçala heldu çaiquitet hartcera, ezpatequin eta haguequin?

49. Egun oroz quen erdian nintcen, tem-ploan erakhasten hari nintcela, eta ez nau-çue hartu. Bainan bethe behar dute Isqui-ribuec.

50. Orduan dicipulnec utei çuten, eta eman eiren ihesari.

51. Guiçon gazte bat iarrailqu citçaoen, larruaren gainean mihise huts bat çuela ; eta hartu nahi baitçuten,

(1) Uhea, makhila luce bat, arrantçacoa beça-laua.

52. Hura, mihisea aurthiquiric, itçuri citçaien (1) biluz-gorri.

53. Ioan çuten bada Jesus Aphez-nausia ganat, eta bildu ciren hara aphez guciac, eta Isquiribauac, eta Çaharrac.

54. Eta Piarres, urrundic iarraiquiric Aphez-nausiaren ezcaratz barneraino, iarrria cegoen schiequin su bazterrean berotcen.

55. Bizquitartean Aphez-nausiac eta batçar gucia, lekhucotasunqueta çabiltçan Iesusen hil-aracitceco, eta etceçaqueten eriden;

56. Eeen bacirelaric hainitz lekhuco gueçurrezco, etcihoacon chuchen hequien lekhucotasunac batçu bertceequin.

57. Azquenecotz altchatu ciren cembait, eta ekharri çuten lekhucotasun gueçurrezco bat, ciotela :

58. Entçun dugu gue hori erraiten : Urratuco dut escuz eguinieaco templo hau, eta hirur egunen buruco, altchatuco dut escuz eguna içanen ezten bertee bat.

59. Bainan lekhueotasun hortan ere el-kharrekin makhur cihoacon.

60. Orduan Aphez-nausiac, biltçarraren erdian chutiteen cela, galdetu cieen Iesusi : Eztu deusie ihardesten hauquiec çutaz dakharztenei ?

61. Bainan Jesus ichilic egon cen, eta etçuen deusie ihardetsi. Berriz galdetu cioen Aphez-handiac : Cu Christo çarea, Iainco bethi goresgarriaren Semea ?

(1) Itçurtea, escapateea, ihes ioaitea.

62. Erran cioen Iesusec : Hura naiz; eta ikhusico duque guionaren Semea, Iainco ahal gucizeoaren eskuinean iarria, heldu dela ceruço hedoiien gainean.

63. Ordu berean Aphèz-handiac, berc soinecoac urratuz, erran cuen : Certaco ditugu gainerako lekhucoac ?

64. Entçun duque erran duen burhoa; cer çaitçue ? Hequiee guciee ihardetsi cuen, hiltcea çor citçaioela.

65. Eta hasi citçaizcon batçu thuca, eta, beguithartea estaliric, ukhabilaca, ciotelaric : Asma eçac norc io hauen. Eta sehiac hari citçaizcon macelaco emaiten.

66. Arte hartan Piarres beherean baitcegoen, ezearatcean, ethorri citçaioen Aphèz-handiaren nescatoetaric bat;

67. Eta ikhusi cuenean Piarres berotcen cegoela, beguiztatú cuen, eta erran cioen : Çu ere Iesus Nazaretharrarequin cinen.

68. Ukhatu cuen harc, cioela : Eztinat eçagutzen, eta etcaquinat cer dionan ere. Eta ilkhi cen ezcaratz aitcinerat, eta io cuen oilarrae.

69. Berriz hura ikhusiric bertee nescatobatec, erran çaroen ingurunecoei : Hau ere hequietaric da.

70. Bainan ukhatu cuen bigarren aldico. Eta oldar (1) baten buruan, han cirenec erran cioten Piarresi : Eguiazqui hetaric cara, eeen Galilearra cara.

(1) Oldar bat, erraiten da *aphur* bat erraiteco-icat.

71. Hasi çaroen Piarres birauea eta cinca, cioela : Ez tut eta eçaguteen ere dioçuen guion hori.

72. Eta berehala io cuen oilarrac bigarreneo. Eta orhoitu cen Piarres Iesusec erran içan cioenaz : Oilarrac bietan ioco duen baino lehen, hirur aldiz nitaz ukhatuco duçu. Eta iarri cen nigarrez.

---

## XV. CAPITULUA.

*Iesusen pairamenduaren akhabantza, eta nola Joseph Arimathiarac chorzen duen.*

1. Eta goiz goicean berchala, adituric el-khar Aphez-nausiec, eta Isquiribauec eta Çaharrec, biltçar guciarequin, estecatu çuten Jesus, eta eraman, eta eman Pilatusen escuetarat.

2. Galdequin cioen Pilatusec : Iudutarren Erreguea cara cu ? Iesusec ihardetsi cioen : Cu dioçuna naiz.

3. Eta nola hainitz gaizqui emaiten baitiołaten gainera Aphez-nausiecc,

4. Berriz galdetu cioen Pilatusec : Eztuñ deus ihardesten ? Ikhusaçu cembat gauça galcor dioten curetçat.

5. Bainan Iesusec etcioen guchiago deusie ihardetsi, halatan non miretsia baitegoen Pilatus.

6. Phazeoco iai-egunean bada (1), uzten

(1) *Iai-eguna, phesta-eguna.*

ohi çaroen atheratcera presondeguian cirenetaric bat, berec escaeteen ciotena;

7. Eta bacen orduan Barrabbas çaritçan bat, nahasmendu batean heriotce bat eguiñ çuena, eta cephoetan eçarria cena bere lagunequin.

8. Ethorriric bada ostea, hasi citçaioen oihuz, eman cioçola bethiere ohi cuen emaitza.

9. Eta galdeguin çaroen Pilatusec : Nahi duçue utz dieçadaçuedan Iudutarren Erreguea ?

10. Baçaquien econ bekhaizcoz escuetara ekharri ciotela Aphez-nausieec.

11. Bainan Aphecec akhulatu çuten ostea, galde ceçala lehenago Barrabbas.

12. Pilatusec ihardetsi çaroen, eta erran : Ger nahi duçue bada eguiñ deçadan Iudutarren Erregueaz ?

13. Eta hec eguiñ cioten berriz oihu : Khurutcean eçarraçu.

14. Erran çaroen Pilatusec : Ordean cer gaizqui eguiñ du ? Eta hec oihua are gorago çaramaten : Khurutcean eçarraçu.

15. Beraz Pilatusec, populuaren gogara eguiñ nahiz, atheraraci çaroen Barrabbas, eta Iesus, açotaturic, eman çaroen escuerrat, habean eçar ceçatentçat.

16. Ordu berean soldadoec eraman çuten ezcaratz barnerat, eta bere lagun güciac bilduric,

17. Iauntei cioten escarlatazeo capa bat, eta eçarri cioten buruan arantce bihurdi catuz eguinicaco khoro bat;

18. Eta khur eguiten cioten, ciotela : Agur, Iudutarren Erreguea.
19. Eta iotcen çuten buruan sesca ukhal-dica, eta beguithartea kherruztacen cioten, eta belhauricatzen eta ahuspez iartzen citemaizeon.
20. Horrela burla eta ihaquin eguin on-doan, erauntei cioten escarlata, eta bere soinecoac iauntei; eta ioan çuten khurutcean itxatcera.
21. Eta handic iragaiten cen guicon bat, bere etchalde batetaric heldu cena, Simon Cirenearra çaritçana, Aletsandroren eta Gorriaren aita, hertchatu çuten Iesusen habeab eraman ceçan.
22. Eta ioan çuten Golgotha deitzen cen lekhura, ceinac erran nahi baitu Calbarioco toquia (1).
23. Han edatera eman cioten arnoa mirearrequin nahasiric; bainan etxuen nahi içan hartu.
24. Eta khurutcean ecarri çutenean, harren soinecoae beren artean bereci cituzten, çorthe eguinie, nori cer erorico citçaoen iaquitecotçat.
25. Giren bada goieeco bederatei orenac khurutcean eman çutenean.
26. Eta adi-araztecotçat cergatic hiltzen cen, buru gaínean cituen hitz hauc isquribuz : IUDUTARREN ERREGUEA.

(1) *Golgotha* hebreoz, eta *Calbarioa* latinez, erran nahi dira *Buru-hecurra* : Ierusalemen hegutiko menditxo bat cen, rémtan gaichtaguinac hilic chorzten ohi baitcituzten, iduri gucien eredura.

27. Harequin batean khurutcetan ecarri cituzten oraino bi ohoin, bata esquinatarie, eta bertcea ezquerretarie.

28. Horrela bethe içan cen isquiribatua cena : Gaichtaguinequin bat egun dute.

29. Handic iragaiten cireneec bacerauntsoten, burniac erabiliz, ciotela : Hea bada! Temploa urratcen ducana, eta hirur egunic barnean berriz altchateen,

30. Heroni beguira hadi, eta iauts hadi khuruteetic.

31. Halaber Aphez-nausiec eta Isquiribauec, burla eguiten ciotela, elkarri erraiten çuten : Berteeac beguiratu ditu, eta bere burua eztiro.

32. Christo, Israelgo Erreguea, iauts bedi orai khuruteetic; dugun ikhus, eta sinhetico dugu. Halaber harequin khurutcean cireneec ere hidioiztatcen çuten.

33. Eta egüerdi gainean, ilhumbeec estali çuten lur gueia, hirur orduetaraino.

34. Eta hirur orenetan, oihu egun çuen Iesusee oacenqui : Eloi, Eloi, lamma sabac-thani? Erran nahi baita : Ene Iaincoa, ene Iaincoa, cergatic hastandu çaqizquit?

35. Hitz horiee ençutearequin, han cirenetaric batçuec cioten : Elias deitzen du.

36. Eta berehala laster egunie batec, belogui bat arno minez bethe çuen, eta sesca batean ecarri, eta edatera escaini cioen, cioela : Utçaçue, ikhusagun hea iimen çaison Elias khurutetic khenteera.

37. Bainan Iesusec, oihu handi batequin, azquen hatsa eman çuen.

38. Ordu berean temploco beloa eguin een bi çathi gainetic behereraino.

39. Eta ikuhsiric han beha cegoen chun guiçonen aitcindariac, halaco oihu hazcarra eguin çuela hilteearequin batean, erran quen : Eguiazqui guiçon hau Iaincoaren Semea cen.

40. Baciren bada halaber han emaztequi batçeu, urrundanie beha çaudecenac; eta hequien artean Maria Magdalena, eta Maria Iaques gaztearen eta Iosephen ama, eta Salome;

41. Ceinac, Galilean cela, baitcerraizcon, hartaz artha harteeotçat; eta baciren oraino bertee hainitz harequin Ierusalemetic ethorri cirenac.

42. Arrastu cenean (nola larumbataren aitcineco eguna baitcen, aphaintceen (1) eguna deitcen dena),

43. Ioseph Arimathiacoa, cargudun ohozeo bat, Iaincoaren erresuma iguriquitceen ere çuena, ethorri citçaoien Pilatusi belarrequin, eta Iesusen gorputça galdeguin cioen.

44. Miretsi çuen Pilatusec hain laster hil othe cenzet; eta erakharriric soldado aitcindaria, galdetu cioen hea bada iadanic hila cen.

(1) Iudutarrec bere Phazcoa larumbatarequin eguniten baitçuten, eta ezpaitcitçaien cilbegui iai-egunetan lan chumeea ere, aitcineco ortciraldean behar guiac aphaintcen cituzten; eta horren gatic, Phazco aitcineco ortciraldea deitcen çuten aphaintceen eguna.

45. Harc baietz erran cioenean, eman cioen gorphutça Iosephi.

46. Iosephec mihise bat erosirie, Iesus khurutcetic erautsi eta, hartaz inguratu çuen, eta eçarri barroca cilho batean eguna cen hobitzen barnean; guero hobiaren athera amileatu çuen harri bat.

47. Bizquitartean Maria Magdalena, eta Maria Iosephen ama, beha çauddeen non emaiten cen.

---

## XVI. CAPITULUA.

*Iesus hiletaric nola phizten den, eta Magdaleniari, bi dicipuluei, guero hameca Apostoluei aguertzen. Apostoluac egortzen ditu predicatorat. Cerurat igaiten da.*

1. IRAGAN cenean larumbata, Maria Magdalena, eta Maria Iaquesen amac, eta Salomec, erosi cituzten licurta usain goçozco batçu, Iesusen gantçutceco chedetan baitciren.

2. Beraz astearcen lehen egunean, argi hastea celaric oraino, ilkhi ciren, eta ethorri ejren hobira iguzquia atheratua cela.

3. Cioten bada elkarren artean : Norc aldaratuco darocu hobiaren atheco harria ?

4. Ecen haguitz larria cen. Bainan behicearequin batean, ikhusi çuten khendua cela.

5. Eta sarthu cirenean hobian, ikhusi cuten guiçon gazte bat escuineco aldean iarría, soineco churi batequin, eta larritu ciren (1).

6. Bainan erran çaroen morroinac : Etçaitzeta ici ; Jesus Nazarethecoa, khurutcean emana içan dena, bilhateen duęue ; phiztuda, ezta hemen ; huna non ecarria cen.

7. Beraz çohazte, erroęue dicipuluci eta Piarresi, badohala quen aitcinean Galileara ; han ikhusico duęue, erran darotçuenaren arabera.

8. Bainan hec ilkhirie hobitic, ihesari eman cuten ; ikharac ecen eta harridurac hartuac ciren ; eta nehori etcioten densis erran, hain ciren icituac.

9. Phiztu cenean bada Jesus asteco lehen egunaren goicean (2), aguertu citçaioen lehenic Maria Magdalenari, ceina ganic khendu baitcituen cazpi deabru.

10. Ioan een hora berriaren emaitera Iesusequin içan eirenei, dolamenetan eta nigarretan baitçauden.

11. Bainan aditu cutenean bici cela, eta haren ikhusi quela, etçuten sinhetsi.

12. Horren ondoan, hetarie bia bidean cihoacela landa-lur batçuetara, aguertu citçaien bereaz bertee itchura batequilan.

13. Hauc ethorri citçazten lagunei erraitera ; bainan etcituzten hec ere sinhetsi.

(1) *Larritcea*, lotsatcea, icitcea.

(2) Igande goicean.

14. Azquenean aguertu eitçaien hamequei, iaten hari eirela, eta gaizquiaue erran çarozten heqnien sinhes-gaiztasunaz eta bihoz-gogortasunaz, ceren etçuten sinhetsi phiztu cela, ikhusi çutenen hitçaren gainean.

15. Eta dioste : Cohazte mundu gütian barna, predica eçaüe Ebanyelioa biei diren guciei.

16. Sinhetsieo duena, eta bathaiatua içanen dena, salbatueo da; bainan sinhetsieo eztuena galduco da.

17. Bada sinhesten dutenee ikhusgarri haue egunien dituzte; deabruac egoteico dituzte ene icenean; hizeuntza berriñ mintzatuco dira;

18. Sigueac erabilieo dituzte; eta cembait edari hilgarri edan baleçate ere, ez lioquete calterie eguin; erien gainean escuac eçarrico dituzte, eta osasunera bihurtuco dirade.

19. Jesus Iauna bada horiec erran ondoan, altzhatu cen cerurat, eta iarrria dago Iain-coaren escuinean.

20. Hec berriz ioan ciren lekhu gueietan predicatecera, Iauna hequiequin cela, eta hequien hitçari indar emaiten cioela cer-raizeon ikhusgarriez,

and, without giving names, I have  
met with many who, like him, have  
done important service in the cause,  
without ever being mentioned. And  
inasmuch as such a man

is not likely to be found, though he  
may be well qualified for the position, and  
not anticipated by much older men,

and hence I have not done so. I  
have, however, written to Mr. T. H.  
Wright, author of "The American  
Revolution," and to Mr. George C. Brumley,  
author of "The American Revolution,"

and to Mr. Charles C. Colton, author of  
"The American Revolution," and to Mr. George C. Brumley,  
author of "The American Revolution,"

and to Mr. George C. Brumley, author of  
"The American Revolution," and to Mr. George C. Brumley,  
author of "The American Revolution,"

# IESU-CHRISTOREN EBANYELIO SAINDUA SAN LUCASEN ARABERA.

---

## I. CAPITULUA.

*Ion Done Baptistaren sortearen berria.  
Jauna guicon eguiten da Andre dena Ma-  
riaren sabelean. Maria Elizabethen ikhus-  
tera doha. Sortcen da Ion Done Baptista.  
Zakharias haren aitaren bozcariozeo can-  
tua.*

1. NOLA bertee hainitz lehiatu baitira,  
gutartean iragan içan diren gaucen isquiri-  
buz emaitera,

2. Hastetic berec ikuusi dutenec, eta hi-  
tçaren erakhasle ere içan direnec erran da-  
rocutenaren ereduran;

3. Uste içan dut nic ere, Theophilø gúciz  
ona, gauça berae behar darozquitçatala ar-  
rimurequin beguien aitcinean eçarri, bere  
hastapenetik iaquitera lehiatu içan bainaiz,  
ardura handirequin;

4. Eçagut deçaçunteat hobequi eracatsi  
icen çaiquitçun gaucen egua.

5. HERODES, Iudeaco erregueren egune-  
tan, bacen aphez bat, Zakharias çaritçana,  
Abiaren aldian cerbitçatcen çuena; haren

emaztea Aaronen ethorquitie cen, eta icena çuen Elizabeth.

6. Queenae ciren bata eta bertcea Iaincoareu beguietan, Iaunaren mauamendo eta aguintxa gucietan erraitecoric gabe çabiltçala.

7. Haurric etçuten, ceren agora baiteen Elizabeth, eta biac adin handitacoac baitieren.

8. Guerthatu cen bada, Zakharias bere aldian hari cela, Iaincoaren aitcinean, bere apheziasuneco eguitocoetan,

9. Corthea eror cequion, Aphecen artean ohitça cen beçala, temploan sartharic, intcentsua escaintcecotçat.

10. Eta populu gacia lekhoretic othoiteean cegoen, intcentsuco mugan.

11. Eta Iaunaren aingueraua aguertu ciçaion, intcentsuco aldarearen escuinetic cegoela.

12. Ikhustearequin batean lotsatu cen Zakharias, eta ikhara batec harto çuen.

13. Bainan erran cioen Aingueraue : Ez içan beldurric, Zakharias; entçuna içan da ecen çure othoitça; eta Elizabeth, çure emaztea, erdico caitçu seme batez, ceinari icena emanen baitioçu Ioanes.

14. İçanen duçu bihoz-iauzgarrizeo bozcarioa, eta bertce hainitz ere boztueo dira haren sortceaz.

15. Handi içanen da ecen Iaincoaren beguietan; eztu mahats arnoric edanen, ez eta bertce mozcorgarri arnoric ere; eta Ispiritu

Sainduac betheco dubere amaren sabelean danic.

16. Eta Israelgo umeetaric hainitz itęlico ditu bere Iainco launaren ganat.

17. Ibilico da haren aitcinean, Eliasen ispiritu eta botherearequin, itęul detçanteat burhasoen bihotçac bere umeen ganat, eta erakhar sinhesgogorrac iustuen çuhurcia- rat, eta aphain dieçon populu gociz on bat launari.

18. Orduan erran cioen ainguerauri Zakhariasec : Nondie hori iaquinen othe dut ? Eeen neror çaharra naiz, eta ene emaztea adinetan iragana da.

19. Ihardetsi cioen ainguerauc : Ni naiz Gabriel, Iaincoaren aiteinean nagoena; eta egorria içan naiz çuri mintçatcera, eta berri hunen çuri emaitera.

20. Eta orai beretic içanen çara mutu, eta ecin mintçatuco çara, haue guertha di- tezquen eguneraino, ceren eztitutçun sin- hetsi nic erran darozquitçudanac, ceinac eguienen baitira bere mugan.

21. Bizquitartean populua Zakhariasen beha cegoen, eta miresten çuen ceren hain bertce beranteen çuen temploan.

22. Bada ilki cenean, ecin mintça c- quiqueien, eta eçagutu çuten cembait ikhus- cari ikhusi çuela temploan; eeen berac kheinuz aditcera emaiten çaroen, eta guel- ditu içan cen mutu.

23. Bethe cirenean haren eguinbideetaco egunac, ioan cen templotic etcherat.

24. Handicaphur baten buruan, Elizabeth haren emaztea guerthatu cen içorra, eta gorderic cegoen bortz hilabethez, cioela:

25. Hunela egun içan darot launac, noiz eta ere behatu baitarot, guiconen artean iasaiten nuen laidoaren khentecotcat.

26. Seigarren hilabethean cela Elizabeth, egorria içan cen launac Gabriel aingueraua, Galileaco hiri, Nazareth deiteen cen bateara.

27. Biryina baten gana, eeina ezcondua baitzen Dabiten etchetieaco, Joseph caritcean guicon batequin, eta biryinac icena cuen Maria.

28. Sarthu cenean aingueraua hura baitbara, erran cioen : Agur, graciaz bethea carena; Iauna da curequin; benedicatua cara emazteen artean.

29. Bainan hura, aditcearequin hitz horiec, larritu (1) cen, eta gogoeta cegoen eeric othe eitequen agur egnite hori.

30. Ainguerauc erran cioen : Etçarela lotsa, Maria; eein onhetsia içan cara Iaincoaren beguietan;

31. Huna non çure sabelean galçatuco (2) den haur bat; eta erdico cara seme batz, ceinari emanen baitioçu icena IESUS.

32. Hura içanen da handi, eta deithueo da laun goicoaren Semea; eta Iainco launac emanen dio bere aita Dabiten alkchia; eta aguinduceo du Dabiten etchean bethiereeotz,

(1) *Larritu*, lazur, lotsatu, beldurto.

(2) *Galçatcea*, coatcebitcea.

33. Eta haren erreguetasunac eztu ukhainen akhabatcerie.

34. Orduan erran cioen Mariae Aingueruari : Nola daite hori, eztutanaz gueroz guionie eçagutseen ?

35. Ihardetsi cioen Aingueruae : Ispiritu Saindua iautsiren da çure gainerat, eta Iaun goicoaren bothereac itçalico çaitu; hargatic beraz çu ganie iaioren den Saindua, deithuren da Iaincoaren Semea.

36. Hara halaber Elizabeth, çure gusua, non içorra den, hora ere, seme batez bere caharteean ; eta hil hau iadanic seigarrena darama, agorra deiteen çuten emazteac;

37. Ecen deus ere ezta Iaincoarentçat ecin daitequenic.

38. Orduan erran çuen Mariac : Huna ni launaren nescatoa; eguin bequit çure erranaren arabera. Eta Ainguerua ioan cen haren ganie.

39. Egun hetan beretan iaiqui cen Maria, eta laster eguin çuen mendiac gaindi, Iudaco hiri batetara.

40. Sarthu cen Zakharias baithan, eta eman cioen egun ona Elizabethi.

41. Entçun çuen beçain sarri Elizabethec Mariaren agurra, iauci citçaion haurra sabelean, eta bera Ispiritu Sainduac bethea iean cen.

42. Eta oihuz mintço cela, erran çuen : Benedicatua çara emazteen artean, eta benedicatua da sabelean duçuna ;

43. Eta nondic niri çorion hau, ethor dadin ene Iaunaren ama ni ganat ?

44. Ecen, que agur eguitearequin, çure boçae beharriac io darozquidianeco, iauci çait bozcarioz haurra sabelean.

45. Ala dohatsua baitçara ceren sinhetsi duçun ! Eeen betheco dirade launaren meçuz erran çazquitçunac.

46. Orduan Mariac erran çuen : Handiesten du ene bihotçac launa ,

47. Eta ene gogoa bozturic dago ene Jainco Salbatçaila baithan ;

48. Ceren eta behatu baitio bere sehiaren beheratasunari; eta iagoitic mende guciec deithuco naute dohatsua;

49. Eeen eguin darozquit miresgarrizco gauçac guciz ahaltsu denae, eta saindua da haren icena.

50. Ardiesten du mendetic mendera haren bihoz - bigüintasunac, harentçat bel-durti direnen alderat.

51. Eracutsi du bere besoaren indarra; bere bihotecoco gogoetetan altchateen cirenac, herraustu ditu;

52. Ahaltsuac egotci ditu bere alkien gainetic, eta goratu ditu aphalac.

53. Gose cirenac bethe ditu onthasunez, eta aberatsac egorri hutsic.

54. Uxkan du artha Israel bere haurraz, orhoituric bere urricalmenduaz;

55. Halache ere hitz eman cerauen gure lehenecoei, Abrahami eta haren ondocoei mendeen mendetacotçat.

56. Egotu cen bada Maria Elizabethequin hirur hilabetheren heina; eta guero bere etcherat bihurtu cen.

57. Bizquitartean, bethe baitciren Elizabethen erditceco mugac, erdi cen seme batez.

58. Entçun çuten haren auço eta ahai-deec, nola eracutsi çuen haren baithan Iauvac bere bihotzaren beratasuna, eta boztu ciren harequilan.

59. Çortcigarren egunean, ethorri ciren haurraren ebaquiteera, eta icendatcen çuten Zakharias, bere aitaren icen heraz.

60. Bainan ihardetsi çaroen amac : Ez bada; Ioanes behar du icena.

61. Erran cioten : Ordean nehor ezta ahaico gucian icen hori dakharrenic.

62. Kheinu eguin cioten bada aitari, adiaraz ceçan nola nahi çuen deithu.

63. Harc, escaturie isquiribatceco oholabat (1), isquiribatu çuen hartan, cioela : Ioanes da haurraren icena. Eta miretsi çuten guciec.

64. Ordu beretic idequi citçaoien alhoa, eta mihia deslothu, eta mintço cen esquerrac emaiten çarozquiola Jaincoari.

65. Auço gueia egotu cen harriturie, eta banatu ciren gauça hauc Iudeaco basherri gucietan.

66. Eta entçun cituzten oroec, hartu ci-

(1) *Oholac*, deitzen dira çur hosto edo horri mehe, chabalito, legundi batçu, ceinetaz ere etcholac estalteen ohi baitira. Halaco batçuen ga-nean hedaturie ezcoa, isquiribatcen çuten tchena-gocoec, burdinazco chirri mehar batçuen mocoarequin.

tuzten gogoan barna, ciotela elkharrí : Ceric çaitçue içanen dela hsur hori ? Ecen launaren escua barequin cen.

67. Bizquitartean haren aita Zakharias , bethetcen çuela Ispiritu Sainduac , hasi een haren muguiduraz mintçateen , cioela :

68. Esquerrac dituela Israelgo Iainco Launac , ceren iautsi baita bere populua ganat , haren berrerostecotçat ;

69. Eta ceren iaiqui-araci baitarocu Salbatçaille guciz abaltsu bat , Dabid bere haurraren etchean ,

70. Aguindu içan darocun beçala bere profeta saindu , bethi danic içan direnen ahoz ;

71. Athera gaitu gure etsaien menetic , eta gaiteetsi gaituzten gucien escuetarie ;

72. Urricalcen çazquiola gure aitac , eta orhoiteen dela bere aguincta sainduaz ;

73. Alabainan , cin eguiñez , hitz eman cioeu Abraham , gure aitari , egorrico çarrocula ;

74. Beldurtasunie gabe , gure etsaiac garaitu ondoan , eguiñ detçaguntçat haren manuac ,

75. Ibiliz haren aitcinean sainduqui eta çucenqui , gure biciego egun guciez .

76. Eta çu , haurtchoa , deithuren çara Jaun goicoaren Profeta ; eeën ioanen çara launaren beguithartearen aitcinean , haren bideac aphain delçatçuntçat ;

77. Emanen dioğu salbamenduaren eça-gutça haren populuari , bere hobenen bar-khamendutan ,

78. Gure Iaincoaren urricalmenduzco errai hequien gatic, ceinetan ethorri baitçarocu, hergoretaric (1) iausten çarocula,

79. Ilhumbetan eta heriotcearen itçal pean dauntçanen çuciatçat, eta gure oinen baqueraco bidean bidalteeco arguiçaguitat.

80. Haurra bada handiteen hari cen, eta adimenduan hazeartuz cihoan; eta mortuan cegoen, Israelgo populuaren aitcinean aguertu behar çuqueen bizquitartean.

## II. CAPITULUA.

*Iesusen sortcea. Ainguera bat artçainei aguer-  
tcen çaroe. Jesus ebaquitcen edo circon-  
cisatcen. Mariaren garbitcea edo purifica-  
cionea. Simeon eta Anna. Iauna, haur de-  
laric, iaquintsunen erakhasle.*

1. Ecun hetan, aguindu çuen Cesar Au-  
gustoe, har citecen mundu gucian citezquen  
ororen icenac (2).

2. Ieen hartce hori içan cen Siriaco Go-  
bernadore Cirenoc eguin içan çuen lehem-  
bicicoa.

(1) *Hergoretaric*, erraiten balitz beçala goico,  
goraco toqui edo herriyarie.

(2) Eguin-arazten çuten hori noicean behin Erro-  
maco Emperadoreec, iaquitecotçat cembat cituz-  
queten bere azpicoac, eta cein citequen çor çao-  
ten cerga, bat bederac behar baitçuen biburtu hu-  
nen bertce.

3. Eta bacihoacen guciac, cein bere hirira, bakhotcha bere icenaren emaitera.
4. Ioan een beraz Ioseph ere, Nazareth Galileaco hiritic Iudeara, Dabiten hirira, ceina deitcen baita Bethleem, Dabiten etchetic eta leinutic ethorquia çuelacotz,
5. Bere icena emaitecotçat, Maria bere emazte içorra cenarequin batean.
6. Han cirelaric bada, bethe içan citçaizcon egunac Mariari, eta erdi behar içan cuen.
7. Eta erdi cen bère seme lehen-iaioaz (1), eta chatharrez inguraturic, etçan çuen barruqui (2) batean; ceren ezpaitçuten osta-tuan lekhuric ardietsi.
8. Eta hegui hartan berean baciren artçain batçu, cegocenac bere arthaldeen çain, gauaz atçarriric, aldizeatuz.
9. Eta betbetan chutic eçarri çaroen aldean launaren Ainguerua, eta laincoaren arguiac inguratu cituen, eta icitu ciren ecin guehiago.
10. Bainan erran çaroen Aingueruac : Eztuçuela beldurric; ecen dakharquet bozcario handi haten berria, ceina gatic populu gucia boztuco baita;
11. Sorthu çarotçue gaur Salbatçaila, Christo launa, Dabiten hirian.
12. Eta huntaric eçagutuco duçue : khau-situco duçue haurtto bat chatharrez estalia, eta barruqui batean eçarria.

(1) Ikhns bedi S. Math. c. 4. ¶. 25.

(2) Estalbia batean.

13. Ordu berean hasi ciren, aingueraue quin, ceruticaco aralde handi batçu Iaincoaren goresten, ciotela:

14. Altsha bedi Iaincoa ceru goreneta-raino, eta lurrean baquea dutela guiçon bihotz cucenecoec.

15. Ioan cirenean hequien ganie cerurat ainguerauc, erran çuten artçainec el-kharri : Goacen Bethleemeraino, eta dakhusagun guerthatu içan den gauça hau, ceina launac eçagut-araci baitarocu.

16. Ioan ciren beraz lehiatuqui, eta aurkhitu cituzten Maria eta Joseph, eta haurttoa khorbe (1) batean etçana.

17. Eta ikhustearequin, eçagutu çuten haur hartaz erran içan çaroena hala cela.

18. Eta entçun çuten guciec miretsi cituzten artçainec erran ciotçaten gauçac.

19. Bada Mariac baceduzean hauc oro eta bacerabiltçan bere gogoan.

20. Eta itçuli ciren artçainac, Iaincoa goresten eta laudatcen çutelaric aditu eta ikuhi içan cituzten guciez, erran eitçaienaren arabera.

21. Ethorri cenean çortcigarren eguna, ceintan behar baitcen haurra ebaqui (2),

(1) *Khorbea*, maniatera, hodia, gambela.

(2) *Circumcisionea*, Iudutarren sacramentu bat een, ceina baitezpada behar baitçuten harto Iudutarren artean sortzen ciren haur guïçaqui guciec, sortcetic çortcigarren egunean. Gutartean bathaioa den beçalatsu, alde batçuz, cen ceremonia hora, bainan hainitz garratçagoa, eta odola Ichuriz egüten cen.

eman cioten icena IESUS, ainguerauc deithu  
çuen beçala amaren sabelean sor çadin  
baino lehen.

22. Eta noiz ere bethe baitciren Mariaren garbitceco (1) egunac Moisesen leguearen arabera, eraman çuten haurra Jerusalemera, Iaunari escain eieçotentçat (2),

23. (Hala nola isqniribatua baita Iaunaren legnean : Lehembicieoric amaren sabeletic ilkhico den muthilquia, Iaunaren içanen dela;)

24. Eta eman cetçaten sacrificioecotçat, leguean eçarria den beçala, bi uso-aphal edo bi etche-usocume.

25. Bacen bada orduan Jerusalemen guïçon bat, Simeon ceritçana; eta guïçon hura çucena cen, eta Iaincoaren beldurta-

(1) *Mariaren garbitceco egunae*, erran mahi da *Purificaciónea*. Iudutar emazte erdi-berria lohitçat eduquia cen, eta templotic urrandua berrogoi egunez, guïçaquiç içan bacuen, eta birur hogoi eta sei egunez, içan bacuen emaztequia. Hequien burnan, temploco atheisten escainteen cituen edo bildots bat eta usocume bat, aberats bacen, edo usocume bi, baldin bacen beharra. Ordutic harat etcen guehiago lohi, bainan bai garbi, eta sar citequen temploan,

(2) Moisesen leguearen arabera muthicoqui lehen sorthu guiac, Iaunarenac ciren, eta haren cerbitçu berecicotçat. Bainan bere burasoec erosten cituzten hurbil berrogoi sosetan. Ceremonia hori *Presentacionea* deitzen dugu.

*Purificaciónea* eta *Presentacionea*, Canderailuz eguiten ditugu, biac betan otsailaren bigarren egunean, Eguberritic herrogoi egunen buruan, eta *Circuncisiónea* urtharrilaren lebenean, Eguberritic çortcigarren egunean.

suna baçuen, eta iguriquiteen cituen Israelen atseguinezco egunac, eta Ispiritu Saindua harequin cen.

26. Eta erran içan cioen Ispiritu Sainduac etcela hilen, non lehenago etçuen ikhusten Christo Iaunarena.

27. Erakharri çuen beraz Ispirituac templora. Eta Iesus haurra bere burhasoec çakhartelaric, bethetceco harentçat leguearen arabera behar cena,

28. Hartu çuen besoetara, eta Iaincoari esquerrac bihurtu ciotçon, cioela :

29. Oraintche, Iauna, hiltcera utcico duçu çure sehia baquean, çure hitçaren eredura;

30. Eeen ikerusi dute ene beguiec egorri darocuén Salbatçairea;

31. Ceina eçarri baituçu populu gucien beguithartearen aitcinean,

32. Içan dadin nacioneac arguituco dituen çucia (1), eta Israel çure populuaren ieloa (2).

33. Bizquitartean aita eta ama miretsiric ceuden haurraz erraiten ciren hauquiez oroz.

34. Eta benedicatu cituen Simeonec, eta erran ciòen haren ama Mariari : Haur hau eçarria içan da hainiteen galtçapenetan eta hainiteen bozgarri Israelen; eta bandera

(1) Çucia edo arguia, arguiçaguia.

(2) Leloa, omena, ospea, fama.

bat beçala, ceinari guiçonac iaçarrico baitçaizeo (1).

35. Eta cerorren bihotça içanen da ezpata havez iragana, aguer daitcentçat hainitcen bihotcetaco gogoetac.

36. Bici cen halaber orduan profeta bat, Anna deitcen cena, Phanuelen alaba, Aserren leinuticacoa; adin handitan cen, eta iragan içan cituen çazpi urthe, nescatcha celaric hartu içan çuen senharrarequin.

37. Eta guelditu cen alhargun laur hogoi eta laur urthetarainocoan, templotic ilkhiteen etcela, eta gauac eta egunaç baruretan eta othoitcetan çaramatçala.

38. Hura ere ordu hartan berean ethorritic, eman cen Iaunaren laudatcen, eta mintçatcen haur hartaz, Israelen erospenaren beguira ceuden guciei.

39. Akhabatu citutzenean bada eguin beharrac oro, Iaunaren leguearen arabera, bihurtu ciren Galilearat, Nazaretheco hirirat, ceintan egoiten baitciren.

40. Bizquitartean haurra handitcen hari cen eta hazcarteen, çuhurciaz bethea cela; eta Iaunaren dohaina haren baithan cen.

41. Bacihoacen haren burhasoac urthe

(1) Ezta Iesus Iauna ethorri içan uehoren galiceco, bainan bai galduac cirenен saibatceco; ordean bainitçac içanen dira, ceinac, hura eçagutu eta sinhetzi ez nahiz, galduco baitira, bertceac haren nahiak eta manamenduac eguinez salbatuco diren bizquitartean.

oroz Ierusalemera, Phazcoco egun handia-requin.

42. Celaric bada haurra hamabi urthe-tara heldua, ioan ciren Ierusalemera, phes-tacotçat ioaiten ohi ciren beçala.

43. Iai-egunae iragan cirenean, guibelat itçultcen cirelarie, guelditu eitçaroen Ieru-salemen Iesus haurra, eta aita-amac etci-tçaizcon ohartu.

44. Aiteitic ustez eta hequien lagun cem-baitequin cela, egnin çuten egun bat bide; eta haren bilba çabiltçan aseacien eta eça-gunen artean.

45. Bainan nola ezpaitçuten aurkhitu, berriz itçuli ciren Ierusalemera, haren on-doan.

46. Hirur egunen buruan, khausitu çut-en temploan, leguearen erakhasleen er-dian iarria, hari cela hequien entçuten, eta hequiei galde eguiten.

47. Eta miretsiric ceudecen aditçaire gu-ciac, haren çuhurteiari eta ihardesteari.

48. Ikhusi çutenean bada, espantatu ci-ren; eta erran cioen bere amac : Ene se-mea, cergatic holacoric eguiñ darocu? Huna non çure aita eta ni ibili garen hai-nitz khechuric çure bilha.

49. Ihardetsi çaroen : Certaco cinabilte-a-en eñe ondoan? Etcinaquitena eñe Aita ganaco eguiñ bideetan behar naicela aur-khitu?

50. Bainan hec etçuten aditu erran nahi çaroena.

51. Orduan iautsi een hequiequin, eta ethorri cen Nazaretherat, eta hequien nahi gueiac eguiten cituen. Bada haren amac baceduzcan gauça hauc oro bere gogoan.

52. Eta Iesus aiteinatuz cihoan çuhur-tcian, adinean eta gracian, laincoaren eta guicōen beguietan.

---

### III. CAPITULUA.

*Ion Done Baptista predicacen du eta batthiatcen. Iesusez cer lekhucotasun eguiten duen. Herodesec har-arazten du. Iesusen bathaioa eta sorterroa (1).*

1. BADA Tiberio Cesar hamaborzgarren urtheeco Emperadore cela, eta Poncio Pilatus Iudeaco Gobernadore, Herodes Galileao buruçagui, Philipe, haren anaia, halaber Itureaco eta Trakhonita herrico, Lisanias berriz Abileneco buruçagui celaric,

2. Eta Anna eta Caiphas Aphez-nausi ciren orduan; adi-araci cioen launac bere hitça Ioanes Zakhariasen semeari bortuan.

3. Eta ethorri cen Iordan heguico herri gueitara, predicacen çuela urriquizeo batthaio bat, bekhatuen barkhamendutaco;

4. Hala nola isquiribatua baita Isaias profetac erran dituenen liburuan : Boz bat bortuan oihuz dago : Aphain eçaçue lau-

(1) Sorterroa edo ethorquia; cein arbasotaric ilkhitzen cen Iesus.

naren bidea, eta chuchen eçatçue haren bide chidorrac.

5. Haran guciac betheco dira, eta mendi eta bichearrac oro aphalduco dira, eta makur direnac lerdenduco dira, eta bide malkhorrac (1) ordoquibihurtueo;

6. Eta guicon oroc ikuusico du Iaincoa ganic dathorren Salbatçairela.

7. Erran çaroen beraz, harc bathaiatuac içan nahiz heldu citçaizeon osteei : Suguecirau khasta (2), norc eracatsi darotçue dathorren hascerreari ihes eguiten?

8. Eguitçue beraz urriquizeo fruitu behar beçalacoac, eta ezterraçuela : Gue Abraham dugu aita; ecen erraiten darotçuet, Iaincoa gai dela harri horietaric beretaric Abrahami umeac sor-arazteco.

9. Iadanie haizcora çuhartccaren erroan eçarria da. Beraz cein çuhartee ere ezpaitu deus onie ekharrico, eta hora ebaquia içanen da, eta surat aurthiquia.

10. Eta galdeguiten baiteioten osteeec : Cer eguien dugu bada?

11. Harc ihardesten çaroen : Bi aldagari dituenac, eman bieço bat, eztuenari; eta ianhariric duenac, halaber eguin beça.

12. Ethorri citçaizeon Publicanoac ere, bathaia cetçantçat, eta galdetu cioten : Nausia, gue cer behar dugu eguin?

(1) Bide *malkhorra* edo *maldarra*, gain behera dohan bidea.

(2) *Ciraua* edo *Bipera*.

13. Ihardetsi çaroen : Ez bar deus ere manatua çaitçuenaz guehiagocoric.

14. Halaber guerla - guiçonec galdeguin cioten : Eta guc cer eguiñ behar dugu? Eta erran çaroen : Ezteçaquela nehor her-teha, ez eta gabe bereaz; bainan çuen sariac asqui çaitçuela.

15. Bizquitartean, nola populuac uste bai-tçuen, eta guciec gogoan baitçarabilaten Ioanesez, ecen hora citequela Christo;

16. Erran çaroen guciei Ioanesc : Nitaz denaz beçambatean, urez bathaiateen çaituztet; bainan heldu da ni baino ahaltsuago den bat, ceinari ezpainaiz ni gai çapata lokharrien deseguiteco; harc bathaiatuco çaituzte Ispiritu Sainduan eta suan.

17. Bere bahea escuan du, eta chahutuco du bere larraina (1), eta bihia bilduko sabaiarat (2); lastoac berriz erreco ditu behin ere iraunguico eztet su batean.

18. Bertee hainitz gauça ere erraiten ciotçean populuari bere erakhaspenetan.

19. Bainan nola erantçuten baitcioen Herodes Tetrarkhari, Herodias bere anaia-ren emaztea gatic, eta eguiñ cituen bertee gaichtaqueria guciae gatic,

20. Harc gucien gainerat eratchequi çuen hau ere, Icanes cephoetan eçar-araci bai-tçuen.

21. Bada, populu gucia bathaiateen cela,

(1) *Larraina*, gariaren edo ogui bihiaren iotceco toquia.

(2) *Sabaia*, bibiteguia, selhaurua, soilharua.

Iesus ere bathaiatua içan baitcen, guerthatu cen, othoitcean cegoelaric, çabal çadin cerua;

22. Eta iautsi cen Ispiritu Saindua haren gainerat ikhus citequen itchura baten azpian, uso bat cirudiela; eta boz bat aditu çuten ceruticacaoa, cioena : Çu çara ene Seme maitea; çutan harteen dut ene atsegina.

23. Jesusec orduan baçuqueen hogoi eta hamar urtheren heina; celaric, uste çutenaren arabera, Iosephen seme, ceina baitcen Heliren seme, eta hau Mathaten,

24. Eta hau Lebiren, eta hau Melkhiren, eta hau Ianneren, eta hau Iosephen,

25. Eta hau Mathatiassen, eta hau Amosen, eta hau Nahumen, eta hau Hesliren, eta hau Nagueren,

26. Eta hau Mahathen, eta hau Mathathiasen, eta hau Semeiren, eta hau Iosephen, eta hau Iudaren,

27. Eta hau Ioannaren, eta hau Resaren, eta hau Zorobabelen, eta hau Salathielen, eta hau Neriren,

28. Eta hau Melkhiren, eta han Addiren, eta hau Cosanen, eta hau Elmadenen, eta hau Heren,

29. Eta hau Iesusen, eta hau Eliezerren, eta hau Iorimen, eta hau Mathaten, eta hau Lebiren,

30. Eta hau Simeonen, eta hau Iudaren, eta hau Iosephen, eta hau Ionaren, eta hau Eliakhimen,

31. Eta hau Melearen, eta hau Mennaren, eta hau Mathatharen, eta hau Nathanan, eta hau Dabitzen,
32. Eta hau Ieseren, eta hau Obeden, eta hau Boozen, eta hau Salmonen, eta hau Naasonen,
33. Eta hau Aminadaben, eta hau Adamen, eta hau Esronen, eta hau Pharesen, eta hau Iudaren,
34. Eta hau Iacoben, eta hau Isaaquen, eta hau Abrahamen, eta hau Thareren, eta hau Nakhoren,
35. Eta hau Saruquen, eta hau Ragaoen, eta hau Phaleguen, eta hau Heberen, eta hau Saleren,
36. Eta hau Cainanen, eta hau Arphatsaten, eta hau Semen, eta hau Noeren, eta hau Lamekhen,
37. Eta hau Mathusaleren, eta hau Enochhen, eta hau Iareden, eta hau Malaleelen, eta hau Cainanen,
38. Eta hau Enosen, eta hau Sethen, eta hau Adamen, ceina baiteen Iaincoarena.

---

#### IV. CAPITULUA.

*Iesus mortuan barurteen da. Hasten da predicatcen. Nola bere herritarrec nahi duten hil. Deabru bat khentcen du guion baten baitharic. Sendateen du Ion Done Petirren ama-guinarrreba.*

1. IESUS beraz Ispiritu Sainduaz bethea, igan cen Iordan ibasotic, eta eraman quen Ispirituac morturat,

2. Non egon baitcen berrogoi egunez; eta deabruac gaizquirat erakharri nahi ian quen. Egun hetan gucietan etquen ian deus ere; eta hec iragan eta, gosetu cen.

3. Erran cioen orduan deabrnac : Iaincoaren Semea bacara, errocu harri huni ogui bilhaea dadin.

4. Iesusee ihardetsi cioen : Isquiribatua duc, eztela ogni hutsez guionna biei, bainan oraino Iaincoaren hitz oroz.

5. Eta eraman quen deahruac mendi gorabaten gainera, eta eracutsi ciotean, ez deusic barnean, mundueo erresuma guiac;

6. Eta erran cioen : Emanen darotcut horien gucien gainean esen eta ohore; ecen niri emanac ian caizquit, eta nahi dutanari emaiten diotcat.

7. Beraz baldin que adoratu nahi banauçu, guciac que ianen dirade.

8. Ihardetsi cioen Iesusee : Isquiribatua due : Que Iainco launa duetu adoratuco, eta hura bakharic cerbitcatuco dnu.

9. Orduan eraman çuen Jerusalemera, eta ecarri çuen temploaren tontorrean, eta erran cioen : Baldin Iaincoaren Semea bacara, oldar çaitet hor behera ;

10. Isquiribatua da ecen, bere aingueruei manatu daroela beguirea çaitçaten,

11. Eta escuetan erabilico çaituztela, murtei ioric etçaiten eror (1).

12. Iesusec ihardetsi cioen : Errana duc : Eztuçu tentatuco çure Iainco Iauna.

13. Bada tentacione gucia akhabatu cenean, utci çuen deabruac aphur batentçat.

14. Eta Iesus, Ispirituaren indarrac era-kharriric, itçuli cen Galilearat, eta barratatu cen haren leloa herri hartan gucion.

15. Erakhasten hari cen hequien biltçarretan, eta handiesten çuten guciee.

16. Ethorri cen guero Nazarethera, hacia içan cen herrira; eta sartu cen ondoan, eguiten ohi çuen beçala, larumbat eguna-requin biltçarrean, iaiqui cen iracurtceco-teat.

17. Eman cioten Isaías profetaren liburu, eta çabaldu çueneco, ediren çuen leku hau, ceintan isquiribatua baita :

18. Iaunaren Ispiritua ene gainean da; hargatic nau gantçetu; eta egorri nau beharrei Ebanyelioaren adi-araztera, bihotea erdiratua dutenen sendatcera,

19. Gatheeta n daudenei bere erospena-

(1) *Murtei ioric* edo *hapuicaturic* erortcea, erran nahi da behaztopaturic erortcea, cembait erro tear oinaz ioric beçala.

ren berria ekhartcera, bihurteera itsuei argua, çaurthuac atheratcera burdinataric, iaquin-araztera launaren urricalmenduen urthea, eta haren saristateeco eguna.

20. Orduan liburua bildu çuen, bihurtu cioen cerbitçariari, eta iarri cen; eta biltçar guciac beguiac ceduzcan haren gainean baraturic.

21. Eta hasi citçaien erraiten : Egungo egunean bethe içan da çuen beharriez entçun duçuen isquiribu hau.

22. Eta oroc aithor emaiten cioten, eta espantutan çauden haren ahotic ilkhitcen eiren hitz onhesgarriez, eta cioten : Eztea hau Iosephen semea?

23. Ihardetsi çaroen Iesusec : Erranen darotaçue eiqui erranqui hau : Mirieua, senda çaité ceroni; Capharnaumen eguin dituçula entçun tugun gaúca handi hec berae, eguiquitçu hemen ere ceure herrian.

24. Erran çaroen : Eguiaz diotsuet, ezta profetaric bat ero, bere herrian onhetsi dutenic.

25. Erraiten darotçuet eguiazqui, baciren Israelen hainitz emazte alhargün Eliasen egunetan, cerua hertsia içan cenean hirur urthe eta sei hilabethez, eguin baitcen gosete handi bat herri gucian;

26. Eta hetaric baten ganat ere eteen egorria içan Elias, Sarepta Sidoniarren herriko alhargun baten ganat baicen.

27. Halaber hainitz sorhaio cen Israelen Eliseo profetaren egunetan, eta halere he-

tarie nehor etcen chahutua içan, baicen Naaman Siriacoa.

28. Sumindu ciren orduan biltzarreco guciac, horiec entçutearequin.

29. Eta chutitu ciren, eta etchaturie hiritic lekhora, eraman çuten hiria iarria een mendiaren muthorrera, handic amilcatceco.

30. Bainan Iesus erditie iragaiten cequiotela, ioan citçaioten.

31. Iautsi een beraz Capharnaum Galileaco hirirat, eta hari cen erakhasten larumbatetan.

32. Eta harritzen cituen guciae bere era-khaspenaz, ceren abal handirequin mintço baitzen.

33. Guerthatu içan een biltzarrean guicon bat, ispiritu lohi batec çarabilana, ceinac oihu handi batequin,

34. Erran baiteioen : Utz gaitçatçu; guri cer dohacu curequin, Iesus Nazaretharra? Gure galteera ethorria cara? Badaquit nor çaren; cu cara Iaincoaren Saindua.

35. Iesusec mehatchatzén çuela, erran cioen : Ago ichilic, eta ialgui hadi guicon hortaric. Eta deabrua, guicona gucien erdira aurthiqui ondoan, ilkhi citçaison, calteric eguin gabe.

36. Eta guciae ikharatu ciren, eta ciotsoten elkarri : Ger da hau holacoric, buruperequin eta nausitasunequin manatzen bataroe ispiritu lohiei, eta ilkhitzen baitrade?

37. Eta haren ospeac io çuen herri hequietaco bazter gucietaraino.

38. Iesus bada, bildumatic atherarie, sarthu cen Simonen etchean; eta Simonen ama - guinarreba ohean baitcen helgaitz handi batuequin, othoiztu çuten hel cequion.

39. Hurbildu eitçaoen beraz, eta manatu cioen helgaitçari, eta utci çuen helgaitçac; eta hura, iaiquirie ordu berean, abiatu cen hequier cerbitçatecen.

40. Eta iguzquia sarthua celaric, eririç çuten guciec, cer nahi erhasun mota baitçuten ere, ekharri ciotçoten; eta harc, eci-ni bere aldian escuac gainean eçarriric, osatseen cituen.

41. Deabruac ere ilkhitcen ciraden hainitcen ganic, oihuz çaudecela, eta ciotela: Çu Christo cara, Iaincoaren Semea. Bainan harc larderiatcen cituen, eta debecateen çaroen mintçatcea, ceren haitçauiten hura cela Christo.

42. Arguitu cenean, ialgui cen eta ioan mortu batetara, eta populu gucia haren bilha ethorri cen, aurkhitcen cen toqui-raino; eta nola eduqui nahi baitçuten, hetaric urrun etçadintçaf,

43. Erran çaroen : Bertee hiriei ere behar daroet Iaincoaren erresumaco hitça adi-araci; ecen hortacotçat egorria içan naiz.

44. Eta hari cen predicateen Galileaco biltçarretan.

## V. CAPITULUA.

*Arrantza miragarria. Sorhaioa eta hebaia sendatuac. San Matheo deitzen du Iesusec. Barura. Oihal, untxi, arno berrien idurpenac.*

1. GUERTHATU cen behin, Jesus Yenesaretheco aintziraren bazterrean cegoela, osteei hersten baitzuten, Iaincoaren hitza aditcea gatik.

2. Eta ikhusi cituen bi untxi aintziraren heguien baratuac; arrantzaileak iautsiak ziren, eta sareen garbitzen hari ziren.

3. Iganic beraz untxi hetaric batetara, ceina baitzen Simonena, ohoiztu zuen urrun cedila aphur bat leihorretik; eta iarri zen ondoan, erakhasten çaroen untcitik osteei.

4. Eta mintzatcetik ichildu zen beçala, erran cioen Simoni : Eramaçu erdiraino, eta aurthic eçatzea sareak, arrain hatzeeman deçaquentçat.

5. Ihardetsi cioen Simonec : Nausia, gau guzian nekhatu içan gara deus hatzeman gabe; bainan balaric ere cure erranaren gainean botatueo dut sarea.

6. Eta botatu çutenean, bildu çuten hambat arrain, non sarea ethenteen baitzitçaien.

7. Eta kheinu egin cioten bertze unteico lagunei, ethor citecen laguntzera. Ethorri ziren, eta bethe cituzten untxi biac, bondatecco çorian.

8. Ikhusriric hori, erori cen Piarres ahuspez Iesusen oinetara, eta erran cioen : Co-haz ni ganie, launa; ceren guiçon bekha-tore bat bainaiz ni.

9. Ecen icialdura handi batec ioa cen bera, eta harequin ciraden guciac, egun cuten arrantza gatic;

10. Bai halaber Iaques eta Ioannes, Ze-bedeoren semeac, ceinac baiteiren Simo-nen lagun. Bainan erran cioen Simoni le-susec : Eztuçula beldurric; hemendic ha-rat guiçonac hatcemanen ditu.

11. Eta untciac leihorrerat erakharri on-doan, oro utciric, iarrai qui citçaizcon Ie-susi.

12. Alde hetaco hiri batean cela, guiçon sorhaiotasunez estali batec ikhusi çuen, eta bere burua lurrerat egotcirie, othoitz egun cioen, ciotsola : launa, nahi balin badu, chahu naçaqueçu.

13. Eta escua hedaturic, hunquitu çuen, cioela : Nahi dut, çarela chahu. Eta bet-betan ioan citçaioen sorhaiotasuna.

14. Eta manatu cioen Iesusec, nehori etcioçala erran : Bainan çohaz, diotsa, eracuts çaité Apheçari, eta escain ecacu, çure garbitcearentçat, Moisesec manatu duenaren arabera, içan deçaten lekhucota-suntçat.

15. Bizquitartean baciloan haren omena gueroago eta urrunago; eta oste handiac biltzen ciren haren aditeera, eta bere gai-tecaric osa cetçan galic.

16. Hura ordean aldaratua cegoen mortuan, othoitz eguiten quela.

17. Egun batez iarria cegoela erakhasten, iarriac halaber çaudesen Pharisauac eta legueco nausiac, iinic Galileaco herrichca gucietaric, eta Iudeatic eta Ierusalemetic; eta agueri cen launaren ahala erien sendatcean.

18. Hor heldu dira guion batzu, dakhartela ohe batean guion hebain bat; eta hura barnerat sarthu nahiz, eta Iesusen aitcinean ecarri nahiz çabiltçan.

19. Bainan ezpaitutzen aurkhitzen nondic sar, han cen iendetcea gatic, igan ciren etche gainera, eta hegastitic erautsi cuten bere ohearequin gucion erdira, Iesusen aitcinera.

20. Hequien sinhestea ikhusiric, erran cioen Iesusec : Guiçona, barkhatzen çaiquitzen çure bekhatuac.

21. Orduan basi ciren Isquiribauac eta Pharisauac bere baithan erraiten : Nor da burho erraile hau? Norc barkha detçaque bekhatuac Iaincoac berac baicen?

22. Iesusec bada, eçaguturie hequien go-goetac, ihardetsi çaroen : Cer gogoeta darabilaçue çuen bihotctean?

23. Cein da errechago, erraitea : Barkhatuac çaitzen çure bekhatuac, ala erraitea : Altcha çaita, eta ibil çaita?

24. Iaquin deçaquentçat bada baduela guionaren Semeac lurrean hobenen barkhatceco escua, erran cioen guion hebai-

nari : Nic diotsut, chuti çaité, eramaçú çure ohea, eta etcherat çohaz.

25. Ordu berean altchatu cen guiçona hequien aitcinean, bartu quen bera etçana cen ohea, eta ioan cen bere etcherat, Iaincoa handiesten çuelaric.

26. Eta icialdurac hartzitzen guciac, eta handiesten çuten Iaincoa; eta ikhara handirequin cioten : Ala gue gauça harri-garriac ikhusi baititugu gaureo egunean !

27. Horien ondoan ilkhi cen Jesus; eta ikhusi baitquen publicano bat, Lebi deitzen cena, bere mahainean iarriric cegoela, erran cioen : Iarraic çaquizquit.

28. Hura aldiz iaiqui cen berehala oro uterik, eta iarraiqui citçaoen.

29. Eguin cioen ere othuruntea handi bat bere etchean, eta iarriric eiren mahain berean hequiequin hainitz Publicano eta bertze halako guileon.

30. Baçuten bada cer eraunts Pharisauec eta Isquiribauec, eta ciosteten dicipuluei : Certaco Publicanoequin eta ohicuntea gaithocoequin iaten duçue eta edaten ?

31. Ihardesten çaroela, erran çaroen Jesus : Ontsa direnec eztute acheter (1) beharric, bai ordean gaizqui direnec.

32. Halaber ez naiz ethorri çucenen deitzaera, bainan bai bekhatoreen urriquirat erakhartcera.

33. Orduan erran cioten hec : Cergatic

(1) Acheterra, miricua, osaquina, sendaquina.

Ioanesen dicipuluec, eta bai Pharisauenec ere, eguiten dute maiz barur eta othoitz, eta çureee iaten eta edaten baitute?

34. Ihardetsi çaroen : Barur-araz othe detçaquetçue ezcon-berriaren adisquideac, ezcon-berria hequiequin deno?

35. Ethorrico dira egunac, ceinetan ezcon-berria khenduco baitçaie; egun hetan eguinen dute barur.

36. Guero iduripen bat ere erran çaroen: Nehorec ez bide dio, oihal berritic çathi bat hautsiric, eratchequitcen soineco çahar bat; bertcela ethentcen du herria, eta berriticaco antolacaia ere eztohaco çaharrari.

37. Eta nehorec ez bide du emaiten mahats-arno berria çahagui çaharretan; ezperren mahats-arno berriac çahaguiac çartatuco ditu, ichurico da bera, eta çahaguiac galduco dirade.

38. Aiteitic mahats-arno berria eçarri behar da çahagui berrian, eta horrela bata eta bertcea beguira ditezque.

39. Eta çaharretic edaten hari denac, eztu berehala berritic nahico; eeen dio: Çaharra hobea da.

## VI. CAPITULUA.

*Nola Iduac yaizqui hartcen duten dicipuluec larumbataquin ogui buruca haustea, iatecotçat. Escu ihartua osatcen du Iesusec; Apostoluac hautatcen ditu. Mendico era-khaspena.*

1. LARUMBAT bigarren-lehena deitzen cen batez, iragaiten cela Iesus ereintze batzu gaindi, haren dicipuluec mozten cituzten cembait ogui buruca, eta escuez hec phorroskatuturic, iaten bari ciren.

2. Horren gainean Pharisau batuec erran cioten : Cergatic eguiten duque larumbatean sori eztena?

3. Iesusec ihardetsi çaroen : Eztuque hau ere iracurri, cer egun içan çuen behin batez Dabitec gose baitzen, eta haren lagunac ere bai?

4. Nola sarthu içan cen laincoaren etchean, eta escaintçaco oguiac harturic, ian cituen, eta berequin cituenei ere eman, betaric iatea eztelkarie sori Aphecei baicen nehori?

5. Dioste oraino : Guiçonaren Semea larumbataren ere nausi da.

6. Berriz bertee larumbat batez, sarthu cen bilkhuan, eta iarri cen erak hasten; eta cen han guiçon bat escu escuina idortua çuena.

7. Beha cegozeon bada Isquiribauac eta

Pharisauac, hea larumbat egunarequin sendatuco othe çuen, guero cerbait gaizqui eguinez bilha ceçatentiat.

8. Harc ordean baitçaquizean hequier gogoetac, erran cioen escu iharra çuen guiçonari : Iaiqui çaita, eta eman çaita hor erdi hortan. Hura chutituric, eman cen.

9. Erran çaroen beraz Iesusec : Galdatuco darotquet gauça bat; larumbatetan ongi eguitea da cilhegui, ala gaizqui eguitea? Norbaiti bicia emaitea, ala edequitcea?

10. Guero guciei inguruau behatu eta, erran cioen guiçonari : Heda eçaçu çure escua. Hedatu çuen harc, eta egui cittaioen bertcea beçain oso.

11. Hec orduan sumindu ciren handizqui, eta solhas çuten elkarrequin Iesusi cer egui behar cioten.

12. Egun hetan ioan cen mendira othoitz eguitera, eta iragan çuen gau osoa othoitean.

13. Arguitu cencan, deithu cituen bere dicipuluac, eta hetaric bereei cituen hamabi, ceinac deithu baitcituen Apostoluae.

14. Simon, ceinari eman baitcioen icen goitia Piarres, eta Andreas hunen anaia, Iaques eta Ioanes, Philipe eta Bartholomeo,

15. Matheo eta Thomas, Iaques Alpheorenai eta Simon Khartsua deiteen dena,

16. Eta Iudas Iaquesen anaia, eta Iudas Iscariot, ceinac saldu baitçuen.

17. Eta iautsiric hequiequin, baratu cen  
ordoqui batean, berequin cituela dicipulu  
aralde eta iendetee handi bat, Judea gue-  
tic, Ierusalemetic, itsas bazterretaric, Tirgo  
eta Sidongo aldeetaric ethorriac,

18. Haren entçulera, eta bere eritasune-  
tarie sendatuac içaitea gatic; eta ispiritu  
satsuequin cirenac ere sendateen cituen.

19. Eta oste gucia çabilan hura hunquitu  
nahiz, ceren haren ganic ialguitcen baitcen  
bohere bat oro sendateen cituena.

20. Orduan beguiac bere dicipulu etarat  
goitituric, erran caroen : Dohatsu çarete,  
beharrac, ecen laincoaren erresuma çuena  
da.

21. Dohatsu orai gose çaretenac, ceren  
aseco baitçarete. Dohatsu orai nigarretan  
çaudetenac, ecen irri egunen duçue.

22. Dohatsu içanen çarete, gaitecetsico  
çaituztetenean, eta aldaratuco eta laidoz-  
tatueo çaituztetenean, eta çuen icena gaich-  
totçat arbuiatueo dutnean, guiconaren Se-  
mea gatic.

23. Boz çaitezte, bozcarioz iauz çaitezte  
egun hartan; ecen hara non den çuen sa-  
ria nasaia ceruan; halaber eguiten ohi cio-  
ten profetei ere horien aitec.

24. Hargatic bada çorigaitz çuentçat, abe-  
ratsac, ceren çuen goçoa oraidanic duçuen.

25. Çorigaitz çuentçat, aseac çaretenac,  
ceren gose içanen baituçue. Çorigaitz orai  
irriz çaudetenentçat, ceren egunen baitu-  
çue nigar eta marrasca.

**26.** Çorigaitz, baldin ongui-ethorri bade-guiquete guiçonec; ceren hola hola eguiten ohi baitcioten horien ascaciec profeta gueçurrezcoei.

**27.** Bainan aditcen nauquen horier diotsuet : Onhets eçatçue çuen etsaiac, eta gaitcesten çaituztetenci eguiçue ongui.

**28.** Onedas (1) eçaçue gaizqui çuetaz mintço direnentçat, eta othoitz eguiçue gueçurrez oldartcen çainquitçuenentçat.

**29.** Eta mathela batcan ioiten çaituenari, phara dioçaçu berteea ere; eta soingainecoa iohan darotçunari, eztioçoçula iaca ere debeca.

**30.** Nor nahic esca deçaçun, emoçu; eta çurea eramaiten darotçunari, eztioçoçula bihur-araz.

**31.** Nola ere nahi baitaçue eguin dieçaçueten çuei guiçonec, halaber çuec eguin dioçoçuete.

**32.** Eeen baldin maite baditutçue çuec maite çaituztetenc, cer esquer duqueçue? Gaichtoec ere maite dituzte ecen bere mai-thatçailiac.

**33.** Eta baldin ongui badaguieçue çuen ongui egualei, cer esquer duqueçue? Eeen gaichtaguinec ere haimbertee eguiten ohi dute.

**34.** Eta baldin mailebatuz emaiten badaro-eçue, bihurtuco darotçuetela uste duqueñei, cer esquer duqueçue? Gaichtoec ere

(1) *Onedastea, ongui erraitea, edastea.*

gaichtoei mailebatcen ohi diote, ordaina-ren hartcecotan.

35. Cuec bada onhets eçatçue çuen are-rioac (1); ongi eguiçue, maileba eçaçue, deusic iguriqui gabe; eta içanen da çuen golardoa handia, eta içanen çarete laun goicoaren seme; ecen hura ere ona da esquer gabeentçat eta gaichtaguinentçat berentçat.

36. Çareten beraz urriquitsu, çuen Aita urriquitsu den begala.

37. Ez bertceez ustegoa tçarric içan, eta cuetaz eztute içanen; ez bertceac hobenduri egelin, eta etçaituztete egulinen; barkha eçaçue, eta barkhatuco çaitçue.

38. Emaçue, eta emanen çaitçue; içarı ona, eta galkhatua, eta iharrosia, eta mu-curru dohana emanen çaitçue altçorat; ecen cein ere neuriz neurtuco baitçue, eta hartaz heraz neurtuco çaitçue eeboni.

39. Halaber erraiten çaroen iduripen hau : Itsu batec erabil othe deçaque bertce itsu bat? Ez othe dira biac cilho bererat erorico?

40. Ezta dicipulua nausia baino gorago-coa; içan ahala ona da dicipulua, baldin nausia badirudi.

41. Cergatic dakhusaçu çure anaiaren beguijan lasto bat, eta ceure beguijan den er-naiari ezpaitcitçaizco oharteen?

42. Eta nola anaiari derroqueçu : Anaia, utz naçaçu idoc dieçadaçudan beguijan du-

(1) Arerioa, izterbeguia, etsaia.

cun phitsa, eztuçularic cerorrec ikhusten ceure beguiian duçun laça? Caren gaichto on iduri nahia! Idoc eçaçu lehenic ceure beguitic laça, eta guero bilha deçaqueçu nola idoc çure anaiaaren beguico phitsa.

43. Ezta çuhaitz ona, tçarric ekhartcen duena, ez eta ere çuhaitz tçarra, onic ekhartcen duena.

44. Ecen çuhamu bakhotcha agueri da ekhartcen duenetic; ceren ezpaititezque elhorrietic bil phicoac, eta hain guti lapharretic mahats mordoac (1).

45. Guiçon onac bere bihotz barneco onetic erakhusten du ona, eta guiçon gaichtoac, barne gaichtotic gaizquia; ceren ahoa mintço baita bihotcean gaindi dohanetic.

46. Cergatic bada deitcen nauçue, Iauna, Iauna, eta nic erranac ez ditutçue eguiten?

47. Ni ganat norbait ethor badadi, eta ene hitçac entçun badetca eta eguin, erranen darotenet nor duen iduri.

48. Bardin da hura guiçon batequin, ceinac, etche baten eguiten hari dela, lurra barna haintçurcen baitu, eta lana iartcen harrocaren gainean; uholde bat bada ethorriric, uharrac iaçarri dio etche hari, eta eztu khordocatu, ceren harrocaren gainean eçarria baitcen.

49. Eta ene hitçac entçuten duenac eta ez eguiten, iduri du guiçon bat, ceinac iartcen baitu bere etchea lur hutsean, barna

(1) *Mordoa*, edo *mardoa*, molkhoa.

cilhatu gabe; iaçarri dio uhausinac, eta erori da ordu berean, eta handia içan da haren erorpena.

---

## VII. CAPITULUA.

*Iesusec osasuna bikhurtcen dio Erromatar aitcindariaren sehiari, eta Naimeco alhar-gunaren semea phizten du. Ion Done Ioannesec bere dicipuluac egortcen diozca. Nola Iesusec altchatcen duen Ioanes. Emazte behatoreac nola gantçutcen duen Iauna.*

1. AKHABATU çuenean Iesusec hitz horiecz erraitea bere entçulei, sarthu cen Capharnaumen.

2. Bada soldado aitcindari baten sehia, ceina baitçuen hainitz maite, eri cen hil hurrena.

3. Eta nola entçun baitçuen Iesusez ai-phateen, egorri ciotçan Iudutar çaharreraric cembait, othoiztera, arren ethor çadın eta sehia senda cioçan.

4. Haue iin ciren Jesus gana, eta othoizten çuten eta hertchatcen, ciotsatela : Gai da bere galdea aithor dioçoçun;

5. Maite gaitu ecen Iudutarrac, eta hil-tçar-lekhua bat ere eguin darocu bere diruz.

6. Ioan cen beraz hequiequin Jesus. Baina ia etchera heldu hurren cela, bidali ciotçan aitcindariac bere adisquide bateu,

erraitera : Iauna, etçaiteeela unha; niri ecen horrembertce eztagogot, sar çaitecen ene atherbe pean.

7. Hargatic eztut uste içatu neroni ere gai naicela çu gana ethortceco; bainan hitz bakhari bat erraçu, eta sendatuco da ene sehia.

8. Eeen guïçon bat naicen arren bertceren pecoa, baditut nic ere soldadoac ene meneco, eta erran badeçat batari : Hoa, badoha; eta bertceari : Haugui, heldu da; eta sehiari : Eguic hau, eguiten du.

9. Horieci entçutcarequin, sarthu cen es-pantutan Jesus, eta, itçuliric, erran çaien carraizcon osteei : Diotsuet eguaia, eztut Israelen ere ediren horrembertce sinhesti.

10. Eta egorriac içan cirenac etcheratu cirenean, aurkhitu çuten eri cen sehia, sendatua.

11. Ioan cen guero Jesus hiri batetara, ceinari baiteeritçan Naim; eta bacihoacon harequin dieipuluac eta iendetce handi bat.

12. Bada hirico athera hurbiltcen hari cen beçala, bidalkhartu cen (1) ehorzteria çaramaten hil batequin: eta hora cen seme bakhoitça, eta haren ama alharguna, eta ahueu handi bat cihoan harequin hiritic.

13. Emaztea ikhusi çueneco, urricaldu citçaioen Jesus, eta erran cioen : Eztaguiçula nigarric.

14. Orduan hurbildu cen, eta hunquitu çuen catabuta (2); hila çaramatenac guel-

(1) *Bidalkhartu*, bidean elkharganatu.

(2) *Catabuta*, *catabua*, *hil-khutchu*, *bil andac*.

ditu ciren, eta erran çuen : Guiçon gaztea, manatcen darotçut, iaiqui çaita.

15. Iarri cen berehala hila, eta mintceacen hasi cen; eta bihurtu cioen bere amari.

16. Ikhataratu ciren han ciren guciac, eta eman ciren Iaincoaren goresten, ciotela : Profeta handi bat altchatu da gutartean, eta Iaincoac here populua urricari içan du.

17. Eta eguiñeari hunen otsac bethe cituen Iudea gucia, eta inguruco herriac oro.

18. Gauça hauc guciac erran ciotçoten bada Ioanesi here dicipuluuec.

19. Deithu cituen beraz bi dicipulu, eta egorri cituen Iesus gana, meçu hunequin : Cu çara ethorri behar den hora, ala bertee baten beguira gagozque ?

20. Guiçon hec iin ciren Iesus gana, eta erran cioten : Ioanes Baptista bidaliric heldu gaitçatçu galdeguitera : Hea cu çaren ethorri behar den hora, ala bertee baten beguira gagozqueen ?

21. Ordu hartan berean hainitçac sendatu cituen bere eritasunetaric, eta çaurietaric, eta ispiritu gaichtoetaric; eta hainitz itsuei bihurtu çaroen ikhustea.

22. Ihardetsi çaroen guero : Cohazte, eta erroçue Ioanesi cer entçun duçuen eta cer ikhusi; itsuec ikhusten dutela, mainguac badabiltçala, sorhaiioac chahuturic diradela, entçuten dutela elkorrec, phizten diradela hilac, adi-arazten çaroela Eban-yelioa beharrei;

**23.** Eta corionezcoa da nitaz gaiz-bideric harten eztuena.

**24.** Ioan cirenean Ioanesen meçulariae, hasi citçaien Jesus erraiten osteei Ioanesoz : Ceren ikhusten içan çarete mortuan ? Hainceac darabilan sesca baten ?

**25.** Ceren ikhusterera ordean ialgui çarete ? Soin ehti beroz iaunzten den baten ? Soineko kharioetan eta atseguinetan dabiltçanac, erregueen iaureguitan dirade.

**26.** Ceren ikhusten beraz içan çarete ? Profeta baten ? Bai nasqui ; eta diotsuet, profeta baino guehiagoco baten.

**27.** Hori da ecen ceintaz isquiribatua baita : Huna non egorteen dudan ene aingueraçure beguithartearen aitcinean ; hare aphainduco du çure aitcinean çure bidea.

**28.** Beraz bada erraiten darotçuet : Emaztetaric iaio direnetan, Ioanes Baptista baino handiagoco profetaric nehor ezta ; halaric ere Iaincoaren erresuman ttipien dena, handiago da are hora baino.

**29.** Horiec aditcearequin, populu guciac, eta bai Publicanoec, aithor emaiten cioten Iaincoari, hartu içan baitçuten Ioanesen bathaioa.

**30.** Pharisauec ordean eta leguearen era-khasleec, ezpaiteiren hare bathaiatuac, arbuiatu çuten Iaincoac eman nahi çaroen onguia.

**31.** Erran çaroen bada Iaunac : Norequin beraz bardincatuco ditut mende huntaoco guionac, eta nor dirudite ?

32. Bardin ditezque haur batçuequin, ceinac carrica erdian elkharrequin mintço baitaude, diotela : Chirola io darotçuegu, eta etçarete iauciz hari içan; cantatu darozquitçuegu auhenac, eta eztuçue nigar eguin.

33. Ecen ethorri da Ioanes Baptista, eztuela iaten oguiric, ez eta ere edaten arnoric, eta dioçue : Deabruac dauca.

34. Ethorri da guero guiçonaren Scmea, iaten duela eta edaten, eta dioçue : Horra guiçon bat cintçurcoia eta arno edalea, Publicanoen eta bekhatoreen adisquidea.

35. Bainan çuhurtcia bere umeeec çagutua içanen da çuhurtciatçat.

36. Othoiztu çuen bada pharisau batec haren baithan iateaz, eta haren etchean sarthuric, eman cen mahainean.

37. Eta hiri hartan çagoen emazte galdu batec, iaquin çueneco pharisauaren etchean mahainean iarria cela, ekharri çuen alabastrazco charro bat, urrin goçozco olio bat barnean.

38. Eta guibeletic haren oinetan cegoela, hasi citçaion nigarrez oinen bustitzen, eta buruco adatsaz (1) chukhatzen, eta çangoeitan musu emaiten, eta gantçutzen olio goçoz.

39. Pharisau iatera deithu çuenac, ikhus-tearequin hori, baçarasan bere baithan : Baldin hori profeta balitz, balaquique ei-

(1) *Adatsa*, ilea, berociqui emazteec lodi hazten dutena; ile-adatsa edo cherloa.

qui nor eta nolacoa den hunquitcen hari  
çaion emazte hau, gaizqui biei dena baita.

40. Orduan berari cegocoela, erran cioen Iesusec : Simon, banuque curi galde bat eguiteco. Ihardetsi cioen : Eguidaçu, Nau-sia.

41. Hartcedun batec bacituen bi çorduru; batac çor ciotçan berrehun eta berrogoi eta hamar libera, bertceac hogoi eta bortz;

42. Bainan ezpaitçuten nondiebihur, guibelat utci çazten bici. Ceinec othe du maite guehienic?

43. Ihardetsi cioen Simonec : Ene ustez, guehienic utci citçaionac. Diotsa Iesusec : Bidezqui (1) erran duçu.

44. Eta emaztea ganat itçuliric, erran cioen Simoni : Ikhusten duçu emazte hau? Sarthu naiz çure etchean; uric eztarotaçu eman çangoen garbitceco; hunec ordean nigarrez busti dait, eta adatsaz chukhatu.

45. Pot bat eztarotaçu eman; eta hau, sarthu denetic hunat, ene oinei musu egui-tetic ezta guelditu içan,

46. Olioz eztarotaçu gantçetu burua; bainan hunec bere urrin goçoaç ichuri darozquit oinctarat.

47. Hargatican erraiten darotçut : Barkhatcen çािzeo hoben hainitz, hainitz mai-thatu duelacotz; alabainan gutiago barkha-teen çaisonac, gutiago maithatcen du ere.

48. Orduan erran cioen emazteari : Barkhatuac çazquitçu çure bekhatuac.

(1) *Bidezqui*, chuchen, behar beçala.

49. Eta harequin batean mahainean ci-renac, hasi ciren erraiten bere baithan : Nor othe da hau, bekhatuac ere barkhatcen baititu ?

50. Guero erran cioen emazteari : Çure sinhesteae salbatu çaitu; çohaz baqueare-quin.

---

### VIII. CAPITULUA.

*Haciaren iduripena bere chehatcearequin. Argua gaitçuruaren pean. Iesusen eguiazco egoquiac. Ekhaitça ematcen du, deabru eli bat (1) cherrietarat egozten, emaztearen odol iaritcea baratcen, phizten laironen alaba hila.*

1. GUERO ondoan cihoan Jesus hiriz hiri eta herriz herri, predicatcen çuela eta era-khasten Iaincoaren erresuma ; eta harequin ciren hamabiac;

2. Bai eta emazte batçu ere, sendatu içan cituenac ispiritu gaichtoetaric eta bere eritasunetaric : hala nola Maria Magdalena çaritçana, ceina ganic ilkhi baitciren çazpi deabru ;

3. Ioana, Khusa, Herodesen etchearen arthatçailaren emaztea, Susanna, eta bertee cembait, hainitz bere onthasunetaric lagunteen çazconac.

(1) *Etia*, araldea, multçoa.

4. Bada oste handi batçu bildu baiteiren, hirietaric hura gana heldu cirela, erran çaroen iduripenetan.

5. Ialgui cen ereilea bere haciaren ereitera; eta ereiten hari cela, erori ciren bihi batçu bide bazterrera, eta aurizquituac içan ciren (2).

6. Bertee bihi aralde bat erori cen harrien gainerat, eta hocitu ceneco, ihartu cen, ceren ezpaitçuen hecetasunie.

7. Bertee bat erori cen lapharr ac handituric, itho çuten.

8. Bertee bat erori cen lur onerat, eta sorthu eta, eman çuen ehunetan hambat. Horiec erraitearequin, cioen oihuz : Beharriric duenac aditceco, adi beça.

9. Dicipuluec bada galdetu cioten, ceric othe cioen iduripen horrec.

10. Ihardetsi çaroen : Çuei emana içan çaitçue eçagutcea Iaincoaren erresumaco gauça gordeac; bertcei, iduripenetan bai-cen ez; dakhusatelaric eztiten ohart, eta dantçutelaric ezteçaten adi.

11. Huna beraz ceric den iduripena : Hacia, Iaincoaren hitça da.

12. Bide bazterreco bihiac, dira hitça entçuten dutenac; guero ethorteen da deabrua, eta edequitcen daroe hitça bihotce-taric, ezteçatentçat sinhets, eta eztaitecen salba.

(2) *Aurizquitua*, oinen azpian çaphatus.

43. Harri gainerat eroriae, dira, hitça entçunie, hartcen dutenac bozcariorequin; ordean erroric eztute, sinhesten dute ecen aphur batentçat, eta heldu da bai gudeo ordua, ihes dohaz.

44. Eta laphar arterat eroriae, dira hitça entçun dutenac, bainan mende huntaco antsiec, eta aberastasunec, eta atseguinec, egun gutiric barnean, ithotcen diote, eta eztakharquete deus onic.

45. Lur onerat erortcen direnac bada, dira, hitça entçunie bihotz on eta samur batequin, beguiratcen dutenac, eta behar dena ekhartcen, iasinez eta iraunez.

46. Ez bide da nehor, argui bat phiztu ondoan, untei batez cucuteen eta ohe azpian eçartcen duenie; bainan bere toquian emaiten ohi du, sartcen direnec ikuhs de-çatentçat.

47. Ecen ezta gauça estaliric, aguerdeen eztenic; ez eta gorderic, eçagutcen eztenic eta argui bethera eztathorrenic.

48. Euçue beraz artha, nola aditeen du-çuen; ecen iadanic duenari, emanen çaoe, eta eztuenari, duela uste duena ere ede-quiren çao.

49. Bizquitartean ethorri citçaizcon ama eta anaiaac; eta ostearen gatic ecin hurbil cequidizquion.

50. Erran cioten bada : Çure ama eta anaiaac hara han daudez, çu ikuhsi nahiac.

51. Bainan ihardetsi çaroen : Ene ama eta anaiaac dira, Iaincoaren hitça entçuten dutenac eta eguiten.

22. Egun batez, igan cen untcitto batera, bere dicipuluequin, eta erran çaroen: Iragan gaitecen aintciraren bertee alderat. Eta ioan ciren.

23. Eta cihoacela, loharcatu cen; eta iautsi cen aintcirarat haice tulubio bat, hain gaitça, non urez bethetcen baitciren, eta hondatcera cihoacen.

24. Berehala hurbildu citçaizcon dicipuluac, eta iratçarriric, erran cioten: Nau-sia, galteera goaz. Bainan harc, iaiquirie, mehatchatu cituen haicea eta itsasoco uhinac, eta emeric ichildu ciren.

25. Orduan erran çaroen Iesusec: Non da çuen sinhestea? Eta hec icituac, eta miresten çutela, cioten elkarri: Nor othe da bada hau, haiceei eta itsasoari aguinteen baitaroe, eta entçuten baitute?

26. Eta guero leihor hartu çuten Yer-sendarren herrian, ceinac eguiten baitio Galileari aurkhiz aurkhi.

27. Eta lurrerat iautsi cen beçala, bathu citçaioen guiçon bat, ceina baiteen deabruac hartua aspaldi hartan, eta çabilana biluz-gorri, etçuela bertee atherberic hilhobiak baicen.

28. Hura, Iesus ikhusi çuenecotz, hei-agoraz aurthiqui citçaioen oinetara, ciotsala: Cer çaitçu enequin, Iesus laun goicoaren Semea? Othoi, eznaççaula oinhazca.

29. Manateen cioen ecen Iesusec ispiritu lohiari guiçon hartarie ilkhi çadin. Eta deabruae, aspaldi çuela, gogorqui çarabilan,

halatan non gatbez eta cephoz lothurie bai-  
ceducaten; halaric ere estecailu guiac phor-  
roscatuz, baçaraman basoan barna.

30. Galdetu cioen beraz, Iesusec : Nola  
duc icena ? Diotsa : Saldoa (1) : ceren hai-  
nitz deabru baitciren guïçon hartan sar-  
thuac.

31. Eta othoizca cegozcon, etceçoten le-  
cerat ioaitea mana.

32. Baceen bada han cherri saldo handi-  
bat, alha cena mendian; eta othoiztu çu-  
ten deabruec utz cetçan cherri hetan sar-  
teera; eta utci ciüen.

33. Ilkhi ciren bada guïcona baitharie,  
eta sarthu ciren cherrietan; eta saldo gucia,  
oldar harturie, iauci cen gain behera ain-  
tceirarat, eta han itho cen.

34. Hori ikhusi çuten beçain sarri, cherri  
çainec ihesari eman cioten, eta ioan ciren  
erraitera cer iragan içan cen hiri eta herri  
ingurunecoetan.

35. Ilkhi ciren beraz ikhusteria, eta ethorri  
ciren Iesus gana; eta aurkhitu çuten dea-  
bruec utci guïcona, iarriric, iauntzia, bere  
baithan, Iesusen oinetan cegoela; eta icitu  
ciren.

36. Ikhusi çutenec ere erran cioten nola  
eta nola atheratu citçaioen deabru araldea.

37. Orduan Yerasendar guiec eguin ciot-  
en othoitz, arren urrun çadin hequien al-  
dirietarie; ecen guciz ikharan çauden. Igan  
cen beraz bere untceirat, itçultceco.

(1) *Saldoa, araldea, multçoa, elia,*

38. Eta othoitcez cegocon deabruuec utei  
guiçona, har çeçala berequin. Bainan guib  
belat egorri quen Iesusec, ciotsalarie:

39. Bihur çaité çure etcherat, eta erraçú  
çure alderat cembat egun içan duen Iain  
coac. Ioan een hora, eta barraiatu cituen  
hiri gucian Iesusec egun ciotçan ongi  
handiac.

40. Bihurtcean, hartu quen Jesus oste  
gogor batec; ecen oro haren beguira çau  
decen.

41. Eta berehala iin citçaoen guiçon bat,  
çaritçana Iairo, biltçarreco buruçagui cena;  
eta ahuspecaturic, galdeguiten cioen, othoi  
sar çadila haren etchean;

42. Alaba bakhar bat quela ecen, hurbil  
hamabi urthe cituena, azquen hatsetan. Ha  
requin cihoala bada Jesus, osteeec hersten  
cuten.

43. Eta emazte bat, hamabi urthe be  
thet odol galtee batequin cena, eta bere on  
thasun gacia acheterretan (1) chahutu içan  
çuena, deus hoberic gabe,

44. Hurbildu citçaoen guibeletic, eta  
hunquitu cioen soinecoaren ezpaina, eta  
ordu beretic baratu citçaoen bere çarion  
odola.

45. Erran quen Iesusec: Nor da hunquitu  
nauena? Eta nola guciec ukhatcen baitçu  
ten, Piarresec eta harequin cireneç erran

(1) *Acheterra*, erran nahi da osaguina, mîricua,  
sendaquina.

vioiten : Nausia, osteeec alde orotariec hers-  
ten çaituzte, eta hurbil lehertcen, eta galde  
duę norec hunqui çaituen ?

46. Ihardetsi çaroen Iesusec : Bai, nore  
edo norec hunqui nau; ecen eçagutu dut  
ilkhitcen bothere bat ni ganie.

47. Orduan ikhusiric emazteac ecin gorde  
çaitequela, ethorri cen ikharan, aurthiqui  
cen haren oinetara, eta erran cioen, oro-  
ren aitcinean, cergatic hunquitu içan çuen,  
eta nola betbetan içan cen onguitua.

48. Erran cioen bada Iesusec : Ene  
haurra, çure sinhesteari esquer, osagarria  
duę; çohaz baquearequin.

49. Nola mintço baitcen oraino, ethorri  
citçaioen norbait biltçarreco buruçaguiari,  
ciotsala : Hil da çure alaba; ezteçaçula nau-  
sia akhit-araz guehiago.

50. Entçun çuen Iesuseo, eta erran cioen  
nechcaren aitari : Etçarela lotsa; bainan  
sinhetsaçu, eta ontsatuco da.

51. Etchera heldu cenean, etçuen nehor  
utei sartcera, lekhat Piarres, eta Iaques,  
eta Ioanes, eta nechcaren aita eta ama.

52. Nigarrez çauden bada guciac eta au-  
henez; eta erran çaroen : Eztaguiçuela ni-  
garric; ecen ezta hila nescatcha, bainan lo  
datça.

53. Eta burlateen citçavezcon, baitçaqui-  
ten hila cela.

54. Ordean Iesusec, escua ceducola, er-  
ran cioen oihu batequin : Haurra, iaiqui  
çaita.

55. Eta bihurtu citcaion hatsa, eta bertan chutitu cen. Eta manatu cuen eman cequiola iatera.

56. Eta espantatu ciren haren burhasoac; eta debecatu çaroen Iesusec nehori etcioçoten erran cer guerthatu içan cen.

---

## IX. CAPITULUA.

*Apostoluac egortcen ditu predicatcera. Herodesec ikhusi nahi du. Bortz oguien ikhusgarria. Piarresen aithorra. Khurutceaz, eta bere buruaz ukhatceaz. Itchuraz aldatcen da Iesus. Haur ilhargui-arteduna sendatcen du, bere pairamenaz aiphatcen. Aphaltasunaz. Iaquesec eta Ioanesec ceruco sua erautsi nahi dute. Nola behar den Iesusi iarrai qui.*

1. GUERO bere ganat erakharriric hamabi apostoluac, eman çaroen Iesusec indar eta escu deabru gucien gainean, bai eta eritasun gucien ontsatccotçat ere.

2. Eta egortcen cituela laincoaren erresumaren barraiatcera, eta eriei osagarriaren bihurtcera,

3. Erran çaroen : Ezteçauela deusic era man bidecotçat, ez cigar, ez çarpa, ez labore, ez diru, eta ezteçauela içan bira aldagari.

4. Eta cein etchetan ere sarthuco baitçate, çaudete han, ez ilkhi handie.

5. Eta norbaitec ezpaçaituzte hartu nahi, athera çaitetzte hiri hartaric, eta çuen oinetaco herrautsa iharros dioçoquete, içan deçaten lekhucotasuntçat bere gain.

6. Ioan ciren bada herriz herri, adi-arazten çutela Ebanyelioa, eta eriac ontsateen citutzela alde orotan.

7. Bizquitartean Herodes Gobernadoreac entçun içan çuen aiphateen Iesusec eguiten cituen gúciez, eta etçaquien certan berma,

8. Baitcioten batçuec : Ioanes cela hiletaric phizturie; bertceec : Elias cela aguer teen cena; bertceec berriz : Lehenagoco Prefetitaric bat cela hiletaric iaiquia.

9. Bainan Herodesec cioen : Ioanesi nic burua ebaqui içan diot; nor da beraz han, ceintaz horrelaco gauçac aditeen baititut? Eta nahi çuqueen ikhusi.

10. Bihurtu cirenean, erran cioten apostoluec cer eguiñ çuten. Eta berequin harteen cituela, aldaratu cen bakhar toqui mortu batetarat, Bethsaidaco ondorat.

11. Bainan iaquin çutenecoostecc, iarrailqui citçaizcen; eta Iesusec ongui-ethorri eguiñ çaroen, mintçatcen citçaiela laincoaren erresumaz, eta beharric çutenac ontsateen cituela.

12. Beheratuz cihoan bada eguna, eta iin citçaizcon erraitera hamabiac : Egor eçatçu oste hanc, dohacen inguruneco herri eta herrichquetarat, eta aurkhi deçaten han etçauntça eta iatecoa; ecen toqui hasan gara hemen.

13. Ihardetsi çaroen : Emoeçue cebonec iatera. Eta hec erran cioten : Eztitugu eta bortz ogui eta bi arrain baino guechiago; ala nahi duçu goacen hauquien ororentçat iateco erostera?

14. Baciren ecen bortz mila guiçon edo. Erran çaroen Iesusec : Iar-araz eçatçue sailca, berrogoi eta hamarnaca.

15. Hala egun çuten, eta iar-araci cituzten.

16. Orduan Iesusec, bortz oguiac eta bi arrainac harturic, beguiac cerurat altcha-  
cen cituela, othoitz egun çuen hequien gainean, hautsi cituen, eta eman çarozten  
dicipuluei, eçar çarozquitela aitcinean os-  
teei.

17. Eta ian çuten guciec, eta ase ciren;  
eta guelditu ciren cathietaric, goititu cituz-  
ten hamabi sasquitara.

18. Behin batez, bakharric bere dicipu-  
luequin othoitcean cegoela, galdeguin çar-  
oen : Nor naicela diote osteeec?

19. Ihardetsi cioten : Ioanes Baptista;  
berteecc Elias; bertee batçuc berriz, aitcina-  
goco profetataric bat phizturi.

20. Erran çaroen berriz : Eta çuec nor  
naicela dioçue? Simon Piarresec ihardetsi  
cioen : Christo Iaincoarena.

21. Iesusec bada hertsiqui debecatu çar-  
oen, nehori holacoric ez erraiteaz,

22. Ciostela : Behar dena da guiçonaren  
Semeac hainitz iasain deçan, eçar deçaten  
gaichtoequin Caharrec eta Aphez-nausiec,

eta Isquiribauec; eta hil-araz deçaten, eta hereneco egunean phitz dadin.

23. Guero ciosten guciei : Baldin nehor ene ondotic ethorri nahi bada, eguin bioça bere buruari ukho, eta iasain beça bere khurutcea egun oroz, eta niri berrait.

24. Ecen bere bicia beguiratu nahico duenac, galduco du; eta galduco duenac ni gatic bere bicia, beguiratuco du.

25. Eta cer lihoaque guiçonari mundu gucia irabacirican ere, baldin here caltetan hari bada, eta bera gal badadi?

26. Eeen nitaz ahalque içaiten bada norbait, edo ene hitcez, halaber hartaz ahalque içanen da guiçonaren Semea ere, noiz ere ethorrico baita bere arguitasunean, eta Aitarenean, eta ainguera dohatsuenean.

27. Erraiten darolçuet bada eguaia, badira hemen direnac, ceinec herioa ezpaitute dastatuco, Iaincoaren erresuma ikhus deca- ten arteraino.

28. Hitz horiec erranez gueroztic çortei egunen buruan edo, hartu cituen berequin Piarres, eta Iaques, eta Ioanes; eta igan een mendi batetara, othoitz eguitera.

29. Eta othoitcean cegoelaric, eguin cen haren beguithartea bertce bat, eta haren soinecoac churi-min eta arguitsu.

30. Eta betbetan aguertu ciren bi guicon harequin mintço cirela; ciren bada hec Moises eta Elias;

31. Berac ere distiadura handitan, eta mintço ciren haren mundutic ilkhiteaz, Jerusalemen guerthatu beharra cenaz.

32. Bizquitartean Piarres, eta haren lagunac lo cihoacon; bainan iratçarturie, ikhusi çuten Iesusen edertasuna, eta harequin egeocen bi guionac.

33. Eta hec Iesus uzteria cihoaclaric, Piarresec erran cioen Iesusi : Nausia ongui gara hemen; eguin detçagun bada hirur olha, curetçat bat, Moisesentçat bat, Eliasentçat bat; etçaquien ecen cer cerasan.

34. Eta horrela mintço cela, iautsi cen hedoi bat, eta estali cituen; eta ikhustearquin hedoiean sarteen cirela, icitu ciren.

35. Ilkhi cen bada boz bat hedoietic, cioena : Hauche ene seme maitea da; entçun eçaque hau.

36. Eta mintço cela boça, Iesus aurkhitu cen bakharric. Dicipuluac bada ichilic egon ciren, eta ikhusi cituztenetaric, etçuten orduan nehori deus ere salhatu.

37. Biharamunean, menditic iausten circlaric, ethorri citçaien iendetce handi bat bidera.

38. Eta iendetcearen artetic, hasi citçaison oihuz guion bat : Nausia, beha eçaque, othoi, ene semea ganat, ceren bakharra baitut.

39. Ispiritu bat lotcen çao, eta betbetal ichquirituz eçartcen du, aurthiquitcen du, dardaratcen du, çarrapoa dariola, eta nequez uzten du, çathicatu duen ondoan ere.

40. Othoiztu içan ditut çure dicipuluac,

arren khen dioçoten, eta ecin eguin dute.

41. Erran çuen orduan Iesusec : Oi khasta sinhes-gaitz eta gaizeoatua ! Noiz artean çuequin içanen othe naiz, eta noiz arteraino iasainen othe çaituztet. Ekharracu cure semea hunat.

42. Eta haurra hurbilcearequin, aurthi-qui çuen deabruac, eta iharrosi çuen gorqui.

43. Bainan Iesusec mehatchatu çuen ispiritu lohia, eta haurra ontsaturic, bihurtu cioen aitari.

44. Çauddeen bada guciac espantutan Iaincoaren ahal handiaz; eta horrela miresten cituztela oroc eguiten cituenac, erran çaroen bere dicipuluei : Har ecaque hauche quee barna çuen bihotcetan : Guiçonaren Semea içanen da guiconei saldua.

45. Bainan hequiei etcitçaien heltcen hitz hori, eta estalia beçala citçaien, halatan non ezpaitçuten aditeen neholere; eta beldur ere ciren galderic eguitea horren gainean.

46. Eta iarri ciren bere baithan gogoe-  
tan, hea cein cen hetaric handiena.

47. Bainan Iesusec, hequien bihotec  
gogoetac ikhusiric, hartu çuen haurtto bat,  
eta bere aldean ecarri eta,

48. Erran çaroen : Baldin norbaitec haurtto hau har badeça ene icenean, ni harteen nau; eta ni harteen nauen oroc, harteen du ni egorri nauena; eta çuen gucien artean chumeen dena, hora da handiena.

49. Orduan erran cioen Ioanesec : Nausia, ikhusi dugu guiçon bat deabruac egozten cituena çure icenean, eta eragotci dugu, ceren ezpaita gurequilacoetaric.

50. Ihardetsi cioen Iesusec : Ezteçaquela debeca; ecen çuen etsai eztena, çuen alde da.

51. Hurbiltcen cirelaric haren mundutic ilkhitceco egunac, lothu cen bihotz eta beguitharte sendorequin Ierusalemenco bideari.

52. Eta egorri cituen mandatariac bere aitcinean, ceinac sarthu baitciren Samaritanoen herri hatean, behar cenaren aphainteecotçat.

53. Bainan hangoeç etçuten nahi içan ostattatu, eşagutu baitçuten Ierusalemerat cihoala (1).

54. Ikhusi çutenean bada hori haren dicipulu Iaquesec eta Ioanesec, erran cioten : Iauna, nahi duçu erran dieçogun ceruco suari iauts dadiela holacoen gainera, eta irets detçala ?

55. Bainan itçuliric, larderiatu cituen, cioela : Eztaquique cer ispiritutaco çareten.

56. Guiçonaren Semea ezta iin içan nehoren galteera, bainan bai salbatcera. Eta bertee herri batetara ioan ciren.

(1) Samaritanoac ciren Iudutarretaric temploz berenciae, eta baçuten berea Garizim çaritçan mendi gainean ; uste çuten ere han baicic etcitequela cil-hegui Iaincooren adoratcea ; hargatic guti onhesten cituzten Ierusalemenco templorat cihoacenac.

57. Bidean cihoacelaric, erran cioen norbaitec : Norat nahi çohacen ere, iarrai-quico natçaitę.

58. Iesusec ihardetsi cioen : Aceriec bere cilhoac badituzte, eta bere ohantceac cho-riecc : ordean guïçonaren Semeac eztu burua non etçan.

59. Erran cioen bada bertee bati : Iar-  
raic çaquizquit. Ihardetsi cioen harc :  
Jauna, banohaquea lehenic ene aitaren  
ehorzteria?

60. Erran cioen Iesusec : Begote hilei  
bere hilen ehorzteco artha; behintçat çu,  
çohaz, eta Jaincoaren erresuma adi-araz  
eçaçu.

61. Bertee batec berriz erran cioen : Jar-  
raiquico natçaitę, bainan utz naçaçu le-  
henic etchean ditudanei agur erran dieço-  
tedan.

62. Ihardetsi cioen Iesusec : Baldin nor-  
baitec, goldeari escuz lothuz gueroz, gi-  
belat beha badeça, ezta on Jaincoaren er-  
resumacotçat.

## X. CAPITULUA.

*Iesusec egortcen ditu hirur hogoi eta hamabi dicipuluac predicatcera. Hiri urriquitu nahi gabeac. Iaquintsunei gordetcen direnac, aphalei aguertcen dirade. Samaritanoaren iduripena, Iesus Martha eta Maria baithan.*

1. HAUQUIEN ondoan, bereci içan cituen oraino launac bertce hirur hogoi eta hamabi dicipulu, eta egorri cituen birazca bere aitcinean, berac ioan behar çuen hiri eta herri gucietara.

2. Eta ciosten : Uzta handia da, bainan languile guti; othoitz eguioque beraz uztaren iabeari, irion (1) detçala bere uztarat languileac.

3. Çohazte; huna non egortcen çaituztedan bildots batçu otsoen artera beçala.

4. Eztaramaçuela ez chisuric, ez çakharic, ez çapataric; eta bidean nehori czatioçoquela agurric eguin.

5. Cein nahi etchetan sar çaitezten, erraue lehenic : Baquea duela etche hunec.

6. Eta baldin edireiten bada han baquezco umeric, iautsico da çuen baquea haren gainerat; ezperen (2), bihurtuco da çuen ganat.

(1) *Iriontea*, egortcea, bidaltcea.

(2) *Ezpere*, *ezperen*, bertcela.

7. Etche berean egon çaitsezte, iaten du-  
çuela eta edaten hequien baithan denetic;  
çor çaoi ecen bere saria languileari. Etço-  
haztela etche batetic bertcera.

8. Eta cein nahi den hiritan sar çaitez-  
ten, baldin gogo onez hartzen baçaituztete,  
ian eçaçue aitcinera emaiten çaitçueneta-  
ric.

9. Ontsa eçatçue han diren eriac, eta  
erroeçue : Hurbil da cuen ganie Iaincoaren  
erresuma.

10. Bainan eein nahi hiritan sar çaitez-  
ten, ezpaçaituztete harti nahi, ilkhi çai-  
tezte carriquetara, eta erroeçue :

11. Cuen hiritic lothu çaiquegun her-  
rautsa ere iharrosten darotçuegu çorigai-  
testan çuentçat; gucia gatic ere, iaquieçue  
hau, hurbil dela Iaincoaren erresuma.

12. Diotsuct eguiaz, Sodomoarrei egun  
hartan emequiago eguinien çaiela hiri hari  
baino.

13. Ondico hiretçat Corozain; ondico hi-  
retçat Bethsaida; ecen cuen baithan egui  
içan diren espantuac, Tiren egui içan ba-  
llira eta Sidonen, aspaldi çuqueen urriqui-  
tan sarthuco cirela, çurdatcean (1) eta hau-  
tsean çautçala.

14. Hargatic bada Tiri eta Sidoni ezi-  
quiago iaçarrico çiae iudicioeo egunean,  
quei baino.

(1) *Curdatçea*, çurdaz, eta ile çorrotcez eguiten  
den soineco édo guerrico bat da, larru gorriaren  
gainean penitentiaz ekhartzen dena.

45. Eta hi, Capharnaum, ceruraino goitiuaz ohana, pulumpatua içanen haiz ifernurainocoan.

46. Çuec entuten çaituztenac, ni neroni entuten nau, eta çuec hastio çaituztenac, ni neroni hastio nau; bada ni hastio nauenac, ni bidali nauena hastiotcen du.

47. Itçuli ciren bizquitartean, hainitz bozturic, egorri içan etiuen hirur hogoi eta hamabiaec, ciotsotela : Iauna, çure icenean deabruei berei nausitcen gara.

48. Ihardetsi çaroen Iesusec : Ikhusten nuen Satanas chismista beçala cerutic erorteen;

49. Bainan eman darotçet çuei abala osticatceco sugueac, harruliac (1), eta etsaiaren indarrac oro; eta eztarotçue calteric eginden deusec ere.

50. Halarican ere etçaitetzela bozearia ispirituae garhaitcen ditutçuelacotz; bainan bozearia çaitzte ceren çuen icenac ceruetan isquiribatuac diren.

51. Ordu hartan berean iauci citçaison bihotça Iesusi, Ispiritu Sainduac ioric, eta erran çuen : Aithor darotçut, ene Aita, ceru-lurren labea, ceren hauc gorde bai-tiotçatçute adituei eta çuhurrei, eta chumeei aguertu. Bai eiqui, Aita, ceren horrela lakhet duçun.

52. Gauça guciac eman darozquit niri ene Aitac; eta nehorc eztaqui nor den Se-

(1) *Harrulia, har-ulia, edo harluia, harrubia, harrobioa.*

mea, Aitac baicen; ez eta nor den Aita, Semeac baicen, eta Semeac eracutsi nahi içan dioenac.

23. Eta bere dicipuluetarat itçuliric, erran çuen : Çorionezco dirade, quec dakhusquitçuen gauçac, dakhusquitçaten beguiac.

24. Ecen egniazqui diotsuet, profeta eta erregue hainitceec nahi içan dituztela ikerri quec dakhusatçuenac, eta ezpaitituzte ikerri; eta entçun quec entçuten ditutçuenac, eta ezpaitituzte entçun ahal içan.

25. Orduan leguearen erakhasle bat altzhatu cen, eta erran cioen, haren cuhnrtzia haztatu nahiz : Nausia, cer eguinic ardiets deçaquet bethiereco bieitea?

26. Erantçun cioen : Cer da emana leguean? Nola iracurteen duçu?

27. Erran cioen hunec : Onhets eçaçu çure Iaineo Iauna ceure bihotz guciaz, eta ceure adimendu guciaz, eta ceure indar guciez, eta ceure gogo guciaz; eta halaber çare hurco laguna ceroni beçala.

28. Erran cioen Iesusec : Ongui ihar-detsi duçu; eguiçu hori, eta bieico çara.

29. Hare berriz, guiçon çucentçat aguertru nahiz, erran cioen Iesusi : Nor da ene hurco laguna?

30. Horren gainean erantçun cioen Iesusec : Guiçon bat behin cihoan Ierusalemetic Ierikhora; eta ohoiñ batçuen escuetara erori cen, eta biluci çuten, eta ukhaldica çaurthu, eta, erdi hila utciric, ioan ciren.

31. Guerthatu cen bada bide hartaz beraz iauts çadin aphez bat; eta guionga ikhusi çuen, bainan iragan cen aitcina.

32. Halaber Lebiren leinuko bat (1), hurbil celaric, eta ikhusi çuelaric, etcen tricatu, eta ioan cen.

33. Bainan Samaritano batec (2), bere bidean cihoala, ikhusi çuen, eta urricaldu citçaiion.

34. Eta hurbildu citçaioen, eta lothu ciotçan çauriac, gainera ichuriric olio eta mahats - arno; eta bere aberean eçarriac, eroan (3) çuen ostatu batetara, non ongui arthatu baitçuen.

35. Biharamunean atheratu cituen hogoisos, eta eman ciotçan ostatu çainari, ciotsola : Artha eçaçu guicon hori, eta garaitico chahutcen dituzquetçunac, berriz iragaiten naicenean,bihurtueo darozquitent.

36. Hirur horietaric bada, cein daritçaçu içan citçaiela hurco laguna, laphurren escuetara erori cen guicon hari?

37. Ihardetsi cioen harc : Urricaldu içan

(1) *Lebi* deitcen cen Iacoben seme bat, ceinaren ondokoae oro launaren temploco beharretan higatzen baitciren, eta bertceric nebor ez. Guciae ciren aphez, edo lebita, erran nahi da aphez, edo aphecen cerbitçari.

(2) Samaritarrac etsai ciren Iuduequin, eta ham-batenaz hunqningarriago da Iudutar bati Samaritano hunec eguiten dioen ona, bere aphez eta lebita baten ordain.

(3) *Eroan* edo eraman; hitz horiec bardin diote.

citçaioena. Diotso Iesusec : Çohaz, eta eguiçu çuc ere bertce hambertee.

38. Bidean cihoala Iesus, sarthu cen herri batean; eta emazte batec, Martha baitça-ritçan, hartu çuen bere etcherat.

39. Eta hunec baçuen ahizpa bat, dei-teen cena Maria, ceina, Jaunaren oinetan iarriric baitcegoen, haren hitçaren entçu-ten.

40. Martha bada, hainitz eguitecori buru eguin beharrez, hari baitcen lanean lehia handirequin, baratu citçaion Iesusi aitci-nean, eta erran cioen : Iauna, etçaitçu deusican ene ahizpac bakharric lanean uz-ten bainau ? Erroçu bada lagun naçala.

41. Bainan ihardetsi cioen Iesusec : Martha, Martha, khechateen cara eta an-tsiateen hainitz gaucez;

42. Bizquitartean bat bakharra da bai-tezpadacoa dena : Mariac aurkhintçaric ho-berena hautatu du, eta etçao khendua, içanen.

## XI. CAPITULUA.

*Nola behar den othoitz eguin. Deabru icila egozten du Iaunac. Hainitz erakhuspen emaiten ditu, eta Pharisauei garrazqui iaçartcen çiae.*

1. EGUN batez othoiteean cegoen Iesus toqui batean, eta guelditu cenean othoitce-tic, erran cioen dicipulu taric batec : Iauna

eracats dieçaguçu othoitz eguiten, Ioanesec ere bere dicipuluei eracatsi daroen beçala.

2. Iesusec beraz erran çaroen : Othoitz eguiten duçunenean, erraque : Aita, erabil bedi sainduqui çure icena; ethor bequigu çure erresuma;

3. Iguçu egun gure egûneco ogua;

4. Eta barkha dietçaguçu gure hobenac, guc gueronec ere barkhatcen baitaroegu gu ganat çordun diren guciei; eta ezcaitçatçula utz erorteera gaitcean.

5. Erran çaroen oraino : Çuetaric norbaitee badu adisquide bat, eta badohaco gau erditan erraitera : Adisquidea, eman dietçadaçu mailebuz hirur ogui;

6. Ecen ethorri çaut bidean cihoan adisquide bat, eta eztut escain dieçoquedanic.

7. Eta ihardesten dio guiçon harc barne tic : Utz naçaçu asaldatu gabe; athea ia her tsia dut, eta haurrac ohean, ni ere bai; ez naiteque iaic deusen emaitecotçat.

8. Baldin ordean bertcea atheari ioca badago, erraiten darotçuet egquia, ezpadieço ere iaiquiric eman bere adisquidea duelacotz, bederen haren muthiritasuna gatic, iaiquico da, eta emanen diotça escas dituenae oro.

9. Halaber diotsuet nic : Esca çaitzete, eta emanen çaitçue; bilha eçaçue, eta edierenen duçue; io eçaçue, eta idequico darotçuite.

10. Ecen galdetcen duenac içaiten du; eta bilhateen duenac, aurkhiteen du, eta athea bulkhatcen duenari, idequico çao.

11. Ecen cein ahal da çuen artean aita, semeac ogua galdeacen badio, emanen dioquena harri bat? Edo arrain bat esca badaquio, emanen dioquena sugue bat?

12. Ala escain lioçaque harruli bat, arraultee bat esca baladi?

13. Baldin bada çuec, gaichto çaretenoc, badaquique gauça onen emaiten çuen umeei, cembatenaz are hobequi çuen Aita ceru-coac emanen bide daroe ispiritu ona, galde-teen diotepei?

14. Bertce aldi batez, deabru baten egozten hari cen, eta cen hora mutua. Eta khendu cioenean, eman cen mutua min-tçatcen, eta miresten çuten osteeec.

15. Bainan hango batçuec cioten : Beel-zebuth, deabruen aiteindariaren bidez, etchatecen ditu deabruac.

16. Eta bertce batçu, iaquitecotçat no-raino helteen cen haren ahala, cembait ce-ruticaco ihusgarriren esquez eegozecon.

17. Iesusec, ihusi çueneco cer çarabi-laten bere baithan, erran çaroen : Bera berari iaçartcen den erresuma, eceztatua iça-nen da; eta berac bera iauquitcen (1) badu etche batec, erorico da.

18. Satan beraz, bera berari bihurritcen баçao, nola egon daite haren erresuma chutie? Erraiten baituque Beelzebuthen bidez khentcen ditudala nic deabruac.

19. Eta nic Beelzebuthen indarrez iraiz-

(1) *Iauquiteea*, erran nahi da *atacatcea*, dio-tena esclalgaitcez.

ten baditut deabruac, çuen umeeec norencz khentcen dituzte bada? Hartaracotz hequiec berec gueçurtitçat eracutsico çaituztete.

**20.** Bainan ordean nic, Iaincoaren erhia enequin delacotz, egozten baditut deabruac, eguiazqui ethorri içan çaitçue Iaincoaren erresuma.

**21.** Baldinetariac guiçon hazcar batec bere hamequin bere athea çaintcen badu, ongui daude haren onae.

**22.** Baldin ordean hura baino hazcarrago batec, ethorrieric, azpira badeça, edeqnico diotça bere harmac, ceinetan baitçuen ustantça handia, eta khenduco diozcanac, bertcei emanen daizquio.

**23.** Ene alde eztena, ene etsai da; eta eztuenac enequin biltcen, barraiaticen du.

**24.** Ispiritu satsua ilkhitcen bada guiçon bat baitharic, badabila lekhu idor batçu gaindi, hatseden (1) bilha; eta ezpaitu aurkhitcen ahal, dio : Itçulico naiz ene etcherat, ceintaric ilkhi içan bainaiz.

**25.** Eta ethorri eta, khausitcen du erkhatçaz garbitua, eta aphaindua.

**26.** Orduan badoha, eta berequin harteen ditu bertee cazpi ispiritu bera baino areagoac; eta sarthuric, eguiten dute han bere egoitça; eta guiçon haren ondarreco cōria, guerthateen da aitcinecoa baino gaichtoagoa.

**27.** Horiec erraiten cituela, ostearen er-

(1) *Hatsedena*, descantsua, hatsa hartcea beçala.

ditic oihuz erran cioen emazte batec : Dohatsuac dira cu ekharri çaituen sabela, eta cuc edosqui ditutçun ugatçac.

28. Ihardetsi çuen : Aiteitie çorionezeo dirade Iaincoaren hitça entçuten dutenac, eta eguiten.

29. Osteac bada biltcenago hari cirelaric, hasi cen erraiten : lendaqui hau, iendaqui gaichto bat da ; ikhusgarri bat nahiz dabila, eta ikhusgarriric eztu ardietsiren Ionas profetaren ikhusgarria z bertcerie.

30. Ecen Ionas Ninibatarrei ikhusgarri içan citçaien eredura berean, halache içanen çiae guionaren Semea hauquiei.

31. Egüerdi aldeco erreguina altchatuco da iudicioco egunean mende huntaco guionen caltetan, eta aguerian emanen du sinhesgaitz direla; ecen ethorri içan cen hura, lurraren bertce bazterretie, Salomonen çuhurteiaren entçutera; eta huna hemen Salomon chitzen duena non den.

32. Ninibatarrac altchatuco dirade iudicioco egunean mende hunen caltetan, eta bihotz gogortçat eçagut-aracico dute; ecen urriquiac hartu cituen hec, Ionasec prediatu çaroen beçain sarri; eta huna hemen Ionas bainoagoa non den.

33. Nehorc eztu argui bat iracequitceen (1), guero toqui górdede batean eçarteeeo, edo

(1) *Iracequitcea*, edo phiztea; bertce batçuc diote oraino argui iritchiquia, icequia, eratchequia, ice-tua, argui datchecona; erraitecotçat phiztua dela.

erregu baten azpian; bainan bere toquian eçartean ohi dute, etchean sartean direnec dakhusatentçat.

34. Bada çure lohiaren (1) arguiçaguia da çure beguia. Baldinetariae çure beguia garbi bada, içanen da çure lohi gucia argitsu; baldin ordean gaizcoatua bada, halaber içanen da çure lohia ilhumbetsu.

35. Arthaemoçu beraz, eztadin içan çubaithaco arguia ilhumbe.

36. Eeen çure lohi gucia arguitan bada, eta ezpadu alderic batero ilhumbetan denic, içanen da osoqui arguitua, eta, arguiçagui distiant batec legnez, arguituoco çaitu.

37. Mintço celaric, Pharisau batec othoiztu çuen hura baithan barazcaltcerá. Sarthu een bada, eta iarri cen mahainean.

38. Eta has cedin bere baithan Pharisaua gogoeta, cioela : Ezpaititu hunec escuac ikhuci iarri baino lehen !

39. Erran cioen Iaunac : Quec Pharisauoc, gathiluaren eta ophorraren lekhoneeo aldea garbitcen ohi duçue; çuen barnea ordean bethea da harrapaqueriaz eta gaichtaqueriaz.

40. Careten beçalaco çoroac ! Lekhorecoa eguin duenac berac, ez othe du bada barnecoa ere eguin ?

41. Guciarequin ere, eguiçue amoina, eta içanen carete alde oroz chahu.

(1) *Lohia*, erraiten da gorputçarentçat.

42. Bainan corigaitz çuentçat, Pharisauac! ceren bihurcen ditutçuen hamarrenac itce-belharretic, eta bortu-saietic, eta baratce belhar mota guciataric; eta guibelerat uzten baititutçue çuentasuna eta Iain-coaren onhesgoa. Horiec egun behar cintuzten, bai; ez ordean gaineratecoae utci.

43. Çorigaitz çuentçat, Pharisaue! Ceren on daritçaquen biltçarretan lehen iartozquia, eta carriquetan agurra.

44. Çorigaitz çuentçat! Ceren iduri baititutçue hil-hobi agueri eztiren batçu; ceinen gainean baitabiltça guiconac, eztaquitela ceren gainean.

45. Orduan ihardesten cioela, erran cioen leguearen erakhasle batec : Nausia, gu ere laidotzateen gaituçu, horrela mintzatzeaz.

46. Bainan errau cioen : Bai, çuentçat ere, legue - erakhasleoc, çorigaitz! Ceren ecin iasainezeo sorthac (1) omaiten baititutçue bertceren bizcarrera, eta eebonee erhi batez ere ezpaititutçue hunquiteen.

47. Çorigaitz çuentçat! Profetei altchatseen baitaroeçue hil-hobi ederric, hil-araci dituztelaric çuen aita egoguiec berec.

48. Bai, eztaite bertcela; erakhusten duçue hequier eguintçac hartzen ditutçuela cebonen gain, altchatseen darozquioteçuenaz gueroz hequier hil-araciei hobiac.

49. Hartaracotz ere erran içan du launa-

(1) *Sortha*, edo çama, cargo, bekharra.

ren ęuhurciae : Profetac eta Apostoluac egorrico daroztet; eta batçu hilen dituzte, bertee batçu gogorqui erabiliren;

50. Ihardets deçantçat mende hunec, munduaren hatsarretic ichuri içan den profeta gucien odolaz,

51. Hasi Abelen odoletic, eta Zakhariassen odoleraino, ceina hil içan baitute al-darearen eta temploaren artean. Are beriz ere diotsuet, ihardetsi beharco du mende hunec.

52. Corigaitz ęuentçat, legue-erakhasleac! Ecen hartu duęuen ondoan iaquintasunaren guiltça, etçarete sartu cebonec, eta sarteera cihoacenac, debecatu ditutçue.

53. Horrela minteo çaroelaric Iesus, hasi citçaizcon Pharisauac eta legue-erakhasleac hersten hazcarqui, galdea galdearen gainean eginez, choratcen ęutela,

54. Eta celatan ęaudela, cerbait haren ahotic eradoqui aiherrez, hatceman ceçatentçat, eta guero gainerat eman cieçotençat.

---

## XII. CAPITULUA.

*Iesusen hainitz erakhaspenez; hala nola Iau-naren beldurtasunaz, Ispiritu Saindua ez gaizqui crabilceaz, cikhoiztasunetic hastantceaz, bici-bideaz antsiaric ez içaiteaz, bakharric Jaincoaren bilhatceaz, atçartasunaz, sehi onaren eta sehi gaichtoaren saristatceaz, cerutic lurrerat iautsi suaz, etsaiequin antolatceaz,*

**1. BIZQUITARTEAN** oste handiac bildu baitieren Iesusen ingurutara, halatan non el-kharren gainzea ioanez, batac bertcea aurizquiteen (1) baitzen, hasi citçaien erraiten bere dicipuluei : Beguirauen Pharisauen altchagarritic, ceina baita onguia-ren itchuran gaizquia.

**2.** Ecen ezta deus estalirie, aguertuko eztenic; ez eta deus gorderic, iaquinen eztenic.

**3.** Ceren ilhumbean erraiten ditutquenac, erranen baitira arguijan; eta beharri chilhora guelan erasi ditutquenac, adi-aracico baitira oihuz hegastietaric.

**4.** Diotsuet bada quei, ene adisquideoi : Etçaretela lotsa gorputea hil deçaqüetenenteat, ceinec guero ezpaitute quei guehia-gocorie cer eguin.

(1) Aurizquitea, gogorqui çaphatcea edo hers-jea beçambat da.

5. Bainan eracutsico darotuet noren lotsa içan behar duquen; çareten haren lotsa, ceinac, behin hil duenean, guero ifernurat egotz baiteçaque. Are diotsnet oraino, harentçat içan çarete iciper.

6. Eztirea bortz parra-chori hamar arditetan saltcen? Halarican ere hetaric bat bakharra etçao ahantzten Iaincoari.

7. Guehiago dena, çuen buruco ileac bidaquizqui cemba diren. Ez içan beraz beldurric; hainitz parra-chori baino guchia-gocoac çarete çuec.

8. Badiotsuet bada : Norc ere aithortuco bainaui guionen aitcinean, eta guionaren Semeac ere aithortuco du hura Iaincoaren ainguueruen aitcinean.

9. Eta norc ere ukhatuco baitu nitaz guionen aitcinean, eta ukhatua içanen da hartaz Iaincoaren ainguueruen aitcinean.

10. Norbait gaizqui mintçatcen bada guionaren Seineaz, barkhatuco çao; ordean Ispiritu Sainduaz mintçatcen bada gaizqui, etçao barkhatuco.

11. Noiz eta ere eramanac içanen bai-tearete biltçarretara, eta aguintarietara (1), eta bothere dutenetara, eztuquela acholarican nola edo cer ihardets deçaqueçuen, edo cer erranen duquen.

12. Ecen Ispiritu Sainduac eracutsico darotue ordu berean, cer ere beharco baituçue erran.

(1) *Aguintariae*, aguinteen edo manatcen dute-nac, cargudunac.

**13.** Orduan erran cioen ostetic batec : Nausia, errocu ene anaiari, ethorri çazcon goçoac (1) erdizca detçala enequin.

**14.** Ihardetsi cioen Iesusec : Guiçona, norc eçarri nau ni çuen çucentçaile, edo çuen çathien eguiile ?

**15.** Erran çaroen bada : Beguirauçue, hastan çaitetzte cikhoiztasun khotsu guctic; ecen ezta nehoren bicia dituzqueen onthasunetan, gaindizca balitu ere.

**16.** Eguin çaroen oraino iduripen bat, ciostela : Guiçon aberats baten alhorrac ekharri çuen ugariqui (2).

**17.** Eta bere baithan asmutan cegoen, cioela : Cer eguienen othe dut ? Ecen eztut hunelaco uzta norat bil.

**18.** Erran çuen guero : Huna cer eguienen dudan : barraiatuco ditut ene bihi-toquiac, eta handiago batçu eguienen ditut ; eta hetan biltcen ditudanean ethorri çarotan uzta eta ene bertce onthasunac,

**19.** Erranen diot ene buruari : Baduc hainitz on hainitz urtherentçat bilduric ; bihoa nekhea, iaçac, edaçac, eguiic ase onic.

**20.** Hambertcenarequin erran cioen Jaincoac : Haicen erhoa ! Gaurco gau huntan berean biciaren galdeguitera dohazquic ; eta guerocotz hintuenac, norentçat ?

**21.** Holache guerthatuco çao beretçat

(1) *Goçoaç*, primantçazeo onthasunac.

(2) *Ugariqui*, nasaiqui, iorioui.

biltseen hari denari, eta Iaincoa baithan aberats eztenari.

**22.** Guero erran çaroen berc dicipuluei : Diotsuet bada, etçaretela khechu çuen biciteecoaz, cer ianen othe duçuen ; eta ez gorphutçaz, certaz iaunteico çareten.

**23.** Bicia guehiago da ianharia baino, baita gorphutça iaunzcura baino.

**24.** Behemoçuete beleei ; eztute hec eguiten ez hacilic, ez uztaric ; eztute ez sothic, ez bihiteguiric ; halaric ere Iaincoac hazten ditu. Cembatez bada etçarete çuec hec baino guehiago ?

**25.** Bertçalde, othe da çuetan, cer nahi asma deçan ere, beso bat bere handitasunari eratchec dieçoquenie ?

**26.** Beraz den gutiena ere ezpadaguiçue, nolatan caitezquete gaineracoez antsiatsu ?

**27.** Behemoçuete liliei, nola handituaz dohacen ; eztute hec ez lanic, ez iruteric ; eta halaric ere, diotsuet nic, Salomon bera, bere edergailu guciequin, etcela hetaric bat beçain ongui iaunzten ahal.

**28.** Bada belhar bat, gaur landan dena, eta bihar laberat dohana, hala iaunzten badu Iaincoac, cembatenaz guehiago çuec, sinheste aphurrecoac ?

**29.** Çuec beraz eztuçuela arduraric, cer ianen duçuen, eta cer edanen ; etçaretela goregui hedea.

**30.** Horiez guciez ardura duquete mundutarrec ; bainan çuen Aitac badaqui ceren beharretan caitezqueten.

31. Aiteitic bilha eçatçue ororen gainetic laincoaren erresuma eta haren çucentasuna, eta horiec guiac emanen çazquitçue gaineratecotçat.

32. Ez içan beldurrie, arthalde chumettoa! Ecen çuen Aitac onhetsi içan du bere erresuma çuei emaitea.

33. Sal eçatçue ditutquenac, eta emazquitçue amoinetan; eguiçatçue ihatxetcen eztiren çorroac, eta onthasun gorde nehoiz ere ahitcen eztiren batçu ceruan, nora ezpaita hurrenteen laphurrie, eta non ezpaitu iaten cerrenac.

34. Ecen nontche baita ere çure onthsuna, eta hantche da halaber çure bihotça.

35. Bitez çuen guerrunteac guerricaturie, eta arguiçaguiac iracequiric çuen esuetan;

36. Eta içan çaitezte sehi batçu beçala, ceinac begnira baitaude noiz itçulico çaien bere nausia eztelitarie, dathorrenean, eta athea iotcen duenean, berehala idequitecotçat.

37. Çorionezeo sehiac, ceinac, dathorrenean nausia, edireuen baititu atçarririe! Diotsuet egua, bere soinecoa guerrian lothurie, iar-eracico ditu mahainean, eta ibilico da hequiei beharren eguiten.

38. Eta ethor dadin gau-erditan, edo hirur orduetan, eta hala aurkhi detçala, dohatsu dira sehi hee.

39. Iaquiçatçue bada hau; baldin balaqui

etchecho buruçagui batec cein orduz ethorri behar duen ohoineac, atçarriric legoquela, eta ez leçaquela utz cilhatecera bere etchea.

40. Çaudete beraz çuec ere erne, ceren uste eztuqueçuen orduan, guiçonaren Semea ethorrico baita.

41. Orduan erran cioen Piarresec : Iauna, guretçat dioçu iduripen hori, ala gucien-tçat ere bai ?

42. Ihardetsi cioen Iaunac : Nor da bada, çure antcean, etche-çain arthatsu eta çuhurra, bere nausiac eçarrico duena sehi gucien buruçagui, eman dioçotentçat batbederari bere orduan bere ogui içaria ?

43. Dohatsua da sehi hora, ceina, dathorrenean nausia, khausituko baitu horrela eguiten duela.

44. Eguia diotsuet, eçarrico du bere dituen gucien buruçagui.

45. Bainan, baldin eta erran badeça sehi horree bere baithan : Berantcen du ene nausiac, ezta oraino ethorrico; eta has badadi muthil nescatoen cehateen, eta iatten, eta edaten, eta horditcen ;

46. Bihurtuko da sehi horren nausia, iguriquiteen eztuen egunean, eta eztaquien orduan; eta berecico du bertcetaric, eta saritçat, emanen du sehi gaichtoen baltsan.

47. Sehi haina behinic bat, ceinac iaquin içan baitu nausiaren nahia, eta ezpaita egon erneric, eta ezpaitu eguin haren nahiaren eredura, cehatua içanen da garrazqui.

48. Bainan iaquin eztuena, eta açoteac darraizcoten gauçac egun dituena, cehatua içanen da emequiago. Ecen nori ere hainitz eman içan baitçao, eta hari galdeguinen çao hainitz; eta nori ere eman içan baitçao guehienic, eta harc ihardetsi beharco du guchiagoz.

49. Sua ethorri naiz lurrean hedatcera, eta cer da ene guthicia, baicen ere iracequia içan dadin?

50. Bathaio batez behar naiz bathaiatu, eta cer hersturetan naicen egun dadin artean!

51. Uste duçue nasqui baquearen ekhartcera ethorria naicela? Ez, sinhets naçaüe; bainan bai aharraren.

52. Ecen hemendic harat, baldin badira etche batocoac bortz, içanen dirade bortçac betan etsaigoan, hirur bien etsai, bia hiruren etsai.

53. Bihurrico çao aita semeari, eta semea aitari; ama alabari, eta alaba amari; ama-guinarmebari (1).

54. Guero erraiten çaroen osteei : He doiztatcen dela iguzqui sartcea ikhusten du-

(1) Erran nahi du Iannac, haren bitça batçuee sinhetsiz eta eguiñez, bertce batçuec arbuiatuz eta bastanduz, phitz-aracico duela sua lurrean, erre sumetan beçala etcheetan ere, gaichtoen eta onen artean, olkharrequin guducateen direla, eta nahasdura handitan iartzen, laincoac bere umoei emaa dioçoten artean garaia, azquen eguncan.

çuenean, erraiten ohi duçue berehala : Uria heldu da; eta hala guerthatcen ere da.

55. Eta hegoac derauntsanean, dioçue : Berotu behar du; eta halache içaiten da.

56. Gaichtaguinac ! Ceruaren eta lurra-ren itchurac cer dakharquen eçagutcen ba-daquiçue ; eta nola daite, oraico egun hauquiee cer dakharten, ezpaitaquiçue ?

57. Cer, eta eztuçue cebonec berec hed-duraric asqui eçagutcecotçat çucen bide dena ?

58. Beraz bada, baçohaceno çure areri-oarequin herrico buruçaguia gana, eta bidean çareno, bilha eçaçue nola harequi-lacoac chucentcen ahal dituzquetçun, etçai-tçan herresta iuica gana, eta iuieac etçai-tçan eman bere sehiari, eta harc etçaitçan cephoetan eçar.

59. Diotsut egua, etçara ilkhico handie, non ezteçaçun bihur azquen ciparaíno-coa (1).

(1) *Cipa*, edo *cita*, edo *pelata* deitcen cen lebenagoco cornadoa; maraia edo maradia beçəmbatsu cen, eta ardita baino cheheago.

## XIII. CAPITULUA.

*Behar dela urriquitu. Phico-hondo deusic emaiten eztuenaren, haci chehearen, altchagarriaren iduripenac. Emazte bizcar makhurraren terdentcea. Athe hertsiaz. Lehenc aczquen. Herodesez cer dioen Iesusec. Ierusalemeren gainerat erori behar diren ondicoez mintço da.*

1. Egus hartan berean, harequilan ciren batuec erran cioten Iesusi, nola, Galilear cembait sacrificio eguiten hari cirela, Pilatusec ichuri içan çuen hequien odola sacrificiocoarequin batean.

2. Ihardetsi çaroen Iesusec : Çuen anteera, Galilear hec bertee Galilear guciac baino hobendunago othe ciren bada, ceren halatan iaçarri içan baitçiae?

3. Diotsuet ecetz; bainan ezpaçarete urriquitcen, guciac halaber galduco çarete.

4. Hala nola Siloeco dorrea erori içan baitcen, eta hemeçortci/guiçon lehertu baiteituen, uste cinuqueta hec ere çordunago cirela Ierusalematar guciac baino?

5. Diotsuet ecetz; bainan ezpaçarete urriquitcen, guciac halaber galduco çarete.

6. Erran çaroen bada iduripen hau ere: Phicotee bat landatu çuen guiçon batec bere mahastian; eta ethorri cenean phico biltcera, aurkhitu çuen etçuela deus.

7. Orduan erran cioen mahasti arthatçai-

leari : Hirur urthe huntan iadanie heldunaiz phicotce huntara, cerbait nahiz, eta eztiot deusic hatcemaiten; motz eçoçu; cergatic pochelateen ere du lurra ?

8. Ihardetsi cioen mahasti çainac : Iauna, utz eçoçu oraino urthe huntan, haintçurtuco dut ingurunean, eta emanen diot ongarri;

9. Behar bada ekharrico du; ezperen, ebaquico duçu.

10. Nola hari baitcen Iesus larumbat oroz biltçarretan erakhasten,

11. Aurkhitu cen han behin emazte bat, ispiritu gaichto batec ceducana eri hemeçortei urthe hartan; eta concortua cen, halatan non ezpaitceçaqueen ncholere goiti beha.

12. Ikhusi baitçuen Iesusec, deithu çuen bere gana, eta erran cioen : Emaztequia, ontsatua çara çure eritasunetic.

13. Eta ordu bercan escuac gainera hedatu baitciotçan, berehala lerdendu cen, eta esquerrac bihurteen ciotçan Iaincoari.

14. Bainan biltçarreco buruçaguia, hainitz gaitcituric ceren larumbat-cari sendatcen çuen Iesusec, hasi cen erraiten osteari : Badira sei egun lanecoac, hetan çatozte, eta ontsa çaitetzte; bainan ez larumbat egunarequin.

15. Iesusec ihardetsi cioen : Barnez tçar, aurkhiz onac ! Eztu bada çuetaric batbederac larumbatean bere idia edo astoa estalbiatic deslotcen, eta edaratera eramaiten ?

16. Eta Abrahamen ume hunec, hemeçortei urthe huntan Satanec estecatua

baitceduean, nola etçuen behar bere lo-kharritic larumbatarequin desloothu?

17. Hitz horiec ahalque gorritan uzten cituzten haren etsaiae oro, eta populu gucia berriz bozeariotan cegoen hain miresgarriqui eguiten etiuen gauça guciez.

18. Erraiten çuen oraino : Cer dirudi que Iaincoaren erresumac, eta cerequin bardin dela dioquet?

19. Dirudi mustarda bihi bat, ceina guicon batec harteen baitu, eta aurthiquitcen bere baratcean; hazten da badá, eta athe-ratcen da çuhaitz larri bat; eta ceruco hegastinac haren adarretan cocatcen dirade.

20. Berriz erran çuen : Cerequin erkhatuco duquet Iaincoaren erresuma?

21. Bardin daiteque altxagarriarequin, ceina, harturic emazte batec, nahasten baitu hirur unga irinetan, eta hazten baita den gucia.

22. Bacihoan bada hirietan éta herrietan gaindi, erakhasten hari cela, eta çaramala Ierusalem eco bidea.

23. Eta galdeguin baitcioen norbaitec : Iauna, gutiac othe dira salbatuco direnac? Ihardetsi çaroen :

24. Eguin ahalac eguitque athe hertsitic sartcecotçat; ecen erraiten darotçuet, hainitçac ibilico direla sarthu nahiz, ordean ecin sarthuco dira (1).

(1) Eztira sarthuco hainitçac, sarthu nahiko duten arren; ecen cerbait hartaracotz egunen badute ere, eztituzte egunen bere ahalac, eta behar beçambat.

25. Bertcelaz, sarthuco denean etcheco buruçaguiia, eta athea hertsi duquenean, içanen çarete lekhorean, eta hasico çarete ioca atheisti, dioçuela : Iauna, idec dieça-güeu. Eta ihardetsico darotçue : Eztaquit nor ez eta nongoac çareten.

26. Berriz erranen dioçue : Ian içan dugu curequin, eta edan, eta gure carriquetan eracatsi içan duçu.

27. Eta ihardetsiren darotçue : Eztaquit nor eitzqueten eta nondicacoae; cohazte ni ganic, gaizqui eguale guciac.

28. Orduan içanen da han nigar eta hortz-carrasca, ikuhisco ditutçuenean Abraham, eta Isaac, eta Iacob, eta profeta guciac Iaincoaren erresuman, eta quec iraitiac lekhorerat.

29. Ethorrico dira bada iguzqui sorthaldecie eta sorthaldecie, eta ipharretie eta hegoatie, eta iarrico dira Iaincoaren erresuman.

30. Eta hemen dira azquen, lehen içanen direnac, eta lehen, içanen direnac azquen.

31. Egun hartan berean hurbildu eitzaizcon Pharisa batçu, ciotsotela : Ilkhi çaitie, eta cohaz hemendie; ecen Herodesee hil nahi çaitu.

32. Erran çaroen : Cohazte, eta erroque aceri hari : Deabruac egozten ditiat, eta eriac osagarrira bihurcen gaur eta bihar; eta akhabatuco diat etci.

33. Bizquitartean bada, ibili behar diat gaur, eta bihar, eta etci; alabainan eztie

profeta batec hil behar Ierusalem bai-  
cen.

34. Ierusalem, Ierusalem, profetac hil-  
teen ditunana, eta egorriac çaizacananae  
harricateen, cembañ aldiz nahi içan diti-  
nat hire haurrac bildu, chori batec bere  
caſia hegaleñ azpira beçala? Eta ezpaitun  
nahi içan!

35. Huna non guelditcera dohatçuen  
çuen etchea hutsa. Erraiten darotçuet  
ecen, eznauçuela guehiago ikuñuso, erran  
deçaqueçuen artean : Ongui ethorri dela,  
launaren icenean ethorteen çarocuna.

---

#### XIV. CAPITULUA,

*Guion urez hantu bat larumbataquin sen-  
datcen du Iesusec. Azquen lekhua behar  
dela hautatu. Nor behar dugun gure ma-  
hainera deithu. Deithuric ethorri nahi  
eztirenен iduripena. Oroz ukhatceaz Iesu-  
Christori iarraiquitcecotçat. Bere khuru-  
tcearen eramaiteaz. Gatz gueçatua.*

1. LARUMBAT egun batez orobat, sarthu  
baitcen Iesus Pharisa uiteindari baten bai-  
than, bere ian-aldiaren eguitera, barran-  
dateen cegozeon.

2. Bacen bada guion bat haren aitei-  
nean uheri cena (1).

(1) Uheritasuna eritasun bat da, ceintan urez  
baitcen baita; balako eria uheri dela erraiten da.

3. Eta erran çaroen Iesusec legue era-khasleei eta Pharisauei : Haiçu dea larumbat-cari sendatcea ?

4. Hec ichilic egon ciren. Bainan harc, escua barturie eriari, ontsatu çuen, eta egorri çuen.

5. Galdeguin çaroen bada : Cein da çuetarie, astoa edo idia putçurat erorteen bacaio, handie laster idoquico eztuena, balitz ere larumbata ?

6. Eta horren gainean etcioçaqueten deusie ihardets.

7. Orduan, nabariturie nola iatera dei-thuac hautateen ciren lehen iar-toquiez, ekharri çaroen iduripen hau, ciostela :

8. Deithua içanen çarenean ezteietara, etcáitecela lehembicico iar-lekhuau iar; badietque ecen, deithuetan, çuri baino beguirune guchiago çor çaoien bat;

9. Eta ethorriric bata eta bertcea deithu çaituztena, erranen darotço harc : Utçoçu huni lekhu hori. Eta çu orduan, ahalque gorritan, ioanen cara azquen lekhuaren harteera.

10. Aitcitie, deiteen çaituzquetenean, çohaz, eta azquen lerroan iar çaituec, erran dieçaçuntçat deithu çaituenac, dathorre-nean : Adisquidea, igan çaituec gorago. Orduan duqueçu óhore çurequin mahainean iarriric direnen beguietan.

11. Ecen norc ere bere burua goratcen baitu, eta hora içanen da aphaldua; eta bere burua aphalteen duena, goratuco dute.

12. Erran carocon halaber deithu çuenari : Eguiten duçunean barazcari bat edo aphari bat, eztetçatçula deith, ez çure adisquideac, ez çure anaiac, ez çure egoquiac (1), ez auço aberatsac, beldurrez berriż hequiec ere çu deith çaitçaten, eta horrela ordaina bihur daquicun.

13. Bainan othurunça bat eman gogo duçuncan, erakharzquitę beharrac, hebainac, mainguac eta itsuac ;

14. Eta çorionezcoa çaitezque, ceren ez-paitute çuri ordainez emaitecoric, eta ijanen baituçu çure saria onac phiztuco diren egunean.

15. Horiec adituric barazcaltiar batec, erran cioen : Dohatsu bide baita Iaincoaren erresumaco oguia ianen duena!

16. Ihardetsi cioen Iesusec : Norbaitec behin eman çuen aphari (2) handi bat, eta hainitçac deithu cituen.

17. Eta apharico mugan, egorri çaroen sehia deithu cituenei, erraitera cethocela, gauça guciac aphainduric cirela.

18. Bainan, elkhar adituric beçala, hasi ciren guciac atçaquia bilhateen. Erran çuen lehenac : Landetche bat erozi dut; batezpada ilkhi behar naiz, eta ikuusi behar dut; othoi, utz naçaçu.

19. Eta berteeac cioen : Hamar idi uz-tarrico erozi ditut, eta banihoa hequien erabil-araztera; othoi, utz naçaçu.

(1) *Egoquiac*, odoleco ahaideac eta ascaciac.

(2) Lehenago othuruatça bandicna apharia cen.

**20.** Bertce batec cioen : Ezcontectic heldu naiz, eta ecin ioan naite.

**21.** Itzuli cen beraz schia, eta erran ciozcan horiec bere nausiari. Orduan, haserreturic, etcheco iaunac diotsa : Cohaça lasterrez hirico carrica eta carrica-buruetara; eta erakharzquitceu hunat escaleac, eta hebainac, eta itsuac, eta mainguac.

**22.** Sehiac erran cioen : Nausia, egun dut aguindu darotaçuna, eta bada oraino iar-lekhu.

**23.** Orduan ihardetsi cioen nausiac sehiari : Cohaça bideetara eta berro ondoetara, eta aurkhituac sar-arazquitceu, nahi edo nahi ez, etchea bethe daquidan artean.

**24.** Ecen erraiten darotçuet, deithu nituen guion hetaric, garauac ere (1) eztuela ene apharitic dastatuco.

**25.** Iendetee handi bat ondotic baitçarraicon, itzuli cen, eta erran çaroen :

**26.** Baldin norbait ethortcen bada ni ganat, ezpaditu higüintcen bere aita eta ama, eta emaztea eta haurrac, eta haurrideac, bai eta bere burua ere, eztaite içan ene dicipulu.

**27.** Eta bere khurutcea eztakharquena, eta ene ondotic eztabilana, ecin daite ene dicipulu.

**28.** Ecen cein da cuetan, dorre bat egun nahi duclaric, aitcinetic iarteen eztena

(1) *Garau*, norbait edo cerbait; *garauac ere ez*, batec ere ez, *garauic ez*, deus ere ez.

atheratecen cembatetaraino helduco çaison, eta hea baduen azquen bururaino asqui diru?

**29.** Beldurrez eta, behin hasiz gueroz, ezpadu bururaino heltcecorie, eztaquizquion ikuusle guciac eçar irau eta ihaquin eguiten,

**30.** Diotela: Guiçon hau etche eguiten jarri caicu, eta ecin akhabatu du.

**31.** Edo, non da erreguea, bertce erre-gue batequin guduau sartcera dohalarie, eztioena lehenic bere buruari galdeguiten, hea hamar mila guiçonequin aitcin egun dieçoqueen hogoi milequin heldu caioe-nari?

**32.** Eta ecin badiako, hura oraino urrun deno, egorteen diotça guiçonac, baquearen escatcecotçat.

**33.** Hala beraz, norc ere quetaric ezpai-taie ukho eguiten dituen gaciei, haina ecin içan daite ene dicipulu.

**34.** Ona da gatça; baldin ordean gatça gueça badadi, bera certaz onthuco dute?

**35.** Ezta guehiago on ez lurrecotçat, ez samatsecotçat; bainan aurthiqui behar da. Duenac beharririe aditceco, adi beça.

**XV. CAPITULUA.**

*Pharisauen erantçuteac ceren Iesus bekhatoreequin dabilan. Ardi basatuaren, diru galduaren, haur onthasun chahutçailaren iduripenac.*

1. HUBILTSEN ciren bada Publicanoac eta aztura gaichtoco guiçonac Iesus ganat, hura entçun nahiz.

2. Eta bacerasaten Pharisauec eta Issuiribauec, ciotela : Guiçon hunee bekhatorei ongui-ethorri eguiten daroe, eta hequiequin iaten du.

3. Horren gainean Iesusec ekharri içan çaroen iduripen hau :

4. Baldin çuetaric batec baditu ehun ardi, eta hetaric bat gal badeça, ez othe ditu bertee laur hogoi eta hemeretciac uteico mortuan, galdu duenaren ondoan ioaiteco, ediren duqueen artean ?

5. Eta edireiten duenean, pocic emaiten du bere sorbalden gainean ;

6. Eta guero ethorteen da etcherat, eta adisquide eta auçoac bilduric, erraiten daroe : Bozaria çaitzte enequin, ceren ardi bat galdu bainuen, eta aurkhitu baitut.

7. Bada diotsuet, hambertee bozario içanen dela ceruan, bekhatore urriquiteen den bakhoitz bat gatic, nola urriquiric behar eztuten laur hogoi eta hemeretci çucnen gatic.

8. Eta baldin emazte batec, cituelaric hamar diru, hetaric bat gal badeça, ez othe du argua phizten, eta itsatsaz etchea garbitcen, eta bilhatcen artha handirequin, ediren artean?

9. Eta ediren duenean, deitzen ditu adisquideac eta auçoac, diostela : Eguin bozcarrioac niri, ecen galdu nuen dirua, ediren dut.

10. Diotsuet bada, halaber içanen da bozcarrio Iaincoaren aingueruen artean, urriquitzen denean bekhatore bakhar bat ere.

11. Erran çaroen oraino : Guiçon batec cituen bi seme;

12. Eta erran cioen gaztenac aitari : Aita, indaçu niri helteen çaitan onthasuna. Eta berecirie, eman çaroen bakhotchari berea.

13. Egun gutiric barnean bada, bere guciac bilduric, seme gazten hori ioan een atee herri urrun batetara, eta hantche chahutu çuen bere onthasun gucia, handizqui eta itsusquerian bicia iraganez.

14. Eta guciac ian citueneco, gosete handi bat egun cen herri hartan, eta hasi een escasian içaiten.

15. Ioan een bada, eta eçarri cen hango etcheco iaun baten muthil; eta egorri çuen hare bere landetche batetarat, urde çain.

16. Eta han nahico çuen ase cherrieç iaten çuten chalkheetaric (1); bainan etcioen nehorc emaiten.

(1) Ilhar chalkheac, batçuec deitzen dituztenac lecac; lequec ordean bere bihiac barnean dituzte; bertze batçuec erraiten diote thecac.

17. Sarthuric bada bere baithan, erran çuen : Cembañ sehi eztira ene aitaren etchean, oguaia nasaiqui dutenac, eta ni hemen gosez hiltzen hari naiz!

18. Iaiquico naiz beraz, eta ioanen naiz ene aita ganat, eta erranen diot : Aita, hobendun naiz ceruaren eta çure alderat;

19. Ecin deith naite guehiago bidezqui çure seme; har naçaçu çure muthiletaric bat beçala.

20. Beraz iaiqui cen, eta ethorri cen bere aita ganat. Eta urrun celarie oraino, ikhusi çuen bere aitac, eta bihotçac egui-nic, lasterrari eman çuen, eta erori citçacion lephora, eta besarcatu çuen.

21. Eta erran cioen semeac : Aita, huts eguin dut ceruaren eta çure alderat; ez naiz guehiago gai çure semea deith naçaçun.

22. Bainan erran çaroen aitac bere se-hiei : Higui caitezte, ekharroęue bere le-heneco aldagarrria, eta iauntz ecoęue; eta emoęue erhestun bat erbian, eta osquiac oinetan ;

23. Ekharraęue chahal guieena, eta hil-tçaęue, eta ian deęagun, eta daguigun barazcari ;

24. Ceren ene seme hau hila baitcen, eta huna non phiztu den, galdua cen, eta edirena da. Hasi ciren beraz iaten eta atse-guin hartzen.

25. Bizquitartean landetan cen seme gue-bienia; eta heldu cela, eta etchera hurbil-

teen eela, entzen ęuen chirribica eta el-  
tçagor eta dantça otsa.

26. Eta deithurie sehiarie bat, galdetu  
cioen, hea cer ciren hec halacorie.

27. Ihardetsi cioen sehiac : Çure anaia  
ethorri da, eta hil-araci du aitac aratche  
guicena, ceren osagarri onean aurkhitu  
baitu.

28. Samurtu cen handizqui çaharren hori,  
eta etcen sarthu nahi izan. Ilkhirie bada  
aita, hasi citçaison othoitcez.

29. Bainan harc ihardetsi cioen aitari :  
Hambat urthe huntan çure lanetan hari  
naiz, eta egundaino çure nahiric eztut  
hautsi; halaric ere egundaino eztarotaçu  
pittica bat ere (1) eman, ene adisquideequin  
iatecotçat.

30. Bainan ethorri dea, bai, çure seme  
hau, cituen guciаc ema tçarrequin iretsi-  
ric, berehala hil-araci dioçu chekhor (2)  
guicen bat.

31. Ihardetsi cioen aitac : Ene haurra,  
çu bethi enequin çara, eta ene guciаc çu-  
reac dirade;

32. Behar guinuen ordean eguin baraz-  
cari, eta atseguin hartu, ceren çure anaia  
hau hil baitcen, eta berriz phiztu baita,  
galdu baitcen, eta aurkhitu baita.

(1) *Pittica*, edo ahuña, ahuña, bitiña, pitina,  
ahumea.

(2) *Chekhorra*, cekhorra, aratche edo aretchea,  
edo chahala, oro bat dira; bainan cekhorra, ara-  
tche ia tarro batentçat erraiten ohi da.

## XVI. CAPITULUA.

*Sehi-buruçaguiaren iduripena. Nehorc eztecaquela bi nausiequilacoa egun. Iesusec eguiten diote irau eta erantzuqui Phari-sauei. Ezcontxa ecin hauts ditequela. Aberats gaichtoa eta Lazaro.*

**1.** ERRAN çaroen bertçalde Iesusec bere dicipuluei : Čuicon aberats batec baçuen sehi bat, bere eguitecoac arthatcen cioz-cana, eta hura salhatua içan citçaion bere etcheco iaunari, nola haren onthasunac irioiten cituen (1).

**2.** Deithu çuen beraz, eta erran cioen : Cer da nic çutaz entçuten dudana ? Ema-daçut chehetasun gucia erabili dituçunez; ecen gaur guchiago eztuçu enerik erabili-ren.

**3.** Orduan erran çuen sehi harc bere gogoan : Cer eguin dut nic, khenteen darotanaz guero nausiac bere onthasunen artha ? Haintzurrean ecin hari naite, eta esque ibiltceco ahalque naiz.

**4.** Badaquit cer egun, nausiac khenteen nauenean, içan detçadan bere etchean hartuko nautenae.

**5.** Erakharriric beraz bat banazca nau-

(1) *Irioitea*, bertce batçuec diotena *iriontcea*, erran nahi da, barraiatuz, gaizqui erabiliz, gaucen galteca, eta chahutcea.

siaren çordunac, erran cioen lehembici-coari : Cembañ dioçu çor ene nausiari ?

6. Hare ihardetsi cioen : Ehun hordi laurden olio (1). Erran cioen : Orieu çure arguia, iar çaita laster, eta eguiçu bertce berrogoi eta hamarreeo bat.

7. Guero galdeguin cioen bertce bat : Eta çuc, cembañ duçu çor? Ihardetsi çuen : Ehun unga ogui. Erran cioen : Horra çure arguia, eçarzquitçeu laur hogoi.

8. Eta nausiac aurkhitu çuen sehi hare çuhurqui eguin içan çuela; ceren mende huntaco haurrac erneago baitira bere eguitcoen crabiltçan, ecen ez arguiaren umeac (2).

9. Eta diotsuet nie : Egnizquitçue adisquideac çuen ohonqueriazco onthasunetarie; eta iabalteen (3) çazquitçuenean, har-tuco çaitutzete bethiereco egoitçan (4).

10. Gauça chumeenetan çucena dena, handietan ere çucena da; eta aphurretan queen eztuna, handietan ere ezta çucen.

(1) *Hordia*, içariz minteo delarie, barria da, ceina eguiten baita laur hordi laurdeneco sasquiz.

(2) Sebi gaichtaguin huntas, ezta nasqui onhes-teco haren ohoinqueria tçarra; balariean ere era-cutsi çuen bere aiderat atçarrria cela.

(3) *Iabaltcea*, ahitcea edo akhitcea, guehiago emaiten eztuen churruta bat beçala.

(4) Erran nahi da : Onthasun bidezqui bildueta-rie, guciz ere eta beregainqui, bide gaichtoz maiz biltcen direnetarie, lagun eçatçue beharrac; eta bere arartecotasunaz, ceruco atheac idequiren da-rozquitçuete.

41. Beraz bada, baldin aberastasun bi-degabekoae ezpaditutue çueen erabili, nore eçarrico çaituzte eguiazkoen erabil-teaile.

42. Eta baldin bertcerena gaizqui era-bili baduque, ceuen berena nore escuetara emanen darotue?

43. Ezta sehiric bi nausiequilacoa eguin deçaquenie; ecen edo bata gaitettsico du, eta bertcea onhetsico; edo batarequin idu-quico du, eta bertcea ganic hastanduco da. Eein çaitezquete beraz iarraiak Iaincoari eta diruari.

44. Entuten cituzten bada horiec oro Pharisauec, ceinac baitciren cekhen huts batçu; eta irri eguiten cioten.

45. Erran çaroen : Çuetaz dioquedana da, nahi çaretela guïçonei on iritei (1); bainan Iaincoac çuen bihotçac badakhush-quitça; ecen guïçonen eredura handi dena, nardagarri da Iaincoaren aiteinean.

46. Leguea eta profetac ciren Ioanes ar-teraino; handic hunat adi-aracitcen hari da Iaincoaren erresuma, eta batbederac indar egoiten du hartan sartcecotçat.

47. Errechago da bada cerna eta lurra iragan daitecen, ecen ez leguetic hitz che-heena ere eror dadin.

48. Nore ere bere emaztea bere ganie etchateen baitu, eta bertce batequin ez-

(1) *Iritei*, iduri içan; *dariteat niri*, iduri çait niri.

conteen baita, likhisquerian datxa; eta berte batetx utcia harten duenae, eguiten du halaberqui.

19. Behiala bacen guicon bat aberatsa (1), eta iaunzten cen escarlatez eta ciriuz, eta egun oroz hazten cen iori qui eta handizqui.

20. Eta bacen halaber guicon behar bat, çaritçana Lazaro, haren athean çatçana, oro çauri.

21. Eta çale citequen hau, aberatsaren mahainetic erorteen ciren phorrochquataric asetceco; bainan nehore eteioen emaiten; eta bizquitartean orae heldu çazcon çaurien milicatcera.

22. Guerthatu cen bada escalea hil çadin; eta aingueruec eraman çuten Abrahamen galtçarrerat (2). Hil cen aberatsa ere, eta ehortcia içan cen ifernuan.

23. Eta oinhaceen erdian cela, goititu cituen beguiac, eta ikhusi çuen Abraham urrundanac, eta Lazaro haren golkhoan.

24. Orduan heiagoraz erran cioen : Abraham ene aita, urriari nauçula, eta egorraçu Lazaro, erhi mocoa busti deçala urean, eta heça dieçadan mihia; ecen hainitz oinhace dut su lambo hautan.

25. Bainan ihardetsi cioen Abrahamec : Haurra, orhoit çaita içan dituçula onac

(1) *Behiala*, lehenago, aspaldi.

(2) Erran nahi da, Abraham eta çucenae oro, bil eta, Iesusen siduru edo beha cegocen lekhura.

çure biciañ, eta Lazaroc aiteitic gaitæae; orai beraz hau goçoetan dago, eta çu min gaitcetan.

**26.** Eta bertçalde dena, lece handi bat da çu eta gutartean, non hemendic horrat iragan nahi laitezquenac, ezpaititezque, ez eta hortic ere hunat ethor.

**27.** Erran cioen aberatsac : Othoizten çaitut bederen, Aita, egor deçaçun ene aita baithara,

**28.** Non baititut bortz anaia; eta berri eman dioçoten, eztitecen hee ere min garatcezco toqui huntarat ethor.

**29.** Ihardetsi cioen Abrahamec : Baditzte Moises eta profetac, sinhets betçate hec.

**30.** Hare erran cioen : Ez bada, Abraham ene aita; bainan, hiletarie phizturiac, ioban baçiae norbait, urriquitan sarthuco dirade.

**31.** Diotsa Abrahamec : Baldin ezpaditzte entçuten Moises eta profetac, ez eta norbait hiletarie phitz badadi ere, eztute sinhetsico.

---

## XVII. CAPITULUA.

*Mintço da Iesus gaizqui eraguiteaz, hobe-nen barkhatceaz. Nola Iaincoaren alderat sehi alpher batçu garen. Hamar sorhaiio garbitcen ditu. Iesu-Christoren azquen ethor-teea nola içanen den.*

4. ERRAN çaroen Iesusec bere dicipuluei : Baitezpada guerthatu beharrac dira gaiz-bide emaitae; bainan çorigaitz gaiz-bide-ric emanen duenari !

2. Hobe liçate hainarentçat baldin ihara harri bat eçar balaquio lephotic dilindan, eta itsas hondalerat egotz baladi, ecen ez ttipitto hautaric bati gaizqui eraguin balioça.

3. Beguirauçue ceboei : baldinetariaç çure anaiac cerbait huts eguiten badarotçu, erantçun dioçoçu berari, eta urriquitcen baçao, barkha dioçoçu.

4. Eta çazpitän egunean huts eguiten badarotçu, eta çazpitän egunean itçulteen baçaitçu, eta erraiten badarotçu : Damu dut; barkha dioçoçu.

5. Orduan erran cioten apostoluec launari : Berret dieçaguçu sinhestea (1).

6. Ihardetsi çaroen Iaunae : Baldin bacinute sinhestea mustarda bihi bat beçain lodi, erran cinioçaquete martçuea hondo

(1) *Berretcea, guchiagotcea.*

huni : Athera hadi erroctaric, eta oha berriz landatecera itsasoan : eta egun liro çuen errana.

7. Baldin çuetaric batec badu sehi bat, lur lanean hari çaoena, edo abere bazcatcen, itçultcen çaoenean landatic, erranen othe dio berehala : Çohaz, iar çaité mahainean?

8. Bainan aiteitic, ez othe dio erranen : Aphain dieçadaçu apharia; guerrica çaité, eta cerbitę naçaçu, ian eta edan duquedan artean; guero cerorrec ianen eta edanen duçu?

9. Eta halere esquer içaiteco othe dio sehi hari, ceren egun behar çuena egun duen?

10. Ez bada, nic uste. Halaber çuec ere, egun dituzquetçuenean manatu içan çazquitçuenac oro, erraque : Sehi ez deusestaco batçu gara; egun behar guinuena egun içan dugu (1).

11. Egun batez, Ierusalem erat cihosala, eta iragaiten cela Samariaren eta Galilearen erditic,

12. Herri batean sartecoco heinean bai-teen, ethorri citçaizcon bidera hamar guicon sorhaioac; eta guelditorie urrun,

13. Hasi citçaizeon oihuca, ciotsotela :

(1) Erran nahi baita, Iaincoaren legue gucia bethe deçaquegun arren, oztnela Iaincoac hoheric horren gatic, eta cor guinioela; bainan gure gueorreñ onetan hari gara; ceren, guciz ona delacotz, saristatcen baicaitu berari deus onic ekhartcen eztiotren obrez ere.

Iesus gure nausia, euçu gutaz urrical-mendu.

14. Nabaritu citueneco, erran çaroen Iesusee : Çohazte, eracuts caitezte apheceei. Eta, cihoacelaric batcan, chahutuac aur-khitu ciren.

15. Bat bada, ikhusi cuenean garbi cela, itçuli cen guibelat, gora gora Iaincoari es-querrac emaiten ciozeala.

16. Eta Iesusen oinetara eroriric ahuspez, esquer emaiten cioen ; eta hora Samaritar bat eeu.

17. Orduan erran çuen Iesusee : Eztira hamar ontsatu içan direnac ? Bertee bederatciac bada non dirade ?

18. Bat ezta içan itçuli denic, eta Iaincoari esquerrac bihurtu diotçanic, arrotz hau bakharra baicen.

19. Ondoan erran cioen : Chuti çaitet, eta çohaz ; çure sinhesteaç salbatu çaitu.

20. Galdeguin baitcioten Pharisauec : Noiz ethortecoa othe da Iaincoaren erre-suma ? Ihardetsi çaroen : Ezta ethorriren Iaincoaren erre-suma, errechqui ohartuko çaison moldean ;

21. Eta eztute erranen : Huna non den, edo : Hara han da. Ecen iadanic hemen-teche da Iaincoaren erre-suma, çuen erdian.

22. Erran çaroen guero bere dicipuluei : Ethorrico dira egunac ceinetan nabico baituçue beguietsi guïçonaren Semearen egun bat, eta ezpaituçue beguietsico.

23. Eta erranen baitarotçete : Hemen da, han da ; ez ioan, eta ez iarraiç.

24. Ecen hala nola chismistac, ceru bazter batetaric, arguiztatzan baititu cernaren azpico guciac, bertee bazterreraino, halaber içanen da guiconaren Semea bere mugan.

25. Bainan lehenic pairu dorphe behar du iasain mende hau ganic, eta arbuiatze.

26. Bada Noeren egunetan içan dena, hora bera guerthatuco da guiconaren Semea dathorrenean ere.

27. Orduan iaten çuten eta edaten, harteen çuten emazteec senhar, eta guionee emazte, Noe arkhan sarthu cen arteraino; eta ethorri eitçaien uholdea, eta suntsiaraci cituen guciac.

28. Bardin içan cen Lothen egunetan ere; hari ciren iaten eta edaten, erosten eta saltzen, alhor landateen eta etche egitizen;

29. Bainan Loth Sodomatic ilkhi cen egunean, iautsi içan cen cerutican su eta sufrezco erauntsi bat, eta galdu cituen guciac.

30. Berbera guerthatuco da guiconaren Semea aguertuco denean.

31. Ordu harten, etche gainean datena, eta bere tresnac etchean, estadiela iauts hequien eramaitea gatic; eta landan ditequena, halaber ezpedi guibelat itçul.

32. Orhoit çaitetzte Lothen emazteaz (1).

(1) Ihes ciholan Sodomatic senharrarequin, hiria erretzen bari çuela ceruco suac, eta guibelat behatcea launac debecatua çaiotzen; bainan, itçuliric, behatu çuen ema ikbusi nahiac, eta han berean gatz bilhacatu içan cen.

33. Garabec (1) nahi badu berac bere burua beguiratn, galduco du, eta norc ere galduco baitu (2), eta harc beguiratuco du.

34. Diotsuet : Gau hartan, direlaric bi guiçon ohe berean, bata içanen da hartua, eta bertcea utcia;

35. Bi emaztequi hari direla batean ehotcen, bata içanen da hartua, eta bertcea utcia; direla bi languile landan, bata içanen da hartua, eta bertcea utcia.

36. Galdeguin cioten : Non hori, Iauna?

37. Ihardetsi çaroen : Non ere içanen baita sarrasquia, eta harat bilduco dira arranoac.

---

### XVIII. CAPITULUA.

*Ohoitz iraupenarequicoaz. Alharguntsaren eta iuiearen iduripena, eta Pharisauaren eta Publicanoarena. Haur ttipittoez; be-thegunea (3) nola ardiets ditequeen; aberatsez; Iesusi darraizconen sariaz. Jesus bere pairuaz aitcinetic mintço da. Ierikhoco itsua osatzen du.*

1. ERACATSI çaroen halaber iduripen batet, behar dela bethi ohoitz eguin, eta behin ere ez unhatu eguitetic,

2. Cioela : Baceen iuie bat hiri latean,

(1) Norbaitec.

(2) Iauna gatik.

(3) Be-thegunea, deiteen dutena perfeccionea.

ceinac ezpaitçuen ez Iaincoaren beldurric, ez nehortaz ere antsiarie.

3. Eta cen hiri hartan alhargunsa bat, maiz heldu citēaiona, ciotsala : Eman-araz dieçadaçu ene çucena ene bidegabe-guileganic.

4. Eta etcioen behingoan eman-araci nahi içan. Azquenecotz bada erran cioeu bere buruari : Ez naicen arren Iaineoaren lotsa, eta ez guiçonez khechu,

5. Halaric ere, bethi ondotic baitarrat alhargun hori, emanen diet bere çucena, eztaguidan behar bada noizbait cerbait laido.

6. Horren gainean erran çuen launac : Adi ecaque cer dioen erabaquitçaille bidegabe-guile hunec.

7. Eta ez othe daroe bada Iaincoac ere emanen bere çucena, gau eta egin deiadarrez dagozquion bere hautuei; ala berantuco othe çiae?

8. Diotsuet ecen laster emanen daroela. Bizquitartean, dathorrenean guiçonaren Semea, ediren othe du luraren gainean sinhesteric?

9. Bertce batçuei berriz, bere buruac balacatuz, ezpaitçuten uste baicen saindu cirela, eta bertceez ikhustate guti baitçuten, erran çaroen iduripen hau :

10. Bi guiçon igan ciren templora, bere othoitçaren eguitécotçat; bata cen Pharisaua, bertcea Publicanoa.

11. Pharisanaac, cegoela chutic, hunela

othoitz eguiten quen bere baithan : Ene Iaincoa, esquerrac darozquitçat ceren ez-painaiz ni bertce guiçonae iduri, harrapacari, bidegabe-guile, emacoi, ez eta ere horraco Publicano hori beçalacoa.

12. Barurcen naiz astean bietan, eta ditudan gucion hamarrenac emaiten ditut.

13. Publicanoa aldiz, urrundanie ce-goela, lotsa cen bephuruac ere goititcera; bainan iotcen cituen bere bulharrac, cioelaric : Ene Iaincoa, nauçula urrieari, ni bekhatorea.

14. Diotsuet bada, iautsi içan cen hau barkhatua bere etcherat, eta bertcea ez; ecen bere burua goititneo duena, aphaldua içanen da, eta bere burua aphalduco duena, goitituco dute.

15. Ekharteen ciozcaten ere haurtto batetu, hunqui ceteantçat; eta hori ikhusirie dicipuluec, larderiarequin guibelateen cituzten.

16. Iesusec ordean haurttoac deitcen ci-tuela bere ganat, erran quen : Utçatçen haurrac ni ganat ethor ditecen; ecen huanlacoena da Iaincoaren erresuma.

17. Eguiazqui diotsuet : Nore ere ez-paitu harten Jaincoaren erresuma haurtto batec beçala, ezta hartan sarthuco.

18. Orduan herrieo guehienetaric cen batec, eguin cioen galde hau : Nausi ona, cer eguiñez ardiets deçaquet bicitee be-thierecoa.

19. Erran cioen Iesusec : Cergatic dei-

teen nauçu ni ona? Ezta ona denic Iaincoa bakharra baicen (1).

**20.** Badazquitçu aguinctçac : Ez nehor hil; ez bertceren emazteaz goça; ez gueçurrez lekhucotasunic erauz; ohora aita eta ama.

**21.** Ihardetsi cioen harc : Horiec oro beguiratu içan ditut enc gaztetasunetic huna.

**22.** Hori entçun çuela, Iesusec erran cioen : Oraino gauça bat escas duçu; ditutçun guciac salduric, emoetçu gabeei, eta içanen duçu aberastasun ceruan; çato guero, eta iarraiç çaquizquit.

**23.** Hitz hauc aditcearequin, guiçonari gogoa gueiz hil citçaison, ecen hainitz aberatsa cen.

**24.** Eta Iesusec ikhusiric nola cen gogoa hilic, erran çuen : Ala gaitz baita onthasundunae ceruco erresuman sar daitecen!

**25.** Ecen errechago da camelu bat orratçaren chilhotic iragan dadin, ecen ez aberats bat sar dadin ceruco erresuman.

**26.** Eta erran baitçuten entçuleec : Nor salba daite bada?

**27.** Erran çaroen : Guiçonentçat ecinquiçun direnac, Iaincoarentçat eguiquiçun dirade.

**28.** Orduan erran cioen Piarreseec : Gue

(1) Haina harc uste çuen Jesus guiçon hots bat baicen etcela; eta adi-arazten cioen Iesusec, hain ona aurkhitcen çuenaz gueroz, Iainco ere cela gogea behartceco çuqueela.

behintçat guciae utei tugu, eta iarrai qui gatçaiqnitçu.

29. Iesusec ihardetsi çaroen : Eguiaz dia tsuet, ezta nehor utei duenie etchea edo burhasoac, edo anaiaac, edo arrebac, edo emaztea, edo haurrak, laincoaren erresuma gatice,

30. Non eztuen ardiesten hainitz guehiago mende huntan beraean, eta ethorquiçunecoan bicitee bethierecoa.

31. Hartu cituen guero Iesusec bere ganat hamabi dicipuluac, eta erran çaroen : Bagoaz bada Ierusalem erat, eta bethico dira profetec guiçonaren Semeaz isquiribatu iean dituztenac.

32. Ecen atceei escuctara emana içanen gaie, eta escarniatuco dute, eta açotatuco, eta kherruztatuko;

33. Eta cehatuco duten ondoan, hilen dute; eta hereneco egunean phiztuco da.

34. Bainan etçuten hec deus ere aditu içau abal gauça horietaric; ecen gauça gorde bat beçala citçaien solhas hori, eta etçuten ardiesten aditcera cer cioen.

35. Hurrandua cela Ierikhora, aurkhitu çuen itsu bat, bide bazterrean iarriric, esque cegoena.

36. Eta hare, entçunic ostea iragaiten, galdetu çuen cer een.

37. Ihardetsi cioten, iragaiten hari cela Jesus Nazaretharra.

38. Berehala hasi cen bada oihuz : Jesus, Dabitzen semea, nauçula urricari.

39. Eta aitcinean cihoacenec erran cioen muthiriqui, ichilic cegoela; bainan bare are phizcorquiago oihua çaraman : Dabitén semea, arren urrical naquicela.

40. Baratu cen orduan Iesus, erakbarri çuen here gana, eta hurbildu cenean, galdetu cioen :

41. Cer nahuçu daguiçudan ? Ihardetsi eioen itsuac : Iauna, dakhusadan.

42. Erran cioen Iesusec : Ikhüs eçaçu; çure sinhesteac salbatu çaitu.

43. Eta ordu beretic ikhusi içan çuen, eta iarraiquiteen citçaioen, handizcateen quela Iaincoa. Eta populu guciac ere, hori ikhusi çuelean, aithor eman ciœn Iaincoari.

---

### XIX. CAPITULUA.

*Zakheoc Iesusi bere etchean iatera emaiten dio. Sehien eta diruen iduripena, Iesusen sartcea Ierusalem; hiri haren gainean nigar equiten du, eta bere deseguitea aitcinetic erraiten dio. Templotic lekhorerat emaiten ditu saltçailleac.*

1. IESUS sarthuric Ierikhon, iragaiten een hiria gaindi.

2. Eta guiçon batec, Zakheo çaritçanac, ceina baitcen ere Publicanoen buruçagui, eta hainitz aberatsa,

3. Nahi çuqueen ikhusi Iesus, cein othe

cen; eta ecin ceçaqueen ostea gatic, ceren bere heinean laburtto baitcen.

4. Beraz aitcinat laster eguinie, igan cen phico-çoro (1) batetara, ikhustecotçat; eeen handic behar çuen iragan.

5. Eta ethorri cenean, beguiac Iesusec goiti iraultcearequin (2), ikhusi çuen guiçon hura, eta erran cioen : Zakheo, iauts çaitet, laster eguiçu, egun çure etchean egon behar dut.

6. Iautsi cen Zakheo lehiatuqui, eta hartu çuen bere etchean bozcariorequin.

7. Eta holacorie ikhusi çutenean, guciac basi ciren erauntsian, ciotela : Guiçon behatore bat baithara aldaratu da.

8. Bizquitartean Zakheoc, Iaunaren aitcinean cegoela, erran cioen : Iauna, ene onthasun gucien erdiac emaiten darozquiotet gabeei; eta baldin nehori deuseretan bidegaberie eguin badarocat,bihurtcen diot lauretan bertee hambertee.

9. Erran çuen bada Iesusec : Gaurco egunean salbamendua sarthu içan da etche huntas, ecen hau ere Abrahamen seme da.

10. Ethorri da eeen guiçonaren Semea galdua cenaren bilha eta salbatcera.

11. Eta cegozquiola entçuten, ekharri çaroen iduripen hau, ceren, Ierusalemetic hurbil celacotz, uste baitçuten egun laburric artean aguertceera cihoala laincoaren erresuma.

(1) *Phico-çoroa*, çuhaitz larrisco bat, frances erdaraz *sycomore*.

(2) *Iraultcea*, edo itçultcea.

42. Erran içan çuen beraz : Ethorqui handitaco guïçon batec, elhoalaric atee herri urrun batera, erresuma batez iabetcera, guero bihurtcecotan,

43. Deithu cituen hamar sehi beretarie, eta eman çarozquioten mila libera diru, ciostela : Horiequin irabaz eçaque, ni iteul arte.

44. Bere herritarrec ordean higün baitutene, egorri cituzten beretarie cembait haren ondotie, meçu hunequin : Eztugu nahi guïçon hori gure erreguetçat.

45. Ethorri een bada, bere erresumaz iabe egun cenean, eta deith-araci cituen dirua eman çaroen sehiac, iaquitecotçat cemba bakhotchee irabaci çuten.

46. Iin eitçaioen lehena, cioela : Iauna, çure chun liberee bertee hamar chun irabaci dituzte.

47. Ihardetsi cioen : Ongui da, schiena; ceren eta gauça aphurrean egun duen arthosqui, içanen duçu hamar hiriren artha.

48. Iin een halaber bertee bat, cioela : Iauna, çure chun liberec ekharri darozquitute bertee bortz chun.

49. Ihardetsi cioen huni ere : Orobataç, içanen çara bortz hiriren burucagui.

50. Eta iin een bertee bat, cioela : Iauna, hementche dituçi eeure chun liberac; begiratu içan ditut oihaltto batean;

51. Ecen lotsateen nindoçun, ceren baiçara guïçon garratz bat, eta galdeceen bai-

tuę eman eztuęuna, eta biltcen erein eztuęuna.

22. Ihardetsi cioen nausiac : Hiru aliotic heretic harten hait, sehi tçarra; bahaquien guion garratz bat naicela, galdeacen dutala eman eztudana, eta erein eztudana bilteen dutala;

23. Eta cergatic eztuc ecarri ene dirua irabacian, ethorri eta irabaz goiarequin atheratu bainuqueen?

24. Orduan erran çaroen han cirenei : Edec eçotçue dituen ehun liberae, eta emotiteue hamar chun dituenari.

25. Ihardetsi cioten : Bainan, launa, baditu iadanie hamar ehun.

26. Dioste : Erraiten darotçuet, duen batbederari emanen çaiocela, eta içanen duela gaindiro; eztuenari ordean, duena ere khenduren çao.

27. Ene etsaiez denaz beçambatean, ez-painante ni nahi içan bere crreguetçat, ekhar-aracitçue hunat, eta hilzquitçue ene aitcinean.

28. Solhas hori eguin ela, lothu cen Jesus Ierusalemenco bideari.

29. Eta hurbildu cenean Betphayera eta Bethaniara, Olibeta deiteen den mendi heguira, egorri cituen bere dicipulu tariebia,

30. Ciostela : Çohazte, bekhoz bekho dagotuen herrichea hortara; eta sartcea-requin batcan, aurkhitueo duene astacume bat estecan, ceinaren gainera egundaiño

ezpaita nehor igan; harraue estecatic, eta ekhar dieçadaue.

31. Eta nehore galdecen baderautçue : Cergatic deslotcen duçue hori ? Erroçue : Ceren launac behar baitu.

32. Ioan ciren egorri cituenac, eta aurkhitu çuten astacumea erran toqui berean.

33. Eta sokharen deslotcen hari citçaizcolaric, galde egnin cioten iabeee : Cergatic deslotcen duçue astacumea ?

34. Ihardetsi çuten : Ceren launac behar baitu.

35. Ekharrí cioten bada Iesusi ; eta bere soinecoac eçarriric astoari bizcarrera, iararaci çuten Jesus gainean.

36. Eta bidean cihoala, osteec bidea ihaurteen cioten bere soinecoez.

37. Hurbildu cenean bada Olibetaco mendiaaren iaustera beçala, hasi ciren multçoca dicipuluac Iaincoari oihuz eta aharaiaz, bozario handitan, ikhusi cituzten espantuac gatic,

38. Ciotela : Ongui-ethorri launaren iceanean heldu çaicun erregueari ! Baquea dela ceruan, eta dohacunde lekhu gorenetan !

39. Horren gainean, ostean ciren Pharisau batçuec erran cioten : Nausia, educatçu çure dicipuluac.

40. Ihardetsi caroen : Eguiaz diotsuet, baldin haue ichil baditez, harriec oihu egninen dute.

41. Eta aiteinago iðanic, Ierusalem eco hiria ikhusi çuen beçain sarri, nigar eginen çuen haren gainean, cioela :

42. Damu gaitcie, emana çainan egun huntan bederen, ezpaitun eçaguteen hic ere, cer bidez baquea ardiets deçaquenan! Bainan orai hauc gueiac estaliac ditun hire beguientçat.

43. Beraz hire etsaiee sethiatuco haute lur-ebaquiz eta çur-hesiz, eta inguratuco haute, eta hertsico haute alde orotarie;

44. Eta iraicico haute lurrerat ihaurri, hi eta hire barnean diren umeac, eta ez-tine hitan utcico harria harriari datchecola; ceren ezpaitun eçagutu Iaincoa hi ganat iin içan den eguna.

45. Guero sarthu cen temploan, eta eman een egozten handic saltcen eta eros-ten hari cirenac,

46. Erraiten çaroelarie : Isquiribatua da : Ene etchea othoitecco etchea da; eta quec eguin duçue ohoin harrobi bat.

47. Handic harat, hari een egun oroz temploan erakhasten. Bizquitartean Aphez-nausiac, eta Isquiribauac, eta populuaren buruçaguiac çabilzecon galdu nahiz;

48. Bainan ecin cieçoqueten deus ere eguin, ceren populu gueia haren ezpainei baitcegoen, entçuteco guthiciaz.

## XX. CAPITULUA.

*Cer escubide çuen Iesusec eguiten cituenen eguitecotçat. Mahasti çainen eta etche buruco harriaren iduripenac. Bakhotchari berea, eta cergae çucen duenari behar di relabihurtu. Hilen birphizteaz. Jesus Dabitzen seme eta buruçagui. Isquiribauen handigoa.*

1. EGUN hetarie batez, hari celarie Jesus temploan populuari erakhasten, eta Ebanvelioaren adi-araciteen, ethorri eitzaizeon Aphez-nausiac, eta Isquiribauac Çaharrequin batean,

2. Eta hunela mintçatu eitzaizeon : Erraguçu : cer ahalez eguiten tutu hauc oro, edo norc emanic duçu esen hori ?

3. Ihardetsi çaroen Iesusec : Nic erc hadarotçuet galde bat eguiteco. Erradaue :

4. Ioanesen bathaioa ceruticacoa cena, ala/guiçonen ganicacoa?

5. Eta hec bere baithan cegocen, eta cioten : Baldin erran badeçagu, ceruticacoa cela, bihurtueo daroçu : Cergatic bada eztuçue sinhetsi ?

6. Eta badiogu, guiçonen ganicacoa cela, populu guciac harricatuco gaitu; eeñ oso qui daducate profeta cela Ioanes.

7. Ihardetsi cioten, eteaquitela nondicacoa cen.

8. Erran çaroen berriz Iesusec : Ezta-

rotquet bada nic ere erranen cer escubidez hauc eguiten ditudan.

9. Hasi cen orduan iduripen hunen erraiten populuari : Behiala, guicon batec landatu çuen mahasti bat, eta eman çaroen arthatceria etchetiar batçuei; bera, guero, ioan cen atee herri batetarat, non egon baitcen luçaqui.

10. Ethorri cenean mahats aroa, egorri çaroen etchetiarrei sehi bat, bere mahats aldearen harteccotçat. Bainan hec sehia ce-hatu çuten, eta egorri guibelat hutsic.

11. Bidaldu çaroen guero bertee bat; bainan io çuten hura ere, eta laidoztatu, eta deus gabe egorri.

12. Hirurgaren bat bidaldu çaroen oraino, eta hau çaurthuric, egotci çuten mahastitie lekhorerat.

13. Orduan erran çuen mahastiaren ia-beac : Cer eguiñen dut? Egorrico daroet ene seme bakharra : aguian hau ikhusten dutenean, lotsa içanen dirade.

14. Bainan aiteitic, ikuusi çuteneceo mahasti çainec, eman çuten bere buruari huela : Hau premua dugu; hil deçagun, eta onthasuna gure date.

15. Eta egoteiric mahastitican, hil içan çuten. Cer eguiñen daroe beraz mahastia-ren ia-beac?

16. Ethorrico da, eta gueiz galduco ditu mahasti çain hequiec; eta mahastia emanen daroe bertee batçuei. Horren gainean ihardtetsi cioten Pharisauec : Aguian ez.

17. Bainan Iesusec ceihar behateen çaroela, erran çaroen : Ger da bada isquiribatua den hau : Harguinec bazterrera emanicaco harria, egun içan da etchearen harriric beharrena ?

18. Eta nor ere harri haren gainera erorico baita, çathicatuco da, eta noren ere gainera erorico baita, eta hora chehacatuco du ?

19. Aiher citezquen Aphez-nausiac eta Isquiribauac orduan berean Iesusi lotcera, ceren eçagun baitçaien hetaz cioela iduripen hori ; bainan populuaren beldur içan ciren.

20. Eta beguia eduquitcen ciotela, egorri ciotçaten celatari batçu, aleguia hec/guiçon çucenac, hatceman ceçatentçat bere hitcetan, eta guero eman ceçaten aitcindarien eta gobernadorearen escuetarat.

21. Hauquiec bada egun cioten galde hau : Nausia, badaqnigu chuchen mintço çarela, eta ongi erakhasten duçula ; eta nehor nor den eztuçula aeholarie ; bainan erakhasten duçula eguiazqui Iaincoa ganaco bidea.

22. Bide çaiet(1) cergaren Cesarri bihurteea, ala etçaiet bide ?

23. Iesusec, ikhusten baitçuen hequien maltçurqueria, erran çaroen : Certaco bilhatseen nauçue ?

(1) Bide çaiet, cilhegui çaiet, bidezqui, çucenqui, eta ez makhur, ez ceiharca.

24. Eracuts dieçadaque denario bat. Nonrenac dira hemengo itehura hau eta icen hau? Ihardetsi cioten : Cesarrenac.

25. Erran çaroen : Bihur eçotue Cesarrenac Cesarri, eta laincoarenac laincoari.

26. Ecin aurkhitu çuten haren hitcetan erraitecorie, populuaren aitcinean altcha cioçoquetenie; eta haren ihardestea mires-ten çutela, ichildu ciren.

27. Ondotic, hurbildu citçaizeon Sadducear cembait, ceinee baitaducate hilen phizteric eztela, eta eguin içan cioten hunela galde :

28. Nausia, utci darocu Moisesec isquieribaturie aguintea hau : Baldin norbaiten anaia hil badadi, emazte baducla, bainan haurriez, haren anaia ezcon bedi emazte harequin, eta eman dioçola leinu bere anaia cenari.

29. Baciren bada çazpi anaia; ezcondu cen guehiena, eta hil cen ondoreric gabe.

30. Hurrenecoac hartu çuen beraz haren emaztea, eta hil cen hura ere leinuric gabe.

31. Hirurgarrenac orduan hartu çuen emaztea; eta halaber çazpiec, eta etçuten haurriez içan, eta hil içan ciren.

32. Gucien ondotic hil içan cen emaztea bera.

33. Beraz hilac phiztuco direnean, ceinena içanen othe da? Eeen çazpiec içan dute emaztetçat.

34. Ihardetsi çaroen Iesusee : Mende huntaco umeee harteen ohi dute senhar eta emazte;

35. Bainan, hiletarie phizturic, bertee mende dohatsucotçat gai içanen direnec, eztute hartueo guiconic, ez emazteric;

36. Ecen eztira guehiago hilen ahal, ceren içanen baitira aingueruequin bardin, eta Iaincoaren seme, içanen direlacotz hiletarie phiztuac.

37. Hilac phizturen direla bada, Moises berac ere erakhusten du, dioenean othe tustoaren aldean (1), Iauna dela Abrahamen Iaincoa, eta Isaaquen Iaincoa, eta Jacoben Iaincoa.

38. Eeen ezta Iaincoa hilen Iaincoa, bainan bai biciena, guciad hari bici baitçaizquierio.

39. Erran cioten bada Isquiribau cembaitec : Nausia, ederqui ihardetsi duęu.

40. Eta orduz gueroztic etcitçaion nehor ausartcen deusereren gainean galderic eguitera.

41. Bainan berac erran çaroen : Nola diote Dabitent seme dela Christo ?

42. Dioenaz gueroz Dabid berac psalmoen liburuau : Iaunac erran dio ene Iaunari : Iar çaita ene escuinean,

43. Eçar detçaquedan artean çure etsaiac çure oinetaeo khachetatçat (2).

(1) *Tustoa*, othe, ametz, sabats edo bertee multchoa.

(2) *Khacheta*, oin-alkhi edo iar-alkhi nümino bat.

**44.** Beraz Dabitec deitcen du bere launa;  
ordutic nola dunque bere seme?

**45.** Guero entçuten çuela populu guciae,  
erran çaroen dicipuluei :

**46.** Hastan çaitetzte Isquiribauetarie, cei-  
nei lakhet baitçazte içaitea soineco luceac,  
eta bil-toqui aguerrieta agurrae, eta lehen  
cadirae batçarretan, eta lehen iar-lekhuac  
othuruntcetan;

**47.** Eta alhargunen etcheac iresten bai-  
tituzte, beren othoitz luceen aleguiaz. Bau-  
quiei garrazquiago iaçarriren çaquioye.

---

## XXI. CAPITULUA.

*Alharguntsaren amoina. Temploaren dese-  
guiteaz aitcinetic aiphateen du Iesusec.  
Certaric eçaqutuco den hurbil dela, eta hu-  
laber Jesu-Christoren azquen ethortcea.*

**1.** Beha cegoen egun batez Jesus aberats  
cembaiti, hari cirela bere emaitcen eçartcen  
amoina biltceco khutcharat.

**2.** Ikhusi baitçuen alhargontsa behartio  
bat, emaiten cituela harc ere bi cipa ttipi-  
tto,

**3.** Erran çuen : Eguiaz diotsuet, emazte  
behar huneec eman du bertce oroc baino  
guelhiago;

**4.** Ecen bertce gucioe, bere nasaitas-  
netic eguin diotçate laincoari emaitçac, eta  
huneec berriz, bere escasiatic, doi doia bi-  
citceco çuen gucia eman içan du.

5. Eta batçuec erraiten baitcioten templa harri ederrez eguna celo, eta emaitza handiz aberastua, ihardetsi çaroen :

6. Ethorrico dirade egunac, ceinetan ez-paita utejio harria harriaren gainean, ikhusten ditutçuen hauquietan orotan; bainau lurrerat aurthiquico dirade.

7. Orduan galdequin cioten : Nausia, noiz guerthatuco dira horiec? Eta certaric aguerico da guerthatzeera dohacela?

8. Erran çaroen : Beguirauque etçaitzaten nehorre baira (1); hainitçac ecen ethorrico çaitçue, diotela : Ni naiz Christo, eta bethe dira mugac; bainan etçohaztela hequien ondotic.

9. Eta entçunen duçuenean guduz eta nahasmenduz aiphu dela, ez ici; horiec ethorri beharrae dira lehenik, bainan ezta oraino azquen muga.

10. Erraiten çaroen beraz : Emanen dio populuac populuarri, eta erresumac erresumari;

11. Eta içanen da han hemencia lur ikeratee gogortic, eta içurrite, eta gosete, eta ceruan behin ere ikuhi eztiren harrigarizco espantuac.

12. Bizquitartean, hauc gueioc baino lehen, escuac gainean eçarrico darozquitoete, eta gaizqui erabiliko çaituztete, eramaiten çaituztetela batçarretara eta presondegiatarra, eta herrestatcen erregueen

(1) *Bairatcea*, balacuz edo bertcela enganatcea.

eta gobernadoreen aitcinera, ene icena gatik.

13. Eta horiec guerthatuco çaiquitçue, nitaz lekhucotasun egui deçaquentçat.

14. Har eçaque beraz ongui buruan, eztuçuela behar aitcinetic gogoan erabili nola ihardets ahal deçaqueçuen.

15. Emanen darozquitçet ecen nie aho bat eta çuhurteia bat, ceinei ecin buru eguiñen eta ecin iharduquico baitiote çuen etsai gueciec.

16. Eramanen çaituztete galteera ceuen burhasoec berec, eta ceuen haurrideec, eta ascacieec, eta adisquideec; eta hil-aracieo dituzte ere çuetaric ez guti.

17. Eta içanen çarete gueciec hastiotuac, ene icena dela.

18. Halarican ere, çuen buruco ile izpi bat ere ezta galduco.

19. Ceuen iraupenaz içanen çarete ceuen arimen iabe.

20. Bada dakhusaçunenean etsai osteeingurateen dutela Ierusalem, orduan iaquiçaque hurbil datela haren deseguigoa.

21. Orduan Iudean direnec, ihes beguite mendietarat; eta herrian direnac, ilkhi bitez, eta atce herritan direnac, ez bitez sar.

22. Ecen mendecuzeo egunac dira hauc, bethe ditentçat isquiribatuac içan direnac.

23. Çorigaitz içorrac edo unhide ditezquen emazteentçat egun hetan; ecen herstura handia içanen da herrian, eta haserrean iau-tsico da populu hunen gainerat.

24. Eta iraganen dituzte ezpataren ahoz, eta eramanen herri gucietarat mempecotçat, eta Ierusalem oinen azpian aurizquituco dute iendaqui atceec, hequien eguna bethe daitezquen artean.

25. Orduan aguerico dira egundaino içan ez diren gauçac iguzquian, eta ilharquian, eta içarretan; eta harridura handibatec herstuco ditu iendaquiac, entüteten dituztela itsasoaren eta uhinen orroac;

26. Hartarinocoan ecen ihartuco baitira guiconac icialdurarequin, eta lur guiciari ethorri behar çazineon gaitcen igaripenean; ecen cerueo osteac ere iharrosico dirade.

27. Eta orduan ikhusico da guiconaren Semea hedoi baten gainean heldu dela ahal handirequin, eta arguitasunez iauntziric.

28. Noiz eta bada haue eguiten hasico baitira, beha cęaque eta goiti eçatçue buruac, ecen hurbil date çuen berrerospna.

29. Eta ekharri çaroen iduripen hau: Ikhusaçue phico hondoa, eta bai bertce çohaitçac ere.

30. Ia hostateen hasiac dakhusquitçue-nean, eçaguteen ahal duçue uda hurbil dela.

31. Halaber haue guciac heltcen ikhusico ditutçuen beçain sarri, iaquique ecen hurbil dela laincoaren erresuma.

32. Diotsuet eguiazqui, eztela mende hau iraganen, haue gucioc guertha daitecen artean.

33. Iraganen dira eero-lurrac; ene hitteac ordean eztirade iraganen.

34. Artha educaue bada eztitecen quen bihotçac nagui asequeriaz, eta hordiqueriaz eta bicitce huntaco antsiez, eta eztaqui-quen egun hora gainera betbetau eror.

35. Ecen sare hatec beçala ingurucatuco ditu lurraren gainean bici diren gueiac.

36. Hartaracotz, çaudetzte atçarriric, eguiçue bethi othoitz, ihes ahal daguio-çueten ethorri behar diren hanquiei orori, eta gai çareten guionaren Semearen aitcinean aguertecoco.

37. Hari cen horrela egunaz temploan erakhasten, bainan gauaz ilkhiric, bacihoañ Olibeta daritzen mendira.

38. Eta populu gucia heldu citçaoen goicean goiz templora, entçentecotçat.

## XXII. CAPITULUA.

*Iesusen pairuaren hastapena. Iudasek saltcen du. Azquen apharia, eta gorphutz sainduaren lehembicico eguitea. Ion Done Petiriren sinhestarentçat othoitça. Jesus baratcean, Caiphasen baithan. Petiriren ukhatcea eta urriquia. Jesus escarniatua.*

1. HURBIL cen bada ogui altchagarri ga-bezeo iai-eguna, ceina deiteen baita Phazeo.

2. Eta Aphez-nausiac eta Isquiribauac bide bilha çabiltçan Iesusen hil-aracitecotçat; bainan populuaren heldur ciren.

3. Bizquitartean sarthu cen Satanas Iudas Iscariot deitzen cenaren barnean, eta cen hura hamabietarie bat.

4. Ioan cen beraz Aphez-nausi eta bertsce aitcindarien aurkhiteera, hitz hartecotçat hequiequin nola Jesus escuratuco çaien.

5. Atseguinequin hartu çuten hequieci, eta egun çuten emanen ciotela hunembertee diru.

6. Berac ere hitz eman çaroen; eta handic harat mugaldi goait cegoen, Iesusen hequiei escuetaratececotçat, populuaren ganie habarrotsic gabe.

7. Ethorri cen hada lemami gabeko oguien eguna, ceintan baitezpada Phazeoco bildotsa erho (1) behar baiteen.

8. Eta egorri cituen Iesusec Piarres eta oanes, ciostelarie : Çohazte, aphaia diebaguue phazcoa, ian deçagun.

9. Ihardetsi cioten : Non nali duęu aphaia dieçauegun?

10. Erran çaroen : Huna; hirian sartzen caretelarie, bathuko çaitueguiçon bat, pherreta bat ur daramala; çohazquiote ondotic sarthuko den etcheraino;

11. Eta hango etcheco iaunari erranen dioque : Nausiac gaztiatzen darotzen : Non da neure dicipuluequin phazcoa egun decaquedan guela?

12. Eta hare eracutsico darotue guela handi bat, dena aphaindua, eta han eguzquitue behar direnac.

(1) *Erhaitea*, hiltcea.

13. Ioan ciren dicipuluac, eta ediren ci-tuzten oro Iesusec erran çuenaren arabera; eta phazcoa aphaindu çuten.

14. Eta ethorri cenean ordua, eçarri cen mahajnean bere dicipuluequin.

15. Eta erran çaroen : Hainitz guthicia içan dut phazeo hau çuequin iateco, paira deçadan baino lehen.

16. Erraiten darotçuet ecen, gargoro ez-tudala phazcoric ianen, bethe dadin arte-raino laincoaren erresuman.

17. Guero harturic edari untcia, esquer-rac bihurtu cituen, eta erran çuen : Har eçaçue, eta edaçue çuen artean.

18. Diotsuet ecen, ez tudala edanen ai-benaren goçotic, ethor daiteno Iaincoaren erresuma.

19. Eta harturic oguiä, esquerrac bi-hurtu ondoan, hautsi çuen, eta eman çaroen cioela : Han ene gorphutça da, çuent-çat emana dena; eguiçue hau ene orhoitçapenetan (1).

20. Halaber harti çuen edan untcia, aphaldu ondoan, cioela : Khalitea hau tes-tament berrico khalitça da ene odolean, ceina çuentçat ichuria içanen baita.

21. Bizquitartean, ni saltcen nauenac,

(1) Deusec ere ezaïtçaque, Jesus gure gatic bit içan dela hain ongi orhoit araz, nola haren gor-phutça iateae, iduri dneta hila aldarearen gainean; ecen itchuraz gorphutça odoletic berecia da, nahiz bicia deu launa eta oso, bai oguiaren eta bai arnoa-ren iduriaren pean.

aspilean (4) dauca escua enequin batean.

**22.** Alabainan guiçonaren Semea, isquribatua den beçala, badoha; corigaitz ordean guiçonaren Semea salduco duen guiçon harentçat!

**23.** Hasi ciren orduan dicipuluac galdeguiten batac bertceari, cein othe cen hequietan holacoric egunen çuena.

**24.** Guero altchatu çuteu beren artean liscar bat, iharduquitcen çutela cein cen hetaric handientçat eduqui behar cena.

**25.** Eta erran çaroen : Nacioneen erregueee buruperequin erabilteen ohi dituzte, eta hequien gainean nausitasun dutenac, ongui-guile deiteen dituzte.

**26.** Ez ordean çuen artean ; aitcitie handien dena, biz ttipiena beçala, eta aitcindari dena, sehi beçala içan bedi.

**27.** Cein da handienn, çuen antcera, mahainean iarriric dagoena, ala cerbitçaria? Eztea mahainean dena? Bizquitartean ni cuequilan naiz cerbitçari bat beçala.

**28.** Eeen çuec çarete enequin iraun duçuenac ene guerthacari gaichtoetan;

**29.** Eta nic aphaintcen darotçuet, Aitac niri aphaindu darotan beçala, goico erresuma;

**30.** Ian deçaçuen, eta edan deçaçuen mahainean enequin ene erresuman, eta, al-khi bereci batçuen gainean iarriric, iuia deçatçuen Israelgo hamabi leinuac.

(1) *Aspila*, plata erran nahi daite.

**34.** Ondoan Iaunac erran çuen : Simon, Simon, galdeguin çaituzte quee Satanasec, bahean bihia beçala baha çaitçatentçat.

**32.** Bainan nic othoitz eguiñ dut çu-  
retçat, ezteçan hutsic eguiñ çure sinhes-  
teae; que bada, noizpait itçulteen çaquiz-  
quiotela, gogor eçatçu çure anaiaç.

**33.** Erran cioen orduan Piarresee : Iauna,  
hemen naiz ni çurequin ioalteco preson-  
deguirat, eta bai herioteeraino.

**34.** Iesusec ihardetsi cioen : Eta nic  
diotsut, Piarres, gaur oilarrac io deçan baino  
lehen, ukhatuco duçula hirur bider (1)  
eçagutcen nauçula.

**35.** Egorri içan çaituztedanean çakhuric  
gabe, çarparic gabe, eta oinetacoric gabe,  
escastu othe çaitgue deus ere ?

**36.** Ihardetsi cioten : Ez, deusere. Erran  
çaroen beraz : Bainan orai, çakhuric due-  
nac, har beça, eta halaber çarparic due-  
nac, eta norbaitec ezpadu, sal beça bere  
capa, eta ezpata bat eros.

**37.** Erraiten darotçuet eeen, isquiribatua  
den hunec ere bethe behar duela : Eta  
gaichtaguinen herronean eçarria içan da.  
Eta nitaz erran içan direnac, bethetcera  
dohaz.

**38.** Erran cioten : Iauna, baditugu he-  
men bi ezpata. Ihardetsi çaroen : Asco da.

**39.** Orduan ilkhi cen, eta, ohi beçala,  
ioan cen Olibetaco mendirat.

(1) *Bider*, erran nahi da, aldiç.

40. Eta lekhn hartara heldu cenean, erran çaroen : Eguiçue othoitz, gaiteean eteaitezten eror.

41. Bera bereci cen hetaric, harri iraizte baten ingurua, eta belhauricaturic, othoitz eguiten çuen,

42. Cioela : Aita, baldin hala atseguin baduęu, hastan eçaçu edari hau ni ganic; halaric ere ez ene nahia, bainan curea eguin bedi.

43. Orduan aguertu citçaoen ainguern bat, indarztatcen ęuela; eta herstura handitan cegoclaric, othoitz eguiten çuen arc guehiago.

44. Eta iauci citçaison icerdi bat, odol chortac iduri, lurrerat çarioela.

45. Guero iaiquiric othoitetic, ethorri cen dicipuluñ gana, eta aurkhitu cituen lo çautçala, gogoa eroria baitçuten.

46. Eta erran çaroen : Cer, lo çautçate? Iaiqui çaitezte, eta othoitz eguiçue, etçaitezten gaiteean eror.

47. Mintço cen oraino, noiz ere aguertu baitcen guiçon aralde bat; eta aitcindari çuten hamabietaric bat, Iudas erraiten ciotena; eta hurbildu citçaoen Jesusi musu eguiteco.

48. Eta erran cioen Iesusec : Cer bada, Iudas, musu batez guiçonaren Semea saltseen duęu?

49. Orduan, haren eretcean (1) cirenec,

(1) *Eretcean, aldean.*

ikhusiric certara ciboacen, galdeguin cioen : Iauna, ioren dugu ezpataz?

50. Hambertcenarequin, io çuen batec Aphez-nausiaren sehi bat, eta mozta cioen escuineco beharria.

51. Bainan erran çaroen Iesusec : Bara çaitztle, eta egon gueldiric. Eta guiçon haren beharria hunquituric, osatu çuen.

52. Guero cegocotela haren hartcera ethorri ciren Aphez-nausiei, eta Temploco aiteindariei eta Caharrei, erran çaroen : Ohoin baten ondoan beçala ethorri çaiquidate ezpatequin eta uheequin (1).

53. Egun oroz quequin temploan nintcelaric, eztarotaçue escua eman gainera; bainan orai da çuen ordua, eta ilhumbeen bothcrea.

54. Orduan lothu citçaizcon, eta eraman çuten Aphez-nausiaren etcherat; eta Piarres iarrai qui citçaioen urrundanic.

55. Eta phizturic sua ezcaratçaren erdian, iarri ciren inguruan, eta Piarres ere bai hequiequin.

56. Ikhusi çuen nescato batec suaren aitcinean iarriric, eta ongi beguiztatu çuen ondoan, erran çuen : Hau ere harequin cen.

57. Bainan hare ukhatu çuen, cioela : Emaztea, eztinat eçaguteen ere.

58. Aphur baten buruan, bertee norbaitec ikhusiric, erran cioen : Cu ere he-

(1) *Uhea*, edo makhilà baten antçora egunilicaco cer nahi.

tarie cara. Ihardetsi cioen Piarresec : Ez, adisquidea, ez naiz hetarie.

59. Handic ordu baten buruan edo, bertee hirurgarren batec, baietz eta baietz cioela, erran çuen : Eguiazqui hau ere harquin cela, ecen Galilearra ere da.

60. Ihardetsi cioen Piarresec : Guiçona, eztaquit cer dioçun. Eta arte hartan berean, nola mintço baitcen oraino, oilarrac io çuen.

61. Orduan Iaunac, itçuliric, egun cioen beguihartzet Piarresi; eta gogoratu citçaioen Iaunac erran cioen hitça; erran baitcioen : Oilarrac ioren duen baino lehen, hirur bider ukhataco duçu nitaz.

62. Eta ilkhiric, nigar egun çuen saminqui.

63. Bizquitartean Jesus çaducaten guionac, hari citçaizcon escarniateen, iotcen çutela.

64. Estali ciotçaten beguiac, eta beguihartzean ukhaldi eman eta, galdeguiten cioten : Asma eçac, norc io hau?

65. Eta erraiten cioten bertee hainitz holacoric, irauez mintço citçaizquiola.

66. Argitu cenean, bildu ciren populuaren arteco Caharrac, eta Aphez-uausiac, eta Isquiribanae, eta erakharriric bere battearrera, erran cioten : Baldin çu Christo baçara, erraguçu cerorrec.

67. Ihardetsi çaroen : Baldin erran badieçaquet, ez naue sinhetsico.

68. Eta baldin cerbait galde badaguiquet,

eztarotaue ihardetsico, eta ez nauçue  
uteico ioaitera.

69. Orain danic harat bada, iarria içanen da guiconaren Semea Iainco guciz ahaltuaren escuinean.

70. Erran cioten guciee orduan : Gueroz goiti Iaincoaren Semea cara? Dioste : Hala dioçue, eta hala naiz.

71. Horren gainean erran çuten : Certaco ditugu guchiagoco lekhucoac? Ecen gueronec entçun dugu beraren ahotie.

---

### XXIII CAPITULUA.

*Jesus Pilatusen aitcinean, guero Herodesen, guero berriz Pilatusen. Barrabbasez hau-tacen dira Iuduac. Jesus Calbariora dramate. Khurutcean itçatcen dute. Ohoin ona. Hiltcen da Iauna, eta chorzten du Joseph Arimathiarac.*

1. ALTCHATU cen bada batçar gucia, eta eraman çuten Pilatus ganat.

2. Eta hasi citçaizcon iauquitcen (1), ciotela : Aurkhitu dugu hau hari dela ostearen nahasten, eta legarrac Cesarri bi-hurtcetic debecatcen, eta erraiten ecen bera dela Christo erreguea.

3. Pilatusee beraz galdeguin cioen : Iudutarren erreguea cara çu? Ihardetsi cioen : Dioçun beçala.

(1) *Iauquiteea*, hitcez edo eguitcz iççartcea, ataccea.

4. Orduan erran çaroen Pilatusec Aphez-nausiei eta osteei : Guiçon huntan eztut deos khausitzen erraitecoric.

5. Bainan hec are gogorquiago cioten : Asaldateen du populu gucia, erakhasten hari dela Iudea gucian, hasi Galileatic eta hunaraino.

6. Entçun çuenean Pilatusec aiphatcen Galileaz, galdeguin çuen, hea bera Galilearra cenetz.

7. Eta eçagutu çuen beçain sarri Herodesen escuco cela, bidali cioen Herodesi, egun hetan Ierusalemen baiten.

8. Herodes bada, Jesus ikhustcarequin, boztu cen handizqui; eeen aspaldi hartan hura ikhusi nahia cen, hainitz hartaz aiphateen entçun çuelacotz; eta nste çuen cembait espanturen eguiten ikhusico bide çuela.

9. Eguin ciotçan beraz hainitz eta hainitz galde; bainan Iesusec etcioen deusetan ere ihardetsi.

10. Eta bizquitartean Aphez-aiteindariae cre eta Isquiribauac han eiren, hisituqui iauquitzen çutela (1).

11. Herodesee beraz, bere ingurucoequin, ez deusçat utci çuen Jesus; eta esearnioz soin churi bat iauntz-araciric, guibelat egorri cioen Pilatusi.

12. Órdi danic adisquidetu içan ciren

(1) *Hisituqui*, hisiarequin, burkhoiqui, gauça batean norbait gogortuaz dohala.

**Herodes eta Pilatus, ecen aitcinago etsai-goañ ciren elkarren artean.**

13. Pilatusec bada bil-araci cituen Aphez-nausiac, eta aitcindariae, eta populuia;

14. Eta erran çaroen : Ekharrí darotaque/guiçon hau, populuaren nahasle bat dela; eta hargatic, quen aitcinean bera mintçearaci dudan ondoan, eztut guiçon hau, gainerat eçarteen diotçatçuen horietaric, deuseretan hobendun aurkhitcen;

15. Eta hain gati Herodesec; ecen egorri çaituztet haren aitcinera, eta ezta deusic içatu hau heriotcerat daramaquenic.

16. Cehatuco dut beraz lehenic, eta guero ioaitera uteico dut.

17. Ecen baitezpada athera behar çaroen, iai-egun hartan, gatheetan cirenetaric bat.

18. Bainan oste gucia oihuz betan iarri citçaison : Hilaçu hori, eta emaguçu Bar-rabbas.

19. Hau cen cephoetan çaducaten bat, norbait hil çuelacotz, hirian nahasdura bat içan cen batez.

20. Berriz ere mintçatu citçaien Pilatus, Iesus athera nahiz.

21. Bainan hec heiagoraz eman citçacon ciotela : Khurutçaçaú hori, khurutçaçaú.

22. Erran çaroen hirurgarren aldicotz : Cer gaizqui egun du bada? Eztiot hiltceco hobenic eçagutzen. Cehatuco dut, eta uteico dut.

23. Orduan hec garrasiaz herstu çuten, galde çutela khurutça ceçan; eta gueroago eta gorago eegocen oihuz.

24. Azquenecotz Pilatusee aguindu çuen eguin cequiotela galdeguiten çutena.

25. Athera çaroen beraz, galde çuten beçala, nahasçaire eta heriotee-guile celericotz estecatua cegoena, eta eman çaroen Jesus, bere nahira eguin cioçatentçat.

26. Eta çaramatelaric, baratu çuten bidean, landetche batetaric heldu cela, Simon çaritçan, Cirenear guïçon bat; eta eçarri cioten khurutcea sorbaldan, eraman ceçan Iesusen ondotie.

27. Çarraizecon bada guibeletic iendetce handiac, eta emaztequi hainitz, nigarrez cegozeola eta auhenez.

28. Itçuli citçaien Jesus, eta erran çaroen : Ierusalemeren alabac, ez nitaz nigar eguin; cebonez bercz eguiçue, eta ceuen umeez.

29. Ecen, hor heldu dirade egunae, cienetan erranen baitute : Dohatsu agorrac, eta haurric içan eztuten sabelac, eta eredosqui eztuten ugatçac!

30. Orduan erranen diote mendiei : Eror çaitsezte gure gainerat; eta aldapei : Estal gaitçatçue.

31. Ecen hunela eguiten badiote egur heccari, cer etçao eguin en idorrari?

32. Baçaramatçaten bada oraino bi gaichtaguin barequin batean, hil-araztecotçat.

33. Eta ethorri içan cirenean Calbarioa

deitcen den lekhura, han khurutçatu çuten Iesus, eta bi ohoinac ere bai, bata escuinetic, berteea ezquerreco aldetic.

34. Eta erraiten çuen : Aita, barkha dieceçu; eztaquite ecen cer hari diren. Guero bereci cituzten beren artean haren soinecoac, chorthe egotcirim.

35. Beha cegoen oste gucia, eta aitcindariec bertceequin batean nausaz erraiten cioten : Guiçon hunec bertceac beguiratu ditu; orai bera beguira bedi, baldin Iaincoaren Christo hautetsia bada.

36. Halaber hidioitzatzen hari citçaizcon soldadoac ere, hurbilteen citçaizcola, eta escainteen ciotela ozpina,

37. Eta erraiten : Indutarren erreguea bahaiz, atheradi hihaur hortican.

38. Cen bada isquiribatua haren buruaren gaineco aldean, grec, eta latin, eta hebreo mintçaiaz : HAU IUDUTARREN ERREGUEA DA.

39. Harequin urkhatuac ciren ohoinetric bat berriz, burhoz cegocon, ciotsalaric : Baldin Christo bahaiz, beguira eçac heure bicia, eta gurea ere bai.

40. Bainan bertceae ichil-arazten çuen, ihardesten cioela : Ez haiz Iaincoaren beldur ere, urkhabe berean hiltceraohan orduan?

41. Gu behintçat çucenqui; ecen darazquiagu gueure gaizqui eguiñeicor çaitenac; hunec ordean cer gaizqui eguin dic?

42. Guero erran cioen Iesusi : Iauna,

orhoit çaité nitaz, eeure erresumarat hel-  
teen çarenean.

43. Ihardetsi cioen Iesusec : Eguia diotsut, gaur beretic enequin içanen cara parabisuan.

44. Cen bada arrats aldeco hirur orduen heina, eta hedatu ciren ilhumbe handi batçu lur guciaren gainerat, sei orduac arteraino.

45. Eta iguzquia goibeldu cen, eta temploco beloa hautsi cen eta bi çathi eguin cen.

46. Orduan oihu ocen batequin erran çuen Iesusec : Ene Aita, emaiten dut eue arima çure escutarat. Eta hori cioela, aurthiqui çuen azquen hatsa.

47. Soldado aiteindariae bada, ikhusiric cer guerthatu içan cen,bihurtu cioen aithorra Iaincoari, cioela : Eguiazqui guiçon hau çucena cen.

48. Eta han so cegocen guciak, iragan ci-renac ikhusi eta, itçuli ciren guibelat bere bulharrei cerauntsatela.

49. Han çauden halaber Jesusen eçagunac oro, eta Galileatic iarrai qui citçaizeon emaztequiac, urrundanic beha.

50. Bacen bada guiçon bat, Joseph çaritçana, bere herrian Ichenetarie, guiçon ona eta çucena,

51. Ceina ezpaitcen sarthu içan bertceen chedeetan eta eguincarietan; Arimathea, Judeaco hiri batetacoa cen, eta iguriqui-teen çuen harc ere Iaincoaren erresuma.

52. Hura ethorri citçaoen Pilatusi, eta othoiztu çuen eman ciocon Iesusen gorphutça.

53. Eta habetic erautsiric, biribildu çuen mihise batean, eta harroquian eraguina çuen hobi batean ecarri çuen, ceintan ez-paitcen oraino nehor içan chortcirim.

54. Cen bada aphaintcen eguna, eta larumbata hastera cihohan (1).

55. Beraz Galileatic ethorriricaco emaztequiac, iarraiquiric Iosephi, ikhusi çuten ondoan hobia, eta nola ecarria içan cen han gorphutça,

56. Itçuli ciren, eta aphaindu cituzten urrin goçoac eta miritciac (2); bainan gueldiric egotu ciren larumbat osoa, leguearen ez haustecolçat.

(1) Iosephec ebortei çuen Jesus abal beçain laster, ortirale arrats aldean bereau; ceren arratsalde aphalarequin hasten baitcen larumbata, eta biharramun arratsalde aphal arte baitcirauen; eta bitartean lan guciak debecatuac ciren. Hartaracotz ortirale egunari *aphaintcen* eguna ceritçon, bihar-munean behar cirenac aitcinetic aphaintcen edo adelateen cirelacotz.

(2) *Miritciac* edo licurtac, usain goçozco ur batu, olioaren itchura bere loditasunaz dakharquetenac.

## XXIV. CAPITULUA.

*Iesus hiletaric phizten da. Aguertcen caie Emausco bi dicipuluei, guero Apostoluei; eçagut-aracitcen daroe nola eguiazqui phiztua den, eta aguinctcen daroe Ispiritu Saindua.*

1. ASTEAREN lehembieico egunean (1), ioan ciren emaztequi hec hobira, arguia urratcearequin batean, berequilan cekharz-tela aphaindu cituzten urrin goçoac.
2. Eta aurkhitu çuten hobaren sartcean cen harria, bazterrera amileatua.
3. Eta sarthu cirenean, etçuten aurkhitu Iesus Iaunaren gorputça.
4. Eta guciz nahasiric eta harrituric çaudecela, betbetan bi/guiçon aguertu citçaizten aldera, iaunzura distiant batequin.
5. Ikhariatu ciren, eta beguithartea lurrerat aphaldua çaucaten; bainan erran cioten hec : Cergatic çabiltçate hilen artean bici denaren bilha ?
6. Ezta hemen, bainan phiztu da; orhoit çaitenze nola mintçatu içan citeai-ten, oraino Galilean celaric,
7. Erraiten baitçarotçuen : Guiçonaren Semea gaichtaguinen escutara emana içan behar da, eta khurutcean eçarrico dute, eta phizturen da heren egunean.

(1) Erran nahi baita igande goiçarequin.

8. Orhoitu ciren bada Iaunaren hitcez.
9. Eta hobitic guibelat eguinic, ioan ciren hauquiez oroz berri emaitera hamisquei, eta bertce guciei.
10. Apostoluei berri hanquien ekhartçai-leac ciren, Maria Magdalena, eta Ioana, eta Maria Iaquesen ama, eta hequiequin ciren bertceac.
11. Bainan hartu cituzten hequien erranac erguelqueria batçuentçat, eta etcituzten sinhetsi içan.
12. Halarie ere, chutitu cen Piarres, eta laster eguin çuen hobira, eta beheittu ondoan, ikhertcecotçat(1), ikuhi cituen oihal hutsac bazterrean bere gain; eta bi-hurtu cen miresten çuela guerthatu içan cena.
13. Egun harten berean, dicipuluetaric bia bacihoacon Emaus çaritçan herrichea batetara, ceina baitcen bi orduen bidean Jerusalemetic.
14. Mintço ciren elkharren artean iragan içan ciren gauça hauquiez guciez.
15. Solhasean ciboacelaric, eta haue oro bere artean iragaiten cituztelarican, bathu citeaien Iesus bera, bacihoaala hequiequin.
16. Bizquitartean beguiac hertsiac beçala eitzten, etceçatentçat eçagut.
17. Eta galdeguin çaroen : Certaz duçue horrela solhas elkharrequin bidean, gogoa ilhun duçuela baitirudi?

(1) *Ikhertcea*, lehenago *ikhartcea*, artharequin miratcea, bilhatcea.

**18.** Ihardetsi cioen hetric batet, Cleophas deiteen cenac : Bakharra ahal cara, Ierusalem hoin arrotz carena, non ez-paitaquięcer iragan içan den azquen egun hautan?

**19.** Erran çaroen : Cer bada? Ihardetsi cioten : Jesus Nazaretharrari dagocanaz; ceina içan baita profeta bat bere eguineta beçala erranetan ere betheretsua, Iaincoaren eta populu guciaren aitcinean;

**20.** Eta nola Aphez-nausieec eta gure aitendariec hil-araci eta khurutçatu içan duten.

**21.** Uste guinduen bada guec, harrebererosiren çuela Israel; guciag gatic ordean, egun ia hirurgarren eguna doha horiec guerthatu içan direla.

**22.** Eguia bada ere, gurequilaco emaztequi batquec espantatu gaituzte, ioanie goizgoicic hobira,

**23.** Eta gorputça eztutenean han aurkhitu, ethorriric erraitera ecen ainguera batçu ere aguertu citçaitzela, ceinec bici dela erran omen baitiote.

**24.** Eta ioan içan dira hobira guretaric batçu, eta ediren dituzte oro emaztequiecc erranen arabera; bainan bera eztute ediren.

**25.** Erran çaroen orduan Iesusec berac : Oi coroac, eta profetec erran içan dituzten gucien sinhestera herabe çareten bihotçac!

**26.** Etcituen bada horiec pairatu behar Christoc, eta guero, bide hortaz, etcen behar sarthu bere dohatsutasunean ?

27. Orduan Moisesetic hasiric azquen profetetaraino, eman citçaien chehatcen Christori cegozecon isquiribu gucien.

28. Handie hurbildu cirenean cihoaceen herrira, egun çuen alegua urrunago ioaqui.

29. Bainan hertchatu çuten guelditcera, erraitearequin : Çaude gurequin, eeen berandua da, eta eguna ia beheratua. Sarthu cen beraz hequiequilan.

30. Eta hirurac iaten hari circlaric, hartu çuen Iesusec oguaia, eta esquerrac bihurtu ondoan, hautsi çuen eta eman caroen.

31. Ordu berean idequi citçaitzen beguiac, eta eçagutu çuten; bainau bera suntsitu citçaien beguien aguerritic.

32. Eta dicipuluec cioten elkharrí : Etcena gure bihotea gure barnean osoqui iraçquia mintço citçarocularic bidean, eta isquiribuac chehateen çarozquigunean?

33. Eta berehala altchaturic, itçuli ciрен Ierusalem erat, eta khausitu cituzten hameca apostoluac eta hequiequin cegocenac, bilduac elkharrquin,

34. Ceinec erran baitcioten, eguiazqui phiztu cela Jesus, eta aguertu citçaoela Simoni.

35. Berec ere iaquintsun egun cituzten bidean guerthatu citçaitenez, eta nola launa eçagutu çuten oguiaren haustean.

36. Horrela mintço ciren bitartean, aurkhitu cen Jesus hequien erdian, eta erran

çaroen : Baquea dela quequin; ni naiz, ez ici.

37. Nahasi ciren hec eta harritu, eta uste euten ispiritu bat çakhusatela.

38. Eta erran çaroen Iesusec : Certaco asaldatcen çarete, eta nola heldu çazqui-  
tue gogoeta horiec bihotzetara?

39. Behazquitçue ene escuac eta oinac;  
ni neroni naiz; hazta naçaçue eta mira;  
ispiritu hutsac eztu nasqui haraguiric eta  
heçurric, eta nic bai, dakhusqueçuen be-  
çala.

40. Eta hori erran ondoan, eracutsi çar-  
rozten bere escuac eta bere oinac.

41. Bainan ezpaitçuten oraino ere sinhes-  
ten, eta bozcarioz miretsiric baitcauden,  
erran çaroen : Baduçue hemen iateco cer-  
bait?

42. Ekharrí cioten arrain erre phusca  
bat, eta eztí orrace batetaric.

43. Eta ian çuenean hequien aitcinean,  
hartu cituen goithiac, eta eman çarozten.

44. Guero erran çaroen : Huna cer nio-  
tsuen quequin nintelaric, behar cirela ecen  
bethe nitaz isquiribatuac cirenac Moisesen  
leguean, eta profetetan, eta psalmoetan.

45. Orduan idequi çaroen adimendua,  
adi cetçatentçat isquiribuac.

46. Eta erran çaroen : Horrela isquiri-  
batua da, eta horrela ere behar çuen Chris-  
toc pairatu, eta hirurgarren egunean  
phiztu;

47. Eta adi-aracia içan behar da ene ic-

nean iendaqui gucieta raino bekhatuen urriquia eta barkhamendua, hasiric Ierusalemietie.

48. Hauquien bada lekhucoac quec çarete.

49. Eta nic egortcera dohatuet gainera ene Aitac hitz eman darotxuena; quec bizquitartean çaudete hirian, garaiticaco indarraz iaunteciac içan çaitezqueten orduraino.

50. Eraman cituen guero hiritic Bethaniara, eta han altchaturic escuac, bepedicatu cituen.

51. Eta hei benedicionea emaitearequin batean, ioan een hequien ganic, eta goiti altchatu een cerurat.

52. Orduan dicipuluac, adoratu çuten ondoan, itxuli ciren Ierusalemera bozcario handirequin.

53. Eta bethi temploan ciren, goresten çutela Iaincoa, eta esquerrac emaiten ciotçatela. HALA BIZ.



# IESU-CHRISTOREN EBANVELIO SAINDUA ION DONE IOANIREN

ARABERA.

---

## I. CAPITULUA.

*Iesu-Christoren Iaincotasuna. Ion Done Ioani  
Baptistac emaiten dio lekhucotasun. And-  
reas, eta Piarres, eta Philipe, aposto-  
lutzat deithuac dirade. Nathanaelen sin-  
hestea.*

1. HATSARREAN cen Berboa (1), eta Berboa Iaincoa baithan cen, eta Berboa Iainco cen.
2. Haste hastetic Iaincoa baithan cen.
3. Diren guciae harc eguinie dira, eta hura gabe ezta eguin içan deus ere.
4. Hartan cen bicitea, eta bicitcea cen guiconen arguiçaglia.
5. Eta arguiac içarritu içan du ilhum-beetan, eta ilhumbeec eztute aditu içan.

(1) *Berboa* aditu behar da Iesu-Christoz, Hirutasuneco edo Trinitateko bigarren presunaz, Hitzaz, Aitaren Semeaz, ceina haste hastetic, edo bethi danie, Aita baithan baitago, harequin Iainco eta ororen eguale; guero argui, çucia, guiconen argnitcera iautsi içan dena.

6. Ieatu cen guiçon bat, Iaincoac egorria, deitcen cena Ioanes.
7. Hura ethorri içan cen lekhucotçat, eman cioçon arguiari lekhucotasun, eta haren ariaz gueciec sinhets ceçatentçat.
8. Etcen hura arguia, bainan lekhucotasun eguilea arguiari.
9. Hau cen argui eguiazcoa, mundurat ethortcen diren guiçon gucien arguitçaile dena.
10. Munduan cen, eta mundua harc eguna da, eta munduac eztu eçagutu.
11. Bereetarat ethorri içan da, eta berreec eztute hartu nahi içan.
12. Bainan hura hartu içan duten guciei, eman içan daroe ahala Iaincoaren seme içaiteco, hainei ceinec sinheste baitute haren icenean;
13. Eta ceinac ezpaitira iaio odoletic, ez eta haraguiaren nahicundetic, ez eta guiconaren nahitie, bainan bai Iaincoa ganic.
14. ETA BERBOA HARAGUI EGUN İÇAN DA, eta egon içan da gure artean graciaz eta eguiaz beheric, eta ikhusi içan dugu haren handitasuna, ceina baita Aitaren Seme bakoitçaren handitasuna bera.
15. Harentçat lekhuco da Ioanes, dioela oihuz : Hau cen nic niotsuena : Ene ondotic heldu dena ni baino guehiagocoa da, ecen ni baino lehenagocoa cen ere.
16. Eta hunen gaindizeacotic emaiten çaicu guri guciei, graciae gracia dakharrela.

17. Ecen leguea Moisesec emana içan da, gracia ordean eta egua Iesu-Christoc eguinac dirade.

18. Iaincoa nehore eztu ikhusi egundaino; Semè bakhotchac, Aitaren galtçarrean denac, berac eracutsi darocu.

19. Huna bada Ioanesen lekhucotasuna, noiz ere egorri baitciotçaten Iuduec Aphéçac eta hauquien leinuticaco batçu, galdeguitera : Cu nor cara ?

20. Aithortu çuen eta etçuen ukhatu; aithortu çuen ecen etcela Christo.

21. Galdeguin cioten : Cer bada ? Elias cara cu ? Ihardetsi çuen : Ez naiz Elias. Hec berriz : Profeta cara ? Ihardetsi çuen : Ez.

22. Erran cioten orduan : Nor cara beraz, erran dioçotegun egorri gaituztenei ? Cer dioçu cerorree cerorrez ?

23. Dioste : Ni naiz mortuan oihuz dagoen boz hora : Aphain eçaque Iaunaren bidea ; hala nola isquiribatu içan baitu Isaias profetac.

24. Cireu bada egorriac içan cirenac Pharisauetaric.

25. Eta galdetu cioten : Nolatan beraz bathaiatcen hari cara, etcirelarie Christo, ez Elias ere, ez profeta bat ere ?

26. Ihardetsi çaroen Ioanesee : Nie behintçat urean bathaiatcen dut; ordean çuen baltsan bada bertce bat, çuec eçagutseen eztuçuena.

27. Hura da ene ondotie ethorri behar

dena, ceina ni baino lehenagocoa baita; eta ez naiz ni gai haren oinetako hedearen deseguitecotçat ere.

28. Guerthatu içan ciren hauc Bethanian, Iordan ibaiaren bertee aldean, non hari baitcen Ioanes bathaiatzen.

29. Biharamunean, ikhusi çuen Ioanesec Iesus heldu citçaiola, eta erran çuen: Huna Iaincoaren bildotsa, huna mundua-ren hobenac khentcen dituena.

30. Hau da erraiten nuen hora : Guiçon bat heldu da ene ondotic, ni baino handiago dena, ni baino lehenagocoa delacotz.

31. Eta ez naquien nic nor cen, bainan ethorri içan naiz urean bathaiatcera, hori Israelen eçagutua içan dadintçat.

32. Orduan eman cioen lekhucotasun Ioanesec, cioela : Ikhusi içan dut Ispiritua iausten uso bat beçala cerutican, eta horren gainean guelditeen.

33. Eta nic ez naquien eein cen; bainan urean bathaiatcera egorri nauenac berac erran darot : Ceinen gainerat ere ikhusiren baitue iausten Ispiritua, eta egoiten hora baithan, eta hora due Ispiritu Sainduan bathaiatzen duena.

34. Eta ikhusi içan dut, eta lekhucocatu naiz ecen hora dela Iaincoaren Semea.

35. Ondoko egunean, Ioanes cegoen bere bi dicipuluequin;

36. Eta ikhusiric Iesus iragaiten, erran çuen : Horra Iaincoaren bildotsa.

37. Entçun çuten horrela minteo bi dici-puluec, eta iarrai qui citçaizecon Iesusi.

38. Itçulteen da Iesus, eta ikhusten duela nola-darraizcon, dioste : Ceren ondoan ca-biltçate? Ihardesten diote : Rabbi (erran nahi baita Nausia), non da çure egoi-tça?

39. Dioste orduan : Çatozte, eta ikhu-saçue. Ioan ciren eta ikhusi çuten non ce-goen; eta eman çuten egun hora harequin batean; ecen arrats aldeco laurac beçalatsu ciren.

40. Ioanesec cioena entçun çutenetaric, eta Iesusi iarrai qui citçaizeconetaric bat cen bada Andreas, Simon Piarresen anaia.

41. Hare aurkhitu çuen lehembici bere anaia Simon, eta erran cioen : Ediren diagü Mesias (erran nahi dena Christo).

42. Eta erakharri çuen Iesus gana. Ie-susec beguiztatu çuen ondoan, erran cioen : Çu Simon cara, Ioanesen semea; hemendic goiti deithuco cara Cephas [icen huncio dio Harria (1)].

43. Biharamunean Iesusec, Galilearat hari cela, aurkhitu çuen Philipe, eta erran cioen : larraic çaquitzquit.

44. Philipe Bethsaidaco cen, Andreasen eta Piarresen hiri berecoa.

45. Philipec, bathu baitcitçaion Natha-

(1) Hebreo hizcuntçaz harria deiteen ohi cen *Cephas*, gure erdaraz *Pierre*, ceintaric erraiten baitiogu escuaraz Ion Done Petiriri *Piarres*.

naeli, erran cioen : Moisesec leguean isquribatua, eta Profetec hambat aiphatua, aurkhitu dogu, eta da hora Iesus, Iosephen semea, Nazaretharra.

46. Ihardetsi cioen Nathanaelec : Cerilkhi daite onic Nazarethic? Erran cioen Philipec : Çato, eta ikhusaçu.

47. Iesusec ikhusi çueneco Nathanael heldu citçaiola, erran çuen : Horra eguiazco Israeldar bat, ceintan ezpaita maltçurqueria garabie.

48. Diotsa Nathanaelec : Nondic eçaguteen nauçu? Iesusec ihardetsi cioen : Philipec deith cinitçan baino lehen, ikhusi çaitut, phicotee baten azpian baiteinauden.

49. Erran cioen Nathanaelec : Nausia, cu laincoaren Semea cara, cu cara Israelgo erreguea.

50. Ihardetsi cioen Iesusec : Ceren erran darotçudan : Phicotce azpian ikhusi çaitut, sinhesten duçu nitan? Bada hori baino handiagoric ikhusieo bide duçu (1).

51. Eta dioste guero : Eguiazqui, eguiazqui erraiten darotçuet, ikhusiren ditutçue laincoaren aingueruac igaiten eta iausten direla/guiçonaren Semearen gainerat.

(1) Uste dutenaren arabera, Nathanael hau Ion Done Bortholomeo apostolua bide cen.

---

## II. CAPITULUA.

*Canaco ezteietan Iesusec ura mahats-arno bilhacarazten du. Sal-erosleac egozten ditu templotic. Bere birphizteaz aiphaticen du. Hainitcec sinhesten dute Iauna baithan.*

1. HANDIC hirur egunen buruan, eguiñ içan ciren eztei batçu Cana Galileacean, eta han een Iesusen ama.

2. Iesus bera ere deithua içan een ezteietara, bere dicipuluequin.

3. Eta akhitu baitcitzaien mahats-arnoa, erran cioen Iesusi bere amae : Arnoric eztute.

4. Ihardetsi cioen Iesusec : Emaztea, cerda çure eta ene artean? Ezta oraino ene muga ethorria (1).

5. Bizquitartean dioste amac sehiei : Cer ere erranen baitarotçue, eta hora eguiçue.

6. Baciren bada han sei guphel harrizcoac, çaduzcatenac bakhotchac sei edo ha-

(1) Iesus horrela mintço çao bere amari, iduri luqueela gogorquiche, erakhastecotçat bere Aita ganie, eta haren eçarri mugan atheratceco, çuela bere ahal handia; bainan uste içaiteco da haren amac, ceruticaco muguidura baten ariaz, eçagutu içan çuela ecen hurbil cela muga hora; eta balache Mariaren arartecotasunac ardietsi içan çuen Iesusen lehen miraculua.

mabi pegar gora behera, eta ecarriac cire-nac Iduen garbicarentçat (1).

7. Iesusec erran çaroen : Betheçatçue guphel horiec urez. Eta bethe cituzten gaindi egun ceçateraino.

8. Erran çaroen guero : Eraits eçaçue orai, eta eramoçue mahaineco buruçaguiari (2). Eta eraman cioten.

9. Dastatu çuenean bada mahaineco buruçaguiac ur arno bilhacatutic, nola ezpait-tçaquien nondic atheraia cen (ura eraitsi çuten sehiee ordean baçaquiten), deithu çuen ezcon berria,

10. Eta erran cioen : Nor nahie hastean arno ona emaiten du; guero, onguisco edanae daitezquenean, eçartcen du aphalagotic; bainan çuc arno ona orain arteraino beguiratu duçu.

11. Horrela egun içan çuen Iesusec bere lehembicico ikuusgarria, Cana Galileacoan; eta aguertu çuen bere ahal gueizcoa, eta hura baithan sinhetsi çuten haren dicipuluec.

12. Ioan cen guero Capharnaumera bere amarequin, eta anaiequin eta dicipuluequin; bainan eteen han egon eembait egun oaicic.

(1) Iudutarrac maiz eta ardura ikhuzten ohi ci-ren, beregainqui iao-aldi aitcinetan.

(2) Iudutarren artean, lehenago bertce lekhutan ere, othuruntça bandietan, eçartcen çuten mahaineco buruçagui bat, ceina ere erreguea deitzen baitçuten, oroz artha içan ceçan eta aguin citçan behar guciak.

13. Eta nola hurbil baiteen Iduen Phazcoa, igan cen Ierusalemera.

14. Aurkhitu cituen bada temploan idi eta ardi eta uso saltçaile, eta diru alda-tçaileac, iarriric cegocela.

15. Eta egunie açotesca bat sokha mehar batçuz, egotci cituen guciac templotic, ardiequin eta idiequin batean; eta alda-tçaileen diruac ichuri cituen, eta mahainac azphicoaz gora irauli.

16. Eta uso saltçailcei erran çaroen : Khen eçatçue horiec hemendican, eta eztaguiçuela ene Aitaren etchea sal-eroscoetaco etche bat.

17. Orhoitu ciren orduan dicipuluac nola isquiribatua den : Çure etchearen alderaco kharrac erretcen nau.

18. Iduec bada erran cioten : Cer ikhus-garritz eracutsico darocuçu horien eguiteco escua baduçula?

19. Ihardetsi çaroen Iesusec : Aurthic eça-çue templo hau, eta, hirur egunie barnean, berriz eçarrico darotçuet chutic.

20. Iduec erran cioten : Cer? Berrogoi eta sei urthe eman içan dituzte templo hunen eguiten, eta çue hirur egunez al-tchaturen duçula?

21. Bainan Jesus mintço citçaien bere gorputzeco temploaz.

22. Phiztu cenean bada Jesus hilen artetic, gogoratu citçaien dicipuluei nola erran içan çuen; eta sinhetsi cituzten isquieribuac eta Iesusec erranicaco bitça.

23. Ierusalemena cela Phazcoco iai-egunaz, hainitcec sinhetsi içan çuten haren icenean, ikhusiric eguiten cituen gauça miresgarriac.

24. Iesusec ordean etçuen ustequida handirie bequien baithan, guciac eçaguteen baiteituen;

25. Etçuen ecen beharric nehorc nehor eçagut-araz cioçon; bainan baçaquien berac ere bakhotehac cer çaucan barnean.

### III. CAPITULUA.

*Iesusec Nicodemori emaiten diozcan erakhaspen ederrac. Iesusen eta Ion Done Ioani Baptistaren dicipulu en elkarrequila iharduquitcea. Ion Done Ioaniren ihardestea bereei; nola aihorteen duen garbiqui Iesusen Iaincotasuna.*

1. BACEN Pharisau bat, çaritçana Nicodemo, Iduen artean behatuenetaric.

2. Ethorri citçaison bada Jesusi gauaz, eta erran cioen : Nausia, badaquigu ecen Iaincoa ganic ethorria çarela, guri erakhas-tecotçat; ecen nehore ecin dauditça çuc eguiten dituçun espantuac, ezpada Iaincoa harequin.

3. Ihardetsi cioen Iesusec : Diotsut egiazqui, egiazqui, berriz ezpadadi sor, nehorc ecin ikhusico du Iaincoaren erresuma.

4. Erran cioen Nicodemoc : Nola sor

daite norbait, behin çahartuz guero? Sar othe daite amaren sabelean bigarren aldi-cotçat, eta guero berritan sor?

5. Ihardetsi cioen Iesusec : Eguiazqui, eguiazqui erraiten darotçut, baldin eta ez-pada guionna berriz sorteen uretic eta Is-piritu Saindutic, ecin sar diteque Iaincoa-ren erresuman.

6. Haraguitic iaio dena haragui da, eta Ispiritutic iaio dena ispiritu da.

7. Eztuqueçu cer miretsiric, ceren erran baitarotçut : Behar duçue berriz sorthu.

8. Haiceac nahi duen toquirat daraun-tsa, eta entçuten duçu haren otsa, bainan eztaquiqueçu nondic heldu den, eta norat doban; halache da Ispiritu Saindua ganie sorthua denaz.

9. Ihardetsi cioen Nicodemoe : Horiec nola ditezque?

10. Erran cioen Iesusec : Cer? Çu nau-sietaric bat cara Israelen, eta horiec ezta-quitçatçu?

11. Eguiazqui, eguiazqui erraiten daro-tçut, daquigunaz mintçö garela, eta ikhusi içan dugunaz lekhuco garela, eta gure le-khucotasuna eztuque onhesten.

12. Baldinetariac, lurreco gaucez mintçö natçaitçuenean, ezpanauçue sinhesten, no-latan sinhetsiren nauçue ceruco gaucez mintçö natçaiquetçuenean?

13. Bada nehor ezta igan içan cerurat, cerutic iauçsi içan dena bera baicen, gi-çenaren Semea, ceruan dena.

14. Eta nola Moisesec suguea altehatu içan baituen mortuan, halaber guiçonaren Semea altehatu beharra da;

15. Eztadintçat gal hura baithan sinheste duenic bat ere, aitcitiean içan deçan bicitee bethierecoa.

16. Hambertcetaraino ecen Iaincoac mundua maite içan dn, non eman baitu bere Seme bakharra, haren baithan sinhesten duenic gal eztadin nehor ere, bainan duentteat aitcitic bicitee bethierecoa.

17. Eeen egorri içan du Iaincoac bere Semea mundura, ez bada munduari iajartcecotçat, bainan bai salba dadin mundua haren arartecotasunaz.

18. Haren baithan sinhesten duena, ezta galdua içanen (1); ordean sinhesten eztuena, bertatic (2) galdua da, ceren eztuen sinhesten Iaincoaren Seme bakhoitçaren iccnean.

19. Eta hau gatic içanen da galtçapena, ethorri baita arguia mundura, eta onhe-tsiago içan baitituzte guiçonec ilhumbeac ecen ez arguia, hequien eguintçae cirella-lacotz tçarrac.

20. Hargatic ecen gaizqui-guile oroc higüin du arguia, eta arguira ez dathor, ce-

(1) Sinhesteduna ezuteque gal, eguiten dueno sinhestearen arabera; bainan bunela sinhets, horrela egnin, ezta hori sinhestea, baicen sinhestearen hanstea.

(2) *Bertan*, *bertatic*, berchala eta iadanie, ordudanie.

ren beldur baita haren eguintçac aguer daitcean.

21. Ordean bidezqui hari dena, ethor-teen da arguirat, haren eguintçac aguer-rian daitecentçat, cergatic laineoa baithan eguinac baitirade.

22. Hauquien ondoan ethorri içan cen Iesus Judeaco lurretarat, bere dicipulue-quin; eta egon içan cen aphur bat han hequiequilan, eta hari cen bathaiateen.

23. Bere aldetic hari cen bathaiateen Ioanes ere Enonen, Salimgo heguijan, han urte handia baitzen; eta hainitçae heldu citçaizcon, eta emaiten çaroen bathaioa.

24. Eteen ecen oraino Ioanes gazteluan ecarria.

25. Altchatu cen bada iharduquitce bat Ioanesen dicipulu cembaiten eta Iduen artean, bathaioaren gañetic.

26. Eta ethorriric Ioanesen gana, erran cioten : Nausia, Iordango ibaiaren bertee aldean çurequin cen hora, ceinari ere le-khucotasun eman baitioen, bathaiateen hari da bere alde, eta osteac haren ganat di-hoaci.

27. Ihardetsi çaroen Ioanesec : Guiçonac ecin içan deçaque deus ere, cerutic eman ezpadaquio.

28. Lekhuco çazquidate cebonec, nola erran içan dudan : Ez naiz ni Christo, bainan haren aiteincerat egorria naiz.

29. Andre duena, hora da senhar; bainan senhar berriaren adisquide baicen ez-

tena, haren aldean dago, eta entçuten du, eta entçuteaz baicic ezpada ere, gueiz atseguiñ harteen du. Atseguiñ hori bada nic orai ardiesten dut osoqui.

30. Hura behar da gurendu (1), ni al-diz gutitu.

31. Garaitie ethorri dena, ororen gaineco da; eta lurretic heldu dena, lurreticacoa da, eta minteo da lurrecoa dena leguez. Ordean eerutic heldu dena, ororen gaineco da;

32. Eta ikhusi eta entçun duenaz ekhar-teen du lekhucotasuna; eta bizquitartean nehorc eztu nahi haren lekhucotasunie.

33. Bada haren lekhucotasuna harteen duenac, aithor emaiten du Iaincoa eguiatia dela.

34. Eeen Iaincoac egorria denac, lain-coaren hitça dakiar; eta eztio Iaincoac eman bere Ispiritua neurrituz;

35. Ceren onhesten baitu Aitae Semea, eta eman diotça gauça guciac escutarat.

36. Semea baithán sinhesten duenac, badu bicitee bethierecoa; sinhesgaitz denac ordean Semearen alderat, eztu bicitea ikhusiren, bainan Iaincoaren baserrea ha-ren gainean dago.

(1) *Gurentcea*, guehiagotcea, berretcea, han-ditcea.

---

#### IV. CAPITULUA.

*Iesusen solhas salbagarriac Samaritar emaztequiarequin, eta cer ihardesten daroen horren gainean dicipuluei. Osagarria bihurtzen dio Capharnaumen soldado aitcindari baten semeari.*

1. NABARITU çueneco Iesusec nola Pharisauac entçunac ciren hari cela bathaiateen, eta bathaiateen ere çuela Ioanesec baino guehiago, eta harc baino dicipulu guehiago eguiten çuela.

2. (Iesusec berac bathaiateen etçuen arren, eta bai haren dicipuluec),

3. Utei çuen Judea, eta ioan cen berriz Galilearat.

4. Behar cen hada iragan Samarian gaindi.

5. Ethorri cen beraz Samariaco hiri, Sichar çaritçon batetara, ceina baita Iacobec bere seme Iosephi eman içan cioen lurraren eretcean.

6. Han cen ere Iacoben ilhurria. Eta Iesus, bidean unhatua baitcen, iarri cen phutçuaren heguijan. Egüerdi iria een.

7. Ethorri cen Samariaco emazte bat urqueta. Erran cioen Iesusee : Indaçu edatera.

8. (Ecen ioanac cituen dicipuluac hirira ianhari erostecotçat.)

9. Ihardetsi cioen Samaritar emazteae :

Nola bada, çu Iudutarra baitçara, escatcen darotaçu edatera, niri Samaritar emazte batí? Eeen eztute erquidetasunic (1) Indutarrec Samaritarrequin.

10. Erran cioen Iesusec : Baldin eçagutcen bacinu laincoaren dohaina, eta nor den erraiten darotçuna : Indaçu edatera, ceror aitcinduren cinaizcon nasqui escatçera, eta emanen baitçarotçun ur laster batetarie.

11. Diotsa emazteac : Iauna, eztuçu eta certaz idoc ere, eta phutçua barna da; nondic cinuque beraz ur laster hura?

12. Ala guehiago othe çara çu gure aita Iacob baino? Harc eztarocu phutçen huntaz bertceric eman, eta huntaric edan içan du berac ere, eta orobat haren umeec eta haren acindec.

13. Erran cioen Iesusec : Ur huntaric edanen duen gucia, egarrituren da berriz; bainan nic emanen diotan uretic edanen duena, ezta nehoiz egarrituren;

14. Ceren nic eman ura içanen baita haren baithan ithurri bethi iarico den bat, bicitee chederic gabecoraino.

15. Emazteac diotsa : Iauna, emadaçut ur hura, eztudantçat guehiago egartsuric, eta ez nadin hunat ethor idoquiteera.

16. Diotsa Iesusec : Çohaz bada, deith eçaçu ceure senharra, eta çato huna.

(1) *Erquidetasuna*, elkarrequalan ibiltcea, tratatea.

17. Ihardesten dio emazteac : Eztut senharric. Diotso Iesusee : Ongui dioçu, eztuçula senharric ;

18. Ecen içan ditutzen bortz senhar; eta orai duçuna, ezta çure senharra; hori egua erran duçu.

19. Diotsa emazteac : Iauna, ikhusten dut profeta çarela cu.

20. Gure lehenagocoe mendi hunen gai-nean othoitz eguin içan dute, eta quee berri z dioçue, ecen Jerusalem dela othoitz eguin behar den toquia (1).

21. Iesusec diotsa : Emaztequia, sinhets naçaçu; ethorri da ordua, non ezpaitioçue ez mendi húntan, ez Ierusalemen çuen othoitea eguinen Aitari.

22. Çuetaz beçambatean, adorateen du-çue eztaquiciuena; gue ordean daquiguna; ecen salbamendua Indutarretaric dathor.

23. Gueiae gatic, heldu da ordua, eta orai da, ceintan eguiazeo adoratçaillee adoraturen baitute Aita ispirituz eta eguiazqui. Alabainan horrelaco adoratçailleac la-khet çazco Aitari.

(1) Samaritarrae, bere erregueen bekhaizcoaren ariaz, etciren aspaldion Ierusalemeko templorat igaiten othoitz eguiteco; bainan bere mendi, Garizim deitzen çuten batean, eguiten cituzten bere othoitz eta sacrificioac Iaincoari, Iaincoaren bera-ren aguiatça hansten çutela. Iudutarrec berri z be-thidanic cioten, eta bidezqui, etcela cilbegui Iaincoaren adoratcea Ierusalemeko temploan baicen; hala boda, etsaigoan çauden Samaritarrae eta Iudutarrae elkarrequin.

24. Ecen Iaincoa ispiritu da, eta hura adorateen dutenec, ispirituz eta eguiazqui behar dute adoratu.

25. Diotsa emazteac : Badaquit heldu dela Mesias, Christo deitzen dena. Hura dathorcunean bada, behar gueiac eracutsico darozzen.

26. Iesusec diotsa : Hura, ni naiz, minteo narotçun hauche berbera.

27. Eta hambertcenarequin ethorri eieren dieipuluac; eta miretsi çuten ceren minteo baitzen emazte batequin; halaric ere nehore etcioen erran : Cer galdeceen dioçu? Ez eta : Cergatic minteo cara horrequilan?

28. Bizquitartean emazteac, uteiric han bere pegarra, io çuen hirira, eta erran çaroen gueici :

29. Çatozte, eta ikhusaçue guieon bat, ceinac erran baitarozquit egundaiño eguiñiçan ditudan gueiac; ez othe da hura Christo?

30. Ilkhi eiren beraz hiritic, eta ethorri eiren Iesus gana.

31. Bizquitartean othoiztu çuten dicipuluec, ciotsatelarie : Nausia, ian çäcu.

32. Bainan ihardetsi çaroen : Nic badut iateco çuec eztaquïçuen ianhari bat.

33. Galde çuten bada dicipuluec el-kharri : Norbaitec ekharri othe dio iatecoa?

34. Dioste Iesusec : Ene ianharia da eguiñi deçadan egorri nauenaren nahia, eta akhaba deçadan hare aguindu lana.

35. Eztuçaea erraiten quec oraino laur hilabethe badirela uztaraino? Diotsuet bada nic : Goiti ecatçue beguiac, eta bazterrac beha ecatçue, nola iadanic churi diren, eta uzta çorhi.

36. Eta uzta biltçaileac badu bere saria, eta goititeen ditu bere bihiac bicitce bethicrecotçat, duentçat ereileac ere bozcario biltçailearequin batean.

37. Ecen oraino hantan egquia da, erraiten ohi duten hitz hau : Bertceric da ereilea, eta bertceric biltçailea.

38. Egorri çaituztet quec biltcera lanic eguin etcinuten lurrera; bertcec lana eguin eta, hequien lan eguinera quec sarthu içan çarete.

39. Bada hiri hartaco Samaritar hainitceec sinhetsi çuten Jesus baithan, emaztequiaren lekhueotasuna gatic, erran çaielacotz : Asmatu içan daizquit egundaiño eguin içan ditudanac oro.

40. Ethorri eitçaizcon beraz Samaritarrae, eta othoiztu çuten hequien hirian egoiteaz; eta egon içan cen bi egun.

41. Eta hainitz guehiagoc sinhetsi çuten bera entçun ondoan;

42. Halatan non erraiten baitcioten emazteari : Oraicotie eztugu çure erranaren gainean sinhesten, bainan gueronec bera entçun dugu, eta badaquigu eguiazqui munduaren Salbatçaila dela.

43. Bi egunen buruan, ilkhi cen handie, eta ioan cen Galilearat.

**44.** Ecen Iesusec berac errana cen, cztela profetaric bere herrian onhetsi denie.

**45.** Ethorri cenean beraz Galilearat, poeic hartu çuten Galilearree, ikhusi baitetzten iai-egunarequin Ierusalemen eguin cituen guciac, berac han cirela iai-egunean.

**46.** Ioan cen bada bigarren aldico Cana Galileacora, non ura arno bilhacaraei baitzuen. Eta aurkhitzen cen han iaun bat, semea eri çuena Capharnaumen.

**47.** Iaun harc, adituric heldu cela Jesus Judeatic Galileara, ioan citçaoen, eta eguin cioen othoitz ethor çadin, eta ontsa ciocon semea, eeen hiltcera cihoala.

**48.** Erran cioen Iesusee : Baldin ezpaitue erakhusten ikhusgarriric eta espanturic, eztuue sinhesten.

**49.** Ihardetsi cioen iaun harc : Iauna, ethor çainquit, semea hil daquidan baino lehen.

**50.** Diotso Iesusec : Cohaz, cure semea bici da. Sinhetsi çuen Iesusec erran cioena, eta bacihoaan.

**51.** Cihoalaric bidean, bathu citçavezcon bere sehiataric cembait, eta berri eman cioten, nola bici çuen semea.

**52.** Galdeguin çaroen bada, cer aintee (1) cen hobequitu cenean. Erran cioten sehiiee : Atço, egüerditic ordu bat cela, sukharrae utei du.

(1) Cer aintee da, erraiten obi da, hainitz herritau, galdeguitecotçat cer ordu den.

53. Eçagantu cuen beraz aitac, ordu hura bera cela, erran cioenean Iesusec : Biei da çure semea. Eta sinhetsi içan cuen Jesus baithan berae, eta bai haren etchadi gueciac ere.

54. Ikhusgarri hau bigarrena içan cen, eguin çuena Iesusec Galilean, Judeatic bihurtu ondoan.

---

#### V. CAPITULUA.

*Onsatcen du Iesusec hogoi eta hemeçortei urthe hartan eri cen gaicho bat. Nola darasaten Iiduec Iesusentçat. Nola eta cer ihardesten daroen. Ioanesec, bere obra miresgarriez, bere Aitac, Moisesec, haren Iaincotasunari emaiten dioten lekhucotasunaz eta aithorraz.*

1. Ondoko aldi batez, iai-eguna çuten Iudutarrec, eta igan içan cen Jesus Jerusalemerat.

2. Eta bada Jerusalemen ikhuz toqui bat, ardién ikhuz toquia deitzen dena, dituela bortz baranda ingurunean.

3. Hequietan çatçan eritce handi bat, itsu, maingu, alderdi idortu; gueciac begira cegocen noiz higuituco cen ura.

4. Ecen ordu iaquin batçuetan, iausten cen launaren aingueraua urerat, eta ura uherritzen cuen (1); eta ura uherritu on-

(1) *Uherritcea*, uraren nahastea cikhin artino, eta orduan uberri dela erraiten da.

doan, lehembicicorie iausten cena, ontsateen een ordu beretic, cer nahi erhasun içanican ere.

5. Cen bada guiçon bat han hogoi eta hemeçortei urthe hartan erhasunac çaducana.

6. Ikhusi çuenean Iesusec çatçala lurrean, baitçaquien ecen aspaldian eri cela, galdeguin cioen : Onguitu nahi çara ?

7. Ihardetsi cioen eriac : Iauna, nehor eztut, ura uherritu ondoan, urerat aurthic naçaquenie; eta ni nohan artean, bertee norbait iausten çaut ni baino lehen.

8. Diotsa Iesusec : Chuti çaita, har eçaçu çure ohea, eta ibil çaita.

9. Bertan onguitua içan cen guiçon hura, eta hartu çuen bere ohea, eta bacihoa. Cen bada larumbat eguna.

10. Hargatic, erran cioten Iiduec ontsatua içan cen guiçon hari : Larumbata da, etçautçu haiçu ohearen cramaitea.

11. Ihardetsi çaroen harc : Osagarria eman darotanac berac erran içan darot : Har açu çure ohea, eta ibil çaita.

12. Galdeguin cioten beraz : Eta nor da erran içan darotçun hura : Eramaçu çure ohea, eta ibil çaita ?

13. Guiçon eri içanac ordean etçaquien nor cen. Ecen Jesus itçali een han cen guiçon ostetic.

14. Guerochago bathu citçaoen guiçon hura Iesusi temploan, eta Iesusec erran cioen : Horta non ontsa çaren; bada ez

eguin guehiago bekhaturie, cerbait are lehen baino gaitçagoric guertha eztaquicun.

15. Ioan cen guiçona Iduetara, eta erran çaroen Jesus cela haren ontsatçaila.

16. Eta hori bera gatic etsai cituen Iesusec Iduac, ceren holacoric eguiten çuen larumbat-cara.

17. Bainan erran çaroen Iesusec : Ene Aita bethi danic hari da, eta bai ni ere.

18. Eta gueroz goiti are guehiago aiherritzaizecon Iduac, hil-araci nahiz, eeren ez choilqui hausten baitçuen larumbata, bainan guehiago cena, baitcioen ecen Aita çuela Iaincoa, bere burua Iaincoarequin bardin eginez. Erran çaroen beraz Iesusec :

19. Eguiazqui, eguiazqui diotsuet : Eein daidi Semeac bere baitharic deusican, ez-padeça Aita ikhus eguiten; ecen cer nahi ere egnin deçan Aitac, hora eguiten du Semeac halaber;

20. Eeen Aitac Semea maite du, eta berac eguiten dituenac oro erakhusten diotça; eta haue baino handiagoric ere eracutsico dio, non miretsiric iarrico baitçarete.

21. Eeen nola Aitac hilac phizten baititu, eta bicia emaiten baitaroe, halaber eta Semeac ere nahi duenari emaiten dio bicia.

22. Eeen Aitac eztu iuiateen nehor, bainan uzten dio iuiamendu gucia Semeari;

23. Guciec ohore daguiotentçat Semeari, nola eguiten baitiote Aitari. Semea ohora-

teen eztuenenac, eztu ororateen hura egorri iean duen Aita.

24. Egniaz, eguiaz diotsuet : Ene hitxa entxuten duenac, eta sinhesten duenac ni egorri nauena baithan, hainac badu bicitee bethierecoa, eta ezta hilican ere galteen, bainan heriotcetic bieirat doha.

25. Eguiazqui diotsuet, eguiazqui, heldu dela ordua, eta oraintche dela, noiz ere hilee entxunen baitute Iaincoaren Semearen boça; eta entxuten dutenac, bicico dirade.

26. Eeen nola Aitac bicitea bere baithan baitu, hala eman iean dio Semeari ere bicitea bere baithan ieaitea.

27. Eta eman iean dio iuiazeceo escua, guionaren Semea ceren den.

28. Eztecajuela hori mirets; cergatic ethorriren baita ordua, entxunen dutena hobietan diraden guciec Iaincoaren Semearen boça.

29. Eta ilkhiren dira ongui eguin dutenac, phizturic bicitecotçat, eta gaizqui eguin dutenac, phizturic galtcapencotçat.

30. Eztirot nie ene baitharie eguin deus ere. Entxuten dutanaren arabera iuiazeen ere dut, eta ene iuiamendua cucena da; ezpaitut ene nahia bilhatzen, bai ordean egorri nauenaren nahia.

31. Baldin nerorrec neurc buruari lekhucotasun ekhar banioça, ene lekhucotasuna ez laite sinhesteco.

32. Bertee batec, bai, emaiten darot lekhucotasun, eta badaquit eguiazcoa dela nitaz dakharren lekhucotasuna.

33. Quec egorri içan duenue Ioanes gana, eta harc lekhucotasun bihurtu du, eguna den beçala.

34. Nitaz beçambatean, eztarot guiçon batec bihurteen lekhucotasunie; bainan minteo naiz hunela, salba çaitetzentçat quec.

35. Ioanes een arguiçagui iratchequi eta arguitsu bat; eta quec nahi içan çarete aphur bat gogotic ibili haren argitara.

36. Nic ordean badut Ioanesena baino lekhucotasun handiagoric; eeën Aitac eguitecotçat eman darozquidan ikhusgarriac, hec berac lekhueo çaiquit Aitac egorri içan nauela.

37. Eta egorri nauen Aita berac ere lekhucotasun eman içan darot; bainan eztue nehoiz haren boça entçun, ez eta ere haren beguithartea ikhusi;

38. Eta haren hitça eztago cuen baithan, ceren ezpaitueñe ni egorri nauena sinhesten.

39. Ikher eçatęue Isquiribuac, uste duenaz guero hetan ditequela bicitce be-thierecoa; eta hequiec berec dakharte nitaz lekhucotasun (1).

(1) Isquiribuac ikbertceaz, edo artha eta ardu-rarequin miratceaz dioenean Iesusec, eztu baitez-pada orori aguincta bat eguiten; badira hartaco direnac; eta dira hainitz guehiago, berac ez gai içanez, bertcetaric ikhasi behar dituztenac. Pharisauençat ordean, berac cirelaric erakhasle, ahal-cagarri cen berec ezpaitçazquiten Isquiribuac.

40. Bizquitartean etçarete ni ganat ethorri nahi, ardiets deçaquentçat biciteea.
41. Eztut ene gorestea guiçonetaric iguriquitcen.
42. Bainan eçagutcen çaituztet, eztuuela Iaincoaren onhesgoa ceuen bihotcetan.
43. Ethorri natçaitçue ene Aitaren ice-nean, eta ez nauçue hartcen; ethorriren çaitçue bertce bat bere icen hutsean, eta hura harturen duçue.
44. Nola sinhets deçaqueçue quec, lakhet çaitçuelarican bata bertceac onhestea, eta achola guti duçuelaric Iaincoa ganic heldu den onhesgoa eguiazcoaz?
45. Ez uste içan nic erantçunen daroteneitala ene Aitaren aitcinean; içanen çaitçue erantçuleric asco Moises bera, ceintan baituçue çuen ustantça.
46. Ecen Moises sinhesten bacinute, ni ere aguiian sinhets nindeçaqueçue, hare nitaz isquiribatu duenaz gueroztic.
47. Bainan hare isquiribatuetan sinherteric ez içan eta, nola ene hitcetan içanen duçue?

## VI CAPITULUA.

*Bortz oguien eta bi arrainen berretce miragarria. Jesus itsasoan oinez dabila. Nola garbi qui diven, eta luça qui gogortzen duen, bere gorputza ianhariçat eta odola edaritçat emanen dituela. Cembait dicipulueazten dute orduan, eta hamabi ac guelditzen çazco. Batec ordean salduren duela erraiten daroe.*

1. IOAN cen guero Jesus Galileaco itsasoaren, erran nahi da Tiberiadako aintziraren bertce alderat.

2. Eta bacarraicon oste handi bat, eeren ikhusten baitcitzten erien gainean eguiten cituen ikhusgarriac.

3. Igancen beraz mendi batetara, eta iarri cen han bere dicipuluequin batcan.

4. Goititu cituenean bada beguiac, ikhussiric cer oste handia ethortzen citçaison, erran cioen Philiperi : Nondic erosiren otte dugu ogui, hanquiei iatera emaitecotçat?

5. Eta hurbil een Phazco, Iudutarren iai-eguna.

6. Ciotsan bada hori hantzatzen quela Philipe; ecen baçaquien berac ceren eguitera cihoan.

7. Ihardetsi cioen Philipec : Bagninu ere ehun liberaren ogua, eein eman guinioçaque bakhotchari ahamen bat.

8. Bertee dicipulu batec, Andreas Simon Piarresen anaiac, erran cioen :

9. Bada hemen norhaber bat, baititu bortz garagar ogui, eta bi arrain; bainan cer da hori hunemberteerentetat?

10. Iesusec erran çaroen : Iar-araz eçatçue. Eeen sorhoa handi cen lekhu hartan. Eta iar-araci cituzten, bortz mila guiçonen heina cirela.

11. Orduan hartzituen oguiac Iesusec, eta esquerrac biburtu cituen ondoan, eman çarozen iarriac cirenei, eta halaber arrainenetarie nahi çuten beçambat.

12. Eta ase cirenean, erran çaroen dicipuluei : Bil eçatçue çathi goitiquinac, eztitecen gal.

13. Bildu cituzten bada; eta bortz garagar oguietaric hondartu ciren phusquez, bethe cituzten hamabi sasqui, guciec ian ondoan.

14. Ikhusi çntenean guiçon hequiee Iesusec egun çuen espantu hau, eman ciren elkarri erraiten : Eguiazqui, hau da mundurat ethorri beharra den profeta.

15. Bainan eçagutu baituen Iesusec iñ behar citçazcola harteera, erregue eguitetotçat, itçuri citçaien berriz mendirat bakharric.

16. Noiz ere arrastu baituen, ioan ciren itsasora dicipuluac;

17. Eta untcirat iganic, hari ciren bertee alderat, Capharnaum ardietsi nahiz; ilhun beltça cen bada iadanic, eta Jesus etcitçaien oraino bathu.

**18.** Bizquitartean, iaiqui cen haicee hazcar bat, eta hasi cen itsasoa hantcen.

**19.** Eta leco bat bide baino guehichago arrauetan egunin çuten orduco, hor heldu çiae Jesus uraren gainean dabilala, eta unteiari hurrentcen çaoela; eta icitu ciren.

**20.** Bainan erran çaroen : Ni naiz; ez ici.

**21.** Hartu nahi içan çuten bada unteirat, eta bertan, io çuen unteiac hec cihoacen leihorra.

**22.** Biharamunean, itsasoz bertce aldean egon içan cen ostcac, baçaquien behintçat etcela han içan bertce unteiric, bat baicen; eta etcela hartarat igan Jesus dicipuluequin, aiteitic dicipuluac ioan içan cirela bakharric;

**23.** Bainan ethorri baitciren gueroztic untei batçu Tiberiadaco aldetican, Iaunac, esquerrac bihurtu ondoan, oguaia iatera eman çaien toquitsura,

**24.** Iaquin çuten orduan ecen etcela Jesus han, ez eta dicipuluac ere; eta iganic untei hetara, ethorri ciren Capharnaumera, Iesusen ondoan.

**25.** Aurkhitu çuten itsasoaren bertce aldean, eta erran cioten : Nausia, noiz hurnatua çara?

**26.** Ihardetsi çaroen Iesusec : Cin cinez erraiten darotçuet, ene ondoan çabiltçate, ez eguiten ikhusi darozquidatçuen espantuac gatic, bainan bai ceren ogui eman darotçuetan, eta ase çaituztedan.

27. Caquizeote, ez galtzen den ianharriari, bainan bicitce bethierecoraino dirauen oguiari, ceina emanen baitarotçue guionaren Semiac; ecen hau da bere Aita Iaincoac eiguiluaz iraqagutu içan duena (1).

28. Galdeguin cioten hequiee : Cer eguien dugu Iaincozeo eguinariac eguitetoteat ?

29. Ihardetsi çaroen Iesusec : Hau da Iaincozeo eguinaria, sinhets deçaquen hare egorri duenaren baithan.

30. Erran cioten berriz : Eta cer ikhusgarri eguiten darocu, dakhusaguntçat eta sinhets deçagun çutan ? Cer eguiten duçu ?

31. Behinic bat, gure aitcinagocoe ian içan dute manna mortuan; isquiribatua ere baita : Eman daroe iatera ceruticaco ogua.

32. Ihardetsi çaroen Iesusee : Eguiazqui diotsuet, eguiazqui : Eztarotçue Moisesec eman ceruticaco ogua, bainan ene Aitac emaiten darotçue ogui cinez ceruticacoa dena.

33. Ecen Iaincoaren ogua da cerutic iausten dena, eta emaiten dioena bicitcea munduari.

34. Erran cioten beraz hequiee : Iauna, emaguu bethi ogui hartarie.

35. Iesusec dioste : Ni naiz hicizeo ogua; ni ganat dathorrena, ezta goseturen; eta ni baithan sinhesten duenac, eztu içanen nehoiz egarriric.

(1) *Iraqagutcea*, eçagut-əraztea.

36. Bainan erran içan darotçuet, nakhusaelarie ere, ez nauçuela sinhesten.

37. Aitae emaiten darotan gucia, ni<sup>7</sup>ganat heldu da; eta ni ganat heldu dena, ez-tut bazterrera itraitciren;

38. Ceren cerutic iautsi bainaiz eguiteco-tçat ez ene nahia, bainan egorri nauenaren nahia.

39. Huna bada egorri nauen Aitaren nahia : eman darozquidan gucietaire ezteçadan gal garabic, bainan phitz-araz detçadan azquen egunean.

40. Ecen ene Aita egorri nauenaren nahia da, Semea ikhusten eta hartan sinheste duten guciee, içan deçaten bethiereco bicitea; eta nic phitz-aracico ditut hondar egunean.

41. Baçuten bada cer eras Iduec Iesusez, erran çuelacotz : Ni naiz bicizco oguia, cerutic iautsi naicena.

42. Eta cioten : Eztea hori Jesus Iosephen semea, eta eçagutzen bide ditugu gue horren aita eta ama? Nola dio bada horrec : Cerutic iautsia naiz?

43. Ihardetsi çaroen Iesusec : Ezteçaeluela horrela çuen artean eras.

44. Nehor ecin dathorque ni ganat, baldin ezpadeca ni egorri nauen Aitac era-khar; eta nic hora phitz-araciren dut azquen egunean.

45. Isquiribatua da : İçanen dira oro Iaincoac eracätsiac. Norc ere entçun baitu eta ikhasi Aita-ganic, eta hora ni ganat dathor.

46. Ez eiqui bada nöhore egundaiño Aita ikhusi duelacoan; bainan Iaineoa ganicacoa denac, harc bakharrie Aita ikhusi du.

47. Eguiazqui, eguiazqui diotsuet : Nitán sinheste duenac, hainac badu bicitce bethierecoa.

48. Ni naiz bicizeo oguaia.

49. Çuen arbasoec ian içan dute manna basoan, eta hil içan dirade.

50. Bainan huna cerutic iautsi içan den oguaia, huntaric iaten duena eztadintçat hil.

51. Ni naiz ogui bici cerutic iautsi nai-eena.

52. Norbaitec ian badeça ogui huntarie, bicico da bethiere; eta nic emanen dutan oguaia, hora da ene haraguia, munduaren bicitcea gatic emanen dutana.

53. Horren gainean baciharducaten Judentz elkarren artean, ciotelaric : Nola hunee eman ahal dieçaguque bere haraguia iatera ?

54. Erran çaroen Iesusec : Eguiazqui erraiten darotçuet, eguiazqui, baldin ian ez-padeçaue/guiçonaren Semearen haraguia, eta haren odola ezpadeçaue edan, eztuque bicitcea içanen ceuen baithan (1).

(1) Eztitetzeque launaren hitz banquietaric athera, ez bertee bunelacoetaric ere, bicilice bethierecoaren ardiestecotçat, behar duela batbederac haren haraguitic ian eta bai edan haren odoletic ; sinheste hori ia higanoten asmu tçarra. Sinheste catolicos dio, behintçat behar duela batbederac phazeoz bedere urthean comuniatu salbatcecotçat ; ce-

55. Ene haraguia iaten duenac, eta edaten ene odola, harc bieitee bethierecoa badu, eta nic phitz-araciren dut azquen egunean.

56. Ene haraguia eguiazqui ianhari bat da, eta ene odola eguiazqui edari bat da.

57. Ene haraguia iaten duenac, eta enc odola edaten, nitan du egoitza, eta nic hartan.

58. Nola ni egorri nauen Aita bici baita, ni ere bici naiz Aita gatic; eta halaber ni iaten nauena, bicico da ni gatic.

59. Huna non den cerutic iautsi den oguia; ez çuen aitasoec ian içan duten manna beçalacoa, eta guero hil içan baitirade; ecen ogui hau iaten duena bicico da chederie gabeco mendeetan.

60. Haue erran cituen Iesusec, Capharnaumeco batçarrean erakhasten hari eela.

61. Eta dicipuluetaric batçuc entçun çutenean, erran çuten : Gogorra da solhas hori, eta norc entçun ere deçaque?

ren launaren aguincta baita comunia deçan, eta Eliçarena Phazcoz eguin deçan; bainan ezta baitez-padacoa guristino bakhotchac bar detçan launaren gorphutça, eta, barequilan batean, launaren odola; hambat hartcen du bata hartcen duenac, nola biac hartcen dituenac. Hala dio gore sunbesteac, eta launac berac ere bai; ecen bersu berrogoi eta bederatxi garrenac garbiqui dio : *Ogui hau* (erran nahi da gorphutça) *iaten duena, bicico da bethi ere*; halaber du beraz, eta ez guehiago edo gutiago, biac hartcen dituenac nola gorphutça baicen, edo odola baicen hertzen eztuenac, sari bera, bethirecoa bicitea.

62. Bainan baitçaquien Iesusec bere baihan, hauquiez cerasatela haren dicipuluec, erran çaroen : Hortaz iauzten çarete?

63. Cer date bada, noiz eta ere ikhussico baituque guiçonaren Semea igaiten dela lehen cen toquirat (1) ?

64. Ispiritua da bicitcea emaiten duena, haraguia ezta deusetaco (2). Eta nic erraiten darozquituetan hitçac ispiritu dira eta bicitce.

65. Ordean badira çuetan batçu, eztutenc sinhesten. Ecen baçaquien hastetic Iesusec norc etçuen sinhetsico, eta norc salduren çuen.

(1) Erran nahi da launae dicipulu sinhesgaitz hei : Eztuque sinhesten eman dieçaqueçuetala enc haraguitic iatera ? Eta bizqitartean ikhusten ahal nauçue , ceuen begnien aitcinean bainaiz. Gutiago sinhetsico bide duçue cerurat igana içanen naicenian ! Bainan den ceruan, den lurrean , erranaren arabera eguiteco gai da bethi , eta erranez gueroz eguiten du , ecen eguiati da.

(2) Uste çuten Capharnaumetar eta dicipulu moldegaitz eta lolo batçneç , cein ec eman launa utci baitçuten ordutic harat , eman behar çaroela iatera bere gorputz biletic ; halacotz erraiten daroe . *ispirituac emaiten duela bicitcea , eta haraguia bakarric ezlitequela deus ere* ; adi-araztecotçat ecen eman baliote gorputz hila , etçuetetela , hartcea-requin haren gorputzça , hambertctan hitz emaiten çaroen bicitcea. Eta *harajuia bera ezlicatela deus* , ongi dio ; ecen Iesusen haragi saindua hargatic çaicu on gucieng ithurri , ceren iaten baitugu haren Iaincotasun ispiritu hots den hartaz bethea. Haraguiaç dakharcu Iesusen Iaincotasuna , eta Iaincotasun , haraguian baicic aurkhi ecin deçaquegun harc , hazten gaitu bicitce bethierecotçat.

66. Eta erraiten çaroen : Hargatic nio-tsuen nehor ecin dathorrela ni ganat, baldin eman ezpadeço ene Aitac.

67. Ordudanic guibelat egun içan çuten haren dicipulueta ric hainiteec, eta etçabil-icen guehiago harequin.

68. Erran çaroen beraz Iesusec hamabie : Eta çnec ere ioan gogo çarete ?

69. Ihardetsi cioen Piarresee : Iauna, noren ganat guinohazqne ? Çuc ditutçu bicitee bethiereco hitçac ;

70. Erran çaroen Iesusec : Ezta eguna hamabi hautatu çaituztedala nic ? Bizquittartean çuetaric bat deabru bat da.

71. Erran nahi çuen bada Iudas Iscariot, Simonen semea; ecen hunec behar çuen saldu, hamabietaric bat cen arren.

---

## VII. CAPITULUA.

*Jesus ichilca beçala Ierusalem erat ioan on-doan, hari da aguerri aguerrian tem-ploan erakhasten. Mintço çiae bere etsai hil-araci nahi dutenez, bere heriotceaz, bere hiletaric iaiquitceaz, Ispiritu Sainduaren ethortceaz. Nahi dute har-araci, eta Nicodemoc haren alde hartzen du.*

1. HANDIC harat hari cen Jesus Galilearen ingurateen, eta etcen Iudearat nahi

ioan, ceren Iuduac haren ondoan baitęa-biltęan, hil-araci nahiz.

2. Bada hurbil celaric Iudutarren phesta, Tabernacleena deiteen dutena,

3. Erran cioten bere anaiec (1) : Ikkhi caite hemendic, eta cohaz Iudearat, çure hango dicipuluec ere ikhus detçatentçat eguiten ditutęun gauça handiac.

4. Ecen nehorc eztu horrelacoric gordeca eguiten, bere burua aguertu nahiz dabilalarican batean. Hoin miresgarri di-ren gauçac eguiten ditutęunaz gueroz, era-cuts çaquizco ceroni munduari.

5. Ecen haren anaiec berec etçuten har-tan sinhesteric.

6. Ihardetsi çaroen Iesusec : Ene ordua ezta oraino ethorria, bainan çuentçat bethi muga da.

7. Munduac eein gaitects çaitęaquete çuec; bainan ni higüin nau, ceren lekhuco bainau ecen gaichtoac direla haren egui-neariac.

8. Çuec beraz baçohazquete phesta hor-tara; ni behintçat ez noha oraino, ceren ezpaita oraino ene muga ethorri.

9. Horieci ihardetsi ondoan, bera guel-ditu cen Galilean.

10. Ioan cirenean bada haren anaiac, orduan ioan cen bera halaber phestara, ez aguerriqui, bainan ebasca beçala.

(1) Erran dugu lehen ere Iudutarrec abaide bur-renecoac *anaiac* deitcen ohi cituztela.

11. Eta bilha çabilzeon Iduac iai-egunean, galde çutela : Non da bada ?

12. Eta erasia handi cen haren gatic ostearen artean, ciotela batçuec : Guiçon cucena da ; eta bertceec : Ezta hala, bainan populuaren chorateen hari da.

13. Bainan nehor etcen hartaz mintço ausarqui, Iduen beldurrez.

14. Bizquitartean iai-egunaren erdi erdian, igan cen templora, eta hasi cen era-kasten.

15. Eta iarri ciren Iduac miretsiric, ciotela : Nolatan daquizqui hunec horiec oro, ikhasi eztuelaric ?

16. Ihardetsi çaroen Iesusec : Ene era-khaspena ezta enea, bainan bai ni egorri nauenarena.

17. Norbaitec nahi badu haren nahia eguin, eçaguturen du Iaincoa ganic denetz ene erakhaspena, ala ene baitharie mintço naicen.

18. Bere buruz mintço dena, bera nahi da goretsia içan; bainan bere egorlea goretsi nahi duena, eguiati da, eta ezta haren baithan gueçurric.

19. Eztarotçue leguea eman Moisesec, eta ezpaita çuetan leguea bethetcen dueñic nehor ere ?

20. Cergatice çabiltçate ni hil nahiz ? Erran cioen populuac : Deabruac çarabiltça nasqui; norc nahi çaitu hil ?

21. Ihardetsi çaroen Iesusec : Ikhusgarri bat eguin içan dut, eta guciac miretsiric çaudezte..

22. Eta aguindu darotçuelacotz Moisesec ebaquitcea (ez Moisesec bere burutic, bainan lehenagocoetaric ikhasirie), ebaquitceen duçue larumbat eguna içanican ere.

23. Bada ebaqui ahal badaite norbait larumbat-cara, hauts eztadin Moisen leguea, certaco suminteen caizquidate niri, ceren eman diotan gniçon batı gorphntz gucico osagarria larumbat egunarequin?

24. Etçaiteztela ibil beguien azpico itchuraren arauaz, bainan bai bidezqui eta cuacenqui.

25. Entçunic horiec, hasi ciren erraiten Ierusalendar batçu : Eztea hau hilteecotçat bilhatceen duten hura ?

26. Eta huna non mintço den ororen aitecinean, eta ezpaitiote deusic erraiten. Eçagutu othe dute bada garbi qui gure aiteindariec hau dela Christo ?

27. Bainan badaquigu nondic heldu den hau, eta Christo aldiz dathorrenean, nehorc eztu iaquinen nondic daten.

28. Jesus orduan hasi içan een oihuz, temploan erakhasten çuela : Badaquique nor naicen ni, eta nondic heldu naicen; eta bizquitartean ez naiz ene buruz ethorri içan; bainan eguiatia da ni egorri nauena, eta eztuçeque eçagutceen çuec.

29. Nic ordean eçagutceen dut, haren ganicacoa bainaiz, eta harc egorri bainau.

30. Aiher citezquen bada Iesusen hartera; bainan halere nehorc etcioen eseu gainera ecarri, ceren ezpaitceen ethorria oraino haren muga.

34. Bizquitartean, cheheetaric hainitcec sinhetsi çuten, eta cioten elkarri : Da-thorrenean Christo, egunen othe du hunc eguiten duen baino ikhusgarri gue-hiago?

32. Entçun cituzten Pharisauec osteac Iesusez ciotçan solhas horiec; eta Aphez-nausiec eta Pharisauec egorri ciotçaten guiconac hartceecotçat.

33. Eta erran çaroen Iesusee : Oraino aphur battecotçat quequin naiz, eta banoha guero egorri nauena ganat.

34. Bilhaturen nauçue, eta eznauçue edirenene; eta ni nohan toquirat, etçaitez-quete çuec ethor.

35. Horren gainean bacerasaten bere artean Iuduec : Norat dohaque hau ediren ezteçaquegun toquitarat? Atce herri barriatuetarat othe doha, bequiei erakhas-tera?

36. Ceric diteque erran duen hau : Bilhaturen nauçue, eta edirenene ez; eta nohan lekhura, çuec ecin ethor çaitezquete?

37. Azquen iai-egunean, ceina baitcen handiena, oihu egun quen Iesusec, cioelaric : Baldin nehor egarri bada, bethor ni ganat, eta edan beça.

38. Nitan sinhesten duenari, Isquiribuac dioen arauaz, ur bieizco ibaiac iarico çaliza sabeletic.

39. Aditcen quen bada hori, hartan sin-hetsico çutenei ethorri behar citçaien Ispituaz; etcen ecen oraino emana Ispiritua, ceren ezpaitcen oraino Jesus altchatua.

40. Ostean bada, solhas horiec entcunic, cioten batçue : Guiçon hori eguiazqui profeta da.

41. Bertce batçue : Christo da hori. Eta hauquiee berriz : Galileatic behar dea ethorri Christo?

42. Eztu bada Isquiribuac erraiten ecen ethorrico dela Christo Dabiten ethorquitie, eta Bethleengo herritic, ceintacoa baitcen ere Dabid?

43. Horrela beraz hari ciren ostean, batçeu alde bat, bertceac bertce alde, Iesusen gainetic.

44. Eta baciren hartu nahi çutenac; bainan etcioen nehorc ere escuric gainerat eçarri.

45. Eta itçuli ciren Aphez-nausiec eta Pharisauec egorri içan cituzten guiçonac. Eta erran cioten hequiee : Cergatic eztuque erakharri?

46. Guiçonec ihardetsi cioten : Egun-daino ezta guiçon hori beçala guiçonic mintçatu.

47. Erran cioten Pharisauec : Nasqui quec ere irabaciae çarete?

48. Othe da bada nehor buruçaguietaric edo Pharisauetaric hortan sinhetsi duenic?

49. Bainan bakharric sinhetsi dute guiça chehe leguea eçagutcen eztuten batçuec; eta hec maradicatu batçeu dirade.

50. Horren gainean erran çaroen Nicodemoe, beretaric batec, Iauna gana gauaz ethorri içan cen harc berac:

51. Gure legueae cilhegui eguiten othe darocu bada guiçon baten gaichtaguintçat hartcea, bera entçun gabe, eta cer eguin duen eçagutu gabe?

52. Ihardetsi cioten : Nasqui cu ere Galileartua cara? Mirazquiten Isquiribuac, eta ikhusico dueu ecen cztela Galileatic profetarie ilkhitcen ahal.

53. Eta ioan eiren bakhotcha bere etcherat.

---

### VIII. CAPITULUA.

*Emazte lohia Iesusen aitcinerat erakharria. Mintço da Iesus bere Iaincotasunaz, luçai qui gogortcen duela equia hori. Aiphateen du, bide nabar, Iduen bihotz gogortasunaz, bere hiltceaz, bekhatorea nola den bere bekhatuaren azpico, nor den Abrahamen haur, eta Iaincoaren haur, eta nor deabruaren haur. Iuduec harrica hil nahi dute.*

1. BIZQUITARTEAN Iesus ioan cen Olibetaco mendirat.

2. Eta arguiaren beguieotçat, ethorri cen berriz templora, eta bildu citçaiion populu gucia, eta iarriric, hasi citçaien erakhasten.

3. Orduan ekharri cioten Isquiribauec eta Pharisauec emazte ezcondu bat, na-hasdura tçarrean hatcemana; eta erdi erdian hura eçarriric,

4. Diotsate : Nausia, emazte hau orai doi doia hatceman dute likhisqueria batean.

5. Bada Moisesec leguean aguindu darocu hunelacoac harricatceaz; eta çuc cer dioçu?

6. Horrela hari ciren hura cerbaitetan limbur-araci (1) nahiz, içaitecotçat guero cer erran harentçat. Bainan Jesus, khurturic behciti, eman cen erhiaz lurrean isquiribateen.

7. Nola ordean aitcina galdez baiteegozcon, chuchendu cen, eta erran çaroen : Çuetaric bekhatu khutsuric gabe denac aurthic bioço lehen harria.

8. Eta berriz makhurturic, eman cen oraino ere lurrean isquiribateen.

9. Aditu çutenean hequiec, ilkhi ciren bata bertcearen ondotic, çaharrenetaric hasiric; eta guelditu cen Jesus bera, eta harquin, chutic erdian cen emaztea.

10. Orduan goititu cen Jesus, eta erran cioen : Emaztea, non dira çu bilhatcen cintuztenae? Condenatu çaitu norbaitee?

11. Diotsa harc : Nehorc, Iauna. Erraiten dio Iesusec : Ez bada nic ere, etçaitut condenatuco. Çohaci, eta ez egun iagoitic gaizquiric.

12. Berriz ere mintçatu citçaien Jesus, cioela : Ni naiz munduaren arguia; niri darraitana, eztabila ilhumbean, bainan içanen du bicitceco arguia.

(1) *Limburicea*, lerratcea.

13. Erran cioten Pharisauec : Çu ceure buruaren lekhuco atheratcen çatçaizcu; ezta sinhesteco çure lekhucotasuna.

14. Iesusec ihardetsi çaroen : Ni neure buruaren lekhuco altchateen banaiz ere, eguiazcoa da ene lekhucotasuna, ceren baitaquit nondic heldu naicen, eta norat nohan; eta eztaquique quec ez nondic ethorteen naicen, ez norat nohan.

15. Quec haraguiaren araberacoa duçue quen erabaquia (1); ez ordean nic, ezpaitut nehortaz erabaquiric eguiten.

16. Bainan badaguit ere, eguiaren araberacoa da ene erabaquia, ceren ezpainaiz bakharric, bainan ni, eta egorri nauen Aita enequin.

17. Ceuen leguean berean isquiribatua da, ecen queena dela bi guiçonen lekhucotasuna.

18. Bada nic neronez behintçat lekhucotason dakhart; bertçalde egorri nauen Aitac ere lekhucotasun emaiten darot.

19. Galdeguin cioten orduan : Non da çure Aita? Ihardetsi çaroen Iesusec : Eztaquique ez ni nor naicen, ez ene Aita nor den; ecagutcen baninduque ni, aguijan ene Aita ere ecagut cineçaquete.

20. Hauc erran içan cituen Iesusec temploco dirua beguirateen cen toquian, era-kasten hari cela; eta etçuen nehore har-

(1) *Erabaquia, erabaquitcea, crabaquitçailea, iuamendua, iuatea, iuea.*

araci, ceren ezpaitcen oraino haren muga ethorria.

21. Erran çaroen guehiago : Banoha, eta bilhaturen nauque, eta çuen bekhatuan hilen çarete. Ecin ethor caitezquete ni nohan lekhurat.

22. Cioten bada Iiduec : Berac hilen othe du bere burua, erraiten baitu : Ni nohan lekhurat, quec ecin çathozquete ?

23. Erran çaroen : Quec behere huntaricacoac çarete, eta ni garaiticacoa naiz. Quee mende huntaricacoac çarete, eta ni ez naiz mende huntaricacoa.

24. Hargatic ere erran darotquet ecen çuen bekhatuetan hilen çaretela; ecen ezpadetçue sinhets ni naicena naicela, hilen çarete çuen bekhatuetan.

25. Galdeguin cioten bada : Cu nor çara ? Ihardetsi çaroen : Gucien hastapena naiz ni, minteo natçaitquen hau.

26. Eta hainitz nuque çuetaz erraiteco, eta çuetan altchatceco; bainan eguiatia da ni egorri nauena; eta nic, hora ganic entçunac baicen, eztiotçat erakhasten munduari.

27. Eta etçuten aditu erraiten çaroela ecen Iaincoa çuela Aita.

28. Dioste beraz Iesusec : Noiz eta ere goitituco baituçue guionaren Semea, orduan eçagutuco duçue nor naicen ni; eta ene burutaric eztudala deus eguiten, bainan, nola Aitac eracatsi içan baitarot, eta hala minteo naicela.

29. Ecen ni egorri nauena enequin dago, eta ez nau neroni utci içan; ceren hari on-hesgarri çazcanac eguiten baititut bethi.

30. Horiec entçutearequin, sinhetsi çuten hainiteec.

31. Eta erran çaroen Iesusec sinhetsi çuten Iiduei : Baldin çuec iraun badeça-que ene hitcean, içanen çarete eguiazqui ene dicipuluac;

32. Eta eguiia eçaguturen duçue, eta eguiac eguinien çaituzte ceuen escuco.

33. Ihardetsi cioten hequie : Abrahamen hacific gara, eta ezcarra egundaiño neho-ren meneco içan; nola dioqueguçu beraz : İçanen çarete ceuen escuco ?

34. Erran çaroen Iesusec : Eguiazqui diotsuet, eguiazqui, bekhatu eguiten duen gucia, bekhatuaren azpico da.

35. Azpico sehia bada eztago bethi etchean; bainan semca etchean dago bethierecot-çat.

36. Beraz eguiazqui cenen escuco içanen çarete, Semeac ceuen escucotcen ba-çaituzte.

37. Badaquit Abrahamen ume çaretela; halere hil nahi nauçue, ceren ezpaitu enc hitçac harteen çuen baithan.

38. Nitaz beçambatean, ene Aita baithan ikhusi dutana, hura bera diot; eta çuec eguiten duçue ceuen aita baithan ikhusi içan duçuena.

39. Diotsate : Gure aita Abraham da. Dioste Iesusec : Baldin Abrahamen seme

baçarete, Abrahamec eguiñen eredura egui-  
que çuec ere.

40. Orain ordean hil nahi nauçue ni,  
Iaincoa ganic entçun dudan eguiia erraiten  
darotçuetalaric : horrelacoric eztu Abra-  
mec eguiñ içan.

41. Çuen aitac eguiñen arabera, eguiten  
duçue. Ihardetsi cioten : Ez cara gu lohi-  
queriatric sorthuac; aita bakhar bat dugu,  
Iaincoa.

42. Erran çaroen Iesusec : Baldin Iain-  
coa çuen aita balitz, nasqui onhets ninde-  
çaqueçue ni. Ecen Iaincoa ganic ilkhi naiz  
ni, eta ethorri natçaitçue; ez naiz, ez, ene  
ariaz ethorri, bainan harc egorri nau.

43. Cergatic eztitutçue aditcen ene sol-  
hasac? Ceren ene hitça ecin entçun ere  
baitiroçue.

44. Çuec deabrua duçue aita, eta ceuen  
aitaren nahicundeac bethe gura çarete.  
Hura guiça-erhaile (1) cen hastetican; eta  
eztu eguiian iraun, ceren czpaitcen haren  
baithan eguiia. Gueçurrez mintço denean,  
orduan bere beretic mintço da, gueçurtia  
baita, eta gueçurrraren aita.

45. Eta nic eguiia badarrautçuet, ez nau-  
çue sinhesten.

46. Çuetaric ceinec emaiten ahal darot  
bekhaturic beguithartera? Baldin erraiten  
badarotçuet eguiia, cergatic ez nauçue sin-  
hesten?

(1) *Erhaitea*, hiltcea; *guiça-erhailea*, *guiçon-*  
*hiltçaila*.

47. Iaincoa ganic denae, Iaincoaren hitœac entœuten ditu. Hartaracotz quec eztitœue entœuten, ceren ezpaitçarete Iaincoa ganic.

48. Ihardetsi cioten Iuduee : Eztugu bada ongi erran quec Samaritar bat carela, eta deabruac çauzeala?

49. Erran çaroen Iesusec : Ez nauca ni deabruac; bainan aithor emaiten diot ene Aitari, eta quec hidioiztateen hari çarozquitet.

50. Nitaz denaz, eztut bilhatcen neure ohorea; bilhatuco darot bertee batec, eta gueriçatuco darot.

51. Eguiazqui diotsuet, eguiazqui : nore ere beguiratuco baitu ene hitœa, eztu harc nehoiz heriotcea dastaturen.

52. Erran cioten Iuduec : Oraintche dakhusagu ecen deabruac hartua carela. Abraham hil içan da, eta profetac ere bai; eta quec dioœu : Nehore ene hitœa beguire badeœa, eztu harc nehoiz heriotcea dastaturen.

53. Ala guehiago cara œu, ecen ez gure aita Abraham ceina hil içan baita, eta profetac, ceinac ere hil baitirade? Cerentçat dauçaœu eeure burua?

54. Iesusec ihardetsi çaroen : Baldin handiets badeçat nic neure burua, ene handiestea ezta deus ere; handiesten nau ordean ene Aitac, ceuen Iaincoa deiteen duœuen harc berac.

55. Bizquitartean eztitœue hora eçagutu;

bainan nie bai, eçaguteen dut. Eta erran baneça eztudala eçagutcen, quec beçalacoa nintequ, gueçurti bat. Ordean eçagutcen dut, eta haren hitça beguiratcen ere dut.

56. Çuen aita Abrahamec guthicia içan du, guthicia ere min içan du, ene egun hunen ikhustecotçat; ikhusi içan du, eta bozariotu da.

57. Erran cioten horren gainean Induec : Eztituçu oraino berrogoi eta hamar urthe, eta Abraham ikhusi duçu?

58. Ihardetsi çaroen Iesusec : Eguiaz, eguiaz diotsuet, Abraham iaio baino lehen, banintcen ni.

59. Orduan lothu eiren harriei, hari aurthiquitceco; bainan itçali citçaien Jesus, eta ilkhi cen templotic.

---

## IX. CAPITULUA.

*Itsuric sorthu guiçon bat sendatcen du Iesusec, eta hora bera Induec, bekhaizcoz, etchatcen dute bere batçarretic. Bainan sinhesten du Jesus baithan, eta adoratcen du.*

1. IRAGAITEN cela, ikhusi çuen Iesusec guiçon sorteetic itsua ceu bat.

2. Eta galdeguin cioten dicipuluec : Nausia, ceinec eguin othe dute bekhatu, hunec ala hunen aita-amet, iaio baita hunela itsu?

3. Iesusec ihardetsi çaroen : Eztu hunec bekhatu eguin, ez eta hunen aita-amet ere; bainan hola guerthatu içan da, aguer dadien hunen baithan Iaincoaren ahala.

4. Mengoa da (1) eguin detçadan egorri nauenaren eguin beharrac, eguna dutano; hor heldu da gaua, ceintan ezpaititeque eguin.

5. Munduan naiceno, munduaren arguia naiz.

6. Horiec erran eta, eguin çuen thu lurrerat, eta aho-goço harequin eguin çuen lohi phichca bat, eta lohiaz gantçetu ci-tuen itsuaren beguiac.

7. Eta erran cioen : Cohaz, eta garbi çaité Siloeco ikhuzteguian (Siloe erran nahi da egorria). Ioan cen bada, eta ikhuci cen, eta itxuli cen ikhusten çuela.

8. Bada haren auçoec, eta lehenago es-catcen ikhusi çutenec, galde çuten : Ezta hau iarririe esque cegoen hora? Cioten batçuec : Bai, hora da.

9. Berteeec : Ez, haren antçoco bat da. Berac ordean cioen : Hura, ni neroni naiz.

10. Erran cioten beraz : Nola idequi caizquitę beguiac?

11. Ihardetsi çaroen : Guiçon, Jesus deitcen duten harc, baltsa guti bat eguinie, hartaz beguiac pherecatu darozquit, eta erran darot : Cohaz Siloeco garbiteguira, eta garbi çaité han. Haratu naiz bada, garbitu naiz, eta dakhusat.

(1) *Mengoa*, beharra, behar dena.

12. Galdeguin cioten : Eta non da hura ?  
Dioste harc : Eztaquit.

13. Orduan eraman cioten Pharisauei  
guiçon itsu ohia.

14. Larumbat eguna cen bada Iesusec  
baltsa eguin eta beguiac idequi ciotçana.

15. Berriz ere galdeguin cioten Phari-  
sauec, nola ardietsi cuen ikhustea. Iharc  
erran çaroen : Lohia ecarri darot beguietan,  
eta ikhuci naiz, eta dakhusat.

16. Erran çuten orduan Pharisauctaric  
batçuec : Ezta Iaincoa ganic guiçon hori,  
eztuenaz gueroz beguirateen larumbata.  
Bertee batçuc aldiz cioten : Nola daite gui-  
çon gaichtoa, gauça hoin miresgarriac egui-  
ten dituena ? Eta escatima çuten beren  
artean.

17. Berriz ere galdeguin cioten beraz  
argitu berriari : Eta hic cer dioc heror-  
rec, beguiac idequi darozquicanaz ? Ihard-  
etsi çaroen : Profeta dela.

18. Neholere bada etçuten sinhesten ahal  
Iiduec itsua içana cela guiçon hura, eta  
guero arguitua, deithu artean baren bur-  
hasoac.

19. Galdeguin cioten hequiei : Hau da  
cuen seme, iaioz gueroz itsu cela diocken  
hura ? Eta nolatan bada dakhusa orai ?

20. Ihardetsi cioten aitamec : Guc da-  
quiguna da, hau gure semea dela, eta  
sorthu dela itsu ;

21. Bainan nolatan dakhusan orai, ezta-  
quigu; edo norc idequi diotçan beguiac,

eztaquigu guc; berari galdeguioçue; adinac baditu, bera mintça bedi beretçat.

**22.** Horrela cioten burhasoec, cereñ Iduen beldur baitciren; ecen elkhar hitz hartuac ciren Iduac, baldin eta nehorc aithorteen baçuen Jesus Christo cela, içanen cela etchatua batçarretic (1).

**23.** Hartacotz erran çuten aitamec : Adin badu; galdeçoçue berari.

**24.** Egundaiño beçala beraz, erakharriric berriz itsu içatu guiçona, erran cioten : Emoe aithor Iaincoari; baçaquigu ecen guiçon hura gaichtaguin bat dela.

**25.** Dioste harc : Gaichtaguina denetz, bai ala ez, nic eztaquit; hau daquit bakharic, itsu nintcela, eta orai ikhusten dutala.

**26.** Diotsote Pharisauec : Cer eguin daroc ? Nola irequi (2) darozquic beguiac ?

**27.** Dioste : Lehen ere erran içan darotuet, eta entçun içan duçue; cergatic nahi duçue berriz ere entçun ? Ala haren dicipulu iarri nahi çarete çuec ere ?

**28.** Orduan hasi citçaizcon biraúca, ciotsatela : Hadila hi haren dicipulu; gu Moisesen dicipulu gaituc.

**29.** Baçaquigu Moisesi mintçatu içan çaoela Iaincoa; hau ordean etçaquigu nongo den.

(1) Iduen biltçarretic egotcia içaitea, cen gure artean escumicua beçala.

(2) *Irequi* eta *idequi* bardin dira, nola irudi eta iduri, eradan eta edaran, eta bertce cembait; çaharrec cioten irequi.

30. Ihardetsi çaroen guiçon harc : Hauche da bada harrigarria, ezpaitaquiue nondicacoa den, eta niri beguiac hare irequi baitarozquit.

31. Bizquitartean guciec iaquina da, eztuela Iaincoac gaichtaguinic entütenten; bainan balin bada nehor haren cerbitçari, eta haren nahiaren eguale denie, hora entütenten ohi du.

32. Mendeac mende direino, ez ahal du entçun nehore, içatu dela norbait itsu sortu den bati beguiac irequi diotçanie !

33. Baldin ezpalitz Iaincoa ganie, ecin legnique deus ere.

34. Erran cioten horren gainean Pharisauec : Bekhatu hutsa haiz, haileen gucia, amaren sabeleandanic; eta guri cerbait eracutsi nahi darocuc? Eta egotci çuten lekhororat.

35. Iaquin çuen bada Iesusec nola camporat iraitci çuten, eta bathu çuenean erran cioen : Sinhesten duçu Iaincoaren Semea baithan?

36. Ihardesten du : Nor da hora, launa, sinhets deçadan ?

37. Diotsa Iesusec : Iadanic ikhusi duçu, eta mintço çaitçun hau, hora bera da.

38. Diotsa hare : Sinhesten dut, launa. Eta ahuspez eroriric, adoratu çuen.

39. Dio bada Iesusec : Çucenaren bihurteera ethorri naiz mundu huntara; ikhussten eztuteneç ikhus deçatentçat, eta ikhussten dutenac itsu daitecentçat.

40. Hori entçunic harequin eiren Pharisau batçue, erran cioten : Itsu gara beraz gu ere ?

41. Dioste Iesusec : Baldin itsu baciñete, etcinaquete bekhaturie; bainan erraiten haituçue : Ikhusten dugu; hargatic quen bekhatuac badirau.

---

## X. CAPITULUA.

*Iaioz guero itsu cena argitu ondoan, minteo da Iesus oraino ere bere Iaincotasunaz; nola den athea, ardién artçain eguiazcoa; nola hilen den bere ardiac gatic; nola eçagutcen duten haren boça ardiec. Iiduec harricatu nahi dute. Erakhusten du bere Iaincotasuna bere eguiñari miresgarriez.*

1. EGUIAZQUI diotsuet, eguiazqui : Baldin norbait ezpadadi arditegnian sar athetic iraganic, hainan bai leihotic iganican, hura laphur bat da eta ohoin bat.

2. Athetic sartcen dena bada, hura da ardién artçaina.

3. Huni athaltçainac idequitcen dio, eta ardiec hunen boça eçagutcen dute, eta bere ardiac deitcen ditu cein bere iconaz, eta alhapiderat eramaiten ditu.

4. Eta bere ardiac ilkhi-araci dituenean, hequier aiteinean doha; eta ardiac badarraizeo, ceren haren deia eçagutcen baitute.

5. Arrotz bat ordean etçaiseo iarraiquiteen, bainan ihes dohazeo, ceren ezpaitute eçaguteen hots eguite arrotçarena.

6. Iduripen hau athera çaien Iesusee; bainan etçuten aditu certaz mintço citçaien.

7. Erran çaroen beraz oraino ere : Eguiazqui, eguiatzqui diotsuet : Ni naiz ardién athea.

8. Ethorri içan direnac oro laphurrac içan dira eta ohoinac, eta eztitzte entçun ardiec.

9. Ni naiz athea. Nitarie norbait sarteen bada, salbatuco da; eta sarthuoco da, eta ilkhico da, eta edirenene du alhapide.

10. Ohoina ezta ethortcen lekhat ebastecotçat, eta hiltcecotçat, eta galteeoçat; ethorri naiz ni bicitcea içan deçaten gatic, eta are nasaitasun guehiagorequin içan deçaten gatic.

11. Ni naiz artçain ona. Artçain onac bere bicia emaiten du bere ardientçat.

12. Ordean saritan artçain denac, eta artçain eztenac, eta ardiac bereac eztituenac, ikhusten duenean otsoa ethorteen, uzten ditu ardiac, eta badoha ihesi; eta otsoac harrapateen ditu ardiac, eta barriateen.

13. Bada saritan artçain denac emaiten dio itçuriari (1), ceren saritacoa baita, eta ardiez deus guti baitohaco.

14. Bainan ni artçain ona naiz; eta ea-

(1) *Itçuri, itçuria, ihes, ihesa.*

guteen ditut neureac, eta eçagutcen naute neureec;

45. Hala nola eçagutcen bainau ene Aitac, eta Aita eçagutcen baitut nic; eta ene bicia emaiten dut ene ardiac gatic.

46. Bertce ardiac ere baditut, saldo huntaric eztirenac; eta hec ere erakharri behar ditut; eta ene boça adituren dute, eta içanen da arthalde bat eta artçain bakhar bat.

47. Hargatic maite nau ene Aitac, ceren uzten baitut neure bicia, berriz hartceco-tan.

48. Alabainan nehorc eztarot eramaiten; aiteitic neronec uzten dut neure burutaric; eta badut ahala behin uzteco, eta badut ahala berriz hartceco. Horrela aguindu darot ene Aitac.

49. Iduuac beraz berriz ere bilhacaide-tan hasi ciren, beren artean, solhas hau-quien gainetic.

50. Hequietarie hainitcec cioten : Deabruac dauca, eta erhoa da; cergatic entçuten duçue?

51. Bertce batçue cioten : Eztira deabruac daducan baten solhasac horiec; noiz danic deabruac idequitcen ahal daizte begiaie itsuei?

52. Bada eguiten çutela Ierusalemend De-dicacioneco phesta, eta negua cela,

53. Baçabilan Iesuš harat hunat tem-  
ploan, Salomonen aldamioan (1).

(1) *Aldamioa*, arkha azpia, leihor pea, pasajateco atherbea.

**24.** Eta bildu citxaizcon ingurura Induac, eta erran cioten : Noiz arteraino eduquico ditutçu gure gogoac dilindan ? Çu baçara Christo, erraguçu garbioui.

**25.** Ihardetsi çaroen Iesusec : Erraiten darotçuet, eta eztuque sinhesten. Ene Aitaren icenean eguiten ditudan eguintceec berec nitaz lekhucotasun emaiten darotçuetet.

**26.** Bainan eztuque sinhesten çuec, ceren ezpaitçarete ene ardietaric.

**27.** Ene ardiec ene boça eçagutcen dute, eta nic eçagutcen ditut neureac, eta darrailzquit niri;

**28.** Eta emaiten daroet bieitee bethirecoa, eta nehoiz ere eztirade galduren; eta nehorc ere eztarozquit idoquiren escuetaric.

**29.** Niri eman darozquidan Aita nerea, guciac baino handiago da, eta nehor ezta ene Aitaren escutie harrapa detçaqueñic.

**30.** Ni eta Aita, biac bat gara.

**31.** Orduan Induec hartu cituzten harriac, Iesusen harricatceeo.

**32.** Eta erran çaroen Iesusec : Quen beguien azpian hainitz ongui eguin içan dut ene Aitaren icenean; hetaric ceinen gatic harricatcen nauçue ?

**33.** Induec ihardetsi cioten : Etçaitugu çure ongui eguinac gatic harricatcen, bainan ceren burho eguin baituçu, eta ceren guïçon huts bat çarelaric, emaiten baituçu ceure burua Iaincolçat.

34. Erran çaroen Iesusec : Ezta bada isquribatua çuen leguean : Erran dut, Iainco batetu çarete?

35. Baldinetariac bada Iainco deith badetça Iaincoa mintçatu içan çaienac, eta Isquiribua ecin ecezta badadi,

36. Nola dioqueçue burho eguiten dudala nic, Aitac saindu eguin nauenac, eta mundurat egorri nauenac, erraiten darotuetanean : Iaincoaren Seimea naiz?

37. Baldin czpaditut eguiten ene Aitaren eguintçac, eznaçaçuela sinhets.

38. Baldin ordean egniten baditut, ezpanauçue ere ni sinhetsi nahi, eguintçac sinhets eçatçue, eçagut deçaçuentçat, eta sinhets deçaçuentçat Aita ni baithan dela, eta ni Aita baithan naicela.

39. Berriz orduan nahi çuten hartu, bainan itçuri citçaien escuetarie.

40. Eta ioan cen berriz ere Iordan ibaiaz bertce alderat, Ioanes aitcinago bathaiatcen hari içan cen toqui bererat; eta han egon cen.

41. Eta ethorri citçaizeon hainitçac, erraiten çutela : Ioanesec, eguiia bada ere, ikhusgarriric eztu batere eguin içan;

42. Bainan huntaz erran içan dituen guciac, eguiac içan dirade. Eta hainitçac içan ciren sinhetsi çutenac haren baithan.

## XI CAPITULUA.

*Lazaro eri, eta hiltzen da. Haren birphizte espantagarria. Horren ondoan Iuduec hartu nahi dute Jesus. Caiphas, uste eztuela, profeta bat beçala mintzo da.*

1. BACEN Bethanian, Mariaren eta haren ahizpa Martharen herri berean, guiçon bat eri; deiteen cen Lazaro.

2. Maria cen Iauna gantçetu içan çuena usain goçozco olio batez, eta oinac bere buruco adatsaz chukhatu çazcana; eta Lazaro, eri cena, haren anaia cen.

3. Arrebec beraz egorri cioten Iesusi erraitera : Iauna, huna non gaizquitua den çuc maite duçuna.

4. Berri hori entçunic Iesusec, erran çuen : Ezta hiltzeccoa eritasun hori; bainan da Iaincoaren gorestea gatic, eta gorets dadintçat Iaincoaren Semea horren gatic.

5. Bada maite cituen Iesusec Maria, eta haren ahizpa Martha, eta Lazaro.

6. Halere, entçun çuencan ecen gaizqui cela, egon cen oraino bi egun, cen toquitic ilkhi gabe.

7. Ondoan erran çaroen dicipuluei : Goacen berriz ere Iudeara.

8. Diotsate hequiee : Nausia, orai doi doia harricatu nahiz çabilzquitçun Iuduac, eta berriz ere harat hari çara ?

9. Dioste Iesusec : Eztirea egunean hamabi ordu ? Egunaz dabilana bada ezta behaztopateen, ceren ikhusten baitu mundu huntaco arguia.

10. Bainan gauaz dohana, haburicatcen (1) da, ceren ezpaitu arguiric berequin.

11. Horien ondoan, erran çaroen oraino : Lazaro gure adisquidea lo datça; bainan banihoaco bere lotic iratçartcera.

12. Ihardetsi cioten dicipuluec : Iauna, baldin lo badatça, osasuneratuco da.

13. Mintço cen ordean Jesus haren hilteceaz, eta uste çuten hec, eguiaszqui lohar-eatceaz cioela.

14. Orduan erran çaroen garbiqui : Hil da Lazaro ;

15. Eta atseguin dut çuen gatic ezpaigntseen han, sinhets deçaquentçat; bainan goaceen haren ganat.

16. Horren gainean erran çaroen Thomas, Didymo çaritçanac, bere dicipulu lagunei : Goaceen gu ere, hil gaitecen horrequin batean.

17. Heldu içan cenean Jesus, aurkhitu çuen iadanie laur egun hartan ehortcia cela.

18. Cen bada Bethania Ierusalemeri hurbil, nombaitzu ordu erdi baten bidean.

19. Eta bacen hainitz Iudu ethorriric Martha eta Maria ganat, hequiei bere anaia-

(1) *Haburicatcea, hapuicatcea, behaztopatcea.*

ren hiltceaz cembait solhas goçagarriren ekhartcera.

20. Marthac hauteman çueneco ethorri cela Iesus, aiteinerat ilkhi citçaioen, eta bizquitartean etchean cegoen Maria.

21. Eta erran cioen Marthac Iesusi : Iauna, çu hemen içaiterat, etcen hilen ene anaia ;

22. Bainan oraino ere, badaquit ecen cer nahi galda dioçoçun Iaincoari, emanen darotçula Iaincoac.

23. Ihardesten dio Iesusec : Phiztuco da cure anaia.

24. Diotsa Marthac : Bai, badaquit phiztuco dela azquen eguneco phiztean.

25. Diotsa Iesusec : Ni, phiztea naiz eta beitciea; ni baithan sinhesten duena, hila balitz ere, phiztuco da.

26. Eta nor ere biciric baita, baldin ni baithan sinhesten badu, nehoiz ere ezta hil. Sinhesten duçu hori ?

27. Ihardesten dio : Bai, Iauna, sinhestia naiz çu Christo çarela, Iainco bici denaren Semea, mundu huntara ethorri içan çarena.

28. Hori ihardetsi eta, ioan cen, eta deithu çuen bere ahizpa Maria, ciotsala ahapean : Nausia hemen dun, eta hire galdea din.

29. Entçun çuen beçain sarri, iaiqui cen berehala, eta hora gana ioan cen.

30. Ecen etcen oraino Iesus herrian sartru ; bainan Martha bathu citçaion lekhu hartan cegoen.

31. Bada Mariarequin etchean ciren Iduac, hequier atsecabearen goçatcera ethorriac, ikhusi çntenean Maria hain betbetan chutitcen eta ilkhitcen, iarrai qui citçaizcon hec ere, ciotela : Hobira doha, nigar eguitera.

32. Bainan Maria, Jesus cen toquira ethorrirrie, launa ikhusi çuen beçain laster, aurthiqui citçaion oinetara, eta erran cioen : launa, çu hemen içaiterat, etceu hilen ene anaia.

33. Jesus, ikhustearequin Maria nigarrez, eta harequin ethorri Iduac ere nigarrez, laztu cen bere barnean, eta bere bihotça utci çuen samurtcera.

34. Eta dioste : Non eçarri duçue ? Diotsate : Çato, launa, ikhusaçu cerorrec.

35. Orduan Jesus hasi cen nigarrez.

36. Cioten ere Iducc : Beha horrat, nola maite çuen.

37. Cioten ordean bertce batçuc : Sor-teeticaco itsua arguitu içan duelaric, hau ecin gueriça ciroen hiltcetican ?

38. Jesus bada, berriz ere iharrosi citoiaela barne gucia, ethorri een hobira. Eta cen hobia harpe bat, eta harri bat çuen emana gainean.

39. Dio Iesusec : Khenaque harria. Dio-tso Marthac, hilaren arrebac : Launa, gango khirastua da; ecen laur egun huntan hila da.

40. Ihardesten dio Iesusec : Eztarotçut erran ecen, sinheste balimbaduçu, ikhusico duçula aguertcen Iaincoaren ahala ?

41. Khendu çuten beraz harria; eta al-tehaturie goiti beguiac, erran çuen Iesusec: Aita, esquerrac darozquitçut, ceren entçun bainauçu.

42. Alabainan badaquit nie ecen entçuten nauçula bethi; bainan horrela diot ene inguruau den populu hau gatic, sinhets deçatenteat çuc egorria naicela.

43. Hitz horien ondoan, erran çuen oihu handi batequin : Lazaro, ilkhi çaité hortie.

44. Eta bertan ilkhi een hila, oin es-cuac lokharri cherrenda batçuz estecatuac, eta beguithartea estalia hil-oihalaz. Erran çaroen Iesusec : Khen eçotçue lokharriac, eta utçaçue dohala.

45. Bada Maria eta Martha gana ethorri Induetarie hainiteec, ikuhsiric Iesusec egun çuena, sinhetsi çuten haren baithan.

46. Bainan batçu ioan ciren Aphez-nausi eta Pharisauen gana, eta erran cioten cer egun içan çuen Iesusec.

47. Beraz bildu çuten Aphez-nausiec eta Pharisauec batçarra, eta cioten beren artean : Ger egun behar dugu, ecen hainitz ikuhsgarri eguiten du guicon horrec?

48. Baldin hola uzten badugu, guciec sinhetsico dute horren baithan, eta guero ethorriric Erromarrac, ez deusetaratuco dute gure hiria, eta bai gure iendaquia ere.

49. Orduan hetaric bat, erraiten baitxaioen Caiphas, eta urthe hartaco Aphez-nausi baitcen, erran çaroen : Çuec ezta-quique deusic;

50. Eta eztuue gogoari emaiten, hobe çaituela, balimba, guicon bakhar bat hil dadin populua gatic, ecen ez iendaqui gucia gal baladi?

51. Hori bada etcioen bere baitharic; bainan urthe hartaco Aphez-nausi baitcen, erran-araci cioen Ispirituac hil behar çuela Iesusec populua gatic;

52. Eta ez oraino populu bat gatic, bainan are, batera biltcecotçat Iaincoaren haur bazter orotan barraiaturic cirenac.

53. Egun hartaz gueroztic bada, hartu çuten chedea hil-araci behar çutela Iesus.

54. Iesus ordean etçabilan guehiago agueriqui Iduen artean; bainan ioan içan cen mortu heguirat, Ephren çariteon herri batetarat; eta egotu cen han bere dicipuluequin.

55. Hurbil cen bada Iduen Phazcoa, eta alde hetarie hainitæc igan ciren Ierusalemera, Phazeo aitcinean, bere buruen khutsutaric garbitcecotçat.

56. Hequiee Iesusen bilha cabiltæan, eta cioten temploan elkarri : Cer çaitue, ez-paita iai-egun huntarat ethorri? Ecen meçu emana çuten Aphez-nausieec eta Pharisauec, baldin nehor helteen bacen iaquitera non cen, eracuts ciogoten, guero hartaz iabo citentçat.

**XII. CAPITULUA.**

*Mariac gantxutzen Iaunaren oinac. Iduec Lazaro hil nahi. Jesus sartzen Ierusalem. Pagano batzu hura ikhusi beharrez ibilqui. Bicia galteaz, beguiratcecotçat. Ceruticaco boz bat. Argua deino ibiltceaz. Iduac sinhesgaitz. Heteric handien batcuec sinhesten, bainan erakhustera emaiteaz beldurti.*

1. CIRELA bada sei egun Phazeoraino, ethorri cen Iesus Bethaniara; herri hartan hil cen Lazaro, Iesusec guero phiztu çuena.

2. Eguin cioten han aphari bat; eta Martha cen cerbitçari, Lazaro berriz, harequin mahainean cirenataric bat cen.

3. Mariac aldiz, harturie libera bat urrin goçozco ur batetaric, acara belhar hutsez eguna, eta asco dirutacoa cena, gantxutu cituen hartaz Iesusen oinac, eta chukhatu ciotçan bere adatseco ileez; eta etche gucia bethe cen uraren usain onaz.

4. Erran çuen orduan dicipuluetaric bat tec, Judas Iscariotec, ceinac Iauna saldu behar baitçuen:

5. Cergatic ezta saldu ur hori, eguinen baitçuen ehun eta berrogoi eta hamar liberaz goiti, on-beharrei emaitecotçat?

6. Alabainan mintço cen horrela, ez lan-

derrez antsia içanez (1), bainan ohoina celacotz, eta ceren berac atchequitzen baitzen moltsa, eta hartarat emanac berac baitzarabiltzan.

7. Ihardetsi çuen Iesusec : Utçaçue egitera ; beguiratu içan du ur goço hau eñe ehorzteco egunecotçat.

8. Behintçat badituzquetçue gabeac bethi quequin ; bainan ez nauçue ni bethi içanen.

9. Iudutce handi batte iaquin çuen bada han cela Jesus; eta ethorri ciren, ez Jesus gatic bakharrie, bainan are ikhustea gatic Lazaro, ceina hiletarie phiztu baitzen.

10. Aphez-nausiee berriz eman cioten buruari, behar çutela Lazaro ere galdu;

11. Ceren hainitçae, hora celacotz, berezten baitciren Iduetaric, eta sinhesten baitçuten Jesus baithan.

12. Biharamunean, iai-egunera ethorriac ciren osteeec, entçunic heldu cela Jesus Ierusalemera,

13. Hartu cituzten palma adarrac escuetan, eta aitcinera ilkhi citçaizecon, ciotela oihuz : Agur, ongi ethorri çarela, Iaincoaren icenean ethortzen çaren Israelgo Erreguea !

14. Eta Iesusec ediren çuen astacume bat, eta eman citçaion bizcarrean, isquribatua denaren arauaz :

15. Eztuçula beldurrie, Siongo alaba ; huna non çure Erreguea heldu çaitçun astacume batean iarriric.

(1) *Landerra*, edo on-beharra, gabea, escalea.

16. Etcituzten haue lehembician aditu dicipuluec; bainan sarthu içan cenean Iesus bere dohatsutasunean, orduantche orhoitu ciren haue isquiribatuac cirela hartaz, eta nola egun içan ciozcaten.

17. Bada Iesusequin cirenec Lazaro hobitic deithu eta phiztu çuenean, hambat baitciren, gorauki lekhucotasun bihurteen cioten espatu egun çuenaz;

18. Eta hargatic osteca ilkhi citçaizeon aitcinera, ikhusgarri horren ospea entçun baitçuten.

19. Beraz Pharisauec cioten beren artean : Badakhusaçue bada ezcarela deusican hari; horra non mundu gacia ondotic dohacon.

20. Eta baciren han arrotz batçu, iinac hec ere Ierusalemera, iai-egunean othoitz eguitecotçat;

21. Hequiee ethorri citçaizeon Philiperi, ceina Bethsaida Galileacocoa baitcen, eta othoiztu çuten ciotela : Iauna, nahi guinuque bada Iesus ikhusi.

22. Philipe ioan een erraitera Andreasi, eta Andreas berriz eta Philipe Iesusi.

23. Ihardetsi çaroen Iesusec : Ethorria da ordua, ceintan goretsico baita guionaren Semea.

24. Egiazqui, egiazqui diotsuet, baldin ogui bihia ezpadadi lurrerat behin eror eta hil, bakarra dago; bainan baldin behin hil badadi, hainitz ekhartcen du.

25. Bere bicia maite duenae, galduren

du; eta gaitcets duqueenac bere bicia mende huntan, beguiratcen du bicitee bethiereco-  
tcat.

26. Ene schi datena, iarraic bequit; eta non ere içanen bainaiz ni, eta han içanen da ene sebia ere. Ene schitasunean iartcen bada norbait, haina altchatuco du ene Aitac.

27. Oraintche nahasia da ene bihotça; eta cer dioquet? Aita, lagun çaquizquit ordu huntan. Alabainan ordu hau gatic ethorria naiz.

28. Aita, handiets-araz eçaçu ceure icena. Entçun cen beraz boz bat cerutic : Eta handiets-araci dut, eta handiets-araciren ere dut.

29. Han cen osteac, entçun içan çuen, eta cioen ihurtçuri açantça cela. Cioten bertce batçue : Aingueru bat mintçatu çao.

30. Bainan Iesusec ihardetsi çuen : Boz hori ezta ni gatic eguin içan, bainan bai çueu gatic.

31. Orai doha iuiatcera mende hau, eta mende hunen buruçaguia içanen da ego-teia lekhorerat.

32. Eta ni behin içaiten banaiz goititua lurretic, direnac oro erakharriren ditut neroni ganat.

33. (Cioen hori, erakhustera emaiten çuela cer heriotcez hil behar çuen).

34. Ihardetsi cioen osteac : Gue aditu içan dogu, leguean iracurririe, bethi iraun

behar duela Christoc; nola dioqueçu beraz;  
Goititu beharra da guiçonaren Semea?  
Cein da guiçonaren Seme hori?

35. Orduan Iesusec erran çaroen: Aphur batentçat oraino çuequin da arguia. Egui-  
que bide arguia duçueno, etcáiteaten har  
ilhumbeac; ecen ilhumbean dohanac, norat  
dohan eztaqui.

36. Arguia duçueno, euçue sinheste ar-  
guiian, arguiaren ume çaitetztentçat. Hor-  
rela mintçatu içan cen Iesus; guero ioan  
cen, eta gorde cen hequien ganic.

37. Eta hambertce ikhusgarri eguin içan  
çuen arren hequien aitcinean, etçuten ha-  
ren baithan sinhesterie;

38. Bethe çadintçat Isaias profetac hu-  
nela erran içan çuena: Iauna, norc entçun  
gaitu, eta sinhetsi baicaitu? Eta: Iaunaren  
besoa norc eçagutu içan du?

39. Hargatic bada ecin sinhetsere ceça-  
queten (1), ceren erran baitu berriz ere  
Isaiasec:

40. Itsutu ditu hequien beguiac, eta he-  
quien bihotça gogortu du, ezteçatentçat be-  
guiz ikhus, ez adi bihotcez, eta eztaquiz-  
quidan itçul, eta eztetçadan senda.

41. Horiec erran cituen Isaiasec, ikhusi  
çuenean haren dohatsutasuna, eta hartaz  
mintçatu cenean.

(1) Etçuten sinhesten ahal, dio San Agustinec,  
ezpaïtzen nahi sinhetsi; nabi duenac baduque  
laincoa ganic shala, dutela batçuec errechetasun  
guehiago, bertcec gutiago, bainan guciec asqui.

42. Bizquitartean Iduetan behatuenetaric ere hainitcec sinhetsi çuten Jesus bai than; bainan Pharisauen beldur baitciren, etçuten aithortcen, biltçarretic iraitciac ez içaitecotçat.

43. Maithateenago çuten ecen guïçonec onhetsiac içaitea, ecen ez Iaincoae.

44. Bada oihu eguin çuen Iesusec, eta erran : Ni baithan sinheste duenac, eztu ni baithan sinheste, bainan bai ni egorri nauena baithan;

45. Eta ni nakhusanac, ni egorri nauena dakhusa.

46. Ni ethorri naiz mende hunen arguiçaguitçat, eztagoen ilhumbean nitan sinheste duenic nehor.

47. Baldinetaria norbaitec entçun badetça ene hitçac, eta ezpadetça beguira, eztut nic hora iuiatuco. Ez naiz ecen ethorri mende hunen iuiatceco, bainan aitcitic salbatcecotçat.

48. Ni arbuiatcen nauenac, eta ene hitçac onhesten eztituenac, baduque iuieric asco; adi-araci darotçuetan hitz hunec berac iuiaturen du azquen egunean.

49. Ecen eztarotçuet adi-araci içan neure burutaric; bainan egorri nauen Aitac berac manatu içan darot cer erran, eta certaz mintça.

50. Eta badaquit haren aguinctac berequin dakharrela bethiereco bicitea. Beraz erraiten ditudanac, Aitac erran darozquidan beçala, halaber diozquit.

## XIII CAPITULUA.

*Iesusen azquen apharia. Garbitcen daizte oinac Apostoluei. Iudasec behar duela saldu. Iesusen aguincta berecia, behar dugula elkhar onhetsi. Petiric ukhatuco duela bere Nausiaz.*

1. Phazco aitcinean, caquielarie Iesusec ecen ethortia cela haren mundu huntaric bere Aita ganat iragaiteco muga, nola maithatu baitcituen mundu huntan eitnen berreac, azquen burnraino maithatu cituen.

2. Beraz aphaldu cirenean, noiz eta ere iadanic deabruac ecarri baitcioen Iudas Iscariot Simonen semeari bihotcean Iaunaren saltceco chedea,

3. Caquielarican Iesusec Aitac eman ciozcala gauça guciac escutarat, eta ilkhi cela Iaincoa ganic, eta cihoala Iaincoa ganat;

4. Iaiquiteen da mahainetic, eta soinecoac eraunzten ditu; eta harturie oihal bat, ecarteen du guerruntcean.

5. Guero ichurteen du ura untci batera, eta hasten da oinen garbitcen dicipuluei, eta chukhatcen guerricatua cen oihalaz.

6. Ethorteen da bada Simon Piarres gana. Eta diotsa Piarresec : Iauna, que niri cangoac garbituco darozquidatcula ?

7. Ihardesten dio Iesusec : Ni cer hari

naicen, eztaquiçu orai, bainan iaquinen duçu guerochago.

8. Diotsa Simon Piarresec : Ez nehoiz ere, eztarozquidatçu çangoae ikhueico. Erraiten dio Iesusec : Ezpaçaitut ikhuzten, eztuqueçu deus enequin.

9. Orduan Simon Piarresec diotsa : Iauna, ez oinac bakharric, bainan are escuac eta burua.

10. Diotsa Iesusec : Ia garbitua denac, eztu beharrie oinac chahutcea baicen, gaineratecoan chahu da gucia; eta quec ere garbi carete; ez ordean guciаc.

11. Baçaquien ecen cein een salduco cuena, eta hartacotz erran çuen : Etçarete chahn guciаc.

12. Ikhuci ciozeatenean oinac, soinecoac iauntci cituen; eta berriz iarriric, erran çaroen : Badaquiçue cer eguiñ darotçuetan?

13. Quec deitcen nauçue Nausia, eta Iauna; eta ongui dioçue, ecen hala naiz ere.

14. Baldin beraz nic, çuen Iauna eta Nausia naicelaric, oinac garbitu badarozquitçet, halaber quec ere behar ditutçue batac bertcearen oinac garbitu.

15. Eracutsi darotçuet ecen bidea, nic eguiñ darotçuetan beçala, halaber eguiñ deçaquentçat quec ere.

16. Eguiazqui diotsuet, eguiazqui : Ezta sehia bere nausia baino handiago, ez eta apostolua egorri duena baino handiago.

17. Baldin horiec badaquizquitçue, dohatsu içanen çarete, eguin balin badetçatçue.

18. Ez naiz mintço horrela çuetaz guciez; badaquit ecen cein hautetsi ditudan; bainan mengoa da bethe dadin Isquiribua: Enequin iaten hari denac, emanen darot oindagoraz.

19. Eta oraidanic erraiten darotçuet guertha dadin baino lehen, sinhets deçaquen-tçat, eguin datenean, ni naicena naicela.

20. Eguiaz diotsuet, eguiaz : Nic egorri duquedana onhesten duenac, ni onhesten nau neroni; eta ni onhesten nauenac, onhesten du ni egorri içan nauena.

21. Horiec erran ondean, samurtu ci-tçaioen Iesusi barnea, eta erran çuen gora eta gueriçarie gabe : Eguiaz, eguiaz diotsuet, salduco nauela çuetaric batec.

22. Dicipuluac bada elkharrí beha cegocen, ez iaquinez ceintaz mintço ahal cen.

23. Eta nola dicipulu bat, Iesusec maite çuena, etçana baitcen Iesusen bulharraren alderat (1),

24. Eguin cioen Simon Piarresec kheinu, galda cioçola nortaz cen mintço.

25. Dicipuluac beraz, Iesusen bulharr-

(1) Iudutarrec, eta ez bakharric hequie, bere othurunça handiena arratsean eguiten çuten, aphanian; eta iaten çuten ohe batçuetan etçanic, batçu gorago, bertceac beherago cirela, eta ohe berean bat boino guehiago. Azquen apharian, Ion Done Ieani ohe berean cen lauñarequin, eta halatasu burua behar çuen içan lauñaren bulhorretara hurbil.

ren gainera burua emanic, diotsa : Iauna, nor da ?

26. Ihardesten dio Iesusec : Nic ogua bustiric emanen diotana. Eta hambertcenarequin, escaini cioenogui busti bat Iudas Iscariot Simonen semeari.

27. Eta ahamen harequin batean, sarthu cit̄aion barnean Satanas. Orduan Iesusec diotso : Eguiteco duçuna, eguiçu lehen bai lehen.

28. Mahainean cirenetaric ordeau nchore etçuen aditu certacotçat erran içan cioen hori ;

29. Eta nola Indasec diruac baiteeduzean, uste içan çuten batçuc, erran nahi cioela Iesusec : Eros eçatçu iai-eguneco behar ditugunac; edo, eman cioçotela escaleei cerbait.

30. Beraz hura, ahamaia ian çuen ondoan, ilkhi cen berehala. Ilhun bethe cen orduco.

31. Ialgui cen beçain sarri, erran çuen Iesusec : Oraintche handietsia da guiçonaren Semea, eta Iaincoa ere bai haren baithan.

32. Baldin bada Iaincoa haren baithan handietsia bada, Iaincoae ere hura handietsiren du bere baithan; eta laster handietsiren du.

33. Ene haurttoac, aphurtto baten naiz oraino quequin. Bilhaturen nauçue; eta erran daroetana Iiduei : Ni nohan toquirat, quec ecin ethor çaitiezquete; halaber quei ere diotsuet orai.

34. Aguintea berri bat emaiten darotuet : Maitha eçaque elkhar; nic quec maithatu caituztedan beçala, hala quec ere elkhar maitha eçaque.

35. Hortarie eçaguturen caituztete guciec eeen ene dicipuluac çaretela, baldin eta on badaritçoque batac bertceari.

36. Diotsa Simon Piarresec : Iauna, norrat cohaci? Ihardesten dio Iesusec : Nohan lekhurat, ecin iarraig çatçaiquit orai; bainan iarraiquiren çatçaiquit guero ondoan.

37. Diotsa Piarresec : Iauna, cergatic ecin naquiquetçu iarraig orai berean? Emanen dut neure bicia çuretçat.

38. Ihardesten dio Iesusec : Ceure bicia emanen duçu enetçat? Eguiazqui diotsut, eguiazqui : Eztu oilarrac ioren, non eztun nitaz ukhatcen hiruretan.

---

#### XIV. CAPITULUA.

*Azquen apharian Iesusen solhasac.*

1. EZTADILLA nahas çuen bihotça. Sinhesten duque ene Aita baithan, ene baithan ere sinhets eçaque.

2. Ene Aitaren etchean badira hainitz egoitça; baldin bertcela balitz, erran naroquequen; banoha beraz quei toquiaren aphaintcerat.

3. Eta ioan naitequenean, eta quei toquia aphaindu darotçuequedan ondoan,

berriz ethorrico natçaitçue, eta hartuko çaituztet ene ganat, ni naicen lekhuan içan caiteztentçat çuec ere.

4. Eta badaquiçue ere norat nohan, eta halaber bidea badaquiçue.

5. Diotsa Thomasec : Iauna, alabainan eztaquigu norat cohacen, eta nola daquiquegu bidea ?

6. Iesusec diotsa : Ni naiz bidea, eta eguiña, eta bicia; nehorc eztu ardiesten Aita ganat, nitaz baicen.

7. Baldin eçagutseen baninduçue ni, Aita ere eçagut bide cineçaquete; bainan gutirric barnean, eçaguturen duçue, eta ia ikuusi duçue.

8. Diotsa Philipec : Iauna, eracuts dieçaguçu Aita, eta asqui çaiet.

9. Diotsa Iesusec : Hambat du çnequin naicela, eta eznauçue eçagutseen bada? Philipe, ni ikuisten nauenac, ikuisten du Aita ere. Eta nola dioqueçü çue : Eracuts dieçaguçu Aita ?

10. Eztuçue sinhesten ni Aita baithan naicela, eta Aita ni baithan? Nic erraiten darozquitçuetanac, eztarozquitçuet erraiten neure baitharic; bainan ni baithan dagoen Aitac berac eguiten ditu nic eguiten ditudanac.

11. Eztuçue sinhesten Aita baithan naicela ni, eta ni baithan Aita? Bederen ene eguinteen gatic sinhets eçaçue.

12. Eguiazqui, eguiazqui diotsuet, norbaitec nitan sinhets badeça, nic eguiten

ditudan ikhusgarriac eguien ditu harc ere; eta oraino chituco ere ditu; ecen banoha ni Aita ganat.

13. Eta cer nahi esea dioçoquen ene Aitari ene icenean, eguien darotquet; han-diets dadintçat Aita Semeau.

14. Eta baldin cerbait escateen badarotaçue neure icenean, eguien darotquet.

15. Ni maite balimbanuçue, ene aguin-łçac beguiraturen ditutçue.

16. Eta nie othoizturen dut Aita, eta egorriren darotçue bertee Bozgarri bat (1), dagoentçat quequin bethierecotz.

17. Hura da Ispiritu eguiazcoa, ezteça-queena munduae ardiets, ceren ikhusten baitu, eta eçagutseen ez. Quec ordean eça-gutuco duçue, ceren quequin egonen baita, eta are çuen baithan içanen baita.

18. Etçaituztet utcico umecurtz; ethor-rico natçaitçue.

19. Oraino aphur bat, eta ez nau ikhu-sico munduac; quec ordean bai, ikhusico nauçue, ceren bici bainaiz ni, eta bieicio baitçarete quec ere.

20. Egun harten eçaguturen duçue ni

(1) *Bozgarria, Contsolatçaillea*, hemen eta maiz ere launac aiphatcen duena, Ispiritu Saindua da, Iesu - Christoren Ispiritua. Apostoluei hitcemanan, iautsi citçaien, bereciqui hequiei egui gucien era-khasle içaitecotçat, eta hequien ondocoei, hala nola Eliça Sainduari. Bozgarri eta Contsolatçaille deitcon da, ceren Iesus cerurat igan baçaicu ere, haren Ispiritua gurequin baita eta Eliçarequin bethiere-cotz.

neure Aita baithan naicela, eta quec ni baithan, eta ni quec baithan.

21. Ene aguinctac badaquizquienac, baldin beguiratcen baditu, hura da ni maite nauena. Bada ni maite nauena, ene Aitac maithatuco du, eta maithatuco dut nie ere, eta aguertuco natcaio.

22. Diotsa Iudasec, ez Iscariot çaritçanac : Iauna, nondic daite aguertuco baiçatçazeu guri, eta munduari ez?

23. Ihardesten dio Iesusec : Baldin norbaitec maithatcen banau ni, eta ene hitça beguiratcen badu, ene Aitac ere onhetsiren du hura, eta ethorriren gaizco, eta baren baithan egunen dngu gure egoitça.

24. Niri on eztaritçatanac, ene hitçac ere eztitu beguiratcen; eta entçun duçuen hitça, ezta enea, baicen ere ni egorri nauen Aitarena.

25. Hauc erran içan darozquitçuet, quequin naicelaric.

26. Bainan, Aitac ene icenean egorriren darotçuen Ispiritu Saindu Bozgarri harc, guciak eracalsico darozquitçue, eta orhoitaracico çaituzte nic erran darozquitçuetan guciez.

27. Baquea uzten darotçuet, neure baquea emaiten darotçuet; eztarotçuet ordean emaiten munduac emaiten ohi duenaren arauaz. Eztagila nahas çuen bihotça, eta ezpedi ici.

28. Entçun dueñe nola erran darotçuetan banihoa, eta çeuñ ganatbihurtuco

naicela. Baldin maite baninduque, atseguiñ bide cinuquete, ceren Aita ganat nihoan; ecen Aita ni bainoagoa da (1).

29. Huna bada non erraiten darotuetan, sinhets deçauentçat hel datenean.

30. Ez naiz gargoro hainitz mintçateen ahal quequin; ecen heldu da mende hunnen buruçaguia; eta bizquitartean nitan eztu dents ere.

31. Bainan eçagutu behar quen munduac maite dutala Aita, eta aguindu içan darotan beçala, halache ere eguiten dutala. Iaiqui çaitzte, goacen hemendie.

## XV. CAPITULUA.

*Jesusen solhasac azquen apharian, aitcina dohaci.*

1. Ni aihen eguiazcoa naiz, eta ene Aita da mahasti çaina.

2. Nitan ekharteen eztuen adar gucia, khendueo du; eta ekharteen duena ere mochtuco du, eman deçantçat oraino guehiago.

3. Çuec ia, garbi çarete, nic erran darotuetan hitça gatic.

(1) Jesusen guicatasunari beha badaqio, Aita baino ttipiago da; eta alde huntarat mintço daiteque lekhu huntan, eta bai bertce hainitcetan halaber, dioenean behintçat, Aitac meçu eman dioela, haren nabia eta aguinctçac betbe behar dituela, eta horrelaco erranquide guicietan. Bainan Iaincotasunari behatzen baçao, orotan da Aita beçambat.

4. Caudete nitan, eta ni çuetan. Hala nola ezpaiteçaque adarrac eman deus ere, baldin ezpadatcheco aihenari, halaber ezteçaqueçue çuec ere, non eztarotaçuen atchequitcen niri.

5. Ni aihena naiz, çuec adarrac; nitan dagoenac, eta ni hartan, harc ekharriren du; eeñ ni gabe ecin daidiçue deus.

6. Nitan eztagoena, egotcia içanen da, adar ez deus bat beçala; eta ihartuko dencan, bilduric, emanen dute surat, eta erreco da.

7. Baldin nitan başaudete, eta ene hitçac çuetan badaude, nahi duçuena escaturican ere, ardietsico duçue.

8. Huntan gueziz goretsia da ene Aita, baldin ekharteen baduçue naharoqui (1), eta eguiten baçarete ene dicipulu.

9. Ni Aitac maithatu nauen beçala, nic ere maithatu çaituztet çuec. Caudete ene onhesgoan.

10. Ene aguinctçac beguirat badetçatçue, egonen çarete ene onhesgoan; halaber ecen nic ere ene Aitaren aguinctçac beguiratu içan ditut, eta haren onhesgoan nago.

11. Horiec erran içan darozquitçet, dençat çequin ene bozcarioa, eta çuen bozcarioa gaindizeacoa içan dadintçat.

12. Hau da ene manua, maitha deçaquen elkhár, nic maithatu içan çaituztedan beçala.

13. Eztuque nehore maithagune handiagoric, eman deçan baino bere bicia bere adisquideentçat.

(1) Naharoa, nasaia, ioria, ugaria.

14. Çuec ene adisquideac çarete, eguiten baditutçue nic erranac.

15. Etçaituztet hemendie harat sehi deithuren; ecen eztaqui schiac cer eguiten duen bere nausiac. Bainan adisquideac dei-thu çaituztet; ceren ene Aita ganie entçun ditudanac oro, eracatsi baitarozquitçuet çuei.

16. Eznaueue çuec ni hautatu, bainan nic hautetsi çaituztet çuec, çohaztcentçat, eta eguiñ decaquentçat onguia, eta çuen onguiac duen iraute; halatan, cer cre escatuco baitioçue ene Aitari ene icenean, emanen darotçue.

17. Behintçat ene manua da, duçuen maite elkharr.

18. Baldinetariae munduac gaitcesten baçaituzte, inquiçaue çuec baino lehen gaitteetsi nauela ni.

19. Baldin munduco içan bacinete, munduac berea maite çuqueen; bainan ordean ezpaitçarete munduacoac, eta nic hautetsi baitçaituztet mundutie, hartacotçat gaitz daritçue munduac.

20. Orhoit nic cer erran darotçuetan: Ezta sehia bere nausia baino guehiago; baldin bada ni gaizqui erabili banaute, çuec halaber erabilico çaituztete; eta baldin beguiratu badute ene hitça, çuena halaber beguiratuco dute.

21. Bainan horicee oro eguiñ darozquitçete ene icena gatic, ceren eztuten eçagutseen ni egorri nauena.

**22.** Ezpanintz ni ethorri içau, eta berei mintçatu ezpanintçae, ezelitzque hobendun; bainan orai eztute ceren ateaquiaric bilha bere hobenarentçat.

**23.** Ni gaitcets naçaquenac, ene Aita ere gaitcetsiren du.

**24.** Ezpanitu ikhusgarriac egun, bertee nehorc egun eztituen beçalacoac, ezlunque hobenic; bainan ikhusi dituzten arren, gaitcesten naute ni, eta ene Aita halaber.

**25.** Alabainan bethe beharra cen beren leguean isquiribatua duten hitça : Hoben gabe naicela, gaitz eritci darotate.

**26.** Dathorreneañ bada nic Aita ganic egorriren darotçuetan Bozgarria, eguiazco Ispiritua, harc lekhucotasun atheraturen darot;

**27.** Eta bihurtuko darotaçue lekhucotasuna çuec ere, ceren hastetian enequin baitçarete.

---

## XVI. CAPITULUA.

*Oraino ere Iesusen azquen aphanico solhasac.*

**1.** HUNELA mintço natçaitçue, etçaitezten khordoca gaizbideac gatic.

**2.** Batçarretaric etchatuco çaituztete; eta are heldu da ordua, non, hilen çaituztzen bakhotehac, usteco baitu lainçoaren nahira hari dela.

3. Eta horrela eguienen darotçuete, ceren ezpaicaituzte eçagutu ez ene Aita, eta ez ni.

4. Hauc bada erraiten darozquitçuet, helteen denean hauquien muga, orhoit çaitetzen ecen erran darozquitçuetala.

5. Hastetic ordean eztarozquitçuet erran, ceren çuequin baininteen; bainan orai banoha egorri nauenaren ganat; eta çuetarie batec ere eztarot galdeeten norat nohan.

6. Aitcitic hauc diosquitçuetalacotz, go-goetatuac çarete ceuen barneetan.

7. Halere egua erraiten darotçuet : Çuen ona da ni nihoan; ecen baldin ioan ezpanadi, etçaitçue ethorrico Bozgarria; bainan baldin banihoa, egorrico darotçuet nic.

8. Eta dathorronean, iaçarrico çao munduari hobenaz, eta çucenaz, eta iudicioaz;

9. Hobenaz behintçat, ceren eztuten ni baithan sinhetsi;

10. Çucenaz berriz, ceren nihoan Aita ganat, eta ezpainaçue behingotz ikhusiren;

11. Eta iudicioaz, ceren mende hunen buruçaguia iadanic iuiatua baita.

12. Oraino bertee hainitz nituzque çuei erraiteco; bainan ecin iasain detçaquetçue orai.

13. Bainan dathorronean eguiazeo Ispíritu hura, hare eracatsico darotçue egua gucia. Ezta ecen mintço içanen bere bai-tharic; bainan, entçun duqueenaren araberä mintço içanen da, eta erranen darozquitçue ethorquiçun direnac.

44. Hare nau goretsiren, ceren enetic harturen baitu, eta eracatsico darotque quei.

45. Aitac dituenac oro, eneac dirade; halatan erran darotquet : Enetic harturen du, eta eracatsico darotque quei.

46. Guti bat oraino, eta ez nauque guehiago ikuhsiren ; eta are bertce guti bat, eta ikuhsiren nauque; ecen Aita ganat noha.

47. Horren gainean, galde cuten dici-puluec batac bertceari : Cer othe da dioen hau : Guti bat, eta ez nauque ikuhsiren, eta are bertce guti bat, eta ikuhsiren nauque, eta Aita ganat noha ?

48. Cioten bada : Cer da dioen guti hori ? Eztaquigu cer erran nahi duen.

49. Eçagutu çuen Iesusec cer escatu nahiak ciren, eta erran çaroen : Cergatic hari çarete galdeea elkarri, ceren erran baitarotquet : Guti bat, eta ez nauque ikuhsiren, eta bertce guti bat, eta ikuhsiren nauque ?

50. Eguiaz diotsuet, eguiaz : Eguinen duque quec nigar eta auhen, eta mundua boztuco da; quec atsecabetuco çarete, bainan bihurtuco da çuen atsecabea bozcariotara.

51. Quec halaber içanen duque atsecabe; bainan ethorrico natçaitque berriz ere, eta boztuco çarete, eta ceuen bozcarioa nehorceztarotque eramanen.

52. Emazte batec, erdi behar denean,

oinhace du, ceren ethorri baitçao bere muga; bainan sorthu çaoienean seme bat, ezta guehiagoric orhoit bere minez, hain du bozcario ceren iaio baitu guiçon bat mundurat.

23. Eta egun hartan, eztarotaçue galdeguinen deus ere. Eguaizqui, eguaizqui diotsuet, baldin cerbait galdeguin badioçaçue Aitari ene icenean, emanen darotçue.

24. Orai artino eztuçue deus ere galdeguin ene icenean; galdeçaçue, eta içanen duçue, dentçat bethea çuen bozcarioa.

25. Hauc diosquitçet iduripenetan; bainan hurbil da ordua, noiz ere ezpainaitçue iduripenetan mintçaturen, bainan guerica gabe eracatsiren baitarozquitçet ene Aitari dagozquionac.

26. Orduan escaturen duçue ene icenean; eta eztarotçet erraiten othoizturen dutala Aita çuen gatic;

27. Eeen Aitac beraç maite çaituzte, cergatic maithatu bainauçue ni, eta sinhetsi baituçue ecen Iaincoa ganic ilkhia naicela.

28. Ilkhi naiz Aita baitharie, eta ethorri naiz mundura; orai uzten dut mundua, eta berriz noba Aita baitharat.

29. Diotsate dicipuluec : Horra non min-teo çaren garbi qui oraicotie, eta eztuçu iduripen garabic ekharteen.

30. Eçagutseen dugu orai gauça guciez iaquintsun çarela, eta eztuçula norc cer galdeguin dieçaçun beharrie; hortarie agueri çaiet Iaincoa ganic ilkhia çarela.

31. Ihardesten daroe Iesusec : Sinhesten duçue orai ?

32. Huna non heldu den ordua, eta ia ethorria da, barraiaturen baitçaitztete nor bere alderat, eta bakharric uteico bainauçue; bainan eznaiteque bakharric, ecen Aita enequin dut.

33. Erran darozquitçet hitz hauc, duçentçat baquea ni baithan. Munduan içannen duçue atsecabe; bainan emaçue bihotz onez, nic mundua garhaitu dut.

---

## XVII. CAPITULUA.

*Iesusen othoitça azquen aphariaren ondoan.*

*Othoitz eguiten du bera handiets dadintçat, eta haren baithan iadanic sinhesten edo gueroago sinhetsico dutenentçat.*

1. Horiec erran ondoan, goititu cituen beguiac cerurat Iesusec, cioela : Ene Aita, ordua da; gorets-araz eçaçu ceure Semea, ceure Semeac ere gorets-araz çaitçan;

2. Eta nola eman baitioçu escua guiçon ororen gainean, hala harc eman dioçoten bicitce bethierecoa çuc eman diotçotçun gaciei.

3. Bada hau da bicitce bethierecoa, eça-gut çaitçaten çu, Iainco eguiazco bakharra, eta Iesu-Christo çuc egorri içan duçuna.

4. Gorets-araci çaitut nic lurraren gainean, eta eguiñ içan dut çuc eman cinarotan eguitecoa.

5. Ordainez çuc orai gorets-araz naçaçeu ceure baithan, Aita, mundua cítequen baino lehen, çure baithan içan dudan dohatsutsun hartaz.

6. Aguertu daroet çure icena mundutic bereci darozquidatçun guiçonei. Çureac ci-ren, eta niri eman darozquidatçu, eta çure hitça beguiratu dute.

7. Orai eçagutu dute, ecen eman darozquidatçun guciae çure ganic cirela;

8. Ceren eman darozquidatçun hitçac, eman baitaroztet nic hei; eta harty dituzte, eta eçagutu dute çu ganic ilkhia naicela eguiazqui, eta sinhetsi dute çuc egorri nauçula.

9. Hequientçat othoitcez nagotçu; ez nagotçu munduarentçat (1), bainan eman darozquidatçunen gatic; ceren çureac baitrade.

10. Ene guciac çure dirade, eta çureac ene; eta hequietan naiz goretsia.

11. Huna bada non eznaicen guehiago munduan, eta berac munduan dagoci, eta ni çu ganat nihoa. Aita Saindua, ceure icena gatic, beguira eçatçu eman darozquidatçunac, direntçat elkharrequin bat, çu eta ni beçala.

12. Hequiequin nintceño, nic beguira-

(1) Iaunac gucientçat egui du othoitz, gaich-toen eta onen, salbatuco diren eta eztirentçat. Bainan erran nahi du othoitz eguiten duela bereci qui hautetsien; bertceec haren othoitz abaltsuac, bere gogortasuna dela, ez deuseta ratuco dituzte.

teen nituen çure icenean. Eman darozquidatçunac çaindu ditut; eta nehor ezta galdu hequietaric, galdu behar cena baicen, bethetçadintçat Isquiribua.

13. Orai bada çure ganat heldu naiz, eta hunela mintço natçaiie, munduan nai-cela, içan deçatentçat ene bozcarioaren bethecundea bere baithan.

14. Eman daroet çure hitça, eta munduac gaiteetsi ditu, ceren ezpaitira munduacoac, hala nola ezpainaiz ni ere munduoca.

15. Etçaitut othoizten khen detçatçun mundutic, bainan çain detçatçun gaitectic.

16. Eztira munduacoac, hala nola ezpainaiz ni ere munduoca.

17. Eguin eçatçu saindu eguijan. Çure hitça eguija bera da.

18. Nola egorri bainauçu mundurat, hala nic ere egorteen ditut mundurat.

19. Hequien gatic saindu eguiten dut cne burua, berac ditecentçat saindu eguijan.

20. Eztarotçut othoitz eguiten hec bakharrac gatic; bainan oraino, hequien hitçaren bidez, nitan sinhetsi behar dutenac gatic.

21. Diren guciac bat, çu, Aita, ni baithan, eta ni çu baithan beçala, diren bat halaber gu baithan; sinhets deçantçat munduac ecen çuc egorria naicela.

22. Çue niri eman darotaçun dohatsutsuna, nic ere eman daroet hei; içan diten bat, çu eta ni gauça bat eta bera garen eredura.

**23.** Ni hequietan, eta çu nitan; diren horrela gucizeo bathasunean, eta eçagut deçan munduac çuc egorri içan nauçula, eta maithatu ditutçula, hala nola ni ere maithatu bainaçu.

**24.** Ene Aita, nahi dut, eman darozquidatçunac, ni non bainaiz, eta han içan ditecen hec ere enequin; ikhus deçaten-tçat eman darotaçun dohatsutasuna; ecen maithatu nauçu mundua eguin baino lehenagotic.

**25.** Aita çucena, etçaitu munduac eça-gutu; bainan nic eçagutu çaitut, eta eça-gutu dute hauquiec ecen çuc egorri nauçula.

**26.** Eta eracatsi daroet çure icena, eta are eracatsirenago daroet; içan dadin hequiequin ni onhetsi nauçun onhesgoa bera, eta naicen ni hequien baithan.

---

### XVIII. CAPITULUA.

*Iesusen pairua hasten da.*

**1.** SOLHAS horien ondoan, ilkhi cen Iesus, eta ioan cen bere dicipuluequin Cedrongo ibaiaren bertce aldera. Bacen han baratece bat, eta sarthu cen hartan bera, eta dicipuluac harequilan.

**2.** Iudasec ere, haren saltçailleac, eçagu-teen çuen lekhu hora, ceren Iesus baitci-hoan maiz hara bere dicipuluequin.

3. Iudasec beraz, harturic soldado andana bat, eta Aphez-nausiec eta Pharisauec emanieaco guicon batcu, ioan cen baratce hartara; eta caramatciten berequin arguiac, guciac eta harmac.

4. Bizquitartean Iesusec, baitcaquizquier guerthatu behar citcaizcon gauca guciac, aiteinaturic erran caroen : Noren bilha cabiltcate?

5. Ihardetsi cioten : Jesus Nazarethecoaren. Dioste Iesusec : Ni naiz. Eta Iudas harren saltcailea hequiequin cen.

6. Aiphatu cueneco bada Iesusec hitz hau : Ni naiz, guibelat egnin cuten, eta erori ciren lurrerat.

7. Berriz ere galdeguin caroen Iesusec : Noren bilha cabiltcate? Ihardetsi cuten : Jesus Nazarethecoaren.

8. Dioste Iesusec : Iadanic erran daroquet, ni naicela; bada ene bilha bacabilte, uzquitene haue ioaitera.

9. Bethe cadintcat erran içan caroen hitz hau : Eman darozquidatçunetaric eztut galdu bat ere.

10. Orduan Simon Piarresec, ezpata bat baitcuen, athera cuen, eta io Aphez-nausiaren muthil bat; eta cbaqui cioen escuineco beharrria. Deitcen cen muthil hora Malkhus.

11. Bainan erran cioen Iesusec Piarresi : Emaçu ezpata bere chichcuan. Ala Aitac eman darotan khalitca ez othe dut edan behar?

12. Beraz soldadoac, eta aguintariae,

eta Iduuen muthilac lothuric Iesusi, este-  
catu çuten,

13. Eta eraman çuten lehenie Anas ga-  
nat; ecen aitaguin-arreba cen Caiphasentçat,  
ceina baitcen Aphez-nausia urthe hartaco-  
tçat.

14. Eta Caiphas hora bera cen, erran  
çaroena Iiduei : Hobe çaitçue guiçon ba-  
khar bat hil dadin populuaren orde.

15. Iarrai qui citçaion Iesusi Simon Piar-  
res, eta bai bertee dicipulu bat ere. Eta  
bertee dicipulu hora, Aphez-nausiaren eça-  
guna baiteen, sarthu cen Aphez-nausiaren  
ezcaratcean.

16. Eta nola Piarres athean baitcegoen  
lekhoreco aldetic, ilkhi cen bertee dicipulu  
Aphez-nausiaren eçagun hora, eta mintça-  
turic athaltçain cen emazteari, sar-araci  
çuen Piarres.

17. Diotso beraz athaltçain emaztequiac  
Piarresi : Etcara çu ere guiçon horren di-  
cipuluetarie? Diotso harc : Ez naiz hetarie.

18. Muthilac eta sehiac çauden su baz-  
terrean, hotz baitcen, eta berotcen hari  
ciren; eta hequiequin cen Piarres ere, eta  
beroteen cegoen.

19. Bizquitartean Aphez-handiac galde-  
guin cioen Iesusec : Ni aguerian  
mintçatu içan natçao munduari; bethi ba-  
teurrean eta temploan eracatsi içan dut, non  
biltcen ere ohi baitira Iduac, eta gueri-  
cean eztut deus erran içan.

20. Ihardetsi cioen Iesusec : Ni aguerian  
mintçatu içan natçao munduari; bethi ba-  
teurrean eta temploan eracatsi içan dut, non  
biltcen ere ohi baitira Iduac, eta gueri-  
cean eztut deus erran içan.

21. Cergatic galdeguiten darotaçu niri? Galdeguieçu ene entçulei cer erran diotedan; badaquite ecen hequiec certaz mintçatu natçaien.

22. Horren gainean, han ciren muthilolaric batec eman cioen macelaco bat Iesusi, ciotsalarie : Horrela ihardesten dioçu Aphez-handiari?

23. Erran cioen Iesusec : Gaizqui mintçatu banaiz, eracuts dieçadaçu cer gaizqui erran dudan; eta ongui mintçatu banaiz, cergatic iotcen nauçu?

24. Eta egorri çuen Anasec estecatua Caiphas Aphez-nausia ganat (1).

25. Bizquitartean han cegoen Piarres berotcen. Erran cioten bada : Etçara çu ere horren dicipuluetafic bat? Ukhatu çuen berriz, eta erran : Ez naiz hetaric.

26. Galdeguiten dio guero Aphez-nausia-ren sehi batec, Piarresec beharria ebaqui cioenaren ahaide baitcen ere : Etçaitut nic çu baratcean horrequin ikhusi?

27. Oraino ere ukhatu çuen Piarresec; eta ordu berean oilarrac io çuen.

28. Ondoan eraman çuten Jesus, Caiphas baitharic, Gobernadorearen iauregirat. Goiça cen; eta berac etciren sarthu içan iaureguian, beldurrez lohi citecen, eta etceçaten ian ahal phazcoa (2).

(1) Etche berean ahal cegocen Auas eta Caiphas, bi Aphez-nausiac.

(2) Uste çuten Iudutarrec, legueac debecatuzco lohiztatzee batcan erortzen cirela, sartzen ere bací-

29. Athera citçaien beraz Pilatus, eta erran çaroen : Cer hoben gatic ekharteen darotaçue guïçon hau ?

30. Ihardetsi cioten hequiec : Ezpalitz gaichtaguina, ez bide guinarotçun ekharrico.

31. Pilatusec erran çaroen : Eramaçue bada ceucc, eta eguiçoñe ceuen legueac dioen beçala. Ihardetsi cioten Iuduec : Ez-tugu guc nehoren hiltceco escurie (1).

32. Bethe çadintçat Iesusec erran hitça, adi-araztera eman çuenean cer heriotcez hil behar çuen.

33. Sarthu cen bada Pilatus berriz ere iaureguiian, eta crakharriric Iesus, galdetu cioen : Çu Iudutarren Erreguea çara ?

34. Iesusee ihardetsi cioen : Ceure bai-tharic dioçu hori, ala bertcec erranic nitaz ?

35. Diotsa Pilatusec : Nasqui Iudutarra bainaiz ni ? Ceure herritarrec eta Aphez-nausiec eman çarozquidatet escutara; cer eguiñ duçu ?

36. Ihardesten dio Iesusec : Ene erre-suma ezta mundu huntacoa; baldin mundu huntacoa balitz ene erresuma, ene azpi-coac guduca litezque ni ez uzteco Iduen escutara erortcera; bainan ene erresuma ezta hemengoa.

37. Pilatusec diotsa : Beraz erregue çara çu ? Diotsa Iesusec : Cerorrec erran duçu;

ren pagano baten etchean; eta halatan etceçaquetela phazcoa iau lohi cireino.

(1) Erromarrec khendu cioten Iudutarrei nehoren hil-arazteco abala.

hala naiz. Hartaracotz sorthu içan naiz ni, eta hargatic ethorri naiz mundura, eman dioçadantçat Iekhucotasun Eguiari; eguiaganic den guciac, entçuten du ene boça.

38. Diotsa Pilatusec : Cer da eguiia? Eta hitz hau erran beçain sarri, ilkhi een berriz ere, eta erran çaroen Iuduei : Nie ez tut edireiten hobenic guiçon huntan.

39. Bainan ohicundea hala baita utz da quiçuen Phazcoz gatheetan direnetaric bat, nahi duçue utz dieçaquetan Iduen Erreguea?

40. Iarri çaizeon gnciac oihuz : Ez hori, bainan Barrabbas bai. Cen bada Barrabbas ohoiñ bat.

### XIX. CAPITULUA.

*Iesusen pairuaren akhabantça. Maria Iesusen ama, eta Ioanes apostolua khurutcearen oinetan. Iesusen ehorztea.*

1. ORDUAN beraz hartu çuen Pilatusec Jesus, eta açotaraci çuen.

2. Eta soldadoec, khoro bat arantze bilhureatuz eguinic, eman cioten buruan, eta iauntei cioten escarlatazco soineco bat.

3. Guero heldu citçaizcon erraitera : Agur, Iduen Erreguea; eta iotcen çuten beharrondococa.

4. Ondoan ilkhi een berriz ere Pilatus, eta erran çaroen Iuduei : Huna non ekhar-

tcen darotçuetan camporat, eçagut deça-  
quentçat nic eztutala aurkhitcen hunen bai-  
than hobenic. \*

5. Ilkhi cen bada Jesus, elhorrizco kho-  
roa buruan, eta escarlatazeo iaunztura soi-  
nean, eta erran çaroen Pilatusec : Huna  
guiçona.

6. Eta, ikhusi çuteneco, Aphez-nausiac  
eta hequien azpicoac hasi ciren ichquiri-  
tuz, ciotsatela : Khurutcean emaçu, khu-  
rutcean emaçu. Dioste Pilatusec : Har eça-  
que quec, eta eçar eçaçue habean; ecen  
eztiot nic aurkhiteen hobenic.

7. Bainan Iduec ihardesten diote : Ba-  
dugu gue legue bat, eta legue haren arauaz  
hil behar du, ceren eguin baitu bere bu-  
rrua Iaincoaren Seme.

8. Pilatus, hitz horiec entçun eta, laztu  
cen are guehiago.

9. Eta sarthuric oraino ere iaureguian,  
erran cioen Iesusi : Nongo cara çu? Eta  
Iesusec etcioen ihardetsi.

10. Diotsa beraz Pilatusec : Niri etcitçaiz-  
quit mintçatcen? Eztaquici escu badudala  
çure habean eçartceco, eta badudala escu  
ioaitera uzteco?

11. Iesusec ihardesten dio : Etcinuque  
ene gainean ahalic den gutiena ere, baldin  
eman ezpalitçaiteu han garaitic. Halatan,  
ni çure escuetaratu nauena, hobendunago  
da.

12. Handic harat nahico çuen Pilatusec  
utei ioaitera; bainan Iduac heiagoraz ce-

gozeon, ciotsotela : Baldin hori utz bade-çaçu, etçara Cesaren adisquide; ecen bere burua erreguetu duen gucia, Cesaren etsai iarteen da.

13. Pilatusec, entçun cituenean hitz horiec, atheraraci çuen Jesus; eta iarri cen bere alkhian, Harri Lauçada erraiten çaison lekhuan, eta hebreoz Gabbatha.

14. Cen bada Phazcoco aphaintceen eguna, egüerdithirian. Eta erran çaroen Induei : Huna çuen Erreguea.

15. Hec berriz deihadareca ihardetsi cioten : Khen, khen, eta eraman haberat. Dioste Pilatusec : Çuen Erreguea bada khurutcean behar dut eman? Ihardesten diote Aphez-nausiec : Guc eztugu erregueric, Cesarez bertceric.

16. Orduan eman çaroen, khurutcean eçar ceçatentçat. Hartu çuten beraz, eta eraman çuten.

17. Eta, bere habea çaramala, ioan cen Calbarioa erraiten çaison lekhura, eta hebreoz Golgotha.

18. Eta han altchatu çuten khurutcean, eta bertce bia harequin, bi aldetaric, Jesus erdian.

19. Eguin-araci çuen ere Pilatusec isquiribu bat, eta buruaren gaineco aldean eçar-araci çuen, eta cen hartan : IESUS NAZARETHARRA, IUDUEN ERREGUEA.

20. Hainitz Iuduc iracurtu çuten isquiribu hora, ceren Jesus khurutcean eman çuten toquia hurbil baitcen hiritic. Eta

eçarria een hebreo, grec, eta latin min-  
tcaiaz.

**24.** Erran cioten beraz Pilatusi Iduen Aphez-nausiee : Ezteçaçula eçar : Iduen Erreguea, bainan erran duela berac : Iduen erregue naiz.

**22.** Ihardetsi çaroen Pilatusec : Eman dudana, bego emana.

**23.** Bizquitartean soldadoec, Jesus ha-bean altchatu eta, hartu cituzten haren soinecoac, eta bereci cituzten laur aldetarat, bakhotchac berea içan ceçan. Hartu çuten halaber soin gainecoa, eta nola iosturari gabecoa baitcen, gainetic beherera batean echoa,

**24.** Erran çuten elkarri : Ezteçagun urra, bainan emagun chorthe, norentçat icanen den; bethe çadintçat Isquiribua : Ene soinecoac bereci dituzte beren artean, eta ene iacaz chorthe egotci dute.

**25.** Iesusen habearen aldean bada cego-en haren ama, eta haren amaren ahizpa Maria, Cleophasen emaztea, eta Maria Magdalena.

**26.** Ikhuisiric beraz Iesusec bere ama, eta aldean bere dicipulu maite çuena, erran cioen bere amari : Emaztequia, horra çure semea.

**27.** Guero diotsa dicipuluari : Horra çure ama. Eta handic harat hartu içan çuen dicipuluac bere ganat.

**28.** Ondoan, baitçaquien Iesusec bertce guciаc betheac cirela, bethe çadintçat ere

Isquiribueo azquen hitz bat, erran cuen: Egarri naiz.

29. Bacen bada han untei bat ozpinez betheric; eta soldadoce harten ase çuten belogui bat, eta hisopazeo (1) uhe baten mocoan inguraturic, ekharri cioten ahora.

30. Hartu cuen arno minthutie Iesusec, eta guero erran cuen: Oro betheac dirade. Eta burua beherateen çuela, eman cuen azquen hatsa.

31. Iiduec orduan, nola baitcen aphaintzeen eguna, eta hilac etçaitecen egon habean larumbatarequin, egun handia celacotz larumbat hora, othoitz eguin cioten Pilatusi, hauts-araz citçaroela çangoac, eta erauts-araz cetçala.

32. Ethorriric beraz soldadoac, carrascatu ciozcaten çangoac lehenari, eta harrequin habean cen bertccari halaberqui.

33. Iin cirenean ordean Jesus gana, aurkhitu çuten iadanic hila cela, eta etciotcaten çangoac hautsi;

34. Bainan soldadoetaric batec, lantza sista batez saihetsa iragan cioen, eta berrehala ilkhi ciren odola eta ura.

35. Eta ikhusi içan duena bera da lekhuco, eta egua da haren lekhucotasuna; eta badaqui haren ecen egua dioela, sinhets deçaquentçat çuec ere.

36. Eguin içan dira bada haue, bethe

(1) *Hisopa*, çuhamu mota bat; *uhe* makhila tuce, lerden bat.

çadintxat Isquiribua : Eztioçue heçurric phorroscaturen.

37. Hala nola baitio ere bertce Isquiribu batec : Beguietsiren dute berec elhatu içan dutena.

38. Horien ondoan, Joseph Arimathearrac (ceina ere baitcen Iesusen dicipulu, bainan ichilicacoa, Iduuen heldurrez), othoiztu çuen Pilatus utz cioçala ioaitera Iesusen lohia. Utei cioen Pilatussec. Ethorri cen beraz eta Iesusen lohia eraman çuen (1).

39. Nicodemo ere, behialaco gau bartan Jesus gana iin içan cen hora bera, ethorri cen mirra eta belhar-mintxa (2) nahastecatu ehun liberaren heina ekhartcen quela.

40. Hartu çuten Iesusen gorputça, eta esteeatu çuten oihal batçuetan belhar urrin onecoequin batean, Iudutarrec ehorz-teco ohitça çuten beçala.

41. Eta khurutcean eman içan cen toquiaren aldean, baratce bat baitcen, eta baratcean, oraino nehor eçarri içan etcen hobi bat,

42. Hartan ibeni içan çuten Jesus (3), Iudutarrentxat aphaintceen eguna baitcen, eta hobia hurbil celacotz,

(1) Iadanic erran dugu *lohia* erraiten dela gorputçaz.

(2) *Belharmintxa* edo *çabila*, erdaraz *aloes* detcen den belhar urrin oneco bat da.

(3) *Ibentceac*, edo *Guipuzcoan iphiñiteciac*, bardin dio nola eçartceac.

## XX. CAPITULUA.

*Badoha Magdalena hobira, eta bai Piarres eta Ioanes Magdalenaren ondoan. Iesus aguertcen da Magdalenari, guero apostoluei; eta emaiten daroe Ispiritu Saindua. Aguertcen çao Thomas sinhes-gaitçari.*

1. LARUMBAT biharamunean, Maria Magdalena ioan cen goicic hobira, oraino ilhunseo celarie; eta ikhusi quen hobiaren atheco harria aldaratua.

2. Eman cen lasterrari, eta iin citçaien Simon Piarresi eta Iesusec maite quen bertce dicipulu hari, eta erran çaroen: loan dute Iauna hobitican, eta eztaquigu non eman duten.

3. Ilkhi cen berchala Piarres bertce dicipulu harequin, eta ethorri ciren hobira.

4. Bacilioacen biac lasterca, eta aitcindurie bertce dicipulu hora Piarresi, lehenie hibiratu cen.

5. Eta khurturic, ikhusi cituen oihalac lurrean hazterrera tuac; hargatic etcen sarthu.

6. Bainan heldu içan cenean haren ondotie Piarres, sarthu cen hobian, eta ediren cituen bazter batean oihalac,

7. Eta buruan eman ciotena, ez gainearcoequin, bainan beregain biribilcatua bertce lekhu batean.

8. Sarthu cen orduan bertce dicipulu

lehen heldua cre, eta ikhusi çuen, eta sin-hetsi çuen;

9. Ecen etçaquiten oraino nola erakhas-ten duen Isquiribuac, behar çuela launac hiletarie phiztu.

10. Ondoan ioan ciren dicipuluac bere etcherat.

11. Maria bada hobiaaren aldean lekhore-tic cegoen nigarrez. Eta nigarrez cegoela, bebeititu cen, eta beguiztatu çuen hobi bar-nea.

12. Eta ikhusten ditu bi ainguero chu-ritan iauntciac, eta iarriac bat buruco, bertcea oinetaco aldetic, Iesusen gorputça ibenia içan cen eredura.

13. Diotsate aingueruec : Emaztequia, ceri eguiten dioñu nigar? Dioste harc : Ceren eta ioan baitarotet ene launa, eta ezpaitaquit non eçarri duten.

14. Hori erraitearequin batean, iteuli cen guibelat, eta ikhusi çuen Jesus chutie; eta etenen eçaguteen Jesus cela.

15. Diotsa bada Iesusec : Emaztequia, certaz çaudé nigarrez? Noren bilha çabiltça? Harc, ustez eta baratce çaina cen, ihardesten dio : launa, baldin çuc khen-dua bada, erradaçut non ibeni duçun, eta eramanen dut nic.

16. Dietsa Iesusec : Maria. Itçulteen da, eta dio : Rabboni; erran nahi dena, Nau-sia.

17. Iesusec diotsa : Eznaçaçula hunqui; ecen eznaiz oraino ene Aita ganat igana;

bainan cohaz ene anaietara, eta erroceu : Igaiten naiz ene Aita ganat, eta cuen Aita ganat, eta ene Iaincoa eta cuen Iaincoa ganat.

48. Ioan cen Maria Magdalena berri emaitera dicipuluei, ikhusi cuela Iauna, eta hunela erran cioela.

49. Egun hartan berean, larumbat biharamunarequin, arratsiria celaric, eta dicipuluac bilduac ciren etcheco atheac hertsiac ciradela, Iduen lotsaz, ethorri citçaien Jesus, ororen erdira, eta erran caroen : Baquea dela quequin.

50. Eta horrela mintçatu citçaien ondoan, eracutsi carozten bere escuac, eta bere saihetsa. Boztu ciren beraz dicipuluac, Iauna ikhustearquin.

51. Eta erran caroen berriz ere : Baquea dela quequin. Ni Aitac egorri nauen beçala, nic ere quec egortzen çaituztet.

52. Horiec erran eta, hats eman caroen gainera, ciostelaric : Oriçue Ispiritu Saindua.

53. Noren ere bekhatuac barkhaturen baititutçue, barkhateen çalizo hainari; eta norenac ere eduquico baititutçue, hainarenac eduquiaç dirade (1).

(1) Dalicote hemen cer errau, eta certan trica. Bebinic bat, iragaiten da Jesus athe hertsiac barna, duclaric, phiztu ondoan, hil aitcineko gorpbutz berbera. Abal hori duenac, nola eztu içanen alda-reco sacramenduan bere gorpbutçaren aurkhi-arazteco ahala? Ezta bata bertzea baino errechago,

**24.** Bada Thomas, hamabietaric bat, Didimo daritçana, etcen hequiequin, iin içan cenean Iesus.

**25.** Erran cioten beraz bertce dicipuluac : Iauna ikhusi dugu. Ihardetsi cioten hare : Baldin ezpadetçat ikhus itce cilhoac haren escuetan, eta ezpadetçat neure erhia ecar itceen toquian, eta ezpadetçot neure escua sar saihetsean, eztut sinhetseren.

**26.** Handic çortci egunen burnan, berriz ere ciren dicipuluac lekhu berean, eta Thomas aldi hartan hequiequin cen. Ethorri citçaien bada lesus, athiac hertsiric cirela, eta eman citçaien erdian, eta erran çaroen : Baquea dela quequin.

**27.** Guero diotsa Thomasi : Emaçu ceure erhia hementche, eta beha eçatçu ene escua; hurbil açu ceure escua, eta sar eçaçu ene saihetsean; eta etçarela iagoitic içan sinhes-gaitz, bainan bai sinhesper.

**28.** Ihardesten dio Thomasec : Ene Iauna, eta ene Iaincoa cara.

eta ez gaitçago, batec eta bertceac gure adimeanduaren hedadura chitcen duen arren. Guero, Iannac bere apostolueu gainera bubarren du, ahoaz haicemaiten; crakhustecotçat bere Ispiritua emaiten daroela, ceinaren indarrez barkaturen baitiote bere hobenac urriquirquin aithorturen dioztenei, baita utciren ere dituzte bere hobenek esteccan, aithortuko eztioztenak, edo urriquiric gabe aithorra egunen dioten guciac. Hau da, Apostoluen ondotic, apbecei eman çaien abal handiebetaric bat.

29. Diotsa Iesusec : Ikhusi nauçulacotz, Thomas, sinhetsi duęu; dohatsu ditezque eztutenac ikhusi, eta sinhetsi dutenac!

30. Bada eguin içan du Iesusec bertce hainitz ikhusgarri bere dicipuluuen aitcean, eztirenac liburu huntan içan emanac.

31. Bainan haue isquiribatuac içan dira sinhets deçaquentçat ecen Jesus dela Christo, Iaincoaren Semea, eta sinhetsiric ardiets deçaquen bicitcea haren icenean.

---

## XXI CAPITULUA.

*Aguertcen da Jesus dicipuluei Tiberiadaeo aintcira hegian. Arrantza miragarria. Ion Done Petiriren onhesgoa edo amodiaoa Jesus gana; emaiten dio bere Eliçaren artha, eçartcen duela bere arthaldeco ama eta umeen artçain. Aitcinetic erraiten dio bere heriotcea.*

1. ONDOAN, oraino ere aguertu citçaien Jesus dicipuluei Tiberiadaco itsas bazterean; eta huna nola aguertu içan citçaien.

2. Elkarrequin ciren Simon Piarres, eta Thomas, daritçana Didimo, eta Nathanael Cana Galileacocoa, eta Zebedeoren semeac, eta bertce bi dicipulu.

3. Dioste Piarresec : Banoha arrantçara. Hec diotsate : Bagohaz gu ere çurequin.

Ioan ciren, eta untei batetara igan ciren; eta gau hartan etçuten deus hateeman.

4. Goiz aldera, aurkhitu cen Iesus ur bazterrean; etçuten ordean dicipuluec eçagutu Iesus cela.

5. Erran çaroen bada Iesusec : Haurrae, baduçaea iatecorie batere? Ihardetsi cioten: Ez eiqui.

6. Harc dioste : Egotz eçaçue sarea unteiaren escuineco aldera, eta hatcemanen duçue. Egotei çuten, eta ecin athera ceçaqueten guehiagoric, hambat arrain bildu baitçuten.

7. Orduan Iesusec maite çuen dicipulu harc erran cioen Piarresi : Iauna da hori. Entçun çuen beçain sarri Simon Piarresec iauna cela, iauntci cituen bere soinecoac (ecen biluz gorria cen), eta itsasora iauci eguin çuen.

8. Bertce dicipuluac ethorri ciren unteiarequin; eta ezpaitciren leihorretic urrun, bainan nombait ehun eta berrogoi eta hamar urhatsetan, ekharri çnten sarea herrestan arrainez bethea.

9. lautsi cirenean bada leihorrera, khau situ cituzten ikhatz phiztuac, eta arraina gainean, eta ogua.

10. Erran çaroen Iesusec : Ekharraçue orai harti ditutçuen arrainetaric.

11. Igan cen beraz Simon Piarres unteira, eta erakharri çuen sarea leihorrerat, ehun eta berrogoi eta hamahirur arrain handiz betheric. Eta haubertce balimba ciren ere, eteen sarea furratu.

42. Erran çaroen Iesusee : Çatozte, ian eçaçue. Eta han iarriric iaten hari cirenetaric, etcitçaion nehor ausartatu içan galdecer : Nor çara çu? Baçaquiten ecen launa cela.

43. Hurbildu citçaien bada Iesus, eta harturic ogua, eman çaroen, eta arrainetaric halaber.

44. Hau içan cen Iesus dicipuluei aguertu citçaien hirurgarren aldia, hiletaric phiztuz gueroz.

45. Ian dutenean, diotsa Iesusec Simon Piarresi : Simon Ioanesen semea, maite nauçu hauquiec nauten baino guehiago? Ihardesten dio : Bai launa, badaquiçu maite çaitudala. Erraiten dio Iesusec : Bazca çaitçu ene achuriac (1).

46. Diotsa berriz ere : Simon Ioanesen semea, maite nauçu? Ihardesten dio : Bai launa, badaquiçu ecen maite çaitudala. Dio Iesusec : Bazca çaitçu ene achuriac.

47. Diotsa are berriz ere : Simon Ioanesen semea, maite nauçu? Gaititu citçaiion bihotcean Piarresi, ceren galdeguin cioen hirurgarren aldicotz, maite çuenetz; eta ihardetsi cioen : Launa, çue gauça guciac badaquizquitçu; badaquiçu bada maite çaitudala. Erran cioen Iesusec : Bazca çaitçu ene ardiac (2).

(1) Achuria eta bildotsa bat dira; batçuc eztitutze bardinera hárteen, bainan adin guehiago edo gutiago duen arauaz, deitzen dute achuri edo bildots. Guipuzcoan erraiten ohi çao arcumea.

(2) Horra non emaiten çaoen Ion Done Petiriri,

18. Eguiazqui diotsut, eguiazqui, gazzteago cineino, ceroni guerricateen ohi ci-nen, eta cinhoacen nahi cinuen alderat; bainan çahar çaitecenean, hedatu beharco ditutçu escuac, eta bertce batec guerricaturen çaitu, eta eramanen çaitu nahi ez-tuqueçun lekhura.

19. Erran içan çuen bada hori, adi-araz-tecotçat cer herioteez beharco çuen Iain-coa bandiets-araci. Eta ondoan berehala, erran cioen : larraic çaquizquit.

20. Itçuli cen Piarres, eta ikuhi çuen ondotic heldu cela Iesusec maite çuen dicipulua, azquen apharian Iesusen bulhar-raren gainean burna eçarri çuen hura bera, galdeguin baitcioen ere : launa, nor da salduren çaituena ?

21. Hura beraz ikuhsiric Piarresec, erran cioen Iesusi : launa, eta cer içanen da huntaz ?

22. Iesusee diotsa : Baldin nahi badut hori horrela dagoen ni natherren artino, cer dohaquiqueçü çuri? Çu behintçat, iarraiç çaquizquit.

23. Ordutic banatu cen omena anaien artean, ecen etenela dicipulu harc hil behar. Iesusec ordean etenuen erran içan : Ezta hilen; baicic ere : Baldin horrela nahi


eta haren ondoko Aita Saindua guciari, Eliça gu-ciaren artha; bere azpico du arthaldea oro, ardiac edo amac, erran nahi da aphez eta aphezpicuac, bildotsac edo umeac, erran nahi da guiristino chehe guciak.

badut egon dadin hori ni natherquen artean, cer duęu ikhustecoric?

**24.** Dicipulu hurache bera da bada hau-taz lekhuco dena, eta hauc isquiribatu içan dituena; eta badaquigu eguiatia dela bere lekhucotasunean.

**25.** Badirade ordean bertee hainitz gauça ere Iesusec eguinæ, ceinac baldin isqui-riba balitez behar litequen chehetasuna-requin, ezpainuque uste munduac, cembait handi baita, iasain letçaqueen harta-racotz isquiribatu behar litezquen liburuac.

### HALA BIZ.



# LAUR EBANYELIOETAN

EGUIN HUTSEN

## CHUCHENBIDEA.

Hostoa edo Plama.	Bertsua.	Hutsa :	Iracur bedi :
5	5	caroen .....	cioten.
15	22	batçajio .....	baiteajio.
45	25	badohamaca .....	badohaçu.
19	6	hretsiric .....	hertsiric.
21	24	batai asainen .....	bata iasainen.
27	11	badiotçuet .....	badiotsuet.
54	57	uti .....	gutti.
42	25	ikhusgurriae .....	ikhusgarriae.
45	15	Iesusec, hori .....	Iesus, hori.
46	30	eztuenac .....	eztuena.
91	42	eztei soinecoa .....	ezteietaco soina.
119	4	ciosotela .....	ciosotela.
124	52	hainitz hilac ciren .....	hilac ciren hainitz.
127	15	ciosotela .....	ciosotetela.
156	19	ezteiliarrae .....	ezteiliarrec.
211	45	dubere .....	du bere.
216	67	ecn .....	cen.
247	16	here .....	here.
271	42	khendua, .....	khendua.
286	58	eçague .....	eçaçu.
520	5	daroçu .....	darocu.
530	8	oanes .....	loanes.
571	13	gui-on .....	gui-con.
456	50 <sup>ma</sup> l <sup>o</sup>	eztirentçat .....	eztirenentçat.
448	50	bartan .....	hartan.

*Beguiria bedi*, huts hautaz bertçalde, balimbadira ere bertce hutsac laur Ebanyelioetan, gutiac ditezquela, eta chumeac edo errechqui eçagutcecoac; hain içan da handia ekharri den artha. Ez beraz husçat har, arinqui, behar bada hala extena.

# HIZTEGUI LABURRA ,

LAUR EBANYELIOETAN

IRACURTCEN DIREN CEMBAIT HITCEN ,

ESCUALDUN GUEHLENENTCAT , ADIBIDEA.

## A

- Açalcateca , chehatcea , açaltcea , adi-araztea , enthelegaraztea.  
Açantça , habarrotsa , otsa , harramantça , herrotsa.  
Acara , belhar mota bat.  
Achetterra , osaquina , miricua , sendatçalea.  
Acinda , acienda , aberea , abrea.  
Açoquea , sal-eroscoetaco bil-toquia , plaça , carrica.  
Adatsa , emazte baten ilaia , biloa , cherloa.  
Aditua , adimenduduna , entheleguitsia.  
Agorra , idorra , idortua , antea.  
Aguerian , aguerrian , aguerriqui.  
Aguian , behar bada , heldu bada.  
Aguintcea , manatcea , meçutcea , esleitcea , — hitz emaitea.  
Aguintaria , manatçalea , buruçaguia.  
Ahaicoa , ahaidetasuna.  
Ahal , — ez ahal cara , ez bide cara.  
Ahamena , ahotara.  
Ahaphaldiztatea , ahaphaldiac , hitz lotsagarriac erraitza.  
Aharaia , bozcariozco cantuac , eresia , aihubia , abairea.  
Aharra , escatima , liscarra , bilhacaidea , harritça.  
Ahitua , aphurtua , eñhetsia , akhitua , haricatuia , habalitua.  
Ahorpeguiia , beguithartea , itchura , ahurpeguia.  
Ahucua , hila chorztera daramatenac.  
Ahuldua , indarrez escastua , ttipitua , — gueçatua.  
Ahuspecatcea , abuspez erortcea.  
Ahuspez , ahoz behera.  
Aiber naicai , cerbait gaizqui nahi diot.  
Aiber naiz , uste dut , edo gogan behartua naiz , aieru dut.

- Aintcea, ordua, muga, tenorea.  
 Ainteira, ur hil çabalsco bat, intçura.  
 Aiphu da hortaz, mintço dira hortaz.  
 Aitcilio, bainan, bertee aldera.  
 Aithortcea, egua erraitea, — galdatua emaitea.  
 Akhiteea, nekhateea, urgoiteea, iabaltcea.  
 Ala dohatsu baita ! Ai ! dohatsu baita ! — edo.  
 Alabainan, alabaina, ecen, ceren.  
 Alborotamendua, nahasmendua.  
 Aldagarria, soinecoa, iaunzcura.  
 Aldamioa, atherbe bat.  
 Aldapa, aldatsa, malda, ikhea.  
 Aldarateea, bazterrera; berechtea.  
 Aldea, araldea, mahats alde bat, mahats sasta bat.  
 Alderdia, lohadarra, gorputgaren eathi bat.  
 Aldiria ; Baionaco aldiriac, Baionaco inguruac.  
 Aldiz; hora aldiz, hora berriz.  
 Alegua, itchuraz, iduriz.  
 Alhapidea, alha lekhua.  
 Alhorra, landa, lorra, gneiz beretia denean.  
 Alkhia, iar-lekhua, predica-toquia, tronua.  
 Alpherra, alferra, naguia, auherria, herabea.  
 Alphorcha, bi çakhutto elkharrí dathecotela.  
 Altchagarria, lemamia, orhearen hazgarria, altehatu-  
     racia.  
 Amarratcea, lotcea, estecateea.  
 Amarrua, maltçurqueria.  
 Amilca, gainetic behera iteulica, itçailteca.  
 Andana, araldea, elia, saldoa.  
 Antcea; çure antcean, çure ustean, idurian, cure oldez.  
 Antçora, antçura; haur baten antçora, antço, antçura,  
     haur bat beçala.  
 Antolatcea, ontsatcea, chuchentcea.  
 Antsia, achola, ardura.  
 Aphaintcea, behar beçala eçartcea, adelatcea.  
 Aphaldia, ahaphaldia.  
 Aphaldú, aphari eguiñ, — beheititu.  
 Apharia, afaria, aiharia, auharia.  
 Aphur bat duela, orochtian, — aphurra, gutia.  
 Araldea, andana, elea, elia, saldoa, dia, multçoa.  
 Arau, arauera, arabera, beçala, antçora.  
 Araztea, araciteea.  
 Arbasoac, aitasoac, burhaso caharrac.  
 Arbuiateea, ez eçaguteea, ukhatcea.  
 Ardiestea, galdea ukhaitea, — hedatcea, helteca.

- Ardita , diru chehe bat.  
 Ardura , ariba , achola , — maiz , usu.  
 Are , oraino , — areagon , guehiagocoa.  
 Area , harea , itsas hondarra , legar checheena , hariña.  
 Arerioa , etsaia , izterbegua.  
 Arguia , cugen-bidearen gogorgarria , titulua.  
 Aroa ; mahats-aro , mahats-ordu , muga , mabasguiro.  
 Arrastu çuen , arrastu cen , arratsa ethorri cen.  
 Arraua , arraba , arrauna.  
 Arren , othoi , — ethorri cen arren , ethorri bacen ere.  
 Arrimua , berreguintasuna , — arrimuz , moldezqui.  
 Arrotça , atcea , campocoa . lekhorecoa , ahalqueiçuna.  
 Asaldateea , nahastea , ieitcea.  
 Ascacia , ahaidea.  
 Asco , asqui , — nasaiqui.  
 Asmua , adimendua , usna.  
 Aspaldi , aspaldian , aspaldion , duela hainitz egun ,  
 urthe.  
 Aspila , untcı bat.  
 Atcea , arrotça , — guibeleco aldea.  
 Athaltçaina , athe çaina.  
 Athozquit , ethor çaqizquit , ien çaqitqat.  
 Auc , auçue , içan ecac , içan eçaçue , euc , euçue.  
 Aurkhiz aurkhi , bekhoz bekho , aurkhaz aurkha , aurrez  
 aurre.  
 Aurkhintça , aurkhientça , çathi bereci bat.  
 Aurizquitcea , çaphatcea , herstea.  
 Ausartateea , ausartcea , — ausarta , nahasia , ahalgabea.

## B

- Bachera , lurrezco untciae.  
 Badantçut , entçuten çaint.  
 Badarrautçuet , erraiten darotçuet.  
 Badirau , irauten du.  
 Baimena , escubidea , baia.  
 Bainoagoa , guehiagocoa.  
 Bairateea , cilibocateea , hategemaitea , harrapatcea.  
 Baitarrait , iarraiquiteen baitçaut.  
 Baitezpada , nahi edo nahi ez , ecin bertcelaz , itçurpide-  
 ric gabe.  
 Bakhan , bekhan , ez maiz , noicean behin.  
 Balacateea , lausenguz hatcemaitea , bairateea , eztiqui  
 erakhartcea.  
 Baldinetariae , baldinetaria , baldin , balin.

Baliaco , balioça.  
 Baltsan ; gure baltsan , gurequin hatean.  
 Banateea , hedatea ; barraiatcea.  
 Baranda , selhaurua , soilhurna , galeria , balcoina.  
 Barrandatcea , celatatea , gorderic beha edo entçuten egoitea.  
 Barruquia , estalbia , heia , uculhua.  
 Basherria , basoan edo addaratu den herria.  
 Basoa , mortua , bortua , eremuia.  
 Batçarra . biltçarra , bilkhua , bilduma , bilkhura.  
 Batcea , bat eguitea norbaitequin , elkbartcea.  
 Beguiestea , ikhustea , beguiz ardiestea.  
 Beha , goait , haiduru , erphai , itchoron , beguira egoitea.  
 Behatcea , so eguitea , beguiratea.  
 Beharra ; guion beharra , on-beharra , gabea , esteiaria , landerra , escalea , noharroina.  
 Beharrondocoa , maceiacoa , çaphardacoa , çallacoa.  
 Behartcea ; behartu nau , galdeguin darot , — eman edo eguin-araci darot.  
 Behiala , behiola , aitcimago , lehenago , bertçaldiz.  
 Behingoan , behin , lehembician.  
 Behintçat , behinic bat , bedere , behinic bebin.  
 Bekhaizcoa , bertceren onaz damua.  
 Bekhoquia , copeta , belarra , bethondoa , bekhoqnia.  
 Belhaunicatcea , belhauricatcea , belhaunen gainera eror tcea.  
 Belharmintça , çabila , çuhamu edo belhar mota bat.  
 Beloguia , esponya.  
 Bephurua , bethaçala.  
 Beregain , berech , alderatua , bere alde.  
 Beregainqui , guciz , batez ere , bereciqui.  
 Bermatcea , oinen , bermaçakhien gainean gogortcea.  
 Berrait niri , iarraig bequit niri.  
 Berreguintcea , birrignumtcea , berriz , ongi eguitea , aphaintcea , — berreguina , gurbila , chuguna.  
 Berrerostea , berrioz eroastea.  
 Berretcea , guehiagotcea , ioritcea , berhatcea.  
 Berritan , bigartenean , artcara.  
 Bertan , han berean , berchala , ordu berean.  
 Betbetan , bat hatean.  
 Bethegunea , bethecundea , betheguintçarrea , osoqui on icalitea.  
 Bethor , ethor bedi.  
 Bidatea , bidea irakhastea , chedatea.  
 Bidalkhartcea , bidean batcea , elkar ayrikhitcea.

Bidaltea, egortcea, igortcea.  
 Bide çait, cilhegui, haiçu, sori çait.  
 Bide; ioanen bide naiz, aguijan ioanen naiz.  
 Bide nabar dut, ene bidean iragaitçaz dut.  
 Bider bat, bortz bider, aldi bat, bortz aldiz.  
 Bidezqui, çucen bidez, çucenqui.  
 Biguina, samurra, bera, mardoa.  
 Bihoa, dohala.  
 Bihurria, buhurria, iauzeorra, ez ethorcorra, ihardu-  
     quiteen duena.  
 Biburtea, bihurdicatcea, buhurteia, — guibelat emai-  
     tea, — ihardestea.  
 Bilarrausia, chahala, chekhorra, aratchea.  
 Bilhacaidea, escatima, liscarra, aharra, bilhaca.  
 Bilhacateea, cenetic bertce eguitea, — galteea.  
 Bilburcatcea, bilhur anteo eguitea.  
 Bilhurra, bulhurra, cuhamubihurtuzeo esteca.  
 Biraua, biraea, norbaitentçat erranicaco elhe gaitça,  
     eta galgarria, madaracionea.  
 Biribiltea, biltcea, borobil edo biribil eçartcea.  
 Sirphiztea, berriz phiztea, berriz iracequitcea.  
 Biz, içan bedi, dela.  
 Bizquitartean, hargatic, — bitartean, artean.  
 Bertua, oihana, mortua, eremua, basoa.  
 Bortu-saia, belbar mota bat.  
 Bozgarria, Ispiritu Sainduaren icen bat.  
 Buhumba, haice burrumba, chirimola.  
 Bulkhatcea, soinaz edo bertcela iorie aldaratea.  
 Burhoa, burhaua, laincoaren edo Sainduentçat elhe  
     tçarra, arnegua.  
 Burupea, escua, nausitasuna.

## C, Ç

Cafia, cabia, habia, ohantcea, ohatea.  
 Cakharten, ekhartcen çuten.  
 Cama, sortha, sorta, carga, seldorra.  
 Caquizcote, loth, iarraiç caquizquiote.  
 Cara, cari; larumbat-cara, larumbatarequin.  
 Caraman, eramaiten çuen, ceraman.  
 Carasan, erasten çuen, cioen, cerasan.  
 Caritçan, ceritçan, çariteon, ieena çuen, iduri çaison.  
 Caroen, cerauen, çaien, cioten.  
 Carpa, chiscua, saquela.

- Carrailzon , cerrailzon , iarrailquiteen çaquizquierdo.  
 Carrapoa , harrapoa , haguina , habuina , gahuna , gabutza .  
 Cartateea , leher eguitea , lehertcea .  
 Catabuta , hil khutch , catabua , çarraldoa .  
 Catcalá , etçanic cela .  
 Cathia , phusca berecia , edo ebaquia .  
 Cathozque , ethor caitezque .  
 Cauntzala , cautzala , etçanic circla .  
 Ceben , ceuen , cihasuren .  
 Cebonec , ceuec , cihunrec .  
 Ceduzcan , eduquiteen cituen , çauzcan .  
 Cegoen , çagon .  
 Gehateea , iotcea , bere gastigua emaitza .  
 Ceihar behateea , gothorqui eta beguiac baztercatuz beguiratcea .  
 Ceiharcea , bazterrez bazter , bidea hautsiz .  
 Cekharren , ekhartcen çuen .  
 Celatatcea , barrandateea , goaitateea .  
 Cenetz , cenez , cenz , hea een .  
 Cephoa , çangoetaco , oinetaco estecac , burdinae .  
 Cequion , çaquion .  
 Cerabiltçan , çarabiltçan , erabiltcen cituen .  
 Cerbaitago da , guehiagocoa da .  
 Cerga , cerguera , legarra , imposa .  
 Cergatice , certaco , — ceren .  
 Ceric da , certsn da , cer da .  
 Cerrena , çur iale har ttipitto bat .  
 Ceuen , ceben , cihasuren .  
 Ceudecen , gauden , çagocen .  
 Chahala , chekhorra , aratchea .  
 Chahutcea , garbitcea , — galtcea .  
 Chalkhea , iharraren chiscua , estalquia , theca .  
 Chedea , muga , marra , — nahia , gogoa .  
 Chehatcea , porrocheateea , phuscateea , — aéalteea , esplicatcea .  
 Chekhorra , eckhorra , chahala , aratchea .  
 Cherrenda , gauça baten bazterra , ezpaina .  
 Chicheua , çarpa , saquela , maguina , untcia .  
 Chidorra ; bide chidorra , chigorra , bidechica meharra .  
 Chirola , chilibitua , tchulula .  
 Chirribica , charrabeta , biolina , arrabita .  
 Chiteea , goiteea , garaiteea , garbaitcea ; — chit , hainitz .  
 Chopa , unteiaren guibeleco aldea .  
 Choratcea , burua nahas-araztea , erteotzia .  
 Chumea , ttipia , chehea , üimiñoa .

Cigorra, aotea, cardaroa, gaharoa, eihorra.  
 Cibarducaten, iharduquiteen çuten.  
 Cikhoitça, cekhena, iaramana, ez emailea.  
 Cima, iuramentua, — cinez, eguiazqui.  
 Cintçurcoia, sabelcoia, sabeldarraioa, amia, lamia,  
     saia.  
 Ciosten, harenraiten çaien hequiei.  
 Ciotsaten, hequiec cioten erraiten hari.  
 Ciotsan, harc cioen huni.  
 Cipa, diru chehe bat.  
 Ciraua, sugue bipera, — ciraucumea, cirau umea.  
 Circua, seda, ecta.  
 Cirudiela, iduri euela.  
 Cocatcea, hegastina adar hatean baratcea.  
 Concorra, bizeac makhurra, cuncurra, tontorra, khu-  
     pustia.  
 Copherna, ibaia, ibasoa gaindi eguna, uholdea.  
 Corhia, onthua, heldua.  
 Çorian, — erortceco çorian, erortceco heinean, erori  
     hurran.  
 Coroa, adimendu gabea, erhoa, çocoia, ertçoia.  
 Corroa, larruzco çakhua.  
 Corrotça, sarçorra, chirritua.  
 Çucia, argui phiztua, iraequia, distiateen duena.  
 Cucutcea, estalcea, gordetcea, cuncultcea.  
 Çuhaitça, çuhartcea, çuhamua, çuhaina.  
 Cur-hesia, çur olaz, çurez egunin hesia, hesola.  
 Curdatça, çurdaz, cerdaz egunin guerrico bat.  
 Çurguna, çur lantçaila, çur arotça.

## D

Daguitala, eguin deçadala.  
 Daidique, — ecin daidiçue, ecin eguin deçaqueçue.  
 Dakhart, ekhartea dut.  
 Dakhusat, ikhusten dut.  
 Dantçut, entçuten dnt.  
 Darasat, crasten dut.  
 Darauntsa; — uriac. haiceac darauntsa, ocenqui hari da.  
 Dardaratea, hazcarqui iharrostea.  
 Daritça, deitcen da, — on-daritça, maite du.  
 Daroe, daie derane, — darot, deraut, dait, — daroz-  
     tet, daiztet.  
 Darrait, iarraiquiteen çait.

Datça, etçana da.  
 Datchecola, atchiquitcen duela, dioela.  
 Date, daite, daiteque.  
 Dathor, ethortcen da, heldu da, iiten da.  
 Daunça, etçanac dagoci, daude.  
 Debecateea, eragoztea, debetateea, ecertcea, gueben-tea.  
 Delhadarra, oihu handiz, adarrez deiteea, heiagora.  
 Demot, emaiten diot.  
 Denetz, denez, denz, hea den.  
 Derroqueçu, erraiten ahal duçu.  
 Desamarratcea, deslotcea.  
 Desegningoa, urratcea, urratçapena, galtçapena, dese-guitea.  
 Deslotcea, amarrac, lothurac, lokharriac khentcea, ascatcea.  
 Diharduca, ibarduquitcen du.  
 Diosquituet, erraiten darozquituet.  
 Dioste, hare erraiten diote hequiei.  
 Diotsa, diotsa, erraiten dio.  
 Dirudi, irudi, iduri du.  
 Distiatcea, arguitcea, içarritcea.  
 Dohacabea, dohain gabea, çori on gabea.  
 Dohatsutasuna, dohacundea, çori guciz ona.  
 Doia, behar begambat, asqui eta ez guehiegui, — doi  
     doia, deus gultan, oraintche beçala.  
 Dolharea, lacoa, arnoa egnitco toquia.  
 Dorpbea, hazta handitacoa, astuna, gogorra, nequez  
     iasaitecoa.

## E

Ebaquitcea, mochtea, çathi edequitcea cembait aho-dun tresnaz.  
 Ebasca, epaisca, ichilea, gordeca, ebatsian, eçabaqui.  
 Eeen, ceren; — erran du eeen eztuela, erran du eztuela.  
 Eceztatcea, gueçurztatcea, — suntsi-araztea, itsahats-araztea.  
 Ecinqiçuna, ecin eguna dena.  
 Edaratea, eradatea, edan-araztea.  
 Edequi, idoqui, khendu, gabetu, ithoitn.  
 Ediren, ideren, idoro, aurkhitu, khausitu, hateeman.  
 Edosqui, bulharra, ugata, dithia harti.  
 Egoiztea, egoztea, aurthiquitcea, iraiztea, etchatea.

- Egoizte, egozle, egozpen, ekhoizpen, ekhartee, fruitu.  
 Egoquia, bere berea, — egoquiac, hurbilecoac, ahai-deac.  
 Eguiquicuna, eguin abal ditequena, — eguitoco dena.  
 Echoitea, irina iharan, eta oihala ehunean ehaitea.  
 Eiqui, — ez eiqui, ez equi, ez nasqui, — aguiian, behar-bada.  
 Ekhaitza, ecacha, iraçaria, erauntsia, calerna.  
 Ekhooiztea, egoiztea.  
 Elguea, alhor edo landa ereina, ereintcea.  
 Elia, elea, ostea, saldoa, multçoia.  
 Elkhorra, gorra, — idorra, gogorra.  
 Eltçagorra, eltce huts habarrots handi eguin-arazten dioten bat.  
 Emacoia, emazteen ganat iaidura eta ohicunça duena, ohaidecaria.  
 Emaitea, ururic, dohainic, emoiicacea, emaia.  
 Ematcea, emetcea, cebatcea, eztitcea, olhatcea, olhe eguitea.  
 Ephalia, erabaquia, iuiamendua.  
 Ephaitea; gari, ogui, belhar ephaitea, ebaquitcea, segatcea, ithaitea.  
 Ephea, muga luce edo laburra, astia.  
 Erabaquitcea, ebaqui-araztea, iuiatea.  
 Erabaquia, ephalia, iuiamendua, — crabaquitçaila, iuiea, ibar-iauna.  
 Eraçagutcea, eçagut araztea.  
 Eradosquitcea, edosqui-araztea, bulharra, errapea har-araztea.  
 Eragoitza, eragoztea, egotz-araztea, debecatcea.  
 Eraguin, eguin-araztea.  
 Erakhartcea, ekhar-araztea.  
 Erantçutea, entçun-araztea, ihardestea.  
 Erantçutea, erantçuquia, elhe gogorra, gaiteigarria.  
 Erastea, erasia, hainitz mintçatea.  
 Eratchequitcea, atchic-araztea, banditea, guehiago-tea, — phiztea, icequitcea, iraçauquitcea (arguiaz, suaz mintço dela).  
 Erauntsia, erasia, — uri erortce, haice iotce gogorra.  
 Eraunstea bulbarrei, atheari, iotcea bulharrac, athea.  
 Erannztea, cerbait soineco, iauzeura khentcea.  
 Erautsi, iauts-araci.  
 Erauci, iauz-araci, — lekhucotasun eraztea, ekhar-tea.  
 Erdara, escuara ezten mintçaiia arrotza, española, francesa.

- Erdiratu, erdian ecarri, — alde bat bertee iragan,  
 Eredosqui, eradosqui.  
 Eredura, araura, arau, arabera, antecora, beçala,  
 Eremua, basoa, oihana, larrea, mortua, bortua.  
 Eretcean, aldean, hurbilean, alboan.  
 Erhasuna, critasuna, herbaltasuna, gaichotasuna.  
 Ethoa, hila (erhaitetic), — burutie eraucia, ioana.  
 Erkhatça, erhatça, iatsa, itsatsa, içinzquia, imilitça.  
 Erkhateea, bardincatcea.  
 Erkhide, bertee hatequin çathi bardina hartcen duena,  
     laguna.  
 Ernaia, sumberra, sumera, laça, — ernea, phizeorra,  
 Eroan, eraman, ioan.  
 Erphai, berantetsiric goait, beguira dagoena.  
 Erranqui hau, erran hau, erraiten ohi den hau, erran-  
     quien hau.  
 Errecha, erretcha, erraça, eguincara, ehia.  
 Erregua, içari, neurri bat.  
 Escaintça, esquinia, esquenia, oferenda, ohorescateia.  
 Escarniatcea, laidoztatcea, idoiztatea.  
 Escasia, eceria, laceria, esteiarsuna, eçapena.  
 Escatcea, esquea, galdeguina.  
 Escatima, liscarra, aharra, bilhacaidea, iharduquia,  
     eztabada.  
 Escua, ahala, nausitasuna, iabetasuna.  
 Escubidea, escudanteia, baia, haimena, cilheguigoa.  
 Escuhoa, — bere escuhoa, bere gain, bere alde dena.  
 Espantua, ikuusgarria, miracuilua.  
 Espantateea, miretsiric eçartcea, harritcea, espantiteea.  
 Estacurua, itçulpidea, atçaquia, atchaquia.  
 Etçauntça, ohantcea, ohatcea, etean-lekhua.  
 Etchadia, etche batetaco bicitçailac.  
 Etchetiarra, maisterra, bordaria, etche çaina.  
 Ethentcea, urratcea.  
 Ethorcorra, emea, ezzia, errechqui erabil daitena, er-  
     ranen egilea.  
 Ethorquia, sorterroa, leinua.  
 Ethorquiçuna, ethorteco den ephea, gueroa.  
 Ezearatça, etchean sartean den toqui huts nasaisco bat.  
 Ezdeustateea, eceztatea, suntsi, itsabats-araztea.  
 Ezpadatcheo, atchiquitcen ezpadio.  
 Ezpere, ezperen, ezperetanicam, bertcela, bertcenaz.  
 Eztaguidan, ezteçadan egui n.  
 Eztaritçatana, — niri on eztaritçatana, ni onhesten  
     eznanena.  
 Ezterraçuela, ezteçacuelas erran.

## G

- Gabea, ez içana, — ez duena.  
 Gai da, ahal deçaque.  
 Gaichoia, gachoa, eria, — urricalgarri, guphidagarri  
 dena.  
 Gaindiro, gaindizcea, gaintica, mneuru.  
 Gaiteitcea, gaizquira haritea, samurteea, bihotcean  
 çauritea.  
 Gaiz bidea, gaizqui eraguingarría, escandala.  
 Gaizcoateea, gaichto bilbacateea.  
 Gaitcerua, gaitçurna, neurri, içari bat.  
 Galkhatu, aurizquituz, çaphatuz, bulkhatuz bethe edo  
 ase.  
 Galtçarra, bulhar aitcina, golkhoa, besoac.  
 Gantçutu, olioz, urinez pherecatu, igortci, leundu.  
 Garaia, goia, gaina, garhaia, goitcia, — garaiticacoan,  
 gairaiticoan, gaineratecoan.  
 Garau, nehor, norbait, cerbait, — garaui, garabie,  
 deusie, nehor.  
 Garbicaria, garbitcea, ikhuztea, chahutcea.  
 Garia, ogui bihia, ogui alea, garaua.  
 Gargoro, gaurguero, gargoitic, gaur guehiago.  
 Garrasia, oihu mina, marrasca, patarraca.  
 Gastigateea, cehatcea, iaçaritea, centigateea.  
 Gatçatua, iaioa, conteebitua, — esne bildua, ciho bil-  
 gortua.  
 Gathilua, gathelua, ophorra, gophorra.  
 Gaztaroa, gaztetasuneco aroa.  
 Gaztigateea, meçu egortcea.  
 Goçoac, goçateen diren onthasunac, sentsuac.  
 Gocoa, çaphorea, — aho goçoa, ahoco hecetasuna,  
 istua, ihua.  
 Gogaracoa, nahi beçalacoa.  
 Gogan behartcea, aiher içaitea, uste içaitea, ohartcea,  
 aierutan sartcea.  
 Gogortcea, baietz eta baietz halá dela erraitea.  
 Goia, garaia, gaina, — irabaz-goia, gaineraco irabacia,  
 intresa.  
 Goibeltcea, ilhuntea, — damutcea, samurteea, aise-  
 çabetcea.  
 Goitiquina, guehieguitu, guelditu dena.  
 Goititcea, gordetcea, alchateea, — gorateea.  
 Golardoa, saria.  
 Gelkhoa, papoa, bulhar gaina.

- Gordailua, gorde lekhua.  
 Gordairua, onthasun, diru gorde-lekhua, gordailua.  
 Gorestea, gorateea, altchatcea.  
 Goria, handizqui bero dena.  
 Gudua, borroca, ioca, ukhaldica hariteea.  
 Gudaria, guduatecen ohi dena.  
 Gueeautua, bere goçoa galdu duena, ahula.  
 Guela, gambera, khambara.  
 Guerica, guericcia, estalguia, gordegarria, beguiragarria, malda.  
 Guerriateea, gordetcea, beguiratcea, norbaiten alde hartcea.  
 Guerriccatea, guerria estecatcea, lotcea.  
 Guerrnitcea, guerria.  
 Guerthacaria, ustecabea, helantea, guerthacuntça.  
 Guerthuz, guerthuqui, baitezpada, duda gabe.  
 Guiçaldia, guion baten hicaren ephea eta lucetasuna.  
 Guilea, egualea.  
 Guiltça, gakhoa.  
 Guphide içaitea, urricari içaitea.  
 Gurentcea, berretcea, guehiagotcea, handitcea.  
 Gusua, cusina.

## H

- Habea, çur edo çuhaitz bat cerbaiten jasaiteeo lurrean chutic ecarria, — khurutea, urkhabea.  
 Hacila, haci ereiteco hilabethea, ereitea.  
 Haguitz, hainitz.  
 Haicatcea, chutitcea, — haica hadi, chuti hadi.  
 Haina, aiphatu hora.  
 Halaberqui, halaber, bardin, orobat.  
 Hamarrenac, hamargarren cathiac, detchemae.  
 Hamberteenarequin, ordu berean, batean.  
 Handiestea, altchatcea, gorateea, gorestea, handi aithortcea.  
 Handizcatcea, gorestea, handiestea.  
 Hapuicatcea, haburicatcea, behaztopateea.  
 Harramantça, habarrotsa, otsa, açantça, herrotsa.  
 Harrobia, harri hobia, harri atherateeo lekhua.  
 Harroquia, harroca, harbotchia, aitça, arkhaitça.  
 Harrulia, harrobioa, harrabioa.  
 Hasbeherapena, basgorapena, hasperena, intcirina, interia.  
 Hastantcea, urruntcea.

- Hastiatcea, higuintcea.  
 Hatia, hatua, gauça, tresna, iauzcura, soinecoa, hau-  
 tua.  
 Hatsa, khiratsa, greugarria, nardagarria, phastica-  
 garria.  
 Hatsarrea, hastea.  
 Hatsedena, hatsa hartcea, thaia, butsartia, lan-arteas,  
 astia.  
 Hautemaitea, nabaritcea, ohartcea.  
 Hautetsia, hantatua, berescia.  
 Hazzatcea, hazzaren ikhustea, pisatcea, — norbaiten  
 gogoa eçagutu nahiz ibiltea.  
 Haztoratea, oiloa haztorearen ikhustean beçala lar-  
 ritea, icitea.  
 Hebaina, alderdi galdua, ecindua, elbarria.  
 Hedea, larruzco sokha, lokharria. *ubala*  
 Hegastegua, hegazteguia, etchearen hegatsac diren  
 toquia, teiatua.  
 Hegastina, hego, hega, hegal duna, choria, aireco  
 ihieia.  
 Heguia, bazterra, aldea.  
 Heiagora, deihadarra.  
 Heina, doia, behar beçambat, — sartceco heinean,  
 sartceracoan, — bere heinean, bere doiean.  
 Helgaitcea, sukharra, badamina.  
 Heltcea, — heldu da, ardietsi du, — ethortcen da,  
 dathor, — etçait heltcen, extut aditeera ardiesten.  
 Herabe, uzeur, lotsa, ez guthiciatsu, ez gura, nagui-  
 erbala, eria, gachoa, argala, indarrez aphurtua.  
 Hereneco, hirurgarreneco.  
 Hergorac, herri gorac, garaicoae.  
 Herstea, hestea, — hertsitcea, harbintcea, — çaphatcea.  
 Herstura, atsecabé gogorra.  
 Hertchatcea cerbaitetarat, cerbait haitezpada egui-  
 araztea.  
 Herronca, lerroa.  
 Hidoiztatcea, laidoztatcea, escarniatcea.  
 Higuintcea, gaiteestea, gaiteeriztea.  
 Hirurtasuna, hirurcuna, Trinitatea.  
 Hirritsa, guthicia, nahi handia, thirria.  
 Hisia, sepha, thema, burkhoiztea, estocatcea.  
 Hizeatcea, hitcez, elhe saminez iharduquitcea, iscam-  
 billatcea.  
 Hobena, hoguena, buts artea, bekhatua, oguena.  
 Hobendurja, bobenduna.  
*Hoyya = estable*

- Hociteea, ninicatcea, ninicac ilkhiteea, atherateea,  
buztantea.  
Hodia, harana, naba, ibarra, — abel-hodia, khorbea,  
utcioa.  
Holtça, cerua, hedoiac, hodejac, — orma, pareta.  
Hondalea, hondoa, itsas barne barnea.  
Hondarra, area, — goititeen, guelditcen dena, hondar-  
quina, azquena.  
Hordia, barrica, neurri bat, — mozortua, mozor-  
teen ohi dena.  
Horrela, horla, hola.  
Hunela, hula, molde huntan.  
Hurcoa, hurbilecoa, hullanecea, — urkho laguna, pro-  
tsimoa.  
Hurren, hurran, hurbil, hullan.

## I

- Iaia, iei-eguna, phesta, egnearia.  
Iabalteea, ur bat, uria guelditeea, akbitcea, athertcea,  
ez iariucea.  
Iaca, soineco çabal bat, çais, gona.  
Iaçartcea, amerstea, aspertcea, mendecateea, gasti-  
gateea.  
Iagoitie, hemendie harat, oraidanic.  
Iaiotcea, sortcea, — bicirat emaitea, — conteebiteea.  
Iaincoaiçuna, gueçurrezco, hala ezten iaincoa.  
Iaquia, ianquia, oguiarequin edo arthoarequin iaten  
dena.  
Iariteea, iariotcea, ura, arnoa, odola, nigarra eror-  
teea.  
Iauquitcea, cerbait hastea, — iauqui lanari, eguin la-  
nari, — norbaiti bihurritea, iaçartcea, erasotea.  
Iauzeura, iaunzeua, iaunztura, soinecoa, iauntcia.  
Ibaia, ibasoa, uhaitça.  
Ibentcea, iphiñiteea, eçartcea, pharateea.  
Ibilqui dena, dabilana.  
Içaria, neurria, neurcaia.  
Içarriteea, içar batec beçala arguitcea.  
Ichquiritua, oihu mina, deihadar samina, uhatcha.  
Icipr, ieicor, heldurti, icibera.  
Ideren, idoro, ediren, aurkhitu.  
Idoquiteea, khentcea, atherateea, ialguitcea, ithoitea.  
Iduripena, bardincuntea, bardincatee, erkhatce, ichu-  
rapen bat.

Iendaquia , nacionea , populua .  
 Ihaquina , iñaquiña , iseca , nausa , burla , trufa .  
 Iharduquitcea , iarduquitcea , ezta badateea , escatimacea .  
 Ihatchea , ihetchea , gauça çahartua , bigateua .  
 Ibourri , lurrean hedaturie , barraiaturic , iñaurri .  
 Ikhertcea , ikhartcea , artharequin mirateea , bilhatcea .  
 Ikhusearia , ustecabean agueriu cerbaiten ikhustea .  
 Ikhusgarria , espantua , miracuilua , ikhustecoa den bat .  
 Ikhustatea , beguirunea , errespetua , lotsa , abalquea .  
 Ikhuztea , garbitcea , chahutcea .  
 Ilhargui arteac , aldarteac , ilhargui aldiac .  
 Ilkhi , jalgui , athera , irten .  
 Ioaqui dena , iohan dena , dohana .  
 Ioria , nasaia , ugaria , nasaiqui dena .  
 Ipharra , norteco haicea .  
 Iraçagulcea , eçagut-araztea , — iraqagutea , seinalea .  
 Iraçquitcea , iratchequitcea , icequitea , phiztea , biztea .  
 Iragaitea , alde batetic berteera ioaitea , — iragan , ioan .  
 Iraitztea , egoiztea , botateea , etchatee , aurthiquitcea , urthuquitia .  
 Iratchequitcea , eratchequitcea .  
 Iraua , iraina , laidoa , hidoya , goitçarrena .  
 Iraultcea , itçultcea , utçultcia .  
 Iraztea , iragaztea , iragan-araztea esnca cimitcean beçala .  
 Irequi , idequii , çabaldu .  
 Irioitea , ioan-araztea , gastateea , esteialcea , chahutcea .  
 Iriontcea , egortcea , igortcea , bidaltcea , bialtcea .  
 Iritei , iduritci — oniritci , onhetsi , maithatu , — gaitziritei , gaitcetsi .  
 Itçulpidea , atçaquia , estaeurua , aitçaquia .  
 Itçuri , ihesi , — itçurpidea , ihesbidea .  
 Izpia , phitsa , gança phochi , phichca bat .

*Siaca iraia oha*

## K

Khacheta , iar-alkhi ttipi çurezco bat .  
 Khechu , guiraque , barnetic quilica , sugar .  
 Kheinua , eguiramua , sinoa , — kheinateea , iotcera eguitea , mehatchatcea .  
 Kherruztateea , kherruz eikhintcea .  
 Khiratsa , khiretsa , góçora edo usnara içar dena , kharatsa .

Khorbea, gambela, idi, behi, ealdi ian-asca, hodia.  
 Khordocatcea, higni-araztea, khordocan, colocan ecar-tea.

Khotsua, khutsua, khocia, ieturria.

## L

Laborea, labean eguin ogua, arthoa.

Laça, ernaia, sumberra, sumera. *Titjalo*

Laidoa, escarnioa, hidola, iraua, iraina, goitçarrena.

Lakhet dut, ohi dut, maite dut.

Lamboa, hedoia, — su lamboac, su garrae.

Landerra, on-beharra, gabea, eztuena, chiroa.

Landetchea, borda, bordaldea.

Laphurra, ohoina, ebaslea, — laphurdeia, laphurte-gua, — Laphurdi, laphurtegui.

Larderia, mehatchua, kheinate bat.

Larraina, larrea, — ezcaratxa, ogui ioiteco eta haiçateeco lekhua.

Larrapota, otthea, larrapettitta, llarhotia.

Larritua, laztua, icitura, beldurtua.

Larumbata, laurembata, ebiacoitxa, nescaneguna, iracoitxa.

Laztua, larritua, icitura, lotsatua.

Legarra, ur hegrietako harri chehea, legorra, garalla, — cerga, cerguera.

Leguez, beçala.

Leguique, eguin leçaque.

Lehiatuqui, lehiarequin, lasterrez, lausterrez.

Leihorra, lurra, ur bazterra, — atherbea, guericea.

Leinua, familia, odola, ethorquia, sortçapena.

Lekhat, landan, lekhot, hau edo hori utz eta bertcea.

Lekhora, campo, — lekhorera, campora, albera.

Lekhuco, lekhucotasauna, iaquile, iaquilegoa.

Leloa, omena, ospea, deithatea, aiphamena, aiphua.

Lerdena, chuchena eta meharra edo garhia.

Ligate, laite, laiteque,

Licurta, licaia, miriticia.

Likhitsa, satsua, liçuna, eikhina, lohia, hatsa, theiu.

Liluratea, lilluratea, cilibocatcea, argui guebieguiz nahasiqui ikhustea.

Limburitcea, lerratea, limurtcea.

Liphar, lipher, limber bat, guti bat, — cembait.

Liro, abal leçaque.

- Liscarra, escatima, aharra, iharduquitce bat, arritza  
iscambilla.
- Logalea, lo eguiteeo gura, beharra.
- Lohacartu, loae hartu, lokhartu.
- Lohia, satsua, likhitsa, cikhina, — gorphutxa, — lo-  
hadarra, alderdia.
- Loloa, lelea, çocoña, adimendu gabea, erlęoa, narra.
- Lotcea, estecatcea, — hartcea, azharcatea.
- Lotxa, abalguea, heldurra.
- Lur-ebaquiz, pheçoinex, lur-çothalez.

## M

- Mailebna, prestamuz, iesaitez har edo emaitza, mai-  
legua.
- Maithagunea, onhesgoa, amodio, oniristea, eneristea.
- Malkharra, maldarra, aldapa, munua, ikhea.
- Mamua, mamutxa, iratchoa, lamia, khurtsoa.
- Marrubia, hurrubia, marruma, arrama, orroa.
- Mecua, aguinctxa, manua, — mandatua, gnezna.
- Mendebala, iguzqui sartaldeco haicea.
- Mendecua, gaizqui eguinaz iaçartcea.
- Menecoa, mempecoa, azpicoa.
- Mengoa, beharra, baitezpadacoa, premia.
- Miratcea, artharequin bilhateea, ikhertcea.
- Mirestea, espantatcea, harritcea.
- Miriteia, licurta, licaia.
- Morroina, muthil gaztea, norhabea, nerhabea, — schia,  
michcandia.
- Mordoa, — mahats molkhoa, moreosta, mardoa, burua.
- Mortua, hasoa, oihana, bortua, eremua, ermua.
- Mota, mueta.
- Mozcorra, bordia, guehiegui edana.
- Mucurru, mucuru, gaindizea, ecin guebiago atchiquica.
- Muga, ordua, aintcea, aintzia, — chedea.
- Mugaldia, ocasionea.
- Mugarria, mugatçat ecarri harria, cedarria, muga,  
mugartxa, martea.
- Muguidura, bulkhatce bat, higuidura.
- Murteia, behaztoparazgarri harri edo erro tcar cembai.
- Muthiria, laster eta indarrequin dohana.

## N

- Nabaritcea, hautemaitea, obartcea.  
 Naharoa, nasaia, ugaria, ioria, naroa, ausarqui dena.  
 Nardagarria, pastica, nahas, naharica, greugarri, goragalea.  
 Nasaia, naharoa, liscoa.  
 Nasqui, arauz, arai, ahal.  
 Nausa, ibaquina, trufa, irianausa, iñaquiña, goitcarrena.  
 Ninicatua, ninicac, boteac egozten dituena, hocitua, itehatchequi duena.  
 Niosten, erraiten nioten.  
 Niotsuen, erraiten narotcuen.  
 Norhabea, nerhabea, morronia, guicon gaztea.  
 Niro, neçaque.

## O

- Ocena, ots, harrabots, oihu, mintço errechqui adigarria.  
 Ohantcea, ohatcea, etcauntea, cafia, habia, ohea, chistera.  
 Ohartcea, nabaritcea, hautemaitea.  
 Ohicunitça, ohitça, astura, hantzura, athuna, usantça.  
 Ohola, taulatto chabal mehe luçaran bat.  
 Oilarritcea, oilarrac goicean ioiteco muga.  
 Oindagora, hendagora, orpoa, aztala.  
 Oinhazcatea, oinhaccezatea, oinhace, min eguitea.  
 Okher, begui bakhoizdun, — makher, ceihar.  
 Oldartcea, norbaiti edo cerbaitetara iauztea, iauzteco bolta hartcea, — oldar bat, aphur bat.  
 Omena, ospea, leloa, fama, otsa.  
 On-beharra, esteiaria, landerra, gabea, escalea.  
 Ondarrecoa, hondarrecoa.  
 Ondicoa, çorigaitea, nahicabea.  
 Ondoreca, ondorioa, ondocoa, — leinua, odoleco umea.  
 On-erastea, on-edastea, onguia erraitea.  
 Onhesgoa, maithagunea, oneristea, oniriztea.  
 Oniriztea, oneristea, onhestea, maithatcea.  
 Ophorra, gophorra, gathelua, untei bat.  
 Ora, chakurra, photchoa.  
 Ordaina bihurtcea, hartu beçambat guibelat emaitea.  
 Ordain, orde dena, bertce baten lekhuan dena.

- Ordoquia, celhaia, naba, harana, ibarra, hodia.  
 Orracea. — ezti orracea, beresca, berasca, abarasca.  
 Osaquina, miricua, barbera, acheterra.  
 Osatcea, sendateca, ouguitcea, ontsatcea, oso edo  
     sendo eguitea.  
 Ospea, omena, Ieloa, fama, otsa.  
 Osquia, oinetacoa, capata.  
 Ostea, araldea, aldea, multcoa, elia, dia.  
 Otharrea, carea, sasquittoa, çarampoa.  
 Othe da, bada ala ezta, — cer othe da, cer diteque.  
 Othurunça, ianaldia.  
 Otsa, habarrotsa, açantça.  
 Otthea, larrapota, larrapettitta, llarhotia.  
 Ozpina, arno minthua, minkhartua, — hortei erortcen  
     dena, ozpirina.

## P

- Pairua, pairamena, oinhacea, pairaearia, mina.  
 Papurra, phuchea, phichea, phorrochea, cathichea.  
 Parra-choria, etche, elica, orma-choria, choarrea.  
 Pertaila, petrilla, soinecoaren expaina, hegulia.  
 Pherreta, çurezco eta burdin usteiequilaco pegar bat.  
 Phichca bat, aphur, liphar, lipher, guttitto bat.  
 Philda, soinecoa, tresna, iaunteia.  
 Phitsa, phichea arin gueiz aphur bat, izpia.  
 Pittica, ahuña, ahumea, ahuntz umea.  
 Phizeor, bazcar, indartsu, gothor, muguer.  
 Pochelatcea, trabateca, baratcea, debecateca, era-  
     goztea.  
 Potchoa, chakhurra, ora.  
 Putçua, citho bat urez bethea, osina, euphua.  
 Pulumpatuá, urean estali artean sarthua, buhumbatua.

## Q

- Quidea, bardina, — sehi-quidea, sehi laguna.  
 Quiscaildua, cascaildua, achala suan erreric duena eta  
     ikhaztua.  
 Sabaia, bibiteguia, soilharua, selhanrua, aleteguia, ga-  
     riteguia.

## S

- Saila, lan-aldia, — sailea, andanaca.  
 Sakbaitcea, odoleraino gogorqui çauricea.



Saldoa, andana, multgoa, araldea, aldea, dia, thaldes.  
 Salhatecea, norbaiti gauça gorde bat eçagut-araztea.  
 Samatsa, ongarritaco ihaurtu othea, lastoa, iratcea,  
     iñastorra.  
 Samina, mina dena.  
 Samurra, bera, uechterra, biguña, mardoa, mardula.  
 Sarrasquia, çauri odoltsu handia, — gorphutz hila, hi-  
     liquia.  
 Sarri, laster, aphur baten buruan.  
 Satsua, hatsa, liquitsa, eikhina, lohia, liguna, theiu.  
 Selhaurua, sabaiia. — baranda, galeria, balcoina.  
 Sesca, khanabera, garritea.  
 Sethiatecea, etsaiac inguru inguru herstea.  
 Sinhesper, sinhescor, sinhesbera.  
 So eguitea, behatecea, beguiratcea.  
 Soilharua, selhaurua.  
 Soina, bizcarra, espalda, — soinecoa, iaca, gona, çaja.  
 Sorbalda, soin gaina.  
 Sorhaihoa, leguenartsua, oro çakhar den eri bat, — an-  
     tsicabea, ez acholatia.  
 Soria, cilhegui, haiçu, hide dena.  
 Sorterroa, ethorquia, sortçapena.  
 Sortha, çama, carga, seldorra.  
 Sosegua, guelditasuna, gueldialdia, ukhuria.  
 Sumintcea, haserretcea, samurteea, khechatcea.  
 Suntsitcea, itsabastea, beguiatarie betbetan beçala itçal-  
     teea.

## T

Thaldea, aldea.  
 Thirian, irian, — arratsirian, arrasthirian, arratsa has-  
     tearequin.  
 Toantorra, garai garaia, erpiña, cuculua, moco moco,  
     capeta.  
 Tresnac, phildae, soinecoac, — laneco behar direnae,  
     lancaiac, lanhabesac.  
 Tricatcea, aphur bat baratcea, guelditea.  
 Tulubioa, ur, uri, haice erauntsi handia, ekhaitęa.  
 Tustoa, molchoa, multgoa, potçocoina, athia.

## U

Ugaria, nasaia, naharoa, asco dena.  
 Ugaçea, bulharra, dithia.

- Uharra, uhaitça, uhausina.  
 Uhea, makhila luce bat, — uhateeа, uheaz iotcea,  
     eraunstea.  
 Uheri, urez hanturie eri.  
 Uherritea, higuitcea, nahastea, erabiliz cikhintcea.  
 Uhina, itsasoaren olac, holac, bagae.  
 Uholdea, ur handia, ibaia bere muguetaric ilkhia.  
 Ukhabila, ukhumihoa, escu bildua.  
 Unhatua, enheatua, akhitua, nekhatua.  
 Unga, neurri bat.  
 Unhidea, eredosquitçailea, hazten duen emaztea.  
 Umeçurtça, umaqurtça, çurtça.  
 Urgaiztea, laguntcea, norbaiti alde eguitea, aldetcea.  
 Urkhabea, urkhatecoo habea.  
 Urkhoa, hurcoa, hurbilecoa, — protsimo laguna.  
 Urruric, dohainic, emoiic.  
 Usantça, ohitça, ohicuntça, hantzura.  
 Ustantça, uste icaitea norbait edo cerbaitetan.  
 Ustegoa, ustequida, ustantça.  
 Uzta, ereintcen, elgueen biltçapena, uztaila.  
 Uzteritea, beratcea, hauscor, urracor bilhacateca.  
*Unmarazteasentziaragia*

*Hauteman bedi*, hiztegui labur huntas diren hitzeak  
 eztirela, berenaz adi ditezquen, eta Ebanyelioetan, adi-  
 teen ere diren alde orotarat hartuac; bainan maiz alde  
 bereci batetarat harteen dira eta chehatcen, Ebanyelioe-  
 taco leku cembaitetan chuchen adi ditecentçat. Eman  
 içan çaien chehaduran ere huni behar da behatu, ecarri  
 içan direla, hitz baten adigarritçat, bertce bi, hirur,  
 laur, bortz hitz lerroan; ecen ezta escual herri guecietan  
 gauça beraren erraiteco molde bera. Beraz, guecie bar-  
 din adi deçatentçat, ecarri behar içan dira guchienen  
 eçaguteaco diren hitzœ; eta horrela guertha daite ba-  
 tçuenicat arduracoa den hitz bat, edo hizeuntça bat,  
 bertceentçat içan dadin arrotz. Ongui ethorri egun  
 bioço bakhotchac bereari; beguira bedi ordean bertce-  
 rena, eçagutzen eztuelacotz, huts egun batentçat har-  
 teetir.

